




ASCENSIÓN PASTOR PORRES
BEATRIZ SALAVERRI AGUILAR

BIZKAIA ETA BERE
ERAKUNDEEN HISTORIA
LABURRA

5




BIZKAIA ETA BERE ERAKUNDEEN HISTORIA LABURRA

Creative Commons:

Atribución-CompartirIgual 3.0 Unported (CC BY-SA 3.0)

(<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.es>)



Portada: Señorío de Vizcaya. Mapa de Tomás López, (1769)

© Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra, 2017

Diseinua: FPEV

Elkarlanean:



ISBN 978-84-948125-1-4

Eskubide guztiak babestuta

AURKIBIDEA

SARRERA

I. LEHENENGO MENDEAK

1. Mitoak eta errealitateak

1. MITOA: ARRIGORRIAGAKO GUDA ETA BIZKAIKO
LEHENENGO JAUNAK

2. Bizkaiko Jaurerria, lurraldeen integrazioa Jaunaren boterean

3. Hiribilduak eta bere erakundeak Jaurerri-sistemari egokitzea

4. Bandoen arteko borrokak eta horien errepresioa

II. ANTOLAKETA PUBLIKOA. FORU ERREGIMENA

1. Jauna eta bere harremana bizkaitarrekin. Kaparetasun unibertsala.

2. Lurraldeak eta bere antolaketa

3. Jaurerriaren gobernua

4. Bizkaiko foru-zuzenbidea

III. ARO MODERNOA. XVI. ETA XVII. MENDEAK BIZKAIAN

1. XVI. mendeko biztanleria

2. Bizkaiko XVI. mendeko ekonomiaren alderdirik nabarmenenak:
nekazaritza, arrantza eta merkataritza

3. Burdinolak

4. Ontzi eraikuntza eta pirateria

5. XVII. mendeko krisia

6. Nekazaritza XVII. mendean

7. Politika eta gizarte gatazka. Gatzaren matxinada

IV. XVIII. MENDEA: BIZKAIKO ARO DISTIRATSUA

1. XVIII. mendeko Euskadiko alderdi demografiko nabarmenenak

2. XVIII. mendeko Bizkaiko ekonomia, nekazaritza eta gizarte egitura.

3. Bizkaiko bideak XVIII. mendean
4. Matxinadak
5. Euskalerraren Adiskideen Erret Elkartea
6. Bilbo eta Bizkaia XVIII. mendean

V. XIX. MENDEA. KRISI GARAIA

1. XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasierako asaldaketak
2. Gerra Karlistak
3. Bergarako Hitzarmena
4. 1839ko urriaren 25eko Legea
5. Foruen indargabetzea

VI. BIZKAITARREN UNIBERTSALITATEA ETA

EUREN PARTE-HARTZEA MONARKIAREN ENPRESETAN

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Obra honen bitartez, Bizkaiko Jaurerriaren Historiaren ikuspuntu sinple, laburra eta, ahal badugu, atsegina eskaini nahi diogu irakurle orori, batez ere, foru-erregimenaren inguruan, bere hastapenetatik XIX. mendean Foruak indargabetu zituzten arte.

Irakurleak ez nahasteko asmoz, ahal izan dugun heinean izen, data, eta gertakari gehiegi ez jartzen saiatu gara. Bestela, irakurketa astunagoa bihurtuko litzateke, eta ez da hori jaso dugun enkargua.

Dena den, izen eta kronologia erreferentzia ugari erabili behar izan ditugu. Izan ere, une oro irakurketa errazten saiatu garen arren, horrelako lan historiko batek zehaztasuna eskatzen du.

Ildo horretan, behin eta berriro obra bukaeran adierazitako bibliografian oinarritu gara, aipuak alde batera utziz, hala eskatu baitigute, eta, historia historia den arren, gure ikuspuntua ekarri dugu. Gure esker ona bidali nahi diegu aipatutako iturrien autoreei, horietako asko Deustuko Unibertsitatean gure irakasle edo adiskideak izan direnak.

Bizitza osoa irakaskuntzan eman eta gero, baliteke orri hauek izaera ahalik eta didaktikoena izatea, edo behintzat hori espero dugu. Lortu dugun edo ez, irakurleei dagokien epaia da.

Ascensión Pastor eta Beatriz Salaverri Aguilar

I. LEHENENGO MENDEAK

1. Mitoak eta errealitateak

Gaur egungo Bizkaia¹ osatzen duen lurraldearen jatorria neurri batean ezezagun handia da oraindik. Gai honen inguruan iturri fidagarriak falta direnez, hipotesi ezberdin ugari sortu izan dira. Horietako batzuk mito eta kondairen eremuan koka daitezke eta maiz ardura zientifikoekin zerikusirik ez duten sentimendu eta aurreiritzien eragina izan dute.

Bizkaiko garai primitiboei buruzko mitoak Behe Erdi Aroa eta batez ere, XVI. mendetik aurrera idatzi ziren. Kasu batzuetan, autore jakin batek asmatu zituela esan daiteke, helburu zehatz bat lortzeko historia faltsutuz. Herri-irudimena ere ez dago baztertzerik, kondairen ohiko iturria baita, baina kontuan izan behar da, mito asko kronista eta genealogistek sortu zituztela, Bizkaia goratu edo leinu bati ospea emateko xedez.

Zenbaitetan mito eta kondairek benetako gertakari edo pertsonaia batean dute jatorria, irudimen kolektibo edo indibidualak fantasiatzeko elementuekin apaindu eta handitu dutena. Hau pertsonaia edo gertakari hori goreszteko grina kontziente edo inkontzientearen emaitza da, ondorengo erakunde edo pribilegioak justifikatzeko. Askotan autoreek ahozko tradizioen bitartez ezagutu izan dituzte euren obretan adierazitako mitoak eta beraz, era interesatuan gertakarien inguruko desinformazioa zabaldu izan dute.

Mito horietako batzuk dogmak bezala mantendu ziren hainbat mendetan zehar, Jaurerriaren duintasuna eta bere erakundeak eta interesak babestuz. Gaur egun kondaira horiek ez dute lekurik datu kontrastatuak eskaintzen

dituen inolako lan historiko serioan, baina mito batzuek eragin izugarria izan dute euskal gizartearen parte garrantzitsu baten sentimendu eta sinesmen politikoetan.

Jarraian Aro Modernoko Bizkaiko historiagileen eraginez gehien zabaldu zirenak zehaztuko ditugu.

Hiru dira mito nagusiak: lehenengoa, Arrigorriagako gudua eta Bizkaiko lehenengo Jaunak; bigarrena, Bizkaiko kantabrismoa; eta hirugarrena, antzinako monoteismoa eta lehen orduko ebanjelizatzaileak Bizkaian. Azken mito honek euskaldunen eta euren hizkuntzaren urruneko jatorri etnikoa ere funtsatu gura izan du.

1. MITOA: ARRIGORRIAGAKO GUDA ETA BIZKAIKO LEHENENGO JAUNAK

Pedro Barcelos eta Lope Gartzia Salazarek ematen dute guda honen berri, antza, IX. mendean jazo zena. Autore biek gertakari berdinari buruzko bi bertsio ezberdin aurkezten dituzte, funtsezko alderdi batzuetan bat etortzen direnak, baina ezberdintasun esanguratsuak ere dituztenak.

Barcelosek *Livro dos Linhagens* idatzi zuen XIV. mendearen lehenengo partean. Obra horretan kontatzen digu Froom Jauna delakoak, Ingalaterrako Erregearen anaia, bizkaitarrei, euren jauna egiten bazuten, tributua eskatzen zien Asturiaseko konde baten opresioaren aurrean herria defendatu eta gidatzeko laguntza eskaini ziela. Hala egin zuten eta Moninho Jauna Asturiaseko kondea bere jendearekin tributua kobratzera azaldu zenean, Froom Jauna eta bizkaitarrak garaile atera ziren, Moninho Jauna eta beste hainbati heriotza emanez. Guduan isuritako odolak harriak gorritz tindatu zituen, tokiari izena emanez, Arguriega (Arrigorriaga), harri gorrien lekua. Froom Jaunaren ondoren Bizkaiko Jaunak agertu ziren. Izan ere, bere lekua Furtam Frooez bere semeak hartuko zuen, eta bere atzean azken honen semea Lope Ortiz etorriko zen, eta ondoren Didako Lopitz.

Mende bat beranduago Lope Gartzia Salazarrek gertakari berdina kontatzen digu *Bienandanzas e Fortunas* obran.

Bere bertsioan, aldiz, Leoneko Erregearen seme bat izan zen guda hasi zuena, bizkaitarrak, Gaztelako parte izanik, Leongo Erregearen aurka altxatu eta gero. Leondarrak errege-odoleko buruzagirik ez zuen herri batekin borrokatu nahi ez zuenez, bizkaitarrek Jaun Zuria, Eskoziako Erregearen biloba, hartu zuten buruzagitza. Paduran borrokatzea adostu zuten eta bizkaitarrak gailendu ziren, Leongo Erregearen semea eta bere armadako kide askori heriotza emanez. Geroztik tokiak Arrigorriaga izena hartu zuen, harriak tindatu zituen odolaren ondorioz. Bizkaitarrek orduan Jaun zuria Bizkaiko Jaun izendatu zuten eta hor hasi ziren Bizkaiko Jaunak.

Bi bertsioek gertakari berdinez hitz egiten duten arren, ezberdintasun nabarmenak dituzte.

Barcelosentzako Froom izan zen bizkaitarrak gidatu zituen buruzagia, Ingalaterrako Erregearen anaia. García Salazarren istorioaren arabera, ordea, Zuria izan zen, Eskoziako Erregearen biloba. Borrokatzeko arrazoiak ere ezberdinak dira eta baita Leoneko armaden buruzagiak, Moninho (Munio) Jauna lehenengoarentzako eta Leongo Erregearen semea bigarrenaren kasuan. Horrez gain, istorio bakoitzean guda leku ezberdin batean garatzen da eta ezberdina da ere autore bakoitzak ematen duen Bizkaiko Jaunen ondorengotza-zerrenda.

Ezberdintasun hauek agerian uzten dute autore biek iturri desberdinak izan zituztela, hau da, Gartzia Salazarrek ez zituela Barcelosen datuak erabili. Baliteke bertsio biek ahoz-aho transmitituz joan zen tradizio batean oinarria izatea, nukleo zentrala mantendu zuena, baina xehetasun ezberdinekin.

Ez dago Arrigorriagako guda delakoa egiaztatzeko daturik, baina posiblea da tradizio hau Asturias eta Leoneko Errege eta euskaldunen

arteko borrokekin lotuta egotea, kronista asturleondarrek gutxi gora behera garai berdinean kokatu zituztenak (VIII. edo IX. mendean). Badakigu horrelako oroitzapenak idatzizko historiarik ez duten herrietan modu iraunkorrean kontserbatu ohi direla, ahoz-ahoz, nahiz eta denbora pasa ahala herri irudimenak transformatu eta handitzen dituen.

Tradizio honi beste elementu bat lotu zitzaion, Lope Gartzia Salazarrek *Bienandanzas e Fortunas* obran (XV. mendea) lehenengo aldiz aipatzen duena, eta seguruenik berak asmatu zuena: bizkaitarrek Jaun Zuriarekin egindako hitzarmena Bizkaiko Jaun gisa aintzat hartuz. Gartzia Salazarrek adierazten duenez, bizkaitarrek berarekin mendiak eta landak banatu eta zenbait eskubide eskaini zizkioten. Horren truke, Jaun berriak Gernikako Antiguako Andra Mari ermitan zin egin zuen euren frankizia, askatasun, usadio eta ohiturak babesteko, Leoneko Erregeek lehenago eta orain euren Jaunak ziren Gaztelako kondeek (*“agora eran sus Señores”*) beti errespetatu izan zituzten bezala.

Ziur aski Gartzia Salazar bera da bere garaian dagoeneko indarrean zeuden erakunde hauek (Jaunaren eskubideak, honen Foruak zin egiteko betebeharra, eta abar) antzinatek zetozeela zabaldu zuena, erakunde horiek indartzeko xedez, bizkaitarren eta lehenengo Jaunaren arteko hitzarmen batetik jaio zirela esanez.

Gauza berdina toki askotan egin zen. Historian zehar maiz eman izan zaio antzinako jatorria euren legezkotasuna usadioetan oinarritzen dituzten (eta ondorioz, egiaztatzeko hain zailak diren) erakundeei. Esate baterako, XIII. mendean idatzitako Nafarroako Foru Nagusiaren hitzaurrean, antzeko tradizio bat agertzen da, anakronismo anitzekin. Kasu honetan nafarrek birkonkista hasieran Foruak idatzi zituztela kontatzen da eta ondoren Errege bat aukeratu eta honek Foruak zin egin behar izan zituela.

Inolako oinarri historikorik gabeko tradizio hau zabaltzearen helburua, *Nafarroako Foru Nagusiari* autoritatea ematea zen, nafarrek Erregeak esku hartu barik idatzi zutena, Antso VII. ondorengorik gabe hil eta bere iloba Champagneko Teobaldok (Frantziako noblea) tronua hartu zuenean.

Oso posiblea da Lope Gartzia Salazarrek aurretik tradizio hau ezagutzea, edo estilo berdineko beste batzuk, eta antzeko zerbait egitea bizkaitarren jatorrizko askatasunak justifikatzeko.

Hurrengo mendeetan, Jaun Zuriak bizkaitarrekin lurralde horretako Jauna bilakatzeko egindako hitzarmena mito eztaba daezina bihurtu zen, Bizkaiko eskubideak defendatzeko behin eta berriro erabiltzen zena.

2. MITOA: KANTABRISMOA

XVI. eta XIX. mendeen artean autore askok kantabrismoaren mitoaren berri ematen dute. Kronista horien aburuz, erromatar garaiko bizkaitarrek kantabriarrekin lotura zuzena zuten eta beraz, herri horrek erromatarren aurka egin zuen erresistentzian parte hartu zuten.

Antonio de Nebrija izan zen Kantabriako lurraldeak ekialdera zabaltzen zirela eta Bizkaia eta Araba barne hartzen zituztela esan zuen lehenengoa, XVI. mendean. Ondoren, Florian Ocampok ere ideia berdina transmitituko zuen eta beranduago, gauza berdina egingo zuten hainbat historiagile gehiagok, horien artean Morales, Garibay edo Mariana. Pozak, aldiz, “Kantabriako jurista” bezala aurkezten dena, zalantzak ditu Gipuzkoaren inguruan, baina ziur dago Bizkaia antzinako Kantabriaren parte zela XVI. mendean idatzitako testuan.

Mito honi oinarririk gabeko beste kondaira bat lotu izan zaio, *Crónica de Vizcaya de 1404* izeneko faltsifikazio batetik ateratakoa eta seguruenik XVI. mendean idatzi zena. Kronika horren inguruan, gaur egun beste autoreen erreferentziak baino ez ditugu kontserbatzen.

Tradizio honen arabera, erromatarrek ez zuten kantabriarren (eta horien barne, bizkaitarren) kontrako gerra irabazi. Ostera, kantabriar eta bizkaitarrez osatutako armadak Erroman baldintza berdinetan erromatarren

aurka borrokatu zuen. Kantabriarrak gailendu ziren eta bi parteek bakea hitzartu zuten.

Jakina, kontakizun hau mende horietan zabaldu ziren faltsifikazio bat gehiago da. Izan ere, Kristo aurreko I. mende bukaeran, Erromak kanpaina gogorren ondoren asturiar, galaiko eta kantabriarrak menderatu zituen eta herri horiek ez ziren Bizkaiko lurraldera zabaltzen.

Bizkaia inoiz ez konkistaturiko herria bezala aurkezten zuen mitoak onarpen ikaragarria izan zuen eta geroztik sarritan erabili izan da Bizkaiko askatasunaren defentsaren jatorri eta oinarri bezala.

3. MITOA: ANTZINAKO MONOTEISMOA ETA EBANGELIZAZIOA

Sinesmen honen arabera, euskaldunek Jesukristo baino lehenagotik jadanik praktikatzen zuten benetako erlijioa eta gurutzea gurtzen zuten. Adierazpen hau Estrabónek idatzitako bi testutan oinarritzen da, zeinetan geografoak penintsulako iparraldeko herri aurre-erromatarren usadioak deskribatzen dituen. Bere Geografian dioenez “*ez ordea zeltiberiarrak eta Iparraldeko beste lurralde mugakideetan. Horiek badute nolabaiteko izengabeko dibinitate bat, eta ilbeteetan gurtu egiten dute euren etxeetako atarietan egunsentira arte dantza eginez*”. Erritu hori kristautasunaren aitzindaritzat hartu zen, eta ez paganismo gisa, jainko bakarra gurtzen zutelako.

Obra berdineko beste pasarte batean Estrabonek hurrengoa esaten du: “*Kantabriarrei buruz esaten dute heroitasunaren erotasun puntu hori dutela eta euren kide batzuk atxilotu eta gurutzatu zituztenean, garaipen kantuak abesten hil zirela. Ezaugarri horiek euren ohituren basakeria graduaren adierazle dira*”. Bada, jarrera hau (kantabriarrei erreferentzia egiten diona, eta ez bizkaitar edo euskaldunei) garaipen kantu bat bezala

ulertu izan da, gurtzen zuten gurutzean heriotza jasotzeagatik, era profetikoan Jesusen heriotzaren aurretik gertatu zena.

Interpretazio honen defendatzaileek, mito eta faltsutasunetan oinarritzen diren istorioetan aurkitu izan dute monoteismo eta gurtza profetiko horretarako azalpena. Antzinako kondaira horiek diotenez, euskaldunek eta euren hizkuntzak garai biblikoetan dute jatorria eta garai horretan ere onartu egin zuten benetako erlijioa.

Horien arabera, Tubal, Jafeten semea eta Noeren biloba, Espainiako lehenengo biztanlea izan zen. Gune eusko-kantabrikoan ezarri zen eta bere jendea ekarri zuen lurraldea jendetzatzeko. Berak erakutsi zien benetako erlijioa, bere aitonarengatik ikasi zuena eta baita euskara ere, Espainiako lehenengo hizkuntza.

Adierazpen hauek Alfontso X.a Jakitunaren *Primera Crónica General de España*, Lope Gartzia Salazarren *Tercera Crónica General* (XIV. mendea), eta XVI. mendean Juan Mariana, Ocampo eta Garibayren obran, bestek beste, aurki daitezke. Garibayren aburuz, euskara Babeleko Dorrean sortutako 72 hizkuntzetako bat izan zen eta Tubalek ekarri zuen, Noeren biloba, uholde handiaren osteko 142. urtean, garaiko kalkuluen arabera k.a. 2163. urtearen baliokidea izango litzatekeena.

Aldez aurreko prestakuntza honi esker, bizkaitarrek oso laster erdietsiko zuten fede ebanjelikoa, Garibay eta Coscojalesek XVI. mendean aitortzen zutenez, garai apostolikoetan hartu zutena. Garibayren arabera, Jakuek Kantabriatik gertu predikatu zuen eta Done Saturdik, San Joan Batistaren dizipulua lehenengo eta Done Petrirena gero, Nafarroan predikatu zuen. Coscojalesek dio Bizkaiak Ebanjelioa jaso zuela *Jaunaren Igokunde loriatsuaren* ondoren (*Antigüedades de Vizcaya*, Mañaricuak aipatzen du).

Suposizio guzti hauen artean, ez dago datu ziur edo sinesgarririk eta, beste alde batetik, Estrabonen testuen inguruan egiten duten interpretazioa argi eta garbi ausartegia da. Hala ere, mito honek ere onarpen handia izan zuen hurrengo mendeetan.

Mitoen kontua alde batera utzi eta ikerketa zehatzagoetara jotzen badugu (Sanchez Albornozen ikerketa adibidez, edo beste azterlan berriagoak), gaur egungo euskal probintziak eta Nafarroan bizi ziren herri aurre-erromatarren ideia nahiko hurbila lor dezakegu. Lurralde hauetan lau tribu edo herri zeuden. Baskoiek gaur egungo Nafarroa okupatzen zuten, eta seguruenik hegoaldetik Ebroraino iristen ziren eta mendebaldetik, Oiartzun edo Bidasoa ibaira. Barduliarrek gaur egungo Gipuzkoa ia guztia hartzen zuten, hegoaldetik Nafarroako mendebaldera eta Arabako ekialdera ailegatuz.

Gaur egungo Bizkaian bi herri bizi ziren: karistiarrek eta autrigoiak. Karistiarrek erdialdeko Bizkaia, Durangaldea eta Debako mendebaldeko arroa (gaur egun Gipuzkoa dena) hartzen zuten. Ekialdetik Debako ibaian barduliarrekin muga egiten zuten, mendebaldetik Nerbioi ibaira heltzen ziren eta hegoaldetik Arabako lurralde gehiena hartzen zuten, Trebiñora arte, latinez *Trifinium* deitzen zena, inguruko hiru herrien arteko muga zelako. Nerbioiko mendebaldean, autrigoiak kokatzen ziren, Enkarterri, Burgoseko Iparraldeko eta egungo Kantabriako lurraldea hartuz eta mendebaldetik Ason ibaian kantabriarrekin muga eginez.

Herri hauetako batek soilik hartzen zuen baskoien izena. Horregatik, teoria ezberdinak daude beste hiruren nortasun euskaldunari buruz.

Herri hauen hastapenei buruzko datu historiko nahikorik ez dagoen arren, azken ikerketen arabera, karistiar, autrigoi eta barduliarrek jatorri kultural indoeuroparra izango lukete, kantabriar eta zeltiberiarrak bezalaxe (Almagro Gorbea), mendebaldeko Pirinioetatik etorritako baskoiek erro kultural euskalduna izango luketen bitartean. Hala ere, herri hauek antzeko kultura-modu, ideologia eta gizarte-egiturak izango lituzkete. Baskoiek euskal hizkuntza (protoeuskara) hitz egingo lukete, ez indoeuroparra, euren bizimodu autarkikoa eta Pirinioetako haranen isolamenduari esker kontserbatu izango luketena.

Beranduago hartuko zuten baskoi adjektiboa lurralde honetako beste taldeek, autore batzuen arabera, baskoiak mendebaldera zabaldu zirenean (hau da, gaur egungo Euskadi), lurraldea kolonizatu eta bertako herriak xurgatu edo agian mugiaraziz. Baliteke ere herri ezberdin hauek Antzinaro berantiarrean aliantzak osatu izana eta, *baskoiak* herri garrantzitsuena izanik, euren hizkuntza nagusitzea.

Nahiko onartua dago “baskoi” eta euskaradun terminoak berdintzat jo zirela adierazten duen ikuspuntua. Beraz izendapen horrek hizkuntza hori erabili zuten herri guztiak barne hartuko lituzke.

Penintsula osoak erromanizazioa jasan zuen arren, errealitate bat da euskara eta aurre-erromatar garaiko ezaugarri kultural primitiboak lurralde hauetako gune zabaletan mantendu zirela. Baina hizkuntza eta antzinako usadioen iraupena azaltzeko teoriarik sinesgarrienak ez du erromatarren aurka erakutsitako erresistentzia sendo batez hitz egiten, baizik eta guztiz kontrakoaz.

Guneko meatzaritza, portuak eta komunikazio bideen kontrola hartu eta gero, Erromak ez zuen herri horien lurraldeak era sakonean kolonizatzeke interes handirik izan. Izan ere, gune atzeratuak ziren, zerealak hazteko ezegokiak, orografia nahasiarekin eta heltzeko zailak. Beraz, ez zuten interes ekonomiko ez estrategikorik Erromarentzako.

Berdin gertatu zen Kantauri isurialdeko landa-eremuetan eta, batez ere, baskoiak bizi izan ziren Pirinioetako haranetan, biztanleen ezaugarri autoktonoak hobeto kontserbatu dituen tokia. Nafarroako hegoaldea eta Araban, aldiz, erromanizazioa orokorra izan zen eta garai aurre-erromatarreko hizkuntza eta ohiturek indarra galdu zuten, Erromarentzako gune interesgarriagoak zirelako, eskuragarriagoak eta nekazaritza eta abeltzaintzarako egokiagoak.

Beste alde batetik, kontuan izan behar dugu aipatutako lau herri hauek ez zirela beti lurralde horretan finko egon, batzuetan adierazi izan den

moduan. Populazio mugimenduei buruzko datu frogagarriak existitzen dira eta badakigu hainbat mende lehenago beste herriak lurralde hauetan bizi izan zirela. Hala ere, egia da gune malkartsuetan edo kostalde inguruan ez zela hainbesteko kultura eta herri nahasketarik egon, eremu nahiko isolatuak zirelako.

Herri hauek eta Erromaren arteko harremanei dagokienez, ez dugu borroka armatuei buruzko berririk. Hortaz, harremanak onak izan zirela pentsa daiteke. Izan ere, erromatarrek erresistentzia aurkitzen zutenean, era zehatzean borroken berri eman ohi zuten, penintsulako beste herriekin egin zuten bezala, Kantabriako auzokoak, adibidez.

Harreman on horien beste erakusgarri bat baskoiak eta erromatarren arteko elkarlana dugu. Izan ere, tribu horretako indigena asko Erromako armadan integratu ziren, Ebroko haranean zeltiberiarrei aurka egiteko, gure aroko lehenengo mendeetako harri-inskripzioen bitartez egiaztatu ahal izan denez.

Erromako Behe Inperioaren garaian armonia hori hautsi egin zen, Inperioak III. mende bukaeran ekonomia, politika eta gizarte krisi sakona pairatu zuelako. Handik gutxira gainera, herri germaniarrek Mendebaldeko Inperioa desegingo zuten.

Garai bisigodoari buruzko oso datu gutxi iritsi zaizkigun arren, borroka eta gatazka garaia izan zela pentsa daiteke. Badakigu bisigodoek baskoiak menpean hartzeko kanpaina asko egin zituztela, baina inoiz ez ziren guztiz eraginkorrak izan. Teorikoki euskal gunea bisigodoen erresumaren barne egon arren (gogora dezagun Iruñeko Apezpikua Toledoko Kontzilioetara joaten zela), baskoiek intsumisio jarrera erakutsi zuten beti. Hori frogatzeko 711. urtean musulmanek penintsula inbaditu zuten momentua gogoratu besterik ez dugu behar: Rodrigo, bisigodoen azken erregea, Iruñean zegoen, *baskoien* altxamendu baten ondorioz.

Germaniarren menpeko aro honetan desagertzen hasten dira, hain zuzen ere, herri karistiar, autrigoi eta barduliarren izenak eta horiek guztiak baskoiak izen orokorra hartzen dute, herri garrantzitsuena baitzen. Seguruenik, Erromako Behe Inperio garaiko gatazken ondorioz hasi ziren iparraldeko tribu hauek elkarren arteko aliantzak egiten. Horregatik bisigodoen idazkietan *baskoiak* deitzen zaie guztiei. Hala ere, jatorriko tribuen arteko ezberdintasunak ez ziren desagertu. Horren adierazgarri euskalkiak ditugu, gaur egungo probintzien mugekin baino gehiago, aurretik aipatutako herriek antzinaroan okupaturiko lurraldeekin bat etortzen direnak.

Egia da IX. mende bukaerako *Crónica de Alfonso III* idazkian *Bardulies* izena erabiltzen dela VIII. mendeko Gaztelari buruz (orduan Burgoseko iparraldea) hitz egiteko. Dena den, ez dugu denborarik galduko Gaztelako iparraldearen izendapen hori azaltzeko hipotesiekin (kronistaren akatsa izan zela uste duten autoreak ere daude). Badirudi argi dagoela barduliarrek gaur egungo Gipuzkoako lurraldea okupatu zutela eta bisigodoen garaitik aurrera herri hori ez zela berriro aipatu.

2. Bizkaiko Jaurerria, lurraldeen integrazioa Jaunaren boterean

2.1 Prozesu historikoa

Musulmanen inbasioaren ondoren, VIII. mendean, Errekonkista hasten da, hain zuzen ere penintsularen iparraldean, eta orduan sortzen dira Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa, baina ez denak batera, baizik eta banan-banan eta bakoitza bere momentuan.

Ez ditugu prozesuaren zehaztasunak ezagutzen baina, VIII. mendean zehar Kantauriko kostalde inguruko antzinako erakunde tribalak itxuraldatu

eta egitura politiko aurreratuagoak bilakatu ziren. Horrela, inbaditzaileen aurkako borrokan bi aktore garrantzitsu agertu ziren.

Antzinako asturiarrak bizi ziren mendi eta itsasertzeko lurraldean Asturiaseko erresuma agertu zen eta antzinako baskoien lurraldean, Iruñeko erresuma. Erreinu biak laster hedatzen hasi ziren, Iparraldeko lurraldeen bilakaera baldintzatuz. Asturiaseko erresumak (beranduago Asturleondar erresuma eta ondoren Leongo erresuma deituko zena) hego ekialderantz jo zuen eta Nafarroako erresuma hego mendebalderantz zabaldu zen. Euskal lurraldeak momentuaren arabera bata edo bestearen menpe egon ziren, XIII. mendean Gaztelako erresumaren menpe geratu ziren arte, azken hau Leongo erresumatik banandu zenean.

Bizkaiaren kasuan, bere izenaren lehenengo aipua lehen adierazitako *Crónica de Alfonso III* obran agertzen da, 880. urte inguruan idatzitakoa. Kronika honek Alfontso I.aren mairuen aurkako espedizioak deskribatzen ditu, VIII. mende erdian, eta ondoren birpopulatu zituen gunek zehazten ditu. Hona hemen testua: *"Eo tempore populantur Asturias, Primorias, Liuana, Transmera, Subporta, Carrantia, Bardulies qui nunc uocitatur Castella et pars marítiman et Gallecie Alabanque, Bizcai, Alaone et Urdunia a suis reperitur senper ese possesas"*. ("Garai hartan hurrengo eremuak birpopulatu ziren: Asturias, Primorias, Liebana, Transmera, Sopuerta, Karrantza, Bardulia, gaur Gaztela deitzen dutena, eta itsas-gunea, eta Galizia, eta Araba, Bizkaia, Alaon eta Urduña, beti euren jendearen menpe egon zirenak").

Testu honen inguruko interpretazio ezberdinak alde batera utziko ditugu, izan ere, interpretatzaile bakoitzaren xede politikoen arabera, batzuek Bizkaiaren Asturiaseko erresumarekiko menpekotasuna defendatu eta beste batzuek bere jatorrizko independentzia aldarrikatzen dute. Baina errealitatea da testuak aipu geografiko bat besterik ez duela egiten, Bizcai deitu ohi zen lurraldea alegia, ziurrenik gaur egungo Bizkaiaren zabalera ez zuena. Ez zituen Karrantza ezta Sopuerta barne hartzen, hau da, Enkarterriko parte

bat, ezta Urduña eta seguruenik aipatzen ez diren beste eskualde batzuk ere ez, adibidez Durangaldea eta Enkarterriko gainerako udalerriak. Kronikak ez du gunearen antolaketa politikoari buruz hitz egiten eta beraz ez dakigu Bizkaiak momentu hartan berezko antolaketa politikoa zuen ala ez.

X. mendean dagoeneko, *Códice de Roda* kodexak “Momus comes Bizcahiensis” delakoa aipatzen du, Belaskita Andrearekin ezkondata zegoena, Nafarroako Antso Gartzez I.aren alaba. Honek nolabaiteko antolaketa politikoa zegoela adierazten du eta Bizkaia Nafarroako orbitan txertatutako konderri bat izango zitekeela pentsarazten digu. Hala ere, datuak ez dira lurraldearen zabalerari buruzko ondorioak ateratzeko nahikoak, baina badirudi oraindik Bizkaiak ez zituela Durangaldea eta Enkarterri barne hartzen.

XI. mendearen erdialdean *Enneco Lupiz Viscayensis comes* pertsonaiarekin topo egiten dugu, mende horretako testu anitzetan agertzen dena, Bizkaia eta Durangoko Konde eta gobernatzaile gisa. Baina ez zen Konde independente bat. Hasiera batean, Nafarroako erresuman kargu hori eginkizun administratiboetara mugatzen zen eta bere botereak Erregearen menpe zeuden. Dokumentuek ez dute Bizkaiko Konde honen eta Nafarroako lurraldeko beste Kondeen arteko ezberdintasunik erakusten, gobernu-botere eta eskumen militarrei dagokionez. Printzipioz, Erregeak Kondeak ordezkatu ahal zituen, baina Erdi Aroko Europan zehar ikuspuntu feudala zabalduz joan zen bitartean, kargu horiek ondarezkoak (eta beraz oinordetzazkoak) bihurtzeko joera agertu zen.

Estatu feudaletan nobleak maila goreneko noble edo Erregeen basailu egiten ziren. Horren truke benefizioak jasotzen zituzten, besteak beste lurrak, errentak, immunitateak edo karguak (hasieran ez, baina laster oinordetzakoak bihurtu zirenak). Basailutza pribatu bat zen, Erregearen gainerako menpekoei basailutza orokorraren ezberdina. Nahiz eta Espainiako estatu kristauek feudalismoa guztiz onartu ez zuten, Katalunia

izan ezik, sistema politiko horrek eragin handia izan zuen, batez ere noble eta Erregearen arteko harreman indibidualetan.

Hau izan omen zen oso goiztik Bizkaiaren kasua. Izan ere, bertako Kondeak botere handiak zituen eta Erregez aldatu arren, bere konderria mantentzen zuen. Horrenbestez, XI. mendean dagoeneko kargua ondarezkoa zela ondoriozta daiteke.

1076an, Antso IV.a Errege hil eta Nafarroako erresuma desegin zenean, Eneko Lopitz Kondea Gaztelaren bandora pasatu zen, Alfontso VI.aren basailu bilakatzeko. Orduan Gaztelako erresuma Errioxaraino zabaltzen zen. Ez dago Bizkaiko Kondeak Gaztelari erresistentzia egin ziola adierazten duen daturik. Ordea, elkarlanean harremana izan zutela pentsa liteke eta Kondea era baketsuan entregatu zela, Erregeak bere lurraldeekiko oinordetza-eskubideak aintzat hartu eta beste eskubide ekonomiko eta administratiboak baieztatzearen truke.

Badakigu Eneko Lopitz Kondearen ondorengoa bere semea Lope Enekoitz izan zela eta honek ere botere jurisdikzionala izan zuela. Izan ere, 1082an Muxikako Ugarteko San Vicenteko monasterioa, bere ondasun guztiekin, dohaintzan eman zion Donemiliaga Kukulari (San Millán de la Cogolla), ondasunen gaineko immunitatea emanaz, hau da, dohaintzan emandako lurak betirako Kondearen jurisdikziotik kanpo geratuko ziren eta honen ordezkariak ezin izango zuten bertan eginkizunik burutu. Kondeak bere menpeko lurralde batzuetan bere zereginei betirako uko egitean, lurralde horien gaineko oinordetza-botereak zituela adierazten digu.

Didako Lopitz, Lope Enekoitzen semea, Urraka Gaztelakoarekin elkarlanean aritu zen eta erregearen gainetik botere jurisdikzionalak jaso zituen 1110ean. Honek ez zuen eraginik izan Bizkaiko lursailetan, jadanik bere menpe zeudelako, baina bai beste eremuetan, batez ere Errioxan. Hain zuzen ere, Haroko gaztelutik hartu zuen Didako Lopitzek aurrerantzean berea eta bere familiaren abizena izango zena. Urraka Gaztelakoa Erregina eta bere senarra Alfontso I.a Borrokalaria Aragoi eta Nafarroako Erregearen

arteko liskarretan, Didako Lopitzek Gaztelako Erreginari laguntza eskaini zion. Horregatik galdu zuen, seguruenik, Bizkaiko Jaurerria, Nafarroako orbitara itzuli zena eta aurrerantzean Ladron Gebararen leinuaren menpe geratuko zena, 1180. urtera arte.

Jaurerria kendu ziotenean, Haroko leinua Gaztelako gortean sartu zen eta Erregearen inguru gertuan kokatu zen, familiako kideentzako kargu garrantzitsuak lortuz. Didako Lopitz Harokoa, izen berbera zuen aurrekoaren biloba, Errege-alfereza izan zen eta Gaztela Zaharreko gune zabalak gobernatu zituen ordezkari bezala. Honela deskribatu zuen Alfontso X. Jakintsuak *Primera Crónica General* liburuan: “*el mayor ome de Castiella entre todos los grandes que Señor avien*”. Dena den, 1201ean eta ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, Didako Lopitzek Alfontso VIII.a Erregearekin zuen basailutza lotura hautsi eta banandu egin ziren. Orduan Lizarrara erbesteratu zen eta bertatik, behin eta berriro eraso zuen Alfontsoaren lurraldea. Erantzun moduan, Gaztelako Erregeak, aurretik Araba eta Gipuzkoa konkistatu zituen, Nafarroa eraso eta Bizkaia okupatu zuen.

Azkenean, Nafarroa eta Gaztelako Erregeak akordio batera iritsi ziren eta Bizkaia eta beste bi probintziak era definitiboan Gaztelako orbitan txertatu ziren.

Hortaz, Alfontso VIII.a eta Didako II.a Lopitz Harokoa berriro adiskidetu ziren, ziurrenik 1206an. Horrenbestez, azken honek aurreko ondasunak berreskuratuta zituen eta beranduago, Errege-alferez kargua ere bai.

Harreman onak berreskuratuta, Bizkaia Gaztelan integratu eta hogeitaz beranduago, Didako II.a Lopitz Harokoak (izen berdineko azken Jaunaren biloba) Jaurerri juridikzionala berreskuratuta ahal izan zuen. Garai berdinean ere, Jaurerriaren lurraldea zabaltzeko egin zen, Durangaldea eta Enkarterri barne hartuz.

Bizkaiko gainontzeko lurraldeak bezalaxe, Durangaldeak garaiko gorabehera politikoetan parte hartu zuen eta txandaka Nafarroa eta Gaztelaren menpe ibili zen. Azkenik, eta Nafarroako Erregearen kontrako interbentzio militar baten ondoren, Alfontso VIII.ak Durangaldea Gaztelaren menpe jartzea lortu zuen, XII. mendearen azken urteetan. Era berean Araba eta Gipuzkoa konkistatu zituen. Urte gutxi batzuk beranduago, Alfontso VIII.ak Durangaldea betirako dohaintzan eman zion Didako II.a Lopitz Harokoari, Navas de Tolosako guduan (1212) eskainitako laguntza eskertzeko. Horrela, Durangaldea Jaurerriaren barne geratu zen, baina berezko erakundeak eta ezaugarriak mantendu zituen.

Enkarterri dagokionez, Jaurerrian sartu aurreko garaiko oso datu gutxi heldu zaizkigu. Antza, lurraldea ez zegoen bateratuta eta jaurerri txikien bitartez antolatzen zen. XI. mendearen erdialdean, Diego Alvarez jaunaren alaba batek, bertan ondarezko jabetzak zituen, Lope Enekoitzekin ezkondu zen, ezagutzen dugun Bizkaiko bigarren kondea. Seguruenik, ezkontza honen bitartez bizkaitarrak bere boterea Enkarterriko lurretara zabaldu zuen. XI. mendeko amaieratik aurrera, Santurtzi edo Gordexola bezalako leku batzuk Haroko Leinuaren menpe geratu ziren. Eta Sopuerta, Karrantza eta Somorrostrok berdin egin zuten mende bat beranduago.

Beste alde batetik, XII. mendeko dokumentuetan, Enkarterriko gune bezala agertzen dira Burgoseko probintziako udalerri batzuk, ia beti Gaztelaren menpe egon zirenak. Hala ere, eta ez dakigu hori nola lortu zuten (agian ezkontza edo bestelako aliantzen bitartez), argia dirudi XIII. mendean Enkarterrik berezko erakunde eta ezaugarriak zituela eta Harokoen Jaurerriaren menpe zegoela. Eskualdeko gune eta hiribildu batzuk, dena den, beranduago txertatuko ziren Jaurerrian. Ostera, hasiera batean Enkartazioen parte izan zen beste guneren bat, Villaverdeko harana bezala (2005era arte Villaverde de Trucíos deitu zena), Kantabriaren menpe geratuko zen.

Kasu ezberdina dugu Orozkoko Haranean, Aiarako Jaunaren jurisdikziopean egon zena, baina alderdi askotan ere Bizkaiko Jaurerrira lotuta zegoena. Azkenean, Aro Modernoan zehar hainbat istilu izan eta gero, guztiz txertatu zen Bizkaiko Jaurerrian.

Lurralde hauek Jaurerrian integratu zirenetik, maiorazkoaren erakundea izan zen Bizkaia, Durangaldea eta Enkarterriren arteko batasuna mantendu zuen tresna, lurralde horiek derrigorrean lotuta transmititzen zitzaizkiolako Jaunaren seme nagusiari. Lotura honi esker, aurrerago aztertuko ditugun erakundeak sortu ziren; Jaurerri osorako erakunde komunak, baina lurralde bakoitzaren berezko erakunde desegin ez zituztenak.

Pixka bat gehiago kostatu zitzaien Urduña eta Balmasedari Bizkaian sartzea. Ziurrenik 1220 inguruan integratu ziren Bizkaiko Jaunen ondasunetan, Lope II.a Diaz Harokoa Alfontso IX.a Leongoaren alabarekin ezkondu zenean. Hala ere, hurrengo mendeetan hiribildu hauek maiz aldatu ziren orbitaz, Bizkaiko Jaunek eta Gaztelako Erregeen arteko barne gatazken arabera, bata edo bestearen menpe geratuz.

Azkenean, XV. mendearen bukaeran hiribildu biak era definitiboan Bizkaiko Jaurerrian sartu ziren, oinordetza arrazoiengatik XIV. mendeko azken herenaz geroztik Gaztelako erregearen menpe geratu zena.

XIII. mende hasieran behin betiko Gaztelan sartu eta gero, Bizkaiko Jaurerria eta bere lurraldeek berezko erakundeak mantendu zituzten. Gainera, Jaunek lehenago zeukaten botere jurisdikzionalari eutsi zioten eta aldi berean Gaztelako Koroaren bizitza politikoan eginkizun garrantzitsuak lortu zituzten.

Bizkaiko Jaunak behin eta berriro agertzen dira Gaztelako Erregeen Kroniketan, Errekonkista garaian Erregeekin elkarlanean. Lope II.a Diaz Harokoak (1214-1236), adibidez, Fernando III.a Santuaren Kordobako konkistan parte hartu zuen eta berdin egin zuen bere semeak, Didako III.a Lopitz Harokoa, Erregearen iloba eta koinatua.

Alfontso X.aren erregealdian, Lope Diaz III.a (1254-1288) eta bere semea Didako Lopitz IV.a (1288-1292) Bizkaiko Jaunek era aktiboan parte hartu zuten Erregearen oinordetza gatazkan eta bere semea Antso IV.a errege bihurtzean sortu ziren istiluetan.

Didako IV.a Lopitz Harokoa goiz hil zen, ondorengorik gabe. Jaurerria beraz, bere arrebaren menpe geratu beharko litzateke, Maria Diaz Harokoa, Joan infantearekin ezkontuta zegoena, Alfontso X.aren semea. Baina bere osaba Didako Lopitz Harokoak eta Antso IV.a Erregeak berak ere Jaurerria nahi zuten. Azkenean, Erregeak Jaurerria bere semeari, Henrike infantea, eman zion.

Antso IV.a hiltzean, Didako Lopitzek egoera baliatu eta indarrez Jaun bilakatu zen. Dena den, parteen arteko hitzarmen bat sinatu zuten, bere hilketaren ondoren tronua bere iloba Mariak har zedin, horrek ere oraindik bere eskubideak mantentzen baitzituen. Eta hala gertatu zen. Maria Andreak bi agintaldi izan zituen; izan ere, gobernua bere semea Joan Begibakarraren esku utziz erretiroa hartu arren, Jaurerriaren agintea berriro hartu behar izan zuen bere semea karguan lau urte baino ez zeramatzala hil zutenean, 1326an, Alfontso XI.aren aginduz.

Joan Begibakarraren alaba, Maria Diaz Harokoa ere deitzen zena, Gaztelako noble batekin ezkondu zen, Joan Nuñez Larakoa, eta Bizkaiko Andrea bilakatu zen 1334an. Joan Nuñezekin jaun leinu berria hasi zen, Larakoa, Haroko Leinua ordezkatu zuena.

Joan Nuñez Larakoak ez zituen Jaun bezala Jaurerriaren mendietan zituen eskubideak ezta justizia kudeatzeko eskumenak ezagutzen. Horregatik 1342an bizkaitarrei kontu horiei buruz galdetu zien: *“preguntóles en como auian de pasar con el e con su prestamero en razón de la justicia e otro si en razón de los montes que de derecho auia en ellos e de los Fueros de Vizcaya cuales son, porque finquen establecidos para los que agora son e serán de aquí adelante* (Koaderno Penala Labayruk *Historia General de*

Bizcaya obran argitaratutakoa). Horrenbestez Bizkaian ohiturazko zuzenbide bat existitzen dela ikus dezakegu eta Jaunak aintzat hartzen zuela.

Gernikako Batzarrak, idatziz jasotako lehenengo jardueretako batean, hogeita hamazazpi kapituluko Koaderno bat idatzi zuen, Jaunaren galderei erantzuna emateko.

Bertan Bizkaiko kapare, zaldun eta ezkutariak batzartu ziren: “*todos los fijosdalgo de Vizcaya así de la Ferman-dad como los otros caballeros, escuderos de Vizcaya*”. Badirudi landako nobleziak interes handia zuela Jaunari justizia eta mendien aprobetxamenduari buruzko ohituren berri emateko. Gainera, Jaunaren eskubideak baino gehiago, kapareen (geroago hitz egingo dugu hauetaz) eskubideak jasota utzi nahi zituztela zirudien. Izan ere emandako erantzuna ez zen zehatzegia izan eta koadernoaren azkeneko zortzi kapituluetan besterik ez zen agertzen.

Seguruenik, Jaun berriari kapareen ondasun komunalen gaineko eskubideen berri emanez, kapareek Jaurerriaren errekurtsuez disfrutatzen jarraitzea bilatzen zuten, hiribildu berriak sortuz Jaunek hiribilduei errekurtsu asko entregatzen ari zizkietelako.

Koadernoaren eduki gehiena (hiru laurden baino gehiago), zuzenbide penal eta prozesalari buruzkoa zen. Izan ere, XIV. mendean landa munduaren arazo nagusia bandoen arteko gatazkek eragiten zuten delinkuentzia zen. Baina horri buruz beranduago hitz egingo dugu. Kontua da arazoari aurre egiteko, Koadernoak Jaunaren konpetentzia jurisdikzionalak eta bere justizia ofizialen eskumenak zehaztu ez ezik, deliturik ohikoentzako zigorrak espezifikatu zituela. Batez ere lapurretak eta etxeak haustearekin (“*quebrantamiento*”) zerikusia zuten delituak zehaztu zituen eta zigorrak, kasu gehienetan heriotza zigorrak zirenak, ez ziren autorearentzako bakarrik, baizik eta estaltzaileentzako ere.

Dokumentu gehiena horrelako edukiarekin betetzen zenez, idazkia *Joan Nuñez Larakoaren Koaderno Penala* bezala ezagutu da. Joan Jaunak 1342ko apirilaren 2an onartu zuen *Koaderno*a Palentzian.

Joan Nuñez Larakoa eta Maria Diaz Harokoa eta gero, euren alabak hartu zuen agintea, Joana Larakoa Andrea, Tello Jaunarekin ezkondu zena, Petri I.a Gaztelakoaren sasiko anaia. Batzuk eta besteen azpijokoek Joana Andrearen hilketa eragin zuten eta Tello Jaunak ihes egin behar izan zuen. Hori guztia Erregeak bultzatu zuen, egoera baliatuz Bizkaiko Jaun bilakatu zena 1358 eta 1366 artean. Tello Jauna eta Joana Larakoa Andreak ondorengorik ez zutenez, oinordetza-eskubidea Joana Manuel Andreari egokitu zitzaion, beste adar batetik Didako Lopitz III.a Harokoaren (Fernando III.a Santua Erregearen iloba izan zena) hereniloba zena. Joana Manuel Andrea delakoa Henrike II.a Gaztelakoaren emaztea zen, Tello Jauna itzultzean biziarteko Bizkaiko konde egin zuena, bere zintzotasuna eskertzeko.

Hau hil arte (1370) ez zen oinordetza gauzatu. Orduan, Erregeak Bizkaiko Jaurerria bere semearen esku utzi zuen, Joan infantea alegia, bederatzi urte beranduago Joan I.a Gaztelako Erregea bilakatuko zena.

Momentu horretatik aurrera, Bizkaiko Jaurerria Gaztelako Erregeen leinura pasatu zen. Gaztelako tronua oinordetzan hartzen zuena, aldi berean, berezko eskubidez Bizkaiko Jaun bilakatzen zen. Hala ere, horrek ez zuen Bizkaiko ohiturazko erregimenean aldaketarik eragin eta arau berdinekin jarraitu zuten, garai hartan orokorrean ohituran oinarritzen zirenak. Gaztelako Erregeek ez zuten Bizkaia euren lurraldera erantsi. Aitzitik, Jaurerria mantendu zuten, aurreko baldintza berdinekin, eta euren tituluen artean, dokumentu ofizialetan aipatzen direnak, beti hartu zuten barne *Bizkaiko Jaun* titulua.

2.2 Bizitzeko moduak: jarduera ekonomikoak

Erdi Aroko Bizkaiko biztanleek zituzten bizitzeko moduak aztertzeko, ezinbestekoa da lurraldearen morfologia kontuan hartzea. Izan ere, geologiak Bizkaiko Jaurerriaren (eta euskal probintzia guztien) antolaketa sozio-politikoa zeharo baldintzatu zuen eta ondorioz, eskualde bakoitzak bere ezaugarrien arabera forma sozial eta ekonomikoak garatu zituen. Horrela, Arabako lautada eta Nafarroa nekazaritza-guneak izan ziren, zeinek, Gaztelatik irisgarriagoak zirenez eta Al-Andalusetik (Espainia musulmana) gertuago zeudenez, musulmanek kultibo eta ureztapenean ekarritako aurrerapenei etekina atera zieten.

Bizkaia eta Gipuzkoak, ordea, klima leun eta hezea eta orografia menditsua zuten. Hortaz, isolatuago geratu ziren eta ekonomia txikiagoa garatu zuten, batez ere abeltzaintza, baso-ustiapena eta baratze eta fruta arbolen kultiboan oinarritzen zena, betiere familia-jabetza txikiaren esparruan, hau da, baserria. Hain zuzen ere, landako biztanleria sakabanatua eta populazio nukleo handien falta izan zen Goi Erdi Aroko Bizkaiaren ezaugarrietako bat.

Inguruabar horietan sortutako forma sozio-ekonomiko berezi horiek babestu eta denboran mantentzeko, Bizkaiko foru-zuzenbidearen jatorria diren berezko erakunde eta arauak sortu ziren. Baina horiek beranduago aztertuko ditugu.

Dena den bizkaitarrak ere beste jardueretan aritu ziren, nekazaritza eta abeltzaintzaz aparte. Burdinaren ustiapena, batez ere Enkarterrin, arrantza eta merkataritza praktikatu zituzten eta, nahiz eta jarduera horiek betebetan beranduago garatu ziren, garrantzi ikaragarria izan zuten dagoeneko Behe Erdi Aroan, ez bakarrik ekonomia aldetik, baizik eta Jaurerriaren garapen sozial eta instituzionalarentzako ere.

Badakigu XIII. mendean jadanik burdina ustiatzen zela Somorrostron eta Behe Erdi Aroan zehar burdinolak areagotuz joan ziren, Jaurerriaren jarduera ekonomiko garrantzitsuenetako bat bilakatuz. Sektore honek berezko araubide bat ere izan zuen, 1440ko *Bizkaiko Burdinolen Forua*,

burdinaren produkzioa, garraioa eta merkaturatzea sutatu eta babesteko, eta jurisdikzio berezi bat, Burdinoletako Alkatea, urtero burdinolen jabeek aukeratzen zutena eta jarduera honekin zerikusia zuten liskarrak konpontzeaz arduratzen zena. *Foru Berriak* Alkate hauen eginkizuna zehazten zuen, burdinolen kontuez besterik ezin zirela arduratu adieraziz (2. tit., V. legea).

Dirudienez, XIII. mendera arte arrantza kostaldetik gertu burutzen zen, baina laster euskal arrantzaleak arrantzalekuak urrunago bilatzen hasi ziren, marinel onak eta ontzigile trebeak izatearen ospea irabaziz. Jarduera honen bitartez, itsas garraioaren munduan sartu ziren.

Aldi berean, mende horretan merkataritzak garapen ikaragarria izan zuen Jaurerrian, batez ere Gaztelak artilearen merkataritzan izandako hazkundearen eraginez. Euskal portuen itsas tradizioak artile esportatzaileak erakarri zituen eta Meseta eta Kantauri itsasoko portuen arteko merkataritza bideak ireki ziren (ez bakarrik euskal lurraldean, Santanderrek ere era aktiboan esku hartu baitzuen), handik Europako Iparraldeko lantegiak hornitzeko.

Hain zuzen ere, landarekin zerikusirik ez zuten jarduera hauen hazkundera ezinbestekoa izan Bizkaiko antolaketan itzelezko garrantzia izango zuen elementu berri bat agertzeko: hiribilduak.

3. Hiribilduak eta bere erakundeak

Jaurerri-sistemari egokitzea

Hiribilduak penintsulako beste gune batzuetan baino beranduago agertu ziren Bizkaia eta Gipuzkoan, jauntxoek boterearen heldutasun momentu batean. Nafarroa eta Arabaren kasuan, lehenago eratu ziren, beste arrazoen artean, bertatik Donejakueko bidea pasatzen zelako eta hiribilduek ibilbide

horretako merkataritza eta artisautza zentro gisa jardun zuten. Bizkaia eta Gipuzkoatik ere erromesak igaro ziren, baina askoz gutxiago izan ziren eta hiri-garapena beranduago eman zen.

Bizkaian, lehenengo hiribilduak XII. mendearen bukaeran agertu ziren. Hala ere, gehienak XIII. mendean zehar eta XIV. mendearen lehenengo hiru laurdenetan sortu ziren, Gipuzkoan bezalaxe. Lehenengo hiribildua Balmaseda izan zen, 1199an fundatu zutena; ondoren Durango (XIII. mendearen hasiera), Urduña (1229), Bermeo (1236), Otxandio (1254), Lanestosa (1287), Plentzia (1299), Ermua (data ezezaguna) eta Bilbo (1300) agertu ziren. XIV. mendean Portugalete (1322), Lekeitio (1326) eta Ondarroa (1327), kostaldean, eta Areatza (1338), Markina (1355), Elorrio (1356), Gernika (1366), Gerrikaitz (1366), Miraballes (1375), Mungia (1376), Larrabetzu (1376) eta Errigoiti (1376), barnealdean, eratu zituzten. Guztira, Bizkaian hogeitahiribildu sortu ziren, eta hiri bat, Urduña, 1229an hiribildu bezala fundatu arren, XV. mendean hiri titulua jaso zuena.

Hiribildu hauek lurralde horietan hiri-bizimodua garatzen joan zen heinean agertu ziren, kasu gehienetan ekonomia arrazoiak zirela eta. Hala ere, tokiko biztanleak defendatzeko edo arrazoi estrategikoengatik sortutako hiribilduak ere existitu ziren. Hau izan zen Bizkaian eraturiko azken hiribilduen kasua: Markina (1355), Elorrio (1356), Miraballes (1375), Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti (1376), Behe Erdi Aroko bandoen arteko gatazken esparruan sortutakoak.

Joan Jauna infantea landako etxebizitzaren isolamenduaren arriskuaz mintzatu zen azken hiribildu hauei emandako hiri-gutunean: *“apartadas unas de otras lo qual es aina ocasion para que los fijos dalgo é otros poderosos, é otros algunos Lacayos, é otros homes malhechores se atreben a tomar, é robar lo que fallan en las moradas que estan ansi apartadas las unas de las otras”* (Mungia, Larrabetzu eta Errigoitiko Hiri-gutuna). Helburua eremu mugakideak indartzea zen eta herritarrak bandoen

erasoetatik defendatzea. Herri hauetako batzuek landa nortasun nabarmena zuten eta hiribildu bilakatu arren, ez zuten hiri-bizimodurik garatu.

Garapen ekonomikoa sustatzeko, Bermeo, Durango, Plentzia, Bilbo, Portugalete, Lekeitio edo Ondarroa bezalako hiribilduak eratu ziren. Urduña, Balmaseda edo Ermua bezalako beste batzuek, jaurgio eskubideak kobratzeko lekuak zirelako eta merkataritza-trafikoa bertatik pasatzen zelako jaso zuten hiribildu titulua. Orokorrean, hiribildu hauek ekonomia garatzeko (batez ere, merkataritza) eta biztanleak erakartzeko pribilegio garrantzitsuak jaso zituzten euren hiri-gutunetan, hau da, hiribilduak aintzat hartzen zituzten sortze-agiriak.

Bizkaiko hiribilduak Jaunak eratzen zituen, askotan Jaurerria ordezkatzeko zuten Batzarren baimenarekin, izan ere, bizkaitarren lurraldean sortzen zirenez, bertako auzokideei erregimen juridiko berria ezartzen zieten. Baimen hori era esplizituan agertzen zen Plentzia, Bilbo, Areatza, Gernika eta Gerrikaitzeko hiri-gutunetan eta beranduago ere, Foruan zehaztu zen (*Foru Zaharra, 10. kap.; Foru Berria I. tit., VIII. legea*), nahitaezko betekizun gisa, nahiz eta Forua idatzi ostean hiribildu gehiago sortu ez ziren.

Balmasedako hiribildua Bortedoko Jaunak eratu zuen 1199an, oraindik Haroko leinuaren kide ez zelarik. Gainerakoak Bizkaiko Jaunek sortu zituzten. Azken hiribilduak Joan Jauna Gaztelako infanteak (beranduago Joan I.a Erregea izango zena) eratu zituen, Bizkaiko Jaun bezala. Euskadi eta Nafarroako gainerako lurraldeetan Nafarroa edo Gaztelako Erregeek sortu zituzten, helburu berdin edo oso antzekoekin: garapen ekonomikoa sustatzea, biztanleria eta gune estrategikoak babestea eta eremu jakinetan erregearen boterea finkatzea.

Hiri-bizimodua garatzean, batez ere industria eta merkataritza jardueraren bitartez, hiribilduetan errealitate ekonomiko eta sozial berria agertu zen, lege berriak behar zituena, nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritzen ziren landako eremuetako arauen ezberdinak. Horregatik, hiribilduek arautegi

propioa jaso zuten, hau da, foru bat, garai hartako Penintsulako beste erresumak bezala. Bizkaiko hiribilduen kasuan, Logroñoko Forua izan zen. Hiribildu guztiek forua jaso zuten: batzuetan era literalean xedapen guztiak hiri-gutunean adieraziz eta beste batzuetan era nominatiboan. Urduña bere partetik, Gasteizko Foruaren arabera arautu zen eta Markina, Bilboko Foruari jarraiki. Azken hiribilduak Gaztelako Koroak 1348ko *Alcala de Henareseko Ordenamenduan* ezarritako iturri-sisteman oinarritu ziren. Beraz, testu hau Foruaren gainetik egongo litzateke: “*E se obieron de librar los dichos pleitos por el ordenamiento que el Rey D. Alfonso mi abuelo que Dios perdone fizo en las Cortes de Alcalá, e por el dicho fuero e por las leyes de Rey mi padre*”. Kontuan eduki behar da Logroñoko Foruak oso xedapen gutxi zituela eta hutsune juridikoak egon omen zirela eta hutsune horiek, seguruenik, lurraldearen ohiturari jarraiki konpontzen zirela. Hala ere, *Alcala de Henareseko Ordenamenduaz* geroztik, Gaztelako zuzenbidea Bizkaiko hiribilduetan barneratuz joan zen, gero eta gehiago. Ondorioz, Bizkaia eta Gaztelako Koroaren gainerako hiribilduen araubidea parekatuz joan zen.

Baina zuzenbideaz aparte, ezberdintasun gehiago zeuden hiribilduak eta landa-eremuen artean. Hiribilduek berezko gobernu zuten, bertan hautaturiko agintariekin; horrek Lur Lauaren autoritateen jurisdikziotik aske uzten zituen. (Lur Laua Bizkaiko landa-eremuak deitzeko modua dugu, harresirik gabeko lurraldea, hiribilduak ez bezala). Aipatutako autonomia administratiboari dagokionez, lehenengo eta azken hiribilduen artean ezberdintasunak egon zirela ikus dezakegu; beraz, hiribilduen erregimen administratibo autonomoak bilakaera bat izan zuela ondorioztatu daiteke.

Lehenengo hiribilduaren hiri-gutunean, Balmaseda, ez da udal-autoritaterik aintzat hartzen eta Jaunaren merioa hiribildu horretako auzokidea izan behar zela besterik ez da xedatzen. Aldiz, 1299tik (Plentzia) eta 1356ra (Elorrio) bitartean sortutako hiribilduek Alkate, Zinpeko, Probestu, eskribau eta justizia ministro propioak zeuzkaten, hiribildu horietako herritarrak zirenak. Portugalete (1322) eta Elorrioren (1356)

kasuan, karguak dagoeneko auzokideek aukeratzen zituzten. Handik aurrera, kontzejuak udal-karguak urtero aukeratzea ezarri zen. Gainera, azken fundazio hauetan Bizkaiko hiribildu guztiak modu horretan antolatzen zirela aldarrikatzen zen. Horrek hiribilduak garatuz eta berezko udal-erregimena finkatuz joan zirela egiaztatzen du.

Kasu guztietan hiribilduak sortzean agintari berriak agertu ziren, eremu jakin batzuen gaineko jurisdikzioa zutenak, lurralde horietako Jaurerriaren ofizialekiko menpekotasunik gabe, azken hauek ez baitzuten inolako eskumenik hiribilduen mugen barruan.

Hori dela eta mende askotan zehar etengabeko jurisdikzio-istiluak egon ziren hiribilduen eta Jaurerriaren artean, kasu askotan mugak ondo zehaztuta ez zeudelako.

Hiri-gutun batzuetan bai, hiri berriaren mugak era zehatzean ezartzen ziren. Dena den, errealitatean hiribilduei esleitutako lurraldeen barruan denbora luzez elizateak mantendu ziren, hau da, Lur Lauaren udalerriak. Horietako batzuk aurretik leku horretan zeuden eta beste batzuk hiribilduak eratu eta gero agertu ziren. Egoera honen arrazoiak ez dira argiak. Baliteke hiribilduak euren eskubideak gauzatzeko gai ez izatea, lur horietako biztanleekin topo egiten zutelako, edo agian, eta aurreko arrazoia alde batera utzi barik, hiribilduetako agintariak teorikoki euren jurisdikziopeko eremu guztiez arduratzeke gai ez izatea eta beraz, Lur Lauaren autoritateek hutsune horiek betetzea.

Egoera hau, batez ere, Bilbo, Gernika, Portugalete eta Bermeon eman zen. Bilboko hiribilduaren mugen barruan adibidez, Begoña, Abando eta Deustuko Elizateak zeuden eta bere hiribilduaren agintariak aldizka udalerririk horietan ekintza sinbolikoak egiten zituzten euren jurisdikziopeko guneak zirela erakusteko, baina errealitatean euren gobernu jardura harresien barruko eremura mugatzen zen eta Lur Lauaren ofizialak ziren aipaturiko elizateetan benetan agintzen zutenak.

Argi dago hiribilduekin Jaurerria bi bloketan banandu zela, bakoitzak agintari eta arau ezberdinekin, baina horrek ez zuen Jaurerriaren homogeneousuna hautsi. Beranduago aztertuko dugunez, elkarren arteko gatazka urteak igaro arren, (erakundeak bereiztera ere iritsi ziren), hiribilduek modu ezberdinean baina Jaunaren boterearen menpe eta Batzar Nagusietara lotuta jarraitu zuten. Era berean, Jaurerria Gaztelako Erregearen menpe geratu zenean, Korrejidoreak agertu ziren. Erregearen ordezkari hauek, hiribilduak eta Lur Lauaren gaineko jurisdikzioa zuten eta beraz bloke bien arteko kohesioa mantentzeko lagungarriak izan ziren.

Bizkaiko Foruak berak, hiribilduen auzotarrengan eragina zuten xedapenak jasotzen zituen, nahiz eta hauek arautegi ezberdina izan, hala nola, kaparetasun adierazpena, Bizkaian auzotzeko baldintzak, salbuespenak, bizkaitar guztien askatasun eta bermeak eta Jaunarekin zeuzkaten betebeharrak (zergak, soldadutza...).

Beste alde batetik, landak eta hiriek elkarren arteko harreman sozio-ekonomikoak ere izan zituzten. Izan ere Lur Lauko jauntxoak laster hiribilduen jardura ekonomikoetan esku hartzen hasi ziren, hiriko burgesiak landa eremuan lurak erosten zituen bitartean.

4. Bandoen arteko borrokak eta horien errepresioa

Hiribilduak eratzen ziren bitartean, euskal lurralde osoan bandoen arteko tentsioak piztu ziren, gatazka eta istilu larriak eraginez. Bortizkeria egoera XIII. mende bukaeran hasi eta bi mende luzez lurralde hauen bizitza baldintzatu zuen, esparru guztietan: sozial, ekonomiko, politiko-intituzional eta juridikoa.

Bandoak “ahaide nagusien” lidergopean jarduten zuten leinu taldeak ziren. Hauek familia klanen buruzagiak ziren, lursail eta errenta gehien jabeak era leinuaren ohorea eraman eta defendatzen zutenak. Leinuak familia enbor bateko gizonezkoen ondorengoek osatzen zituzten, interes komuna babesteko xedez. Beraz, aliantza hauetan familia osagai garrantzitsu bat zegoen, odolezkoa, leinuen oinarria zena. Horrez gain, garaiko giro feudala kontuan izan behar dugu, non basailutza, fideltasuna eta ohorea kontzeptu oso sendoak ziren nobleen artean eta Jaunekin aliantzak egiteko oso garrantzitsuak.

Baina liskarretan ez zuten nobleek bakarrik parte hartu. Ahaide nagusiez aparte, pertsona eta gizatalde askok zuten leinuen beharra, benefizio ekonomikoak eta babesa lortzeko. Autoreren batek gaur egungo mafiaren egiturarekin alderatu ditu ahaide nagusien menpeko familia aliantza hauek, euren fidelitate interesatu eta derrigorrezkoekin eta ez idatzizko baldintzarik gabeko familia eta bere aliatuenganako atxikimendu arauekin. Izan ere, oraingo mafian ere, familiarekiko ohorea eta interes ekonomikoak beti beste guztiaren gainetik daude, baita euren kideen bizitzak ere .

Gizartea bandoetan banatzean, Bizkaia hierarkizatu egin zen, batez ere landa gunea. Orokorrean hierarkizazio bertikala eman zen, leinu berdinetako kide guztiak barne hartzen zituzten gizataldeetan, maila sozial antzekoa baina familia atxikipen ezberdina zuten kideen arteko hierarkizazio horizontal bat baino gehiago. Azken egoera hau ohikoagoa izan zen hiribilduetan, nahiz eta hauek bandoen arteko borroketan ere parte hartu zuten.

Seguruenik, bandoen arteko gatazka hauen atzean motibazio ekonomikoak zeuden, leinuen indarra erakusteko grina baino gehiago (garaiko “valer más” lelo ezaguna). XIV. mendeko krisi garaian, landako kapareen diru-sarreraren murrizpen nabarmena ekarri zuena, bandokideek liskarretan arerioen ondasunak bereganatzeko eta herri-ondasunetan parte hartze handiagoa lortzeko abagune bikaina aurkitu zuten.

Dena den, eta arrazoi zehatzak ezagutzen ez ditugun arren, Lur Lauko leinu nagusiak bi bandoetan banatu ziren: Oinaztarrak eta Ganboatarrak. Bi bando hauek borroka bortitza libratu zuten, eraso, mendeku, lapurreta, harrapaketa eta hilketak anitzekin. Bortizkeria klima horretan, apurka-apurka Bizkaiko leinu guztiak nahasiz joan ziren. Butroetarrak eta Muxikatarrak Oinaztarren alde jarri ziren eta Abendañotarrak eta Salazartarrak Ganboatarren bandoan. Sarritan liskarrak arrazoi hutsalen ondorioz pizten ziren, esate baterako, gaztaina batzuk lapurtzea, eta indarkeria-bolada basatia eragiten zuten, denborarekin biztanleria guztiarengan eragina zuena.

Bandoen arteko gatazken gorabeherak ondo ezagutzen ditugu, XV. mendeko liskarren protagonista nabarmenetako batek, Lope Gartzia Salazar, *Bienandanzas e fortunas* obran horien berri ematen duelako, baina ez gara zehaztasunetan sartuko. Hala ere, garrantzitsua da gertakari hauek Bizkaiko sistema juridiko eta instituzionalean izan zuten eragina ulertzea.

Hasiera batean bandoak Lur Lauaren fenomeno bat izan arren, segurtasun eza, bortizkeria eta desordena publikoa hiribilduetara ere zabaldu zen, jarduera ekonomikoa eta hiri-gobernua arriskuan jarritz.

Istilu horietan bandoek burdinolak hondatu, uztak, etxeak eta ondasunak erre edo ganadu-aleak hitzen zituzten. Baina ez hori bakarrik; ohikoak ziren erasoak, suteak, hilketak eta bideetako lapurretak, kasu askotan mesetatik merkataritza bideetan zehar ibiltzen ziren merkatariek pairatzen zituztenak. Honek zuzenean eta era oso larrian eragiten zituen hiribilduak, euren jarduera ekonomiko nagusia, merkataritza, arriskuan jartzen zuelako.

Borroka etengabeek hiribilduen gobernuan ere eragina izan zuten. Izan ere, ahaide nagusiek udal boterea bereganatu gura zuten eta euren jendea administrazio-karguetan jartzeko bortizkeria eta indarkeria erabiltzen zuten. Kontuan eduki behar da, dagoeneko aipatu dugunez Lur Lauko jauntxo hauetako askok, euren oinetxe eta pribilegioei uko egin barik merkataritza esparruan ere sartu zirela eta beraz, hiribilduetatik errentak jasotzen zituztela. Horregatik nahi zituzten kontrolatu.

Ulergarria dirudi, beraz, hiribilduek bandoen arteko guduak gelditzeko esku hartzea. Horretarako, Jaunen sostengua izan zuten, lehenengo, eta Gaztelako Erregeena gero, bake soziala berrezartzeko interesa zutenak.

1342ko *Joan Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penal*a, lehenago aipatu duguna, 1394ko *Ermandadearen Kapitulatua* eta 1487ko *Chinchillaren Ordenamendua*, delitugintzaren aurka borrokatu eta bandoen arteko gatazkak gelditzeko helburuz egindako iniziatiba batzuk dira.

4.1 Ermandadearen Kapitulatua

Borroka horiei aurre egiteko iniziatibarik garrantzitsuena *Ermandadearen Kapitulatua* izan zen, 1394an idatzi zena.

XIV. mendean Gaztelan jadanik delinkuentzia jazartzen zuten Ermandadeak existitzen ziren. Ermandade orok pertsonen gorputz bat eta auzitegi edo autoritate judizial batzuk zituen, bidelapurrak jarri eta arautegi zehatz baten arabera zigortzeko.

Aurretik, Urduña eta Balmaseda 1315eko Gaztelako Ermandade Nagusiaren kide izan ziren, Gaztelako Erregearen menpe eta Bizkaiko Jaurerrietik kanpo egon ziren garaian. Bizkaian ere XIV. mendearen lehenengo partean Ermandade bat existitu zela egiaztatzen duten datuak ditugu. Hain zuzen ere, Joan Nuñez Larakoak 1342ko *Koaderno Penalean* Ermandade batez hitz egiten du: “*los de Vizcaya assi de la Fermandad como los otros caballeros excuderos de Vizcaya*”. Ostera, bakea ez zuten ekarri ez lehenengo Ermandade horrek, ez Koaderno Penalak, ezta Joan Jaunak 1376an, Gaztelako Infantea eta Bizkaiko Jauna zenean, bultzatutako neurriek.

Arazoa ezin zutenez konpondu, bizkaitarrek Jaunari, Henrike III.a Erregea, Bizkaia osoarentzako Ermandade nagusi bat sortzea eskatu zioten. Erregeak hori onartu zuen eta Gonzalo Moro Korrejidoreari eman zion

Ermandadea sortzeko ardura. Honek, ordea, ez zuen bere lana burutu eta bizkaitarrek bigarren eskaera bat egin behar izan zioten Erregeari, eta honek aldi berean, Moro Korrejidoreari.

Korrejidoreak zaldun batzuek Ermandadea Foruaren kontra (oraindik idatzi gabe zegoena) zihoala esan ziotela argudiatu zuen. Antza, bandoen arteko borroketan esku hartzen zuten Ahaide Nagusien saiakera bat izan zen Ermandadea eratu ez zedin. Baina Batzarrean bildutako bizkaitarrek aitzakia horiek errefusatu zituzten eta Jaunaren ordezkariari Ermandadea sortzeko nahia adierazi zioten, Foruarekin bateragarria zela argi utziz.

Bizkaitarren babesa lortu zuenean, Gonzalo Morok merindade bakoitzeko gizon on bi bildu zituen, bata hiribilduetakoa eta bestea landa eremukoa eta Ermandadea eratzeke kapitulatua idatzi zuen, Batzarrean oposiziorik gabe onartu zena eta 1394an Henrike III.aren onespena jaso zuena.

Ermandadearen Kapituluaren edukiak, jakina, ordena prozesal eta penalaren inguruko kontuak hartzen zituen barne. Berrogeita hamahiru kapitulutan, gaizkileentzako zigorrak zehazten ziren, orokorrean oso zigor zorrotzak (kasu askotan heriotza-zigorrak), *Joan Nuñez Larakoaren Koaderno Penalean* bezala delituen autoreei eta delitugileak euren etxeetan ezkutatzeko zituzten estalgileei aplikatzen zitzaizkienak. Delitu ugari hilketa, lapurreta, ezkutaketa edo lapurtutako gauzak erostearekin lotuta zeuden.

Bideetan egindako lapurretentzako zigor oso gogorrak ezarri ziren. Bost florin edo gehiago lapurtzeagatik heriotza-zigorra aplikatzen zen. Batzarretako istiluetarako ere zigor zorrotzak jaso ziren, ohikoa omen zelako bertan bandokideek indarkeria edo bortizkeria erabiltzea euren interesak inposatzeko. Beste pertsonak zauritzeak ere heriotza-zigorra zekarren eta arma bat erakustea norbait zauritu edo hiltzeko mehatxuak eginez, nahiz eta hori ez egin, eskuin eskua moztuz zigortzen zen.

Heriotza-zigorrari dagokionez, kasu batzuetan ez zen exekuzio modua zehazten, baina beste hainbatetan urkamenduz, gorputza zintzilikaturik

utziz, burua moztuz, burua makil batean sartuta utziz edo paldoztatzez egin behar zela zehazten zen.

Maiz, lehenengo aldiz edo batzuetan ere bigarren aldiz delitua egiten zuten gaizkileei 6 hilabetetik eta bi urtera bitarteko epean zepoa eramateko zigorra ezartzen zieten, oin bat edo bietan, edo multak jartzen zizkieten. Heriotza-zigorak berrerorleentzako ziren. Beste zigor batzuk esposizio publikoa, biluzik eta lotuta, bat edo belarri biak moztea, haginak kentzea edo etxea erretzea ziren.

Delitugileak jazartzeari zegokionez, *Kapitulatuak* sistema berezi bat ezarri zuen, elizateen auzokide guztiak jazarpenean inplikatzeko zituen. Elizate batean lapurretaren bat salatzen zenean, etxe bakoitzeko gizon bat, hogeit eta hirurogeita hamabost urte bitartekoa, lapurraren bila atera behar zen, bere elizatearen mugetaraino. Lapurra beste elizate baten lurraldera igarotzen bazen, elizate hartako auzokideek jazarri behar zuten eta besteak etxera bueltatzen ziren, eta horrela gaizkilea harrapatzen zuten arte. Lapurrak jazarleak baino gehiago izatekotan, lehenengo elizateko auzokideek bigarren elizatekoekin jarraitu behar zuten eta gainerako elizatekoei gehituz joaten ziren nahikoak izan arte. Orduan etxera itzultzen ziren jazarpenaren hasiera ordenaren arabera. Inplikaturiko elizateren baten zabarkeriaren ondorioz lapurrek ihes egin eta jabeak lapurtutako ondasunak berreskuratu ezin bazituen, elizate horretako auzokideek kaltetuari galdutako ondasunengatik ordaindu behar zioten.

Hiribilduen kasuan, biztanle guztiek ez zuten gaizkileen bila ateratzeko betebeharra. Gehienetan gizonezkoen ehuneko hamarra baino ez zen irten behar. Hala ere, biztanle gutxi zituzten hiribildu batzuetan, Elorrio edo Miraballes adibidez, auzokideen erdia atera behar zen, edo erdia baino gehiago gaizkileak asko baziren.

Ermandadearen Kapitulatua indarrean jartzeko, agintari berriak sortu ziren, Ermandadeko Alkateak. Zazpi Alkate izendatu ziren: bat Busturiako

Merindadean eta beste bat Uribekoan (merindaderik zabalenak); beste bat Arratia, Bedia eta Zornotzan; beste bat Mungian; eta hiru Alkate hiribilduetan (Bilbo, Bermeo eta Gernikan). Era berean testuak hauen jarduteko modua jaso zuen, delituak epaitzerako orduan eta Hiribilduetako Alkateekin eta Foruko Alkateekin (hau da, Lur Lauaren epaile arruntak) elkarlanean aritzeko.

Foruko Alkateen eta Ermandadeko Alkateen arteko harreman hau ere urte batzuk beranduago arautuko zen 1452ko Bizkaiko *Foru Zaharrean* (25. eta 26. kapituluak). Kapitulatuan ezarritakoaren arabera, delitu batentzako zigorrik ez balego, Ermandadeko Alkateek *Joan Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penalean* oinarritu behar ziren eta, koadernoak ere zigorrik ezarriko ez balu, Foru Alkateak bildu eta haiek erabaki beharko zuten delitugilea nola epaitu.

Kapitulatuan ezarritako beste neurri oso gogorra arrastoen bidezko kondenak ziren. Beste arrazoiren artean, zuzeneko lekukoekin delituak probatzeko zailtasunak aipatzen zituen, lurraldeko orografiaren ondorioz. Bizkaitarrak kapareak zirenez (aurrerago aztertuko dugu gai hau), ezin zitzairen torturatu delituak aitortzaten, nobleak ez zirenekin egiten zen bezala. Beraz, delitu baten egiletzaren arrasto nahikoa bazegoen, egiaztatuta zegoela ulertzen zen eta zegokion zigorra jartzen zen.

Kapitulatu honetako zigor eta prozedurak ez zeuden Bizkaiko Foruan jasota, oraindik idatzi ez zena, baina bizkaitarrek zigor eta prozedura horiek Foruari kontra egiten ez ziotela aldarrikatu zuten Ermandadearen araubidea onartu zutenean. Moro Korrejidoreak espresuki azpimarratu zuen, Foruaren aurkako zerbait bazegoen (Batzarraren iritziz) ezabatuko zuela, baina artikulua guztiak foruarekin bateragarriak zirela ulertu zen.

Ermandadearen Kapitulatua Lur Laua, Durangaldea eta hiribilduetan jarri zen indarrean. Era berean, 1394. urtean bertan, Enkarterrik bere lurraldean arautegi berdina aplikatzea adostu zuen Avellanedako Batzarrean. Dena

den, Enkarterrín ez zuten berez Ermandadea osatu eta ez zuten Kapitulatua aplikatzeko alkaterik izendatu; araubidea lurraldeko agintari arruntek aplikatuko zuten. Enkarterritarrak Ermandadean sartu ez zirenez, araubideari beste izen bat eman zioten: Avellanedako Forua.

Baina arazoak erro sakonak zituen eta, zigorrak hain zorrotzak izan arren eta ahalegin handiak egin zituzten autoritate berriak sortu baziren ere, Ermandadeak ezin izan zuen bortizkeria gelditu eta bandoen arteko liskarrek sorturiko delitugintzarekin bukatu.

4.2 Chinchillaren Ordenamendua

XV. mendean dagoeneko Bilbok bizitzen zuen delinkuentzia egoerarik larriena. Beraz, bertako Udaletxeak inizatiba hartzea erabaki zuen. Bandokideen jarduera zigortzeko hainbat neurri ezarri eta Koroari Erregearen ordezkari bat bidaltzea eskatu zion, zigor horiek gauatzeko botere bereziekin.

Horrez gain, 1483an hiribilduak eskaera are garrantzitsuago bat egin zien Errege Katolikoei: urte batzuk lehenago Gasteizen indarrean jarritako ordenantzak Bilbon ezartzea. Erregeek eskaera onartu zuten eta hiribilduari baimena eman zioten Gasteizen indarrean zeuden ordenantza horiek Bilboko beharretara egokitzeko, bereziki bando guduekin zerikusia zutenak. Moldaketa horretaz hiribilduaren ordezkariak eta Gartzia Lopez de Chinchilla Lizentziatua arduratu ziren.

Ordenantza hauetan bandoen arteko liskarrei egozten zitzaion gaitz guztien errua eta oso zigor larriak jasotzen ziren bandokideen laguntzaileentzako. Besteak beste, arautegiak auzokideek liskarretan parte hartuko ez zutela zin egin behar zutela xedatzen zuen, udal karguen hauteskundeetan multzoak saihesteko neurriak ezartzen zituen eta jarduera arriskutsuak eta armen erabilera zigortzeko neurri oso gogorrak jasotzen zituen.

Udal-lege hauek hiribilduetara zabaltzeko saiakerak egon ziren, baina errealitatean arautegia Bilbon bakarrik egon zen indarrean eta gainera harrera txarra izan zuen bando eta hiribildu ezberdinetan.

Arazoa konpondu ezinik, lau urte beranduago arautegi berri bat ezarri zen, helburu berdina baina irismen handiagoarekin: *1487ko Chinchillaren Ordenamendua*. Testu honek ondorio nabarmenak izan zituen Bizkaiko erakundeetan, ez bakarrik hiribilduentzako, baizik eta, zeharka, Jaurerriarentzako ere bai.

Ordenamenduak izan zuen eragina ulertzeko argi eduki behar dugu Batzar Nagusien antolaketa eta funtzionamendua, beranduago era zehatzagoan aztertuko duguna. Batzar horietara, gai komunengatik inguruan eztabaidatzen zenean, Lur Laua, Durangaldea, Enkarterri eta hiribildu eta hirietako ordezkariak joaten ziren. Beraz, Batzar Nagusiak, Jaunarekiko menpekotasunarekin batera, Jaurerriaren elementu ezberdinen arteko lokarria ziren eta elkarren artean hitz egiteko lekua, nahiz eta lurralde ezberdinek eta hiribilduek ordezkaritza maila berdina ez izan.

Mende nahasi hauetan, bandoen arteko borroken tentsioak Batzarretara ere hedatu ziren. Alde batetik, ahaide nagusiak erakundeak euren interesen alde maneiatzen saiatzen ziren, sarritan larderia eta bortizkeria erabiliz. Bestetik, hiribilduek euren interesak defendatzen zituzten, hainbeste kalte eragiten zieten bandoen borroken aurrean. Gauzak horrela, inor ez zenez egoera kontrolatzeko kapaza, Jauna zen (garai hartan Errege Katolikoak) arazoa konpon zezakeen bakarra, berak bakarrik baitzuen erabakiak hartu eta guztiei neurriak inposatzeko boterea.

Testuinguru horretan, Erregeek hiribilduen gaineko kontrola sendotzea erabaki zuten hiri eta Jaurerriaren erakundeak bereiziz. Horretarako, Bilbon egindako Hiri eta Hiribilduen Batzarrean *1487ko Chinchillaren Ordenamendua* ezarri zen.

Hamabost kapituluetan bakea berrezartzeko neurri ezberdinak zehaztu ziren. Araubide berriak udal-jurisdikzioa murriztu eta pribilegio batzuk mugatu zituen, Korrejidoreari (Erregearen ordezkaria) ahalmen gehiago emanaz, hiribilduen gaineko kontrol administratiboa indartzeko xedez. Baina neurririk garrantzitsuena hiribilduei Jaurerriaren Batzar Nagusietara bertaratzeko jarri zien debekua dugu: *“por escusar los alborotos é escándalos é denegación de justicia, é desobediencias, é gastos é costas, é otros males inconvenientes que suelen acaecer é de fecho se suelen cometer, é notoriamente se han cometido en las juntas de la tierra llana”* (Chinchillaren Ordenamendua 6. kap.). Xedapen honen bitartez hiribilduak eta Lur Lauaren arteko komunikazio politiko-instituzionalak hautsi egin ziren, hiriak ahaide nagusiek Jaurerriaren gobernu organoetan erabiltzen zituzten azpijoko eta indarkeriaz babesteko helburuz.

Batzar Nagusietara joateaz gain, hiribilduen arteko batzarrak antolatzea ere debekatu zieten. Batzartu nahi izatekotan, alde zurretik Korrejidoreari baimena eskatu behar zioten.

Era berean, Ordenamenduak zehatz-mehatz debekatu zuen Bizkaiaren autogobernu elementu garrantzitsuenetako bat: foru-pasea, hau da, Batzar Nagusiek Foruari kontra egiten zieten Jaunaren xedapenak ez onartzeko zuten eskubidea. 8. kapituluak ematen zuen honen berri: *“que en ninguna junta que se faga de villas nin de tierra llana, general nin particular non se jusguen nin den por desafortadas las cartas de sus Altezas firmadas de sus nombres nin de los nombres de los del su muy alto Concejo, nin de los oidores de su Audiencia”*.

Ikusten denez, kapituluak hiribilduetan soilik eragina zuen arren, debekua ez zen hiribilduetara mugatzen. Era harrigarrian Lur Lauko lurraldera ere zabaltzen zen, nahiz eta ordenamendua onartzeko bileran Jaurerriaren ordezkariak ez zen egon.

Araubide berriak Foruak urratzen zituela ikustean, Jaurerrian protestak piztu ziren. Erregeek, ordea, aldaketa txiki batzuk egin eta 1489an

Ordenamendua baieztatu zuten. Baina dokumentuaren funtsa ez zen aldatu eta foru pasea gauzatzeko eta Batzar Nagusietara joateko debekuak mantendu egin ziren. Hala ere, hiribilduek kasu oso berezietan eta Korrejidorearen baimenarekin batzarretara joan ahal zirela xedatu zen.

Dena den, Jaurerrian ez zen inoiz foru-pasearen debekua nabaritu. Izan ere, Henrike IV.ak onartutako eta Errege Katolikoek baieztatutako 1452ko *Foru Zaharrean*, orduan indarrean zegoena, eskubide hori aintzat hartzen zen. Bertan Jaurerriari Jaunaren aginduak ez betetzeko baimena ematen zitzaion Foruari kontra egiten bazieten; onartzen da, baina ez da betetzen (“*que sea obedecida e no cumplida*”). Horrez gain, Foruaren aldaketa orok Batzar Nagusien baimena izan behar zuela adierazten zen (“*so el árbol de Guernica en junta general, e con acuerdo de los vizcaínos*”).

Bizkaitarrek ez zioten inoiz Foruak babesten zituen erakundeari uko egin eta foru-pasea 1526ko *Foru Berrian* ere sartu zuten (I. titulua, 11. legea): “*Otroxi dixeron: Que ha-vían por Fuero, é Ley, é Franqueza, é Libertad, que qualquiera carta, ó Provisión Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere, o mandare dar ó proveer, que sea, ó ser pueda, contra las Leyes, é Fueros de Vizcaya, directe, ó indirecte, que sea obedecida, y no cumplida*”. *Foru Berri* honek, era berean, Karlos I.a Jauna/Erregearen onespina jaso zuen eta beranduago ondorengo Jaun/Erregeek ere baieztatu zuten.

Hiri eta hiribilduen eta Lur Lauaren arteko lotura politikoak haustean, *Chinchillaren Ordenamenduak* Jaurerriaren dualtasun juridikoa agerian utzi zuen alde bakoitzak berezko administrazioak eta zuzenbidea zituela erakutsiz. Dena den, bloke bien arteko harremanak ez ziren guztiz moztu. Izan ere, Bizkaia osoa Erregea, Bizkaiko Jaun bezala, eta bere ordezkariaren jurisdikziopean zegoen, hiribilduak barne. Bestalde, Lur Lauko agintariek Jaurerriaren lurralde osoa ordezkatzeko zuten, hiribilduak barne.

Egia da ordenamendua bandoen arteko borroka baretzeko lagungarria izan zela, baina aldi berean hiribilduak eta Lur Lauaren artean tentsioak

areagotu zituen. Gainera Bilbo eta gainerako hiribilduek maiz interes kontrajarriak zituzten eta horrek egoera are gehiago okertzen zuen.

Batzuetan tentsio horiek hiribildu guztietan, bloke bezala, eragina izan zuten. 1514an adibidez, Jaurerritik lotura guztiak hausten saiatu ziren, gorputz politiko banandua sortzeko asmoz, berezko Korrejidorearekin. 1624an antzeko beste saiakera bat egin zuten, konkordia baino urte gutxi batzuk lehenago. Saiakera hauek gaizki atera arren, hiribilduak eta Jaurerriaren arteko desakordio eta gatazkak etengabeak izan ziren XVI. eta XVII. mende hasieran zehar.

Beste kasu batzuetan hiribildu jakin batzuek Lur Lauarekin arazo indibidualak izan zituzten. Beste konturen artean, liskar hauek hiribilduen jurisdikzioaren zabalera, hiri-gutunetan hiribilduei emandako pribilegio ekonomikoak (elizateek euren interesen aurkakoak zirela adierazten zutenak, arrazoi osoz) edo auzotasunaren inguruan sortu ziren.

Kapitulatuaren terminoen benetako aplikazioaren inguruko datuak ez ditugun arren, badakigu arautegia ez zela zehatz-mehatz bete. Izan ere, 1558tik aurrera hiribilduak Batzarretara joaten ziren, debekua indarrean egon arren. Are gehiago, debekua euren interesen arabera erabili zuten, euren xedeetarako garrantzitsuak ziren batzarretara soilik bertaratuz.

XVII. mendearen hasieraz geroztik egoera bideratzeko arrakastarik gabeko saiakera ugari bultzatu ziren, Lur Laua eta hiribilduen arteko ikamikei amaiera emateko helburuz. Hala ere, negoziaketek porrot egin arren, gai gatazkatsuenak agerian geratu ziren eta hori garrantzitsua izan zen etorkizunean adiskidetze moduetara iritsi ahal izateko.

1630ko irailaren 11an, Batzar Nagusietan liskarrei amaiera ematen zien kapitulatua onartu zen. Erregeak, ordea, monarkiarekin zerikusirik ez duten arrazoiaren ondorioz, ezin izan zuen adiskidetze-dokumentua 1632ko urtarrilera arte onartu. Nolanahi ere testua errege-baimena jaso baino lehenago indarrean jarri zen.

Labayruk argitaraturiko *Escritura de unión y concordia entre el M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya, sus villas, Encartaciones y Merindad de Durango* testua, bere *Historia General del Señorío de Bizcaya* obrako beste testu garrantzitsu batzuk bezala, dualtasuna gainditu eta hiribilduak eta Lur Lauko elizateak elkartzeko helburu nabariarekin idatzi ziren, “*porque todo ha de ser una república sin ninguna distinción*”. Testuak ez zuen espresuki hiribilduak Batzar Nagusietara joan behar zirela xedatzen, baina aurrerantzean hori gertatuko zela bistan uzten zuen. Hiribilduek era aktiboan esku hartu ahal zuten Jaurerriaren gobernurako karguen hautaketan, baina agintariek ezin zuten aldi berean Jaurerria eta hiribilduetan karguak okupatu.

Funtsean bi blokeen arteko berdintasun-printzipioa finkatzen zen, Lur Laua eta hiribilduak. Berdintasuna, eskubide eta beharrei dagokionez eta hiribilduek Jaurerriaren erakunde bizitzan esku hartzeko, baina azken hauen berezko zuzenbidea edo autogobernua ukitu barik. 1628ko proiektuak hiribilduen berezko zuzenbidea ezabatzen bazuen ere, lurralde guztiak Bizkaiko Foruaren menpe jarritz, azkenean onartutako testuak autogobernurako erakundeak eta berezko zuzenbidea mantentzeko baimena ematen zien hiribilduei, hala nahi izatekotan. Dokumentuak hiria eta hiribilduak ordura arte izandako gobernu eta lege berdinekin elkartzea aldarrikatzen zuen, “*en el estado en que se hallaban en sus gobiernos particulares gobernándose como hasta aquí con las mismas leyes*”. Dena den, araubide horiek aldatzeko aukera bat ematen zien, hala egin gura bazuten: “*si alguna de las dichas villas y ciudad quisiere dejar alguna ley de las que ha tenido y tomar otras de que usa el Señorío, en Junta General haya las leyes que así pidieren, conformándose con las del Fuero*”.

Izan ere, hiribildu batzuentzako interesgarriagoa zen Bizkaiko Forua edo Logroñoeko Foruaren araubidearen arabera funtzionatzea. Aukera hau baliatu egin zuten, hurrengo bi mendeetan zehar Elorrio (1712), Bermeo (1734), Otxandio (1818) eta Areatzako hiribilduek (1825).

1630ko *Elkartasun eta konkordia itunak* ikaragarritzko garrantzia izan zuen, Bizkaiko Jaurerriaren erakunde-egitura definitiboaren oinarria ezarri zuelako eta bi parteen arteko harremanak bideratzeko araubide oparoaren hastapenak finkatu zituelako.

Hala eta guztiz ere, aurrerantzean arazoak eta ika-mikak ez ziren desagertu Jaurerria eta hiribilduen (edo hiribildu batzuen) artean, Bilbo batez ere, baina beti akordioetara iritsi ziren, hain zuzen ere, konkordia honetan oinarrituz, behin eta berriro alegatu zutena, batez ere hiribilduek, elkartasunaren aurreko pribilegioak mantentzeko justifikazio gisa.

II. ANTOLAKETA PUBLIKOA. FORU ERREGIMENA

Ikusi dugunez, Bizkaiko Jaurerria XI. eta XIII. mendeen artean garatu zen antolaketa-sistema izan zen. Jaunaren boterearen menpe, elementu ezberdinak hartzen zituen barne: hiru lurralde (Bizkaia nuklearra, Durangaldea eta Enkarterri) eta hiri eta hiribildu blokea. Hain zuzen ere, Jaunarekiko menpekotasunak elementu ezberdinen batasuna bermatzen zuen, maiorazkoaren bitartez bere kargua ondorengoei oinordetzan transmititzen baitzitzaien. Bloke bakoitzak, gainera, berezko erakundeak izan arren, Jaurerriaren erakunde komunak onartzen zituen, maiz parteen arteko liskarrak sortuz.

Azter ditzagun beraz Jaurerriaren erakunde komunak eta elementu bakoitzaren berezko erakunde horiek, lurralde bakoitzak ordezkaritza eta parte hartze gradu ezberdina zuela aintzat hartuz.

1. Jauna eta bere harremana bizkaitarrekin. Kaparetasun unibertsala.

1.1 Jauna

Dagoeneko Jaurerriaren erakundeei buruzko lehenengo datu ezagunak zehaztu ditugu, maiz kondairekin apaindu izan direnak, erakunde horien jurisdikzio-eskumenak aztertu ditugu, familia-maiorazkoari lotuta zeudenak, eta Jaurerria eta Erregeen arteko lotura adierazi dugu (hasieran Nafarroakoekin eta ondoren era definitiboan, Gaztelako Koroarekin).

Azken monarka hauek, denboraldi batzuetan legitimotasun gehiago edo gutxiagorekin Bizkaiko jaurerriaren agintea eskuratu zuten, boterea zeukan leinuari lurraldearen gaineko eskubideak kenduz. Baina beti Haroko leinua eta bere ondorengoek kargura itzultzea lortzen zuten, XIV. mendearen azken herenean oinordetza eskubideak Gaztelako Erregearen esku geratu ziren arte.

Ez dakigu zehazki nola lortu zuen Nafarroako Erregeen ordezkaria zen Konde batek Bizkaian jurisdikzio zabala zuen Jauna bilakatzea, herentziaz transmititzen zen titulua. Ordea, errazagoa da Harokoen Jaurerriaren izaera ulertzea lehenago aipatu ditugun harreman feudalak kontuan izanik, Bizkaiko Jaunak eta Gaztelako Erregeen arteko loturak ezarri zituztenak eta Bizkaiko kapareak eta euren Jaunaren arteko harremanetan ere eragina izan zutenak.

Hain zuzen ere, 1201ean Didako Lopitz Harokoak (izen berdineko bigarren Jauna) Alfontso VIII.aren basailutza harremana haustean, bere benefizioak galdu zituen, hau da, errentak, lurak eta eginkizun publikoak, baina ez herentziaz jasotako ondarea.

Momentu horretaz geroztik, Alfontso VIII.ak beste nobleei Didako Lopitz Jaunak errefusatu zituen ondasunak eman zizkien bitartean, ez dago Jaurerriaren gobernuaren eman zienaren zantzurik. Alderantziz, bere testamentuan (1204) Jaurerria Harokoei itzultzea ezarri zuen, oraindik bakeak egin ez zituzten arren. Honek Jaurerria basailutza harremanetik kanpoko benefizioa zela adierazten du, hau da, Haroko leinuaren ondare bat, legezkotasunik gabe kendu zietena.

Une horretan, Harokoen jurisdikzioak Bizkaia nuklearra eta agian Enkarterri hartzen zituen barne, baina 1212an, lehenago ikusi dugunez, Didako Lopitzek bere eskumenak Durangaldera zabaldu zituen, Alfontso VIII.ak berak lurraldea entregatu zionean.

Erdi Aroko Jaunek, besteak beste, hurrengo eskumenak zituzten: administrazio eskumenak, hau da, merio eta prestameroak izendatzea; eskumen fiskalak, hau da, zerga salbuespen orokorretik kanpoko errenta jakin batzuk jasotzea; eskumen politikoak, esate baterako hiribilduak eratzeke; eskumen militarrek, gogora dezagun bizkaitarrek baldintza jakin batzuetan Jauna babesteko beharra zutela; eskumen judiziala, kausa zibil eta kriminaletan esku hartzeke; eta eskumen normatiboak, baina hauek mugatuak ziren Jaurerriaren araudiak ezin ziolako indarrean zegoen ordenamenduari (orduan ohiturazkoa zena) kontra egin. Botere normatibo hau agerian jarri zen hiribilduei forua ematean, adibidez, eta Jaunak onartutako bandoen liskarrekin bukatu eta bakea berrezartzeko neurrietan.

1.2 Harremana bizkaitarrek

Era berean, bizkaitarrek euren Jaunarekin izan zuten harremana kontuan hartu behar dugu. Harreman hori bi osagarritan bereiz daiteke: lurraldekoa eta pertsonala.

Lurralde arloan, Jaunak lurralde mugakide ezberdinen jabetza bildu zuen. Beranduago lurralde horiek Bizkaiko hasierako nukleoan erantsi ziren, baina berezko ezaugarriak mantendu zituzten. Gogoratu beharra dago garai hartan feudalismoak eragin ikaragarria zuela harremanetan eta, testuinguru horretan, bizkaitarrek euren Jaunarekin zeukaten harremana nolabait Jaunak Erregearekin zeukan harremana bezalakoa zela. Beraz, lurralde ezberdinek Jaunarekin zeukaten harremana, Jaunak bertako biztanleekin zeukan harremanean oinarritzen zen, hau da, lurralde harremana harreman pertsonalean oinarritzen zen.

Jaunak hiru gizatalderekin zituen harremanak: landa eremuetako kapareak, zentsuak ordaintzen zizkieten laborariak eta hiribilduetako biztanleak. Hiribilduen kasuan, lurraldeko osagaia pertsonala baino garrantzitsuagoa zen, bertako biztanleek ez zutelako Jaunarekiko basailutza harreman pertsonalik. Hiribilduetako gizonek hiri-gutunean aintzat hartutako pribilegioak zituzten, eta hauek ez zeuden Jaunaren harreman

pertsonalaren menpe, baizik eta euren auzotasunaren menpe, hau da, euren hiribilduarekiko atxikipena eta errotzea.

Jaunak Bizkaia, Durangaldea eta Enkarterriko kapareekin zeukan harremanik garrantzitsuena. Basailutza harreman pertsonal hori laster Jaurerri osoko lurraldearen esparrura zabaldu zen eta era berean Jaunaren boterearen ikuskera paktistaren oinarria izan zen. Bizkaitarrek Jaunarekiko harremana paktu bat bezala ulertzen zuten, zeinean haiek Jauna aintzat hartzen zuten eta honek biztanleen pribilegioak babesteko konpromisoa hartzen zuen.

Gainera, seguruenik Jaurerriaren kokapen periferikoa (erresuma handien puntu nagusietatik urrun) eta Jaunen urrunaldi luzeen ondorioz, beste arrazoi posibleren artean, Bizkaiko kapareek euren askatasun eta boterea handituz joan ziren eta Bizkaiko orubeen gaineko kontrola sendotu zuten. Horregatik interesatzen zitzairen Jaunarekin konpromiso harremana izatea.

Erdi Aroko mende hauetan zehar bizkaitarrak eta Jaunaren arteko harremanen kontratuzko kutsu hori indartuz joan zen. Hala adierazten du Lope Gartzia Salazarrek XV. mendean idatzitako narrazioan, bizkaitarrek XIII. mendean Didako Lopitz III.a Harokoa Jaunaren aurka egindako ustezko altxamendu baten inguruan, zeinean Bizkaiko biztanleek Jaunari basailutza lotura hausteko mehatxua egin zioten, euren pribilegioak aintzat hartzen ez bazituen.

Dena den, seguru asko gertakari hau ez zen inoiz benetan jazo, baina baliteke beste kondairak bezalaxe arrazoi historikoren batean oinarria izatea. Garai hartan adibidez, lehenengo hiribilduak eratu ziren, lurraldeko gune batzuetan Jaunaren boterea sendotuz eta Jaurerriaren baliabide ekonomikoak ustiatzeko konpetentzia areagotuz.

Egoera horretan, sinesgarria dirudi Bizkaiko kapareak eroso ez sentitzea; izan ere, Jaunen absentismo tradizionalari esker, euren askatasunak eta pribilegioak sendotzea lortzen zuten. Testuinguru horretan beraz, ulergarria

dirudi ere bizkaitarren eta Jaunaren arteko gatazkari buruzko kontakizunak orokorrean harrera ona izatea, Bizkaiko kapareen posizioa indartu eta Jaunarekiko sumisioaren jatorria paktuetan kokatzen baitzuen.

1.3 Kaparetasun unibertsala

Aipatu berri dugun istorioaren alderdirik garrantzitsuena, kondaira bat izan arren, Jaunak bizkaitarren pribilegioak aintzat hartu behar zituela nabarmentzeko saiakera baino, Lope Gartzia Salazarrek bizkaitar eta kapareen artean egiten duen identifikazioa dugu.

Bizkaitarren kaparetasuna 1394ko *Ermandadearen Kapitulatuan* jasotzen zen dagoeneko. Hain zuzen ere, 31. kapituluan lurralde horretan delituak egiaztatzeko zailtasuna aipatzen zen, guztiak kapareak zirelako eta horrenbestez, ezin zutelako tormenturik jaso (*“todos son fijosdalgo e non auer tormento”*).

Ez dago argi nondik datorren bizkaitarren kaparetasun unibertsala, baina ideia hori oso zabaldua zegoen. *Foru Berrian* ere aipatu egiten zen: *“Que todos los Naturales, Vecinos é Moradores de este dicho Señorío de Vizcaya, Tierra-Llana, Villas, Ciudad, Encartaciones, é Durangueses eran Notorios Hijos-Dalgo, é gozaban de todos los Privilegios de Homes Hijos-Dalgo”* (*Foru Berria* I. tit., XVI. legea).

Foru Zaharrak kapareak eta birau eta laborarien arteko desberdintasuna ezartzen zuen. Lur Lauko bizilagunei buruz hitz egitean, Foruak gizon on, zaldun, ezkutari, kapare edo laborari bezalako izendapenak erabiltzen zituen, baina bereizketa bakar bat baino ez zuen egiten, laborariak eta gainerako taldeen artean, kapareekin alderatzen zirenak.

Laborarien egoera ez zen zehazki adierazten, baina badakigu orubeetan bizi zirela eta bertan bizitzeko Jaunari ehun mila marabediko baterakozerga ordaindu behar ziotela. Kapareak, ordea, zerga horretatik libre zeuden.

Foru Zaharraren 211. kapituluak adierazten duenez, laborari batzuek orube horiek utzi eta Lur Lauko beste lurretara joaten ziren, bertan zergarik ordaindu behar ez zutelako. Baina hori Jaunari iruzur egitea zen eta gainera, laborariak eta kapareen arteko nahasketa eragin zezakeen: “*lo pior (es) que el labrador no será conocido con el fijo dalgo después que bibiese Por mucho tiempo en el solar infanzonado*”. Arazo hauek ekiditeko eta laborari eta kapareak nahasi ez zitezen, *Foru Zaharrak* autoritateek euren orubea uzten zuten laborariak eta horien seme-alaba eta ilobak bilatzeko agindua jaso zuen, Lur Lauko lurraldea utzi eta euren jatorrizko orubeetara buelta zitezen.

Foru Berriak, aldiz, ez zuen kapare eta laborarien arteko ezberdintasunik adierazten arazo berdinez hitz egitean, eta beraz, ez zuen gizatalde biak nahasteko arazorik zehazten: “*Casas y Caserías que deben el censo de los cien mil maravedís de los buenos a su Alteza... y alguno de ellos por se excusar de contribuir con los otros desampara, y dexa de vivir en la tal casa... Y hace Casa ó va a morar á Casa de Infanzonazgo libertada*”.

Izan ere, *Foru Berriak* bizkaitar guztien kaparetasuna aldarrikatzen zuen. Beraz, saihestu beharrekoa Jaun/Erregeari iruzur egitea zen. Gainera, alde egiten zutenek euren auzokideei egiten zieten kalte, izan ere, baterako-zerga ordaintzen zutenez, beste laborariak diru gehiago jarri behar zuten Jaunari ehun mila marabediko zerga ordaintzeko (*Foru Berria*, 36. tit., I. legea).

Baina, zer zen kaparetasuna?

Erdi Aroko gizartea hiru gizatalde edo estamentuetan antolatzen zen: nobleziakoa, elizakoa eta sekularra. Azken honek nekazariak, artisauak eta herri burgesia barne hartzen zituen. Hauek ez ziren talde itxiak, kastak bezala, eta posiblea zen beheko estamentuetatik talde garrantzitsuago batera igotzea, errege-mesede edo merezimendu propioen bitartez (lanean edo gerran, gogora dezagun Errekonkista garaia zela).

Noblezia estamentuan jatorri ezberdineko jendea zegoen. Alde batetik leinuko nobleak zeuden, hau da, jatorri eta odolezko noblezia. Baina, lehenago adierazi dugunez, beste batzuk Erregeari eskainitako zerbitzuen bitartez noble bilakatzea lortzen zuten, Administrazioa edo ofizio militarrean jardun eta gero, horiek baitziren nobleen eginkizun klasikoak.

Nobleziaren barruan ere, kategoria ezberdinak zeuden. Maila gorenean handikiak zeuden, lur zabalen jabe eta onuradunak, maiz botere jurisdikzionalak edo *immunitateak* zeuzkatenak, eta Erregearekin batera erresumaren gobernuan esku hartzen zutenak. Normalean Erregearekin basailutza harreman feudalak zituzten.

Noble hauen azpian, leinu eta armako noblezia zegoen, maila sozial eta ekonomiko baxuagoan. Noble hauek goi-mailako nobleen basailu bilakatu ohi ziren, zaldun bezala zerbitzua emanez (hau da, zaldiz ibiltzen ziren soldatuak). Talde honetan kapare eta infantzoiak zeuden. Hasiera batean infantzoiak leinuko nobleak ziren, beti egoera ekonomiko ona ez zutenak, eta kapareak erregeen kontzesioen bitartez noblezia eskuratzen zuten gizon libreak ziren. Baina laster, talde bi hauek parekatuz joan ziren eta Behe Erdi Aroan dagoeneko izendapen biak erabiltzen ziren nobleziaren mailarik baxuenaz hitz egiteko. Era berean biak leinuko noblezia bezala aintzat hartzen ziren, maiz kapareak bat edo bi belaunaldiz geroztik bakarrik nobleak ziren arren.

Noble guztiek, lehen zein bigarren mailakoak izan, noble izateagatik, pribilegioak zeuzkaten. Gero zehaztuko ditugu hauek. Garrantzitsuenetako bat zerga salbuespena zen, ohiko eta ezohiko zergetan aplikatzen zena. Baliteke hori izatea bizkaitarrek kaparetasuna lortu nahi izateko arrazoia. Jakina, Foruak salbuespen hori jaso zuen eta beraz, instituzionalizatuta geratu zen.

Hala ere, bizkaitar guztiak kapareak izatea ez zuen esan nahi berdintasun ekonomiko, kultural edo soziala zutenik. Bizkaian ezberdintasun sozio-ekonomiko handiak zeuden (dagoeneko leinu indartsuenak eta ahaide

nagusiei buruz hitz egin dugu), baina Foruak guztiei berdintasun juridikoa ematen zien. Hori garai hartan aitzindaria zen, Larrazábal irakaslearen aburuz, beste tokietan eskubide berdintasuna XVIII. mendera arte eman ez zela kontuan izanik.

Bizkaiko kapareei dagokionez, Gaztelako beste lurraldeetako nobleek bezalako estatutu pertsonala zuten: zerga salbuespena, epaiketa modu berezia, parte hartze handiagoa herri-ondasunetan, euren ondasun edo pertsonen immunitatea bere eskumenen muga gainditzen zuten Jaunaren ofizialen aurrean, eta abar. Dena den, Bizkaiko kapareek mota guztietako ogibideak izan zituzten, eskulan ofizioak barne, Gaztelako kapareentzako ezegokia zena.

Bizkaian Erregeek kaparetasuna eta odol-garbitasuna (judu edo mairu jatorria ez izatea) aintzat hartzen zuten. Hortaz, bertan herritartu edo Jaurerriari karguak izan nahi zutenek baldintza horiek betetzen zutela egiaztatzeko frogak aurkeztu behar zituzten, bizkaitarren ondorengoak ez baziren (1. tit., XIII. legea).

Era berean, Foruak ere jasotzen zuen Bizkaitik kanpo bizkaitarren kaparetasuna eta pribilegioak aintzat hartzeko beharra. Horretarako, aitaren aldetik bizkaitarren ondorengoak zirela besterik ez zuten egiaztatu behar (1. tit., XVI. legea).

Jaurerriaren agintariak beti defendatu zuten bizkaitar guztien kaparetasuna eta euren eskubideak Bizkaitik kanpo ere aintzat hartzeko beharra eta hainbatetan, Erregeak bere adostasuna adierazi zuen. Adibide gisa, 1754ko urriaren 11ko Errege Zedula kontsultatu daiteke, *Foru Berriaren* azken partean agertzen dena: “*los Vizcaínos como á Nobles Hijos-Dalgo, notorios de Sangre, no se les imponga penas afrentosas, que lastimen su pundonor*”.

Ostera, foruak ezartzen zuenez, kapare izatearen truke (eta hemen hiribilduetako biztanleak ere sartzen ziren), bizkaitar guztiek Jaunaren

deiari erantzuteko eta hala eskatzen zuenean laguntza eskaintzeko beharra zuten: *“Que los caballeros escuderos e hijos dalgos así de las Villas como de la tierra llana del dicho Condado de Vizcaya siempre Usaron e guardaron de yr cada e cuando el Señor de Vizcaya les llamare sin sueldo Alguno Por cosas que a su servicio les llamase fasta el Arbol Malato que es en luiando”* (Foru Zaharra, 5. kapitulua; Foru Berriak ere antzeko terminoetan jasotzen du betekizun hau V. legearen I. tituluan). Jaunak Malato zuhaitzetik haratago joatea eskatzen bazien, Bizkaiko hegoaldeko mugan zegoena, Nerbioiko harana eta Aiarako Lurran, bizkaitarrek ere laguntza eskaini behar zioten, baina kasu honetan Foruan zehazturiko soldata jasotzen zuten.

Jaunak hala eskatzen zuenean bere zerbitzuan armak hartzeko behar hori feudalismoaren noblezia harremanetako betekizun tipiko bat zen, eta bizkaitar eta euren Jaunaren arteko harremanak, lehenago ikusi dugunez, basailutza harreman feudaletan oinarritzen ziren.

Ondorengo mendeetan Erregeak, Bizkaiko Jaun bezala, askotan eskatu zien bizkaitarrei gerra ezberdinetan borrokatzeko laguntza eta bere ontzien tripulazioa osatzeko marinelak. Bizkaitarrak, Foruari men eginez, beti onartu zituzten Erregearen eskakizun horiek.

1.4 Korrejidorea

Bizkaiko Jaunaren figura instituzionalari buruz hitz egitean, bere ordezkariak, hau da Korrejidorea, Behe Erdi Aroan eta Aro Modernoan izan zuen eginkizun garrantzitsua ere aipatu behar dugu.

Korrejidore kargua Gaztelan sortu zen, Alfontso XI.aren garaian, XIV. mendearen lehen erdian, toki-gobernua ikuskatzeko hiri batzuetara bidaltzen zuten errege-ordezkarri gisa. Hasiera batean, aldi baterako funtzionario bat baino ez zen, hiri batzuen kudeaketa txarra kontrolatzeko bidaltzen zutena, baina, mende horretako bigarren erdialdean jada arrunt

bilakatu zen Erregeen udalerrietara errege-ordezkar bat bidaltzeko ohitura eta beraz, Korrejidorea denboraldi baterako funtzionarioa izatetik errege-boterearen hiriko ordezkari iraunkorra izatera pasatu zen. Bere eginkizuna tokiko administrazioa kontrolatzea zen, gobernuan eta herri-alkateekin batera justiziaren kudeaketan esku hartuz.

XV. mende bukaeran, Errege Katolikoen garaian, Korrejidore kargua era definitiboan instituzionalizatu egin zen. Korrejidoreak eginkizun garrantzitsua gauzatzen zuen herri gobernuan: Kontzejuaren (Udaletxea) batzarretan parte hartzen zuen hitz egiteko eta kalitateko botoa emateko eskubidearekin, arautzeko boterea erabili ohi zuen ordenantzak egiteko, ordena publikoa zaintzen zuen, hornikuntza arazoez arduratzen zen eta herri ogasuna ikuskatzen zuen. Horrez gain, lehenago aipatu dugunez, benetako epailea zen, epaile arrunta batzuetan, Erregearen ordezkaria beste batzuetan, edo apelazio-epailea hiriko Alkateak ematen zituen epaien aurrean.

Korrejidore karguaren instituzionalizazioa Behe Erdi Aroko Gaztelako Erregeen zentralizazio politikaren esparruan kokatzen da, zeinek kargu hau finkatuz eta beste neurri garrantzitsuen bitartez (adibidez, Erregeak udal errejidoreak izendatzea), herri autonomia fiskalizatzen saiatu baitziren, eta modu eraginkorrean gainera.

Aro Modernoan Korrejidoreek existitzen jarraitu zuten eta botere handiak mantendu zituzten euren korrejimenduetan, hau da, Korrejidorearen jurisdikziopeko eremu geografikoak.

Bizkaian ere Korrejidore kargua existitu zen, Gaztelako Korrejidorearen eginkizun antzekoekin, baina berezko ezaugarri batzuekin. Gaztelako Korrejidoreen hedakuntza Bizkaiko Jaurerria Gaztelako Koroaren menpe geratu zen garaiarekin bat dator. Hortaz, ulertzen da Korrejidorea hemen Erregearen ordezkari argia zela, Bizkaiko Jaun gisa, eta ez zela, Gaztelan

bezala, herri administrazioa fiskalizatzera mugatzen zen errege-ordezkar bat soilik.

Hori zen ezberdintasun nabariena: Bizkaian Korrejidoreak Jaurerri osoan Erregea ordezkatzzen zuen eta bere gobernu eta jurisdikzio eskumenak lurralde osoan gauzatzen zituen; ez zen hiri bakoitzean Korrejidore bat egon. Bizkaian, Jaurerria existitzen zen dagoeneko hiribilduak sortu baino lehen.

Horregatik, korrejimendu arrunten ezaugarriak alderantzikatu egin ziren, lur zabala zelako, eta ez hiribilduak, Jaurerriaren ordezkaritza eskatzen zuena eta Batzarrak eta Korrejidorearen bitartez agintzen zuena. Jaurerriaren historia osoan landa-eremuetako infantzoiek ahalegin handiak egin zituzten euren nagusitasunari eusteko, hiribildu eta hiriaren garapenaren aurrean, batez ere Bilbo boteretsuarena.

Bizkaitarrek ez zuten hiri bat Jaurerriaren hiriburu bilakatzea eta beste udalerrien gainetik nabarmentzea nahi. Horregatik behin eta berriro eskatu zioten Korrejidoreari egoitza tertzioetan ezartzea, Jaurerriko udalerri ezberdinak txandakatuz, baina Jauna Talaian bizitzea baino ez zuten lortu. Talaia Lur Lauan kokatzen zen arren, San Anton zubiaren beste aldean zegoen eta beraz, Bilbotik metro gutxi batzuetara.

Eta azkenean Korrejidoreak bere egoitza Bilbon ezarri zuen, Hiribilduaren garrantzia eta influentzia handituz eta gainerako Jaurerrian mesfidantza piztuz. Hauxe esaten zuten 1600eko apirilean Bermeon egindako Erregimentuan Bilboko hiribilduari buruz: *“con la asistencia ordinaria en ella del Corregidor y de su Audiencia, ha embebido en sí la riqueza de este Señorío, por lo cual está muy rica y poblada y el resto del Señorío pobre y despoblado”*. Jaurerria Korrejidorea Gernikara lekualdatzen saiatu zen, Bilboren boterea ahultzeko, baina saiakera horretan

ere porrot egin zuen, geroago egingo zituen beste hainbat saiakeretan bezala.

Korrejimenduaren egoitza han egotea hiriari ematen zion influentzia baliatuz, Korrejidorea Bilboko autoritaterik handiena bilakatuz joan zen, maiz Hiribilduaren Alkatearekin tentsioak piztuz. Hala gertatu zen XVIII. mendean, Colón de Larreategui Korrejidorearekin, Jaurerriaren historiarekin baino gehiago Hiribilduaren historiarekin lotu izan dena; kale bat ere dedikatu diote.

Baina itzul gaitezen Korrejidore karguak Bizkaian zituen berezitasunetara. Kontuan izan behar dugu hemen ez zela Jaunaren ordezkari bat bakarrik, baizik eta baita foru-instituzio bat ere. Oso esanguratsua da, adibidez, lehenengo Korrejidore ezaguna, Gonzalo Moro, Ermandadeari buruz hitz egitean aipatu duguna, Gernikako Antiguako Andra Mari ermitan lurperatua izatea (Foruak zin egiten ziren tokia), Bizkaiko Jaun bat ere ez baitago Jaurerrian lurperatuta.

Foru Zaharra zein *Foru Berria*n Korrejidorearen erreferentziak aurki daitezke. Kapitulu batzuetan *Vehedor* deitzen diote (*Foru Zaharra*), beste batzuetan *Corregidor y Vehedor o Veedor* (*Foru Zaharra eta Foru Berria*) eta, azkenik, *Corregidor* bakarrik (*Foru Berria*). *Foru Berria* zen Korrejidore kargua hobeto arautzen zuena, baina hala ere ez zituen ahalmen guztiak zehazten, Gaztelako korrejidoreen berdinak zirela ulertzen zelako.

Funtsean, Foruak hurrengo kontuak zehazten zituen: bete behar zituen baldintzak, izenda ahal zituen laguntzaileak, bere soldata nork ordaindu behar zuen, nola burutu zezakeen bere jurisdikzioa Foruaren eta hiribilduen Alkateekin bateragarritasunean eta antzeko gaiak; hau da, Bizkaiko berezko erregimenean eragina izan ahal zuten kontuak arautzen zituen.

Foruak xedatzen zuenez, Jaunak Korrejidorea izendatzen zuen, Jaurerriaren bestelako ofizialak bezala: “*Otrosí, dixeron: Que havían por Ley, Fuero, uso, y costumbre antigua, que su Alteza ponga un Corregidor, y Veedor en el dicho Condado, é Señorío, y Encartaciones, y Du-rango, que sea Letrado, Doctor, ó Licenciado, y de Linaje Cavallero, ó HijoDalgo, y de limpia Sangre*”.

Korrejidoreak bere aldetik, hiru Teniente Jeneral izendatzen zituen, bere eginkizunak ordezkatzeko: bat Gernikan, bat Enkarterrin eta beste bat Durangaldean (*Foru Berria*, 2. tit., II. legea). Korrejidorea eta bere ordezekoak Ebro ibaiaz haraindikoak izan behar ziren, hau da, Bizkaitik kanpokoak.

Aurrerago aztertuko dugunez, usadioarekin lotura handiagoa zuten kargu batzuei lana burutzen zuten lurraldeetako herritarrak izatea eskatzen zieten, ohiturazko zuzenbidea hobeto ezagutu eta aplikatuko zutelakoan. Hori zen, adibidez, Foru Alkateen kasua, Lur Lauko auzi zibilak ondo ezagutzen zituztenak. Gobernu-karguak eta jurisdikzio kriminaleko karguak okupatzeko, aldiz, Korrejidorea eta bere ordezekoen kasu, Bizkaitik kanpoko pertsonak nahiago zituzten, lurraldeko leinuen parte ez zirenak.

Korrejidoreari Gernikako Batzar Nagusiak, Avellanedako Batzarra (Enkarterri) eta Gerediagako Batzarrean (Durangaldea) egiten zitzaion harrera eta bertan kargua zin egin behar zuen. Ez zeukan karguan igarotzeko epe zehatzik, hori Erregeak zehazten zuen.

Foruak ezartzen zuenez, Jaurerriak ez zion soldatarik ordaindu behar, hori ere Erregeari zegokion eta: “*su Alteza, como Señor de Vizcaya, siempre tuvo por bien de pagar al Corregidor de Vizcaya el Salario de su Casa Real*” (*Foru Berria*, 2. tit., VI. legea). Bizkaian Jaunari besterik ez zitzaizkion errentak ordaintzen eta horiekin Jaunak ordezkarien soldatak pagatzen zituela ulertzen zen. Horrenbestez, Erregeak Jaurerritik Jaun bezala jasotzen

zituen zergen kontura ordaintzen zion Korrejidoreari. Era berean, Erregeak hiribilduek proportzionalki 100 dukat ordaintzea ezarri zuen.

Lehenago korrejidoreen atribuzioak aipatu ditugu eta Bizkaian eta Gaztelan eginkizun ia berdinak zituztela ikusi dugu. Baina azpimarratu dezagun Bizkaian ez zela tokiko agintari arrunt bat, baizik eta Jaunaren ordezkaria eta beraz, Jaurerriaren gobernu organo guztien burua zela: Batzarrak, Erregimentua eta Aldundi Nagusia. Hortaz, organo horietan harturiko akordioak gauzatzen zituen, botere jurisdikzional maximoa zuen, hauteskunderen burua zen eta, orokorrean, beste edozein autoritateren aurrean edo edozein ekitaldi publikoan lehentasuna zuen.

Labur esanda, Korrejidorea Bizkaiko autoritaterik handiena zen eta Jaurerriaren berezko erakundeekin elkarlanean agintzen zuen, Foruak ematen zion oreka ezin hobean.

2. Lurraldeak eta bere antolaketa

Aurreko kapituluetan ikusi dugun bezala, Bizkaiko Jaurerriak elkarrengandik bereizita zeuden lurralde ezberdinak elkartu eta Jaun baten boterearen menpe jarri zituen, baina betiere lurralde bakoitzaren berezko erakunde eta ezaugarriak errespetatuz. Atal honetan banan-banan hiru bloke horien (Lur Laua, Durangaldea eta Enkarterri) eta hiribilduen antolaketa aztertuko dugu eta ondoren Jaurerriaren erakunde komunak ikusiko ditugu. Horretarako, funtsean, Gregorio Monrealen aparteko ikerlanean oinarrituko gara: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya*. Obra honetan, Monreal irakasleak Jaurerriaren erakunde guztiak era zehatzean deskribatzen ditu. Guk, ordea, laburrean azalduko ditugu, obraren xede dibulгатzaileari jarraiki.

Baina elementu bakoitzaren antolaketan sartu baino lehen, garrantzitsua da adieraztea Foruek ez zutela Jaurerria eta bere bloke ezberdinen erakunde-antolaketa eta zuzenbidea sortu (hau da, foru-erregimena), baizik eta aurretik existitzen zirela eta ohiturazko jatorria zeukatela.

1452an, *Foru Zaharrak* lurralde-blokeak osatzen ziren heinean garatu zen ohiturazko zuzenbide eta antolaketa hori idatziz jaso baino ez zuen egin. Horren harira, esanguratsua da *Foru Zaharraren* xedapenen hasieran erabilitako formulak, erregimenaren ohiturazko izaera horri erreferentzia egitea: “*Otrosi dixerón que havían por Fuero, é Ley, é Franqueza, é Libertad...*”

2.1 Lur Laua

Horrela deitzen zaio hiribilduak osatu eta gero hiribilduetatik kanpo geratu zen Bizkaiko jatorrizko lurraldeari. Izen hori eman zitzaion, hiribildu askok ez bezala, Lur Lauak harresi eta hesirik ez zuelako. Jaurerria eratu baino lehen, gune honi Bizkaia deitzen zitzaion, baina, beranduago izen honek Jaurerri osoa izendatuko zuenez, Lur Laua erabiltzen dugu eremu hori Jaurerria osatu zuten beste blokeetatik bereizteko. Lur Lauaren lurraldearen barne, baina bere parte izan barik, hiribildu gehienak sortu ziren, 13 hain zuzen ere (guztira 21 ziren). Hori Jaurerriaren beste lurralde-blokeak baino proportzio handiagoa da, baina egia da ere, Lur laua gainerako lurraldeak baino askoz zabalagoa zela.

a) Merindadeak

Lur Laua lurralde-mugapen ezberdinetan banatzen da, hau da, merindadeak. Horrela deitzen zitzaion Nafarroa eta Gaztelan (Bizkaiaren kontrola izan zuten bi erresumak) Merioen agintearen menpeko eskualde edo barrutiei. Merioak Errege edo Jaunaren ofizialak ziren eta zerga-konpetentziak, konpetentzia ekonomikoak, juridikoak (ekonomia arloko auzietarako), eta baita militarrek ere zituzten. Erresuma hauetan Jaunekin

(jaurerrietan) edo Kondeekin (Erregearen menpeko beste lurraldeetan) elkarlanean aritu ziren.

Ez da arraroa Bizkaian ere Merioen menpeko barrutiak egotea. XI. mendean dagoeneko badakigu merioek Bizkaiko lurraldean jarduten zutela. Hain zuzen ere, lehenago aipatu dugun 1082ko dokumentu batean, Lope Enekoitzek Donemiliaga Kukulari (San Millán de la Cogolla) egindako Ugarteko San Vicenteko monasterioa eta bere ondasun guztien dohaintzari buruzkoa, dokumentua baieztatzen dutenen artean *Blagga Ezteriz* agertzen da, “*Merino in tota Bizcaglia*”. Ezer gutxi dakigu bere eginkizunez eta, beste alde batetik, badirudi garai hartan ez zegoela merindade zatiketarik, Bizkaia osoko Merio gisa agertzen baita.

XIV. mendean, merindadeen erreferentzia ugari agertzen dira eta dagoeneko ondo finkaturiko lurraldeak zirela dakigu, ondo definituriko autoritateekin. Hortaz, nahiko lehenago osatu zirela pentsa dezakegu, baina ez dugu informazio nahikorik zehazki noiz sortu ziren adierazteko.

Bizkaian, Durangoko Merindadea alde batera utziz, beti izaera berezia izan zuena, sei merindade existitzen ziren: Busturia, Uribe, Arratia, Bedia, Zornotza eta Markina Hauek 1394ko *Ermandadearen Kapitulatuan* jaso ziren dagoeneko. XVI. mendera arte, bost merindadeei buruzko erreferentziak aurki daitezke, Lope Gartzia Salazarren *Bienandanzas e Fortunas* eta 1513ko Joana Eroa Anderearen Errege Probisioan, baina ez da zehazten hasierako sei merindadeetako zeintzuk elkartu ziren merindade bakarra osatzeko. 1526ko *Foru Berrian*, zazpi merindade jasotzen dira, hau da, Durango eta aurretik zehazturiko seiak.

Merindadeek zabalera oso ezberdina zuten. Adibidez, Busturiak, 26 elizateekin eta Uribek, 33 (Barakaldo barne hartuz, XIV. mendean atxiki zena, Enkarterritik bananduz), beste lau merindadeek baino lurralde lau aldiz handiagoa okupatzen zuten: Arratiak zazpi elizate zituen, Zornotzak hiru eta Markinak, bi. Ez dakigu zer nolako irizpideak erabili ziren

merindade zatiketa egiteko, baina oso posiblea da lurraldearen elementu geografikoak eta bertan bizi ziren bizilagun talde ezberdinen arabera egitea.

Merindade bakoitzean buruzagi edo Merio bat zegoen, Uribeko Merindadean izan ezik, zabalera handiagoa zuenez bi merio zituen. Merio bakoitzak ordezkari bat izenda zezakeen, baina hori eginez gero, berak ezin zuen aldi berean kargua burutu.

Merindadeetan ez zuten Merioek soilik jarduten. 1452ko *Foru Zahar*rean eta 1526ko *Foru Berri*an jasotzen zen moduan, Jaunak eremu horietarako hiru ofizial izendatzen zituen: Prestameroaren ordezkaria, Merioa edo bere ordezkaria eta Foru Alkatea.

Prestamero kargua ez da agertzen Merioak aipatzen dituzten XI. mendeko dokumentuetan; ostera, Behe Erdi Aroan Jaunak izendaturiko ofizialik garrantzitsuena zen. Bere eginkizun nagusia Jaunaren aginduak eta justiziaren xedapenak gauzatzea zen. Hasiera batean ordezkari bat izenda zezakeen Bizkaiko merindadeetarako eta beste bat Durangoko Merindaderako, eta XVI. mendeaz geroztik, Prestamero Nagusi bat izendatzeko baimena eman zioten, Korrejidorearekin batera jarduteko, eta beste bat Enkarterrirako.

Dena den, XV. mendetik aurrera Prestamero kargua garrantzia galduz joan zen, ia-ia Merioekin parekatu arte. Bizkaiko Foruek, Zaharra zein Berria, ez zuten kargu bien arteko desberdintasunik ezartzen eta beraz, denborarekin euren eginkizunak alderatuz joan ziren.

Seguruenik Jaurerria Gaztelako Erregeen menpe geratu eta Korrejidorearen figura agertzean hasi zen, neurri handi batean, Prestamero kargua garrantzia eta prestigioa galtzen.

Alde batetik, Prestameroak leinu garrantzitsuetako kideak ziren eta beraz, bandoen arteko guduetan parte hartu zuten. Korrejidoreak, aldiz, gatazkatik kanpo mantendu ziren eta bakea ezartzeko era aktiboan esku hartu zuten.

Ildo honetan, Gonzalo Moro Korrejidorearen jarduera bereziki garrantzitsua izan zen, Ermandadea sortu zuena. Beste alde batetik, Korrejidoreari emandako gobernu eta justizia kudeaketarako eskumen zabalek, Prestameroaren gaitasunak murriztu omen zituzten, azken hauek erakundeetan zuten garrantzia txikiagotuz.

Merindadeetan, Foru Alkateak agintari judizialak ziren. *Foru Zaharrak* zein *Foru Berriak* kargu hori okupatzeko betekizunak, eginkizunak eta alkate kopurua zehazten zituzten. Kargudunak merindadeetako biztanleak izan behar ziren eta bertan erroak izan. Betekizun honek justifikazio are handiagoa zeukan Bizkaia bezalako lurraldeetan non, ohiturazko zuzenbidea indarrean egonik, oso garrantzitsua zen arduradunek usadioak ezagutzea.

Bost Foru Alkate zeuden. Horien banaketa *Foru Zaharretik Foru Berrira* aldatu zen, edo agian, gehiago zehaztu zen. *Foru Zaharrak* Busturiako Merindaderako hiru eta Uribeko Merindaderako bi alkate izendatzen zituen bitartean, *Foru Berriak* Busturia eta Zornotzarako hiru alkate eta Uribe, Arratia eta Bediarako bi alkate zehazten zituen (2. tit., III. legea). Gainera, toki batzuetan Lurraldeko Alkateak delakoak existitzen ziren, auzi txikietan hobeto jarduten zutenak (2. tit, IV. legea).

Merioak eta Prestameroak bezalaxe, Foru Alkateek ordezkokoak izendatu ahal zituzten, euren zeregina ordezkatzeko. Hauei betekizun berdinak eskatzen zitzaizkien, auzotasun eta Merindadean bizitzeari zegokionez.

Foruak ezartzen zuenez, Alkatea eta bere ordezkokoak jurisdikzio zibilaz arduratzen ziren eta jurisdikzio kriminala Korrejidorea eta bere Ordezkari Nagusiak kudeatzen zuten. Azken hauek ere Alkateek ematen zituzten epaien apelazioetan ere aginpidea zuten.

Jaunaren ofizial hauekin batera, Behe Erdi Aroan merindadeetan Ermandadeko Alkateak ere existitu ziren. Kargu hauek Ermandadearen sorrerarekin batera agertu ziren, arautegi berria aplikatzeko

eginkizunarekin. Zazpi Ermandade Alkate izendatu ziren: hiru Lur Lauaren merindadeetan, bat Durangoko Merindadean eta hiru hiribilduetan (Bilbo, Bermeo eta Gernika). Ikusi dugun bezala, *Bizkaiko Foruak* berak Alkate berri hauen eta Foruko Alkateen arteko harremanak erregulatzeko arau batzuk barne hartzen zituen.

Merindadeetan Merindade Batzarrak egiten zirela badakigu, baina batzar horien datuak ez dira XVI. mendetik haratago joaten. Baliteke orduan desagertzea edo garrantzia galtzea. *Foru Berriak* Merindadearen Batzarra aipatzen du, Merioaren ordezkariaren izendapenari erreferentzia eginez: “*que sea puesto en la Junta de aquella Merindad públicamente*” (2. tit, VII. legea), baina badakigu XVI. mendearen bukaeran Batzar Nagusian egiten zitzaiela harrera ordezkari berriei.

Ordea, Merindadeen Batzar Nagusiak, bai, biziraun zuen eta bertan Jaurerriaren merindade guztien ordezkariak biltzen omen ziren.

b) Elizateak

Elizateak Erdi Aroko Bizkaian sorturiko landako udalerriak dira. Lur Lauaren lehenengo herri-antolaketa modua izan ziren. Beste lekuetan bezala, herri-antolaketa forma hauek auzokideen arazo ezberdinak konpontzeko beharraren ondorioz agertu ziren, hala nola, ondasun komunalen aprobetxamendua, lursailen mugen arazoak, prezioen ezarpena, herritarren defentsa, ordena publikoa, eta abar.

Lur Lauko biztanleria oso sakabanatua zegoenez, nekazaritza eta abeltzaintza lursail txiki eta isolatuetan, eliza, guztiek otoitz egiten zuten lekua izateaz gain, guztientzat interesgarriak ziren gaiez hitz egiteko elkargunea bilakatu zen. Horrela, herri-komunitate txikiak sortuko dira elizaren inguruan. Elizate izenak auzokideek eliza aurrean egiten zituzten batzarrei erreferentzia egiten die. Ohikoa zen gune horiek estaltzea eguraldi txarrari aurre egiteko.

Elizateen banaketa beraz, parrokia-banaketaren arabera gauzatu zen. Jaun edo kapareek elizak eraikitzen zituzten heinean, horien jabe bilakatuz eta errentak jasoz, parrokia-sare bat itxuratuz joan zen eta parrokietan inguruko landa-eremua antolatzeke eliza-egitura bat agertu zen. Horixe dugu Lur Lauko oinarritzko egitura politiko-administratiboaren aitzindaria.

Ez dakigu zehazki noiz eta nola hasi zen prozesu hau, elizateen erreferentzia dokumentalak oso eskasak baitira. Lehenengo aipua 1342ko *Joanes Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penalean* agertzen da: “*Titulo de aquel que no fuere tomado con el furto e fuere acusado de cómo el daño se puede llevar en la anteiglesia de cómo llaman a la cadena*”. Hori baino lehen, hiri-gutun batzuetan adibidez, beranduago elizateak bezala aipatzen diren hainbat lekuen izenak agertzen dira, baina ez zen ezer esaten horien erakunde-egiturari buruz. *Koaderno Penalak* ere, ez zuen aipu horretaz aparte informazio gehiagorik ematen, baina argi utzi zuen XIV. mendean dagoeneko elizateek herri-antolaketaren oinarritzko nukleoa zirela.

1394ko *Ermandadearen Kapituluak* hobeto zehazten zuen elizateen zeregina. Bertan, herri-erakunde bezala agertzen dira, gune jakin batean jurisdikzioa zutenak, lehenago aztertu dugun gaizkileen jazarpenari buruzko kapituluan egiaztatu dezakegunez. Erreferentzia lekua elizatea da, bertan delitua salatzen delako, eta elizatea bera da gaizkilearen jazarpena antolatu behar duena, auzokideen esku-hartzearekin.

Geroago idatzi ziren arautegietan, *Foru Zaharra* eta *Foru Berria* alegia, argi dago elizateak osatuta zeudela eta agintariak zituztela, zenbait arauetan fielak eta euren eginkizunak aipatzen baitziren. Baina Foruek ezer gutxi esaten zuten elizateen barne antolaketari buruz, Jaurerriaren beste hainbat erakunde bezala, usadioetan oinarritu omen zena. Beranduago bai, udal-ordenantzak idatziz jasotzen hasi ziren, baina Erdi Aroko bat ere ez da gure egunetara iritsi; Abando (XVI. mendea) edo Zeanuriko ordenantzak (XVII. mendea) dira kontserbatu diren batzuk. Hala ere, arautegi horiek elizateen egitura antolatzailea ulertzeke erabilgarriak dira. Izan ere, bi mende hauetan

Lur Lauaren ezaugarri sozio-ekonomikoak gehiegi aldatu ez baziren, ulertzen da herri-antolaketa modu hauek ere gehiegi aldatu ez omen zirela.

Elizateetako administrazioari buruzko erabakiak hartzeko herritarrak “cruz parada” izeneko asanbladetan batzartzen ziren. Urtean zehar behar bezain beste bilkura egiten ziren, ohiko edo ezohikoak, eta horietara elizateko edozein auzokide bertaratu ahal zen. Bertan, beste eginkizunen artean, udalerriko karguak izendatu (eta hautatuok kargua hartu), kargu berriei elizatearen izenean auzitan jarduteko eta Batzar Nagusietan elizatea ordezkatzeko eskudantziak eman, hartutako erabakiak jakinarazi, fielen ondasun eta errenten kudeaketa kontrolatu, Erregeak egiten zituen diru eskaerei buruzko erabakiak hartu, auzotarren heziketa militarra antolatu eta Erregeak hala eskatzen zuenean soldaduak errekrutatzen ziren.

Gogora dezagun bizkaitarrek zerga salbuespena eta soldadutza egiteko salbuespena zutela, baina Errege/Jaunak Jaurerriari ekarpen ekonomikoak eskatu ahal zizkion eta Jaurerriak normalean, eskaera horiek onartzen zituen. Era berean, Foruak ezartzen zuenez, Erregeak hala eskatzen bazuen, Jaurerriak armadarako soldaduak eta itsasontzietarako marinelak bidali behar zizkion.

Elizatearen agintari nagusia “fiel regidor” izenez ezagutzen zen. Elizate bakoitzean bat zegoen, Abando, Begoña, Amorebieta, Mundaka, Lemoa, Zeanuri eta Derion izan ezik. Horietan bi zeuden. Kargu hori auzokide guztiek aukeratzen zuten baina, biztanleria gehiegi zegoen lekuetan, Abandon bezala, batzuetan bi faseetako hauteskundera egiten zen: lehenengo fasean zozketaz auzoetako hautesleak aukeratzen ziren, eta bigarren fasean, asanbladan, hautesleek euren boto-txartela zilarrezko bolatxoetan sartzen zuten eta bolatxo horiek txanbil batean jartzen zituzten. Beraz, hauteskundera azken finean, hautesleek proposatutako hautagaien arteko zozketa bat zen.

Hautatuak, derrigorrean kargua onartu behar zuena, auzotarren asanblada edo “cruz parada” delakoan zina egin eta kargua hartzen zuen.

Kontserbatzen ditugun udal ordenantza horietatik eta Foruaren xedapen batzuetatik elizateetako fiel erregidoreen eskumen garrantzitsuak ondoriozta daitezke.

Beste zereginen artean, Batzar Nagusietan elizatea ordezkatzeko zuten eta auzietan bere izenean jarduten zuten; Batzarretan egindako akordioak gauzatzen zituzten; hornikuntzari buruzko gaiez arduratzen ziren; produktu jakin batzuen prezioak ezartzen zituzten, hala nola ardoa eta ogia; elizatearen ondasunak eta errentak kudeatzen zituzten; bidea, mendi eta basoen zaintzeaz arduratzen ziren; Erregeak egindako eskakizunetarako ordaindu beharreko kopurua biltzen zuten; eta ordena publikoa mantentzen zuten.

Zabalera handiko elizateetan, Abandon adibidez, fiel erregidoreak ez ziren lurralde osoa kontrolatzeko gai izaten eta auzo kabuen esku uzten zituzten zeregin asko. Kargu hauek ere, auzokideen asanbladan aukeratzen ziren.

2.2 Durangaldea

Durangaldea edo Durangoko Merindadea Bizkaiko gainerako Merindadeetatik bereizitako lurraldea zen. Bizkaiko Jaurreriaren hego-ekialdean kokatzen zen, ekialdetik Gipuzkoa eta hegoaldetik Arabarekin muga eginez. Lur Lauko Merindadeak bezalaxe, elizateetan banatzen zen. Guztira, bere lurraldeak 11 elizate eta Durango, Ermua eta Otxandioko hiribilduak hartzen zituen barne.

Durangaldeak berezko ohiturazko zuzenbidea zuen, *Durangoko Merindadearen Foruan* jaso zutena. XIV. mendeko testu honetatik, eskuizkribu berantiar bat kontserbatzen dugu, Durangaldeko ohituren idazki pribatu baten antza duena, Lur Lauaren usadioen oso antzekoak zirenak. Oso laster bi lurraldeen arteko ezberdintasun normatiboak desagertu ziren eta Lur Lauko testu juridikoak Durangaldean ere indarrean jarri ziren.

Durangaldearen antolaketari buruzko iritsi zaizkigun datuak oso berantiarak direnez, XVI. mendekoak, aldeztu aurretik Lur Lauaren elizateen jatorri eta antolaketa-egituraren inguruan adierazitakoa merindade honetara zabal dezakegu. Durangaldeko elizateetan ere, boterea auzokideen asanbladaren menpe zegoen eta administrazio-kudeaketa fielari zegokion. Normalean, bat baino ez zegoen, fiel sindiko prokuradore nagusia, urte bakoitzaren hasieran Kontzejua edo auzokideen bilkuran aukeratzen zutena. Oso handiak ziren elizateetan, ordea, Berriz eta Abadiño bezalakoak, fielaren eginkizunak hainbat funtzionarioen artean banatzen zituzten; Berrizen erregidore bat eta bi fiel zeuden, eta Abadiñon lau erregidore.

Elizateen agintari hauek, Lur Lauan bezalaxe, eginkizun administratiboak zeuzkaten, batez ere ekonomia arloan: udalerriaren zergak bildu eta kudeatzea, horniketa zaintzea, produktu jakin batzuei prezioa jartzea, pisu eta neurriak kontrolatzea, eta abar. Badirudi fiel hauek autonomia handia zeukatela eta ez ziotela Korrejidoreordeari konturik eman behar, XVII. mendeko dokumentuek xedatzen dutenez. Ordea, auzokideen bilkuran bai, kontuak aurkeztu beharra zuten agintea bukatzean.

Merindadearen gobernuari zegokionez, gailurrean Korrejidoreorde bat zegoen, lurraldeko agintari gorena, eta bere zereginetan Prestamero-orde batek eta Merio-orde batek laguntzen zioten.

Korrejidoreordea Korrejidoreak berak izendatzen zuen Gerediagako Batzarrean harrera egiten ziotenean. Ondoren, biak batera euren karguak zin egiten zituzten San Salvador eta San Klemente basilizan.

Merioak eta bere ordezkioak ez bezala, Korrejidoreordea Bizkaitik kanpokoa izan behar zen, Korrejidorea bera bezala. Betekizun hau irmoki defendatu zen beti, modu honetan bere lanak interes eta familia harremanen eraginik izango ez zuela ulertzen zelako eta beraz inpartzialtasunez jardungo zuela. Dena den, betekizun hau ez zen beti errespetatu.

Korrejidoreordearen eginkizun nagusia justizia kudeatzea zen, eta justiziak Durangaldean, ezaugarri bereziak zituen. Izan ere, aurreneko auzialdian, durangarrek Merindadean bertan jasotzen zuten epaia, beti mantendu zuten pribilegioa. Uneren batean Durangaldean ere Alkateak egon omen ziren, Lur Lauan bezala, hala adierazten baitzuen *Durangoko Laborarien Foruak*. Baina hurrengo mendeetan ez dago horien existentziaren zantzurik eta, adierazi dugunez, Korrejidoreordea edo Korrejidoreari (Durangaldean zegoenean) zegokion justizia zibil eta kriminalaz arduratzea.

Badakigu ere, 1394an Ermandadea sortu zenean, Durangoko Merindadearentzako Ermandadearen Alkate bat jarri zutela, Lur Lauaren merindadeetan bezala, Gonzalo Mororen Kapitulatua aplikatzeaz arduratzeko.

Dagoeneko adierazi dugunez, Korrejidoreordeaz aparte, Durangoko Merindadean Prestamero-orde bat eta Merio-orde bat zegoen. Kargu hauek garrantzi askoz txikiagoa zuten eta Merindadeko Batzarrak eta Korrejidoreordearen menpe zeuden.

Prestamero-ordea Jaunaren Prestameroak izendatzen zuen eta *Foru Berriak* xedatzen zuenez, Bizkaitik kanpokoa izan behar zen: “*persona raigada y abonada y de fuera del condado de Vizcaya de Allende el Ebro*” (2. tit., VI. legea). Merioak, bere aldetik, Merio-ordea izendatzen zuen. Izendapen hauek Merindade Batzarrean egiten ziren, Lur Lauaren merindadeetan bezala. Durangaldeko Merindade Batzarra oso garrantzitsua izan zen eta Lur Lauan batzar hauek XVI. mendean bertan behera utzi ziren arren, eskualde honetan Aro Modernoan zehar indarrean jarraitu zuten. Hala ere, Durangaldeko Merio kargua Aramaiona Kondearen esku zegoen eta bere maiorazkoari lotuta zegoen. Bera zen Merioaren ordezkoa izendatzen zuena eta Batzarrak bere izendapena onartu behar zuen. Prokuradore-ordea ez bezala, Merioaren ordezkoa bizkaitarra izan behar zen jatorriz.

Kargu bien eginkizunak batez ere, exekuzioak egitea, elizateak Merindade Batzarretara deitzea eta presoak zaintzea ziren.

Esan dugunez, Lur Lauan ez bezala, Durangaldean Merindade Batzarrak garrantzi handia izan zuen eta XIX. mendera arte aktiboan mantendu zen. Merindade bakoitzaren Batzarrekin baino gehiago, Lur Lauaren Merindadeen Batzar Nagusiarekin konparatu daiteke, Bizkaia primitiboaren lurralde blokearen Batzarra izango litzatekeena. Bere funtzionamendua eta jarduerari buruz daukagun informazioa, Monrealen obraren bitartez heltzen zaiguna, Aro Modernoaren garaikoa da, kontserbatzen den dokumentazioa XVI. mendearen ondorengoa delako. Hala ere, badakigu Erdi Aroan jadanik existitzen zela, lehen aipatutako *Durangoko Laborarien Foruan* aipatzen delako.

Tradizionalki Durangoko Merindade Batzarra Gerediagan egiten zen. Aro Modernoan dagoeneko, ohiko Batzarrak, Gurutziagan egiten zirenak (Durango) eta XVII. mendetik aurrera Astola baserrian (Abadiñoko elizatean), eta ezohiko Batzarrak bereizten dira, Gerediagako zelaian egiten zirenak, elizatean bertan, San Salvador eta San Klemente basilizaren ondoan.

Astolako ohiko Batzarrean eguneroko gaiak eztabaidatzen ziren. Horregatik askoz ohikoagoak ziren bilkura hauek Gerediagako ezohiko Batzarra baino. Azken honetan, bereziki garrantzitsuak ziren gaiak eztabaidatzen ziren, adibidez, Korrejidorearen zin egitea onartzea, Merindadearen Sindiko Nagusia bezalako kargu berriak sortzea, edo kontuak onartzea.

Ohiko Batzarra Jaurerriarekiko harremanez arduratzen zen: Batzar Nagusietan Merindadea ordezkatzeko zuten boteredunak izendatu, bertan harturiko akordio eta dekretuak jakinarazi, banaketak adostu eta Durangaldeko elizate bakoitzak Erregeak eskatzen zuen infanteria zerbitzuengatik eman behar zuen kupoari buruzko erabakiak hartzen ziren.

Era berean, Batzarraren eginkizun garrantzitsuetako bat ordena publikoa zaintzea zen, hori izan baitzen ziurrenik, Merindadearen arazo nagusia, batez ere Behe Erdi Aroan, bandoen arteko liskarren mendeetan. Horrez gain, Batzarra bere jurisdikzio propioa eta konpetentzia esparrua defendatzeaz ere arduratzen zen, Merio-ordearen izendapena onartu edo deuseztatzen zuen eta Merindadearen Artxiboa babesten zuen, besteak beste.

Durangoko Merindadeak, ikusi berri ditugun antolaketa modu hauek mantendu zituen Bizkaiko Jaurerrian txertatu eta gero. Berez, egitura politiko hori ez zen Lur Lauarenaren oso desberdina, baina, hala ere, Jaurerriak eta Foruak berak nolabaiteko banakotasuna eta berezko jurisdikzioa aintzat hartu zioten Durangaldeari, gainerako merindadeekin egin ez zuten bezala.

Dena den, Durangaldea eta Jaurerriak gai ezberdinei buruzko desadostasunak izan zituzten. Adibidez, durangarren pribilegio batek, auzi zibil eta kriminalak lehenik Merindadearen barruan epaitzeari buruzkoa, tentsio handiak eragin zituen, Jaurerriarekin baino gehiago, Korrejidorearekin. Hainbatetan, Korrejidoreak auziak Bilboko auzitegira mugitzen saiatu zen, baina Durangaldea beti lortu zuen bere eskubidea aintzat hartzea, Bizkaiko Epale Nagusia eta Errege Probisio askoren bitartez.

Era berean, Merindadeak Jaurerriaren gastuetarako egiten zuen ekarpenaren inguruan liskarrak piztu ziren. Nahiz eta 1576an kontu horri buruzko konkordia bat sinatu eta Durangaldea Jaurerriaren gastu komunaren hamabiren bat bere gain hartuko zuela adostu arren, gai honek polemika handia sortu zuen.

Bestalde, Durangaldea ez zegoen pozik Erregimentuan (Batzarren menpeko organoa) eta Batzar Nagusietan zeukan parte hartzearekin. Irainduta sentitzen zen beti azken tokian deitzen zutelako, eta gainera, ez

zuen Jaurerriaren ofizioak aukeratzeko botorik, Enkarterriekin gertatzen zen bezala. Hala ere, interes orokorreko gaiak eztabaidatzen zirenean, hau da, ia beti, Erregimentuak Durangoko Merindadea, Enkarterri eta hiribilduak deitzen zituen.

1628ko Batzar Nagusian, Durangaldeak, Diputatu, Sindiko Nagusi, Erregidore, Idazkari eta Jaurerriaren Diruzaina hautatzeko prozesuan parte hartze handiagoa lortzeko xedez, bere hamabi elizateek hamabi boto izatea eskatu zuen (beranduago hamaika izango ziren, San Agustin Etxebarria Elorrioko hiribilduan barneratu zenean). Foruaren menpeko zazpi Merindadeetako bat zirela argudiatzen zuten eta beraz, hauteskundeetan esku hartzea merezi zutela. Horrenbestez, Lur Lauko elizateak bezala su-errolدارako ekarpena ordaintzeko prest zeuden.

Jaurerriak su-errolدارako ekarpena onartu zuen eta Durangaldea Gernikako Batzar Nagusi guztietara joatea. Durangoko Merindadeak kargu hautaketan parte hartzea ere onartu zuen, baina hamabi elizateentzako bi boto besterik ez zizkion eman. Horrela, 1628an bertan akordio bat sinatu zuten eta Merindadeak urte horretako hauteskundeetan parte hartu ahal izan zuen. Dena den, arazo guztiak ez ziren bukatu eta handik aurrera ere gastu banaketaren inguruko eztabaidak egon ziren. 1631an hitzarmen berri batek aurrekoa berretsi eta gastu komunak zehaztu zituen. Horrela bloke bien arteko harremanaren terminoak zehazki jasota geratu ziren.

2.3 Enkarterri

Jaurerria osatzen duten beste bi lurraldeak ez bezala, Enkarterri ez zen Merindade bat eta bere lurraldean ez dago merindaderik. Bertako landako herri-komunitateak ez ziren elizateak bezala ezagutzen. Erdi Aroan eta Aro Modernoan Enkarterri haran eta kontzejuetan banatzen zen. Horiek ziren bertako landa udalerriak, Lur Laua eta Durangaldeko elizateen baliokideak zirenak.

Mendebaldeko partean Karrantzako Haranak (Enkarterriko errepublikarik zabalena), Turtzioz eta Artzentaless zueden; erdialdean Sopuerta, Galdames, Gueñes eta Zalla

; hego-ekialdean Gordexolako Harana; eta ipar-ekialdean Nerbioiko ezkerrekoa, Somorrostroko Harana (lau kontzejutan banatzen zena: Muskiz, Zierbena, Abanto Behekoa eta Abanto Goikoa) eta hiru kontzejuak (Santurtzi, Sestao eta San Salvador del Valle). Gainera, Enkarterriko lurraldean, baina bere parte izan barik, Lanestosa, Balmaseda eta Portugaleteko hiribilduak zeuden.

Jaurerriaren beste lurraldeetan bezala, toki gobernua auzokide guztien bilkuraren menpe zegoen. Bilkura edo kontzeju hori leku ezberdinetan egiten zen, udalerrien arabera: elizaren aurrean, zuhaitz berezi baten azpian, zubiaren ondoan, iturri alboan, eta abar. Bertan toki agintariak hautatzen ziren. Udalerrien arabera, kargu ezberdinak zeuden. Hala ere, udalerri guztietan, Artzentalessen izan ezik, alkateak zeuden, bat edo bi, Galdamesen bezala; horrez gain erregidoreak edo fielak, sindiko eta eskribauak egon ahal ziren, kontzeju bakoitzaren ordenantzek xedatzen zutenaren arabera.

Justiziari zegokionez, Lur Laua eta Durangaldean Foru Alkateek auzi zibilez arduratzen ziren eta Korrejidoreordeari zegokion kriminal auziak eta apelazio guztiak kudeatzea. Enkarterrin, aldiz, ez zegoen Foruko Alkate ez Meriorik eta beraz, justizia herri esparruan kudeatzen zen, eta Enkarterriko Korrejidoreordearen bitartez. Gauzak horrela, eskualdearen arabera hiru egoera ezberdin ematen ziren: Gueñes, Zalla, Gordexola eta Somorrostroko lau Kontzejuetan tokiko alkateek jurisdikzio zibil eta kriminala zeukaten; Karrantza, Sopuerta, Galdames, Turtzioz eta Somorrostroko hiru Kontzejuetan alkate horiek jurisdikzio zibila besterik ez zeukaten eta jurisdikzio kriminala Korrejidoreordeari zegokion; eta Artzentalessen, adierazi dugunez, alkaterik ez zegoenez, jurisdikzio biak Korrejidoreordearen esku zeuden.

1503ko *Enkarterriko Foruak* xedatutakoari jarraiki (gune honetan 1576ra arte erabili zuten berezko arautegia, lege askotan Bizkaiko *Foru Zaharraren* antzekoa zena), Jaunak alkateak aukeratzen zituen, Bizkaian bezala. Hala ere, praktikan, jurisdikzio zibila eta militarra zutenak Erregeak izendatzen zituen eta horiek orokorrean ordezeko bat aukeratzen zuten. Aldiz, jurisdikzio zibila bakarrik zuten alkateak Korrejidoreak izendatzen zituen, kargua hartzeko Enkarterrira joaten zenean. Hala ere, XVII. mendetik aurrera kargu horren hautaketa auzokideen esku geratu zen.

Durungaldeak bezala, Enkarterrik jurisdikzioa lehenik bere lurraldean burutzeko pribilegioa zuen. Kasu honetan gainera, eskubide hori Foruan jasotzen zen: “*ottrossí An de fuero y privilegio los Bezinós y moradores de las Encartaciones que en la primera instancia sobre qualesquier casos y demandas haian de ser combenidos y demandados cada uno Ante el Alcalde de su Concexo he que ningun vezino ni morador, home ni muxer, no baia a plazo que le sea fecho para fuera de las dichas Encartaciones en primera instancia*” (4. Tit, IV. legea).

Enkarterrin, beste lurralde-blokeetan bezala, Batzarra eta Jaunaren ofizialei zegokien lurraldeko gobernua, kasu honetan, Korrejidoreordea eta bere laguntzaileei.

Badakigu Enkarterriko Batzarra XIV. mendean jadanik Avellanedan egiten zela. Izan ere, idatziz jaso zen bertan 1394an Ermandadearen araudia indarrean jarri zutela, lurralde honetan Avellanedako Forua deitu zutena. Ordea, ez dugu datu zehatzik Foru horren jatorriari buruz. Ziurrenik, Lur Lauan gertatu zen bezala, hasieran lurraldeko kapare guztiek hartuko zuten Batzarrean parte, baina, Aro Modernoan banakako ordezkaritza desagertu eta Batzarrak Enkarterriko hamar errepubliken ahaldunen esku geratu ziren. Nahi zuten kapareak, bai, bertaratu ahal ziren, baina ez zuten boto eskubiderik.

Batzarrak Avellanedako dorretxeko haritzaren azpian egiten ziren, baina, denborarekin, arrunt bilakatu zen bilera horiek dorretxe barruan egitea,

Enkarterriko kartzela ere zegoen lekua.

Avellanedako Batzarraren eginkizun garrantzitsuenetako bat lurraldeko arauak sortu eta aplikatzea zen. Lehenago adierazi dugunez, 1394an, Enkarterriko Batzarrak bere lurraldera Ermandadearen Kapitulatua zabaltzea eskatu zuen, Gonzalo Moro eta bizkaitarrek Lur Laua eta Durangalderako idatzitakoa. Hala ere, Enkarterrin era berezi batean aplikatu zen eta alkate berriak izendatu beharrean, dagoeneko existitzen zirenak arduratu ziren arau berriak indarrean jartzeaz.

Dena den, ordenantza hau zuzenbide penalera mugatzen zen eta, 1452ko Bizkaiko *Foru Zaharra* bizkaitarren eskubide eta askatasunez hitz egitean Enkarterri ere aipatzen zuen arren, bere artikulak Lur Laua eta Durangaldeara bideratuta zeuden. Horregatik, 1503an, Batzarrak arautegi berri bat onartu zuen: Saez de Salcedok idatzitako *Enkarterriko Forua*. Foru berriaren lehenengo partea 1394ko Kapitulatuan oinarritzen zen eta bigarrena, Albedrioko Forua izenekoa, Bizkaiko *Foru Zaharrak* jasotzen zuen ohiturazko zuzenbidean.

Bizkaian egiten zen legez, indarrean jarri baino lehen Jauna/Erregeak *Enkarterriko Forua* onartu behar zuen, baina, Bizkaikoak errege onespena jaso zuen bitartean, Enkarterrikoak ez zuen eskatu ere egin. Hala eta guztiz ere, lurraldean zuzenbide berria aplikatu zuten eta Korrejidorea eta Korrejidoreordeak ere, kargua hartzerakoan zin egin zuten.

Dena den, laster Forua zaharkitua geratu zen, bandoen arteko gatazkak amaituta, foruak Ermandadearen kapitulu penaletatik hartutako xedapen asko zorrotzegiak zirelako eta beste kapitulu batzuk ere zaharberritu behar zirelako. Erreforma proiektatu zen, baina ez zen onartu eta azkenean, 1576an, Avellanedako Batzarrak Forua bertan behera uztea erabaki zuen. Orduan, Enkarterri Bizkaiko Foruaren menpe jarri zen, garai hartan, 1526ko *Foru Berria*. Horrenbestez, Enkarterrik Jaureriaren arautegiarekin bat egin zuen. Aurrerantzean hau izango zen Korrejidorea eta Korrejidoreordeak kargua hartzeko ekitaldian zin egingo zuten forua.

Era berean, Gernikako Batzarrean egiten zuten moduan, Avellanedako Batzarrean ere Erregea Jaun gisa onartu behar zuten, eta Korrejidore berriari harrera egiten zitzaion; honek gero, Forua babesteko zin egin eta Korrejidoreordea izendatzen zuen. Batzarrak ere, Sindiko bat izendatzen zuen; sarritan zegokion udalerri-multzoak egiten zuen aukera (gogora dezagun hiru talde zeudela) eta Batzarrek aukera hori berretsi besterik ez zuten egiten. Sindikoaren eginkizuna Batzarra deitu, eztabaidatzeko gaiak proposatu, Enkarterrik Jaurerriaren gastuetarako ordaindu beharreko kopurua bildu, lurraldearen foraltasuna zaindu, eta Gernikako Batzar Nagusietan lurraldea ordezkatzeari zen.

Korrejidoreordeari dagokionez, lehenago ikusi dugunez Korrejidoreak izendatzen zuen eta Enkarterrin, beste lurraldeetan bezala, XV. mende hasieratik aurrera agertzen zaigu. Korrejidorea bezalaxe, Bizkaitik kanpokoak izan behar zen. Bere eginkizun nagusia jurisdikzionala zen; kontzeju batzuetan zibil eta kriminala eta beste batzuetan kriminala bakarrik, tokiko alkateak eta horien eskudantzia judizialen arabera.

Durangaldean gertatu zen bezala, Enkarterrik ere tentsio ugari izan zituen Jaurerriarekin. Tentsioak ia berdina izan ziren bloke periferiko bietan eta ibilbide oso antzekoa izan zuten.

Hemen ere Korrejidoreek mesfidantzaz ikusten zuten epaiketak lehenik Enkarterrin egiteko pribilegioa, Durangoko Merindadean ikusi dugun bezala, euren konpetentzia murrizten zuelako. Egia da *Enkarterriko Foruak* eskubide hori barne hartzen zuela eta Korrejidoreek Forua errespetatzea zin egiten zutela, baina egia da ere Foru horrek ez zuela Erregea/Jaunaren derrigorrezko baieztapenik. Korrejidoreordeak alderdi hori baliatu zuen pribilegioaren legezkotasuna zalantzan jartzeko.

Hala ere, Bizkaiko Epaille Nagusiak eta hainbat Errege ezberdinek eskubide hori aintzat hartu zuten eta, Durangaldeak bezala, Enkarterrik bere pribilegioa mantendu zuen.

Denbora luzez Enkarterri eta Jaurerriaren arteko harremanak pozoitu zituen beste kontu bat gastu komunetarako ekarpena izan zen. Azkenean, 1576an, Durangaldeak hilabete bat lehenago egin zuen bezala, Jaurerriarekin konkordia hitzarmena sinatu zuen: lurralde bakoitza bere gastu partikularrez arduratuko zen eta Jaurerriak Enkarterriarekin ordaindu beharreko gastu komunak negoziatuko zituen. Horrenbestez, Enkarterrik Jaurerriak aukeraturiko mandatariek kontua kudeatzea onartzen bazuen, gastu horien zati proportzionala bat ordaindu beharko zuen. Baina hitzarmen honek ez zuen arazoa konpondu eta liskarrek jarraitu zuten, maiz adostutako zenbatekoak ordaintzen ez zirelako.

Horrenbestez, 1635an konponketa batera heldu ziren eta enkarterritarrek gastu komunetarako seiren bateko ekarpena egitea adostu zuten. Baina hamabost urte beranduago proportzio horren ordezkari bi urtetik behin ordaindu beharreko kupo finko bat ezarri zuten: 7.000 erreal koarto, beranduago 6.000ra murriztu zena. Hala ere, Erregearen aparteko eskakizunetarako seiren bat ordaintzeko formula mantendu egin zen.

Era berean, Durangoko Merindadean bezala, Enkarterriaren parte hartzeak Erregimentu eta Batzar Nagusietan, polemika handia sortu zuen. Enkarterritarrek beste blokeei euren aurretik lehentasuna ematen zietela uste zuten eta ez zeuden konforme ematen zieten eserleku eta ordezkaritza txikiarekin.

Datu historiografikoen arabera, badirudi Erdi Aroan dagoeneko Enkarterriak Gernikako Batzar Nagusietara joaten zirela. Aro Modernoaren hasieran, momenturen batean, bizkaitarrak indibidualki Batzarrera bertaratzetik elizateen bidezko ordezkaritza batera pasatu omen ziren, baina, Lur Lauko elizate guztiek ordezkari eta boto bana zuten bitartean, Enkarterriko haran eta kontzeju guztientzako mandatarik bakar bat baino ez zegoen, boto bakar batekin.

Orokorrean, Enkarterriko Sindikoa zen lurraldea Jaurerriaren Batzar Nagusian ordezkatzeko zuena. Eta bakarrik zuen hitza eta botoa gai komunetan, hala nola, Foru eta askatasunen defentsa. Ordea, Durangoko Merindadeari gertatzen zitzaion bezala, Enkarterriko Sindikoak ez zuen Jaurerriaren gobernu karguen (Diputatuak, Erregidoreak, Sindikoak, Idazkariak eta Diruzaina) hauteskundeetan parte hartzeko ahalmenik.

XVII. mendean Enkartazioak Lur Lauko eskubide berdinekin Jaurerriarekin elkartzeko saiakera ugari egin ziren, Enkarterrietako Sindikoa eta Jaurerriaren proposamenez. Lehenengo proposamena 1628an egin zuten, Jaurerria Durangaldea eta hiribilduekin ere negoziatzen ari zen bitartean. Azken hauek, *Chinchillaren Ordenamenduaren* ondoren baztertuta geratu eta gero, Jaurerriarekin berriz elkartzetik oso hurbil zeuden.

Baina elkartzeko saiakera guztiek porrot egin zuten Enkartazioek ez zutelako aldatu nahi izan. Hauteskundeetan sufragio aktiboaren bitartez parte hartzeak ez zuen merezi, horren truke Jaurerriaren gastuetarako ekarpenak egin eta autonomia galtzen bazuten.

Hala ere, kontzeju batzuek Jaurerriarekin elkartzea nahiago izan zuten eta, Avellanedako Batzarra hori saihesten saiatu zen arren, 1642an Gordexolako harana Jaurerrian integratu zen. Hurrengo urteetan Enkarterriko beste lau errepublikek bide berdina jarraitu zuten: Gueñes, Zalla, Galdames eta Somorrostroko hiru kontzejuak.

Jaurerrian sartzean, kontzeju horiek Bizkaiko 72 elizateekin alderatu ziren, Jaurerriaren gobernurako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidearekin, boto aktibo eta pasiboarekin, eta Jaurerriaren gastu orokorrak arintzeko su-errolarako ekarpenak egiteko beharrarekin. Dena den, berezko toki erregimena eta Enkarterriko jurisdikzioa kontserbatu zuten. Horrenbestez, bost errepublika hauek Gernikako Batzarrean ordezkartza indibiduala izatera pasatu ziren, beste bostek (Sopuerta, Artzentales, Turtzioz, Karrantza eta Somorrostroko lau kontzejuak)

Avellanedako Batzarrak ahalduz zuten Sindikoaren ordezkartzapean jarraitu zuten bitartean.

Baina, Jaurerriaren gastuetan esku hartu behar zutenez, elkartutako errepublikek Enkarterrietako gastu komunak ordaintzeari uko egin zioten. Hori dela eta, beste errepublikek auzitegieta jo zuten, ez zutelako gastu komun guztiak beraien gain hartzeko asmorik.

Istilu hauek 1699an konpondu ziren, Enkarterriko bloke biek hurrengo puntuak adostu eta gero: Jaurerrira bildutako errepublikek Avellanedako Batzarrera joaten jarraitzea, beste errepublikak bezala Enkarterriko gastu komunak ordaintzen jarraitzea eta Enkarterrin kargu publikoak izatea. Beraz, Jaurerrira elkartu arren, errepublika horiek Enkartazioetara lotuta jarraitu zuten. XVIII. Mende erdian Enkarterri eta Jaurerriaren artean gatazka egon zenean, errepublika hauek Enkarterriko errepubliken alde egin zuten, eta ez Jaurerriaren alde.

2.4 Hiribilduak eta hiria

Dagoeneko Jaurerriaren hiru lurraldeetan hiribilduak nola eratu ziren azaldu dugu, gehienak Lur Lauan, eta bloke juridiko eta instituzional berezia osatu zutela. Horrela, hiribilduak Jaurerrian integratuta zeudela ikusi dugu, eta Gernikako Batzarretan ordezkaritza indibiduala zeukatela, eratu ziren lurraldeetatik aparte, nahiz eta 1487ko Chinchillaren Ordenamenduaren ondorioz, urte batzuetan zehar Batzarretatik kanpo geratu, 1630eko *Elkartasun eta Konkordiaren* bitartez era ofizialean Jaurerriaren erakundeetan berriro integratu ziren arte.

Hiribilduen berezko zuzenbidea ere aztertu dugu eta euren udal-autonomiaren garapena, hiribildu bakoitzaren fundazio momentuaren arabera ezaugarri ezberdinak izan zituenak. Baina oraindik euren barne egitura eta berezko administrazio erregimena ikertu behar dugu.

Hiribilduetan, Bizkaia eta Durangoko elizateetan eta Enkarterriko kontzejuetan bezala, auzokideen asanbladak zeukan erabakiak hartzeko ahalmen gorena. Printzipioz, auzokide guztiak bertaratu ahal ziren batzarretara, landako udalerrien ordezkaritza zuzeneko printzipioari jarraiki. Sistema horri Kontzeju irekia edo Udalbatzar Orokorra deritzogu.

Hiribilduetako biztanleria haziz joan zen heinean, ordea, auzokideen bilkura horiek egitea ezinezkoa bilakatu zen, batez ere hiribildu handienetan, jendetsuegiak zirelako. Beraz, pixkanaka-pixkanaka bilera horiek bertan behera utzi zituzten, Kontzeju (hertsia), Udaletxe partikularra edo Erregimentuaren formula erabiltzen hasteko. Sistema berri honekin, modu ezberdinen bitartez hautatzen ziren auzokide batzuek, tokiko gobernu karguak okupatzen zituzten, guztien ordezkaritzan. Hala ere, esan behar dugu hiribildu gehienek Aro Modernoan oraindik Kontzeju irekiko sistema erabiltzen jarraitzen zutela, horietako batzuk, Durango edo Bermeo adibidez, nahiko jendetsuak gainera (Durangok 800 biztanle inguru zituen XVII. mende hasieran).

Kontzejua eta elizateen auzokide asanbladak oso antzekoak ziren eta eskudantzia ia berdinak zituzten: Batzar eta Erregimentu Nagusien akordioak jakinarazi eta betetzea, udal-karguak hautatzea, Jaurerriaren kontu ekonomiko orokorreari buruzko erabakiak hartzea, Erregearen eskakizun ekonomikoak onartu eta gauzatzea, hiribilduaren defentsa antolatzea, eta abar.

Batzarrak leku ezberdinetan egiten ziren (zuhaitz baten azpian, enparantza publikoan, elizaren ondoan, eta abar), elizateetan bezala. Baina XVI. mendetik aurrera, hiribildu batzuetan udaletxeak eraikitzen hasi ziren eta batzarrak eraikin horietara edo, jende gehiegi zegoenean, eraikinen aterpera lekualdatu ziren.

Hiribilduetako kargu administratiboek urte bateko luzera zeukaten eta hauteskunde sistema ezberdinen arabera aukeratzen ziren. Kasu batzuetan, Bilbo eta Gernikan adibidez, agintea uzten zuen Erregimentuak hurrengo

urteko gobernua osatzeko izen batzuk proposatu eta txanbil batean sartzen zituen, eta txanbiletik agintari berriak ateratzen ziren. Beste hiribildu batzuetan partaidetza handiagoa zegoen eta auzokide guztiek hauteskundera parte hartzen zuten, kale bakoitzean konpromisario batzuk zozkatuz. Hiribilduren batean ere, sistema mistoa erabili ohi zuten, aldezturik aukeratutako auzokide batzuk eta ateratzen ziren Erregidoreen arteko zozketa eginez.

Udalerrietan kargu ezberdinak zeuden: Alkate bat (hiribildu batzuetan 2. eta 3. ordezkokekin), Erregidoreak, Fielak, Sindikoak, Diruzaina eta Epaimahaiak. Botere judiziala Alkatearen menpe zegoen, baina hiribildu askotan (Plentzia, Bilbo, Portugalete, Lekeitio, Ondarroa, Areatza eta Gerrikaitz) apelazioak Bermeoko Alkateei eta, azken buruan, Bizkaiko Jaunari egiten zitzaizkien, hiri-gutunean xedatutakoari jarraiki. Beranduago, apelazioak zuzenean Jaunari aurkeztuko zizkioten.

Alkatearena izan ezik, gainerako karguak hiribildu batetik bestera aldatzen ziren; toki guztietan ez zeuden kargu berdinak ezta kargu kopuru berdina. Eta karguak ezberdinak zirenez, horien eginkizunak ere aldatzen ziren, hiribilduen arabera eginkizun horiek ofizial gehiago edo gutxiagoren artean banatzen zirelako eta izen ezberdina hartzen zutelako. Era berean, hiribilduaren izaerak (merkataritza, industria edo landakoa) karguen zereginak baldintzatzen zituen.

Beraz, landako hiribilduen gobernua, batez ere nekazaritza eta abeltzaintzako jardura zutenak, elizateen antzera antolatzen zen. Izan ere, ofizialen izendapena eta kopurua ezberdina izan zitekeen arren, eginkizun ia berdinak zeuzkaten: hornikuntzaz arduratzea, produktu jakin batzuen prezioak ezartzea, hiribilduaren ondasunak eta errentak kudeatzea, Erregeak egindako eskakizunetarako ordaindu beharreko kopurua biltzea, ordena publikoa mantentzea, bideak, mendiak baso eta ibai-baliabideak zaintzea, etab.

Industria edo merkataritza jarduera garatzen zuten hiribilduetan, Erregimentuak, hau da, hiribilduaren udala, kontu horiek kudeatzeaz gain, tokiko Ordenantzen bitartez jarduera ekonomikoaren alderdi guztiak kontrolatzen zituen. Udal-ordenantza horiek era zehatzean arautzen zuten artisautza-jarduera, merkataritza jarduera (merkatu publikoa, mota guztietako dendak, ostatuak, labeak, etab.), janari-hornikuntza (Jaurerri osoan zehar ohikoa zen arazoa eta Foruak ere arautzen zuena), pisu eta neurrien kontrola, arriskutsuak izan zitekeen jarduerak, eta abar.

Horrez gain, hiribilduetako Erregimentuak zerbitzu publikoez arduratzen ziren: kaleen garbiketa eta mantentze-lanak, suteen aurkako zerbitzua, ospitalea, umeen heziketa, kaxako umeen zainketa, kartzelaren mantenua, alfer eta gaizkileen kanporaketa, hiribilduaren defentsa, etab.

Lehenago gainetik aztertu ditugu hiribilduek eta Jaurerriak Erdi Aroa eta Aro Modernoaren hasieran izan zituzten harremanak. Oro har, tirabira askoko harremanak izan ziren eta azkenean, liskar ugariren ondoren (neurri batean bandoen arteko guduen eraginez piztutakoak), alde bietako erakundeek harremanak hautsi zituzten. Hala ere, 1630ean gauzak bere onera bueltatu ziren eta bloke biek elkarren arteko konkordia sinatu zuten, etorkizunerako harremanen oinarriak ezarriz.

Momentu ezberdinetan, hiribildu batzuek Jaurerriaren hiribildu bilakatzeko nahia adierazi zuten. Aldarrikapen horiek, jakina, gainerako hiribilduei enbarazu egiten zieten, batez ere hiriburutza eskuratzeko helburu berdina zuten hiribildu horiei. Jaurerria bere aldetik, beti bereizketa horren aurka ageri izan zen, Bizkaian bururik ez zegoela aldarrikatuz.

Hasiera batean, hiribilduak eratu ziren mendeetan, Bermeo zen hiribildu nagusia eta bertako alkateek beranduago sortu ziren beste hiribildu askoren apelazioak epaitzen zituzten. Gainera, Jaurerriaren buru bilakatzeko, bermeotarrak 1476an Fernando Katolikoak emandako pribilegio batean babesten ziren, Iturrizak aipatzen duena, baina Jaurerriak hala ere, beti deuseztatu eta legez aurkatu egin zuen xedea.

Egia da Bermeo, Bilbo baino hirurogeita lau urte lehenago eratu zena, garai hartan Jaurerriaren nukleorik garrantzitsuena izan zela, biztanleria eta ontzigintza-jarduera ekonomikoari dagokionez. Bertako Kofradiak 1353an idatzitako Ordenantzek itsas-arautegi baliotsua osatzen dute.

Baina laster, Bilbo hazten hasi zen. Hiri-gutunean eman zizkioten pribilegioei esker eta Gaztelarekin itsasadarraren bitartez zeukan komunikazio hobe baliatuz, Jaurerriaren merkataritza zentroa bilakatu zen. Gainera, ekonomia garatzeaz gain hiribilduko biztanleriak hazkunde ikaragarria izan zuen. Ondorioz, Bermeo garrantzia galduz joan zen eta bilbotarren artean Bizkaiko hiriburua izateko grina pizten hasi zen.

Jaurerriak ere Bilboren xedea deuseztatu zuen arren, Monrealek aitortzen duenez, errealitatean hiribilduak Jaurerriko hiriburua balitz bezala jardun zuen. Egoera berri honetan eragin handia izan zuen Korrejidorearen egoitza Bilbon egotea eta Erregimentu eta Aldundiaren bilkurak bertan egitea.

3. Jaurerriaren gobernu

Jaurerria integratzen zuten elementuak banan-banan aztertu eta bakoitzaren berezko administrazio-erakundeak ikusi ondoren, guztien erakunde komunak ikertzeko momentua da, bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak alde batera utzi barik, bloke guztientzako gobernu orokorra osatu zutenak.

Aurretik ikusi dugunez, Jauna zen Jaurerriko bloke ezberdinak lotzen zituen elementua. Izan ere, bloke bakoitza maiorazkoaren bitartez lotzen zen Bizkaiko Jaunarekin, berezko erakunde izaera mantenduz.

Bizkaian, beraz, bi indarrek bat egin zuten: Jauna eta bizkaitarren komunitatea. Fernando García de Cortázarrek *subiranotasun partekatua*

deitu zion horri. Jauna/Erregea Jaurerriaren autoritate gorena zen eta bere ordezkoren bitartez, hau da, Korrejidorea, gobernu gaiztatzen zuen. Horrela, Korrejidorea Bizkaiko gobernuaren erakunde guztien figura nagusia izango da, baina, era berean, Jaunaren boterea mugatuta egongo da, Foruak errespetatzeko zina eta lehenago aipatu dugun foru-pasearengatik.

Jaurerriaren gobernu ez da elementu ezberdinen loturatik jaiotako erakunde berri bat izango. Jatorrizko bloke bat zegoen, antzina Bizkaia deitzen zena eta hiribilduak eratzean Lur Laua deitzera pasatu zena, eta bloke horretara Durangaldea eta Enkarterri lotu ziren.

Berdin gertatu zen gobernuarekin. Jaurerriaren gobernuaren oinarria Bizkaia primitiboaren antolaketa-sistema izan zen, Gernikako Batzarrak alegia, eta horietara Jaurerriko kide berriak joaten hasi ziren Lur Lauan integratzen ziren heinean, interes komuneko kontuak eztabaidatzen zirenean. Honek lurralde ezberdinek Batzar Nagusietan izan zuten ordezkartza desberdina azaltzen du, aurrerago era zehatzagoan aztertuko duguna.

Batzar modalitate ezberdinak egon ziren, dagoeneko aipatu ditugunez aparte (Durangaldea eta Enkarterri): Lur Lauko Batzarrak, Lur Laua eta Hiribilduetako Batzarrak eta, azkenik, Lur Laua, Durangaldea, Enkarterri eta Hiribilduetako Batzarrak. Azken hauek ohikoenak izan ziren, Jaurerriaren bloke guztiak biltzen zituztelako. Horiek ezagutu ziren Batzar Nagusiak bezala. Aurrerantzean, Jaurerriaren gobernuaz hitz egitean modalitate honetaz arituko gara.

3.1 Batzar Nagusiak

Ez dugu informazio zehatzik Batzarren jatorriari buruz. Lehenengo datuak XIV. mendekoak dira eta garai hartan dagoeneko Batzarrak normaltasun instituzionalarekin funtzionatzen zirela egiaztatzen dute. Beraz, ez da ausartegia gobernu modu hauek XII. edo XIII. mendeetan sortu zirela pentsatzea.

Fernando IV.aren Kronikan 1308an Aretxabalagan egindako Batzarra aipatzen da. Era berean, 1342ko *Joanes Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penalak* eta 1394ko *Ermandadearen Kapituluak* Batzar Nagusien jardueraren berri ematen digute.

Dokumentu horiek jasotzen dutenez, jatorrizko Bizkaiko Batzar hauetara bizkaitarrak (“*omes buenos, fijosdalgo caballeros, excuderos, o vizcaínos*”) eta hiribilduetako ordezkariak bertaratzen ziren. Dirudienez, bizkaitar oro bertaratu ahal zen, Ermandadearen Kapitulatuan jadanik biztanle oro kaparea baitzen.

Erdi Aroan, Batzarretarako deia adarrak joz eta *deiadar mendietan* sutzarrak piztuz egiten zen. Hauek Bizkaiko mendirik garaienak ziren: Gorbeia, Oiz, Sollube, Ganekogorta eta Kolutza. Deiadarra mendi jakin hauetatik egiteak Enkarterri ere goiz Batzar Nagusietan integratu zela pentsarazten digu, Ganekogorta lurralde horretatik oso hurbil baitago eta Kolutza bere mugen barruan. Adarrak jotzeko prozedura hau XVII. mendetik aurrera aldatu egin zen eta deia postaz egitea arrunt bilakatu zen.

Hasieran Jaunak egiten zuen deia, baina beranduago, Sindikoek hala eskatu zutenean, Diputatuei kontsultatu eta gero, Korrejidoreek hartu zuten ardura hori.

Batzarrek ez zuten aldizkakotasun zehatzik; alderantziz, nahiko irregularrak izan ziren. Erdi Aroan batzarkideak maizago bildu ohi ziren eta urte batean lau batzar egitera iritsi ahal ziren, baina laster bilkura kopuruak behera egin zuen eta arrunt bilakatu zen urtero bilera bat edo bi egitea. Batzar hauek lau eta hiru egun arteko luzera zeukaten. Bilkurarik gabeko urteren bat ere egon zen, baina gutxienez bi urtean behin bildu behar ziren, gobernu-karguek bi urteko iraupena zutelako, eta hauteskundeak Batzarrean egiten ziren.

Bilkura egiteko tokiari dagokionez, Batzar batzuk Aretxabaleta eta Idoibalzagan egin ziren arren, XV. mendetik aurrera Gernikan ezarri zuten Batzarretarako egoitza, haritz ospetsuaren azpian, Gernikako Antiguako Andra Mari ermitatik oso hurbil, Foruaren zina egiten zen lekua. XVII. mendean bilerak ermita horretara lekualdatzea erabaki zuten, eguraldi txarretik babesteko eta polemika zor zezaketen gai jakin batzuk lasaiago eztabaidatu ahal izateko, nolabaiteko isolamenduarekin, batzar batzuetara jende ugari bertaratu ohi zen eta.

Jaurerria osatzen zuten erakunde politikoen ordezkariak dagokionez, bi aro nagusitan bereiz daiteke: XVII. mendera arte eta XVII. mendean geroztik.

Lur Lauak ordezkari handiena zeukan, ez soilik lurralderik zabalena izateagatik, baizik eta jatorrizko nukleoa zelako, zeinari beste blokeak gehitzen joan zitzaizkion. Nagusitasun hori bloke ezberdinetako ahalduak deitzeko ordenan ere islatzen zen. Lehenengo eta behin, Lur Lauko hirurogeita hamabi elizateek jasotzen zuten deia; gero, hiribilduek (hiribildu bakoitzak ordezkari indibiduala zuen); ondoren Enkarterri, bere sindikoak ordezkari; eta azkenik Durangaldea, Batzarretan aukeratzen zuten prokuradore batek ordezkari zuena. Azken bi lurralde hauek gai komunak eztabaidatzen zirenean bakarrik bertaratzen ziren, baina errealitatean ia beti jorratzen ziren gai komunak.

Dena den, lurralde bi hauek eta hiribilduek ez zuten Jaurerriaren Gobernuaren hauteskundera parte hartzeko eskubiderik. Eta horrek, ikusi dugun bezala, Jaurerria eta bloke horien arteko istiluak eragiten zituen, hauek baztertuta sentitzen zirelako.

1487ko *Chinchillaren Ordenamenduak* Batzarren antolaketa aldatu zuen, hiribilduei joatea debekatu zuelako. Egia da praktikan debeku hori ez zela guztiz errespetatu eta hiribilduak XVI. mende erdian Batzarretara itzuli zirela, baina hiribilduen eta Jaurerriaren arteko konkordia instituzionala, eta beraz, Gernikako Batzarretara itzulera ofiziala, ez zen 1630era arte gauzatu,

Elkartasun eta Konkordia Ituna idatzi zen urtea. Dokumentu honek garrantzi ikaragarria izango zuen aurrerantzean Jaurerriaren egitura instituzional eta juridikoa osatzeko.

XVII. mendean, Jaurerria eta bere osagaien arteko liskarrak gainditu eta gero, Batzarren ordezkaritzaren inguruko zenbait alderdi aldatu ziren. Alde batetik, Durangaldeak, 1628an, boto aktibo eta pasiboarekin Jaurerriaren Gobernu Unibertsalerako karguen hauteskundean parte hartzea lortu zuen, baina bi boto besterik ez zizkioten eman, eskatzen zituen hamabi botoen ordezkari. Bi urte beranduago, 1630eko Konkordiaren ondoren, hiribilduak Batzar Nagusietan berriz integratu ziren, hauteskundeetan era aktibo eta pasiboan parte hartuz, hiribildu bakoitzeko boto batekin. Enkarterriri dagokionez, azaldu dugu dagoeneko nola bertako hamar errepubliketako bost Jaurerriarekin elkartu ziren, bakoitzak boto bat lortuz, Lur Lauko elizateen baldintza berdinetan. Elkartu ez ziren gainerako errepublikek, aldiz, Sindikoaren ordezkaritzarekin jarraitu zuten, boto bakar batekin.

Baina Jaurerriko auzokideen benetako ordezkaritza ulertzeko, ez da nahikoa elementu bakoitzaren ordezkari kopurua zehaztea. Kopuru hori elementu bakoitzak ordezkatzeko duen biztanleriarekin konparatu behar dugu, hau da, lurralde bakoitzaren biztanle kopuruarekin. Monrealek hurrengo proportzioak eskaintzen dizkigu:

	Su- errola kop.	Biztanleriaren %	Ahaldun kop.
Lur Laua	5.785	%46	72
Hiribilduak eta hiria	3.916	%31	21
Errepubliken batasuna	1.028	%8	5
Enkarterri	1.168	%9	1

Durungaldea	684	%6	2
Guztira	12.581	%100	101

Datu hauetatik ondorio desberdinak atera daitezke: alde batetik, Lur Lauak, proportzionalki, bere biztanleria kopuruari zegokiona baino ordezkaritza handiagoa zuen. Izan ere, biztanleria osoaren %46arekin, 72 ordezkari zituen, Enkarterrik (Jaurerrian integratu ez ziren errepublikak) biztanleria osoaren %9arekin ahaldun bakar bat zuen bitartean.

Bilboren egoera antzekoa zen. Biztanleriaren %10a hartzen zuen, 1.300 sutzar, eta ahaldun bat besterik ez zuen. Gainerako hiribilduetan, bai, ordezkaritza biztanleriarekin proportzionala zen: biztanleria guztiaren %21arekin, 20 ordezkari biltzen zituzten.

Desberdintasun hauen ondorioz, tentsio logikoak piztu ziren Bilbo eta Jaurerriaren artean, Lur Lauak maiz, besteen interesen gainetik bere nagusigoa inposatzen zuelako.

Durungaldeak ere oso ordezkaritza eskasa zuen, kontuan hartzen badugu bere lurraldean Jaurerriaren biztanleria guztiaren %6a biltzen zela. Ostera, XVIII. mendean desproporzio hori zuzendu egin zen.

Batzarretan lurralde ezberdinak ordezkatzeko zituzten ahaldun edo prokuradoreek hainbat baldintza bete behar zituzten, hala nola, kapareak edo jatorriz bizkaitarrak izatea, ordezkatzeko zuten lurraldearen auzokideak izatea, Jaurerriarekin ordaindurik gabeko pagamendurik ez izatea eta gaztelaniaz irakurri eta idazten jakitea. Azken baldintza hau XVII. mendearen hasieran eskatzen hasi ziren.

Udalerri bakoitzak bidaltzen zuen prokuradore kopurua ez zen zehatza; normalean bat edo bi bidaltzen ziren. Kontuan izan behar dugu ordezkariak bidaltzea gastu handiak eragiten zizkiela baliabide ekonomiko eskaseko udalerri askori, Batzarra luzatzen zen bitartean ordezkariari ostatu eta janari gastuak ordaindu behar zizkietelako.

Batzarrak Jaurerriaren ordezkaritza nagusia ziren eta beraz, euren zeregina zeharo garrantzitsua zen. Bertan, Jaunak Foruak errespetatuko zituela zin egiten zuen, garrantzi ikaragarritzko betekizuna eta *Foru Berriak* jasotzen zuen lehenengo araua. Era berean, Batzarretan Korrejidore berriak kargua hartu eta juramentu berdina egiten zuen.

Batzarren beste eskudantzia bat, hiri-gutun batzuetan xedatu zena eta beranduago *Foru Zaharrak* jaso zuena, hiribilduak eratzeko baimena ematea zen. Izan ere, euren lurraldean hiribilduak eratzeko Jaunak bizkaitarren onespina behar zuen eta hori lortzeko Batzar Nagusietan baimena eskatu behar zien.

Batzarren eginkizun legegilea ere oso garrantzitsua zen. Batzarkideek arau berriak sortzeko erabakiak hartzen zituzten, eta horien testuak idatzi eta onartzen zituzten, lege orok Jaunaren baimena behar izan arren. Bertan idatzi ziren 1342ko *Joanes Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penala*, 1394ko *Ermandadearen Kapitulatua*, 1452ko *Foru Zaharra* eta 1526ko *Foru Berria*. Arautegi guzti hauek Batzarrean onartu bezain laster indarrean jarri ziren, nahiz eta, esan berri dugun bezala, Jaunaren baimena behar zuten.

Jaunak ere legeak egin ahal zituen, baina Batzarrek Foruak zaintzeko eskumenak zituzten eta Jaunaren eta bere ofizialen xedapenak Foruen aurka ez egiteaz arduratzen ziren. Horretarako, foru-pasea erabiltzen zuten, *Chinchillaren Ordenamentuaz* hitz egitean azaldu duguna.

Gainera, Batzarretan Jaurerriaren Gobernu Unibertsala aukeratzen zen eta ekonomia arloko gaien inguruko erabakiak hartzen ziren: ateratzen zen

gobernuak aurkeztutako kontuak onestea, Erregeak egindako eskakizunak (dirua edo gizonen zerbitzua) onartu eta banaketa egiteko modua zehaztea, produktu batzuen prezioak ezartzea, etab. Horrez gain beste zerbitzu garrantzitsuez arduratzen ziren: Jaurerriaren defentsa antolatzea, pisu eta neurriak zaintzea, mendiak eta baliabide ekonomikoak zaintzea, eta hiribildu eta elizateekin elkarlanean Bizkaiko bideak eraiki eta mantentzea.

Azkenik, Batzarrek kargu publikoak kontrolatzeko eskumena ere zeukaten. *Egoitza epaiketaren* bitartez, kargu publikoei euren jarduera bukatzean egindako kudeaketaren inguruko kontuak eskatzen zizkieten.

Batzarren egitura ulertzeko, kontuan izan behar dugu Behe Erdi Aroan Bizkaia bandoen arteko liskarren kliman murgilduta zegoela. Eta tentsio hori, ikusi dugunez, Batzarretara hedatzen zen, bandoak gobernu karguak aukeratzeko euren interesak inposatzen saiatzen zirelako. Egoera honen aurrean, Batzarra bi bandoen banaketaren bitartez egituratzea erabaki zen: Ganboatarrak eta Oinaztarrak. Errepublikak guztiak bando batean integratu behar ziren, auzokideek erabakitzen zutenaren arabera. Bandoen arteko guduak bukatu zirenean, Batzarrek ez zuten berehala normaltasuna berreskuratu eta bando-banaketak jarraitu egin zuen, baina hauteskunderen mekanikan soilik. Horrela, bando bakoitzak karguen erdia aukeratzen zuen: Diputatu bat, Sindiko bat, sei Erregidore, eta abar.

3.2 Erregimentu nagusia

Batzar Nagusiak Bizkaiaren ordezkaritza nagusia ziren eta eurengan zegoen Jaurerriaren goiboterea. Hala ere, errealitatean ez ziren Jaurerria gobernatzeko organorik egokiena. Jendetsuegiak zirenez eztabaidak gehiegi luzatzen ziren eta sarritan gogorregia zen hainbeste jenderen artean ados jartzea. Gainera ordezkaturako erakundeek gastu handiegia egin behar zuten prokuradoreak Batzarretara bidaltzeko. Beste alde batetik, askotan hausnarketa sakonagoa edo kudeatzeko denbora gehiago behar zuten kontuak jorratzen ziren eta horrek are gehiago luzatzen zituen bilkurak.

Hori dela eta, XV. mende bukaeran Batzar Nagusiak organo murriztuago bat eratzea erabaki zuen. Organo hori maizago biltzen zen eta Batzarrik gabeko denboraldietan Jaurerriaren gobernu hartzen zuen.

Errege Katolikoek 1500eko otsailaren 18an idatzitako berrespen-gutunean (Labayruk *Historia General de Bizcaya* obran argitaratutakoa, III. tit., 40. eranskina), Erregimentua eratzeke baimena ematen zuena, Gernikako Batzarretan organo hau sortzeko egin zuten akordioa agertzen da: “*Por quitar las Juntas generales que muy á menudo se suelen hazer e porque mejor e mas retamente la republica sea regida e gobernada, ordenamos que en cada un año allende de dos Letrados e dos Diputados e dos Escribanos de Junta e dos Procuradores que por costumbre antiguamente este dicho Condado tiene de elegir e nombrar, que haya doze Regidores para que juntamente con los otros Oficiales de suso nombrados se hayan de juntar en cada un año tres veces de quatro en quatro meses en el lugar donde fuere acordado, en uno con el Corregidor del dicho Condado o su Teniente, para que entiendan en la buena gobernación e regimiento de la república del dho Condado e que hayan de ser puestos e nombrados los dhos doce Regidores por la Junta general de dho Condado de dos años, los quales de ocupen en el dho Ayuntamiento ocho días e no mas de ida e estada*”.

Korrejidorearen iritzia entzun eta gero, Erregimentua sortzearen alde zegoena, Erregeek gobernu-organo berria onartu zuten eta hurrengo agindua egin zuten: “*que los dhos Regidores sirvan personalmente los dhos oficios e non puedan substituir nin poner otros en su lugar que usen los dhos oficios*”. Izan ere, garai hartan oso ohikoa zen gobernu-karguek euren ofizioetan ordezkioak jartzea.

Hurrengo karguek osatzen zuten Erregimentua: Korrejidorea, Lur Lauko hamabi errejidore, bi diputatu eta bi sindiko, bi letradun eta bi eskribaurekin batera. Kargu hauek bi urtean behin aukeratzen ziren Batzar Nagusietan.

Errealitatean, sortutako Erregimentuak Lur Laua ordezkatzeko zuten, bloke honek Jaurerri osoa ordezkatzeko zuela ulertuz. Hala ere, beste Erregimentuak egon ziren, hiribilduen parte hartzea izan zutenak, hauek ez baitziren ordezkatzeko sentitzen Lur Lauaren Erregimentuan. Organo horietara, hiribilduek hogeita bat ordezkari eraman ohi zituzten eta beraz, gehiengoa ziren eta Batzar Nagusietako blokeen ordezkaritza eraldatzen zuten. Horregatik, hiribilduek gaiak guztien Erregimentuan eztabaidatzea nahiago zuten eta Lur Laua, aldiz, kontu garrantzitsuak Batzar Nagusietara eramaten saiatzen zen, bertan gehiengoa zuelako.

Enkarterri eta Durangaldeak ez zuten ordezkaritzarik Erregimentuan eta ez zuten karguen hauteskundera parte hartzen. Dagoeneko azaldu dugu egoera horrek eragiten zituen tentsioak. Hala ere, batzuetan, Erregimentura deitzen zituzten, konturen bat eztabaidatzeko euren iritzia behar zutenean, baina hori ez zen maiz gertatzen.

Ez ditugu hemen zehaztuko Erregimentuan ordezkaritza handiagoa izateko grinagatik sortu ziren istiluak. Gogoratu beharra dago ordea, 1630eko *Konkordia* sinatu zenetik, hiribilduek karguak hautatzeko parte hartze aktibo eta pasiboa eskuratu zutela, Durangaldeak bi urte lehenago lortu zuen bezala (baina bi botorekin soilik), eta mende berdinean Jaurerrian ahots eta botoarekin integratu ziren bost errepublikek lortu zuten bezala. Horrenbestez, egitura berdina mantendu arren, Lur Lauko Erregimentua Erregimentu Nagusia izatera pasatu zen, Jaurerriaren elementu guztiak ordezkatzeko zituelako.

Erregimentuak Batzar Nagusiaren eskumen berdinak zituen, baina kontu politiko eta legegile batzuk Batzarrean onartu behar ziren. Hori da, adibidez, *Foru Berriaren* kasua, 1526an Erregimentuan onartu zena eta urte berean Bizkaiko Jaunak, Karlos I.a Erregea, onetsi zuena, baina hurrengo urtera arte Batzar Nagusien onespina jaso ez zuena.

1611tik aurrera, Erregimentua Jaurerriaren Gobernu Unibertsala bezala ezagutzen hasi zen, nahiz eta errealitatean 1630era arte ez zituen

Jaurerriaren bloke guztiak benetan ordezkatu.

3.3 Erregimentu berezia. Aldundia

Baina Erregimentuan, Batzarren eragozpenak errepikatzen ziren. Bilkuretara joatea ere deserosoa eta garestia zen Jaurerriko udalerrri askorentzako eta gainera askotan garrantzi gutxiko kontuak eztabaidatzen ziren. Horregatik, 1566an, Erregimentu Nagusiaren menpeko organo txikiago bat sortu zen: Erregimentu berezia

Erregimentu bereziak ere modalitate ezberdinak zituen: lehenengo eta behin Lur Lauko Erregimentu berezia zegoen, Korrejidoreak, Diputatuek eta, ia beti, Sindiko eta Letradunek osatzen zutena; horiei batzuetan, Bilbon bizi zen Erregidoreren bat gehitzen zitzaien. Horrez gain, Erregimentu berezi bateratu bat ere existitzen zen. Horretara, aurreko kideez aparte Bilbo, Bermeo eta Durangoko ordezkariak joaten ziren, hau da, heren buruak ziren hiribilduak (“cabezas de tercio”, Batzarretako deialdiari erreferentzia egiten dion kategoria dugu; hiribildu hauek deia jasotzen zuten eta euren hereneko beste hiribilduei luzatzen zioten). Hirugarren modalitateak Durangaldea eta Enkarterriko ordezkariak barne hartzen zituen, baina salbuespenezko kasuetan bakarrik erabili zen.

Erregimentu Nagusian gertatu zen moduan, 1630eko Konkordia sinatu eta gero modalitate horiek guztiak desagertu ziren, eta Lur Lauko Erregimentu berezia mantendu zen soilik, dagoeneko Jaurerriaren Erregimentu Nagusia ordezkatzeko zuena. Ordutik aurrera hurrengo hauek osatu zuten Erregimentua: Korrejidorea, Diputatuak, Sindikoak eta Jaurerriaren Idazkariak. 1645tik aurrera erakundeak izen berria hartu zuen: Aldundi Nagusia.

Mende horretan zehar oraindik, Aldundiaren jardura Erregimentuak ematen zion boterearen bitartez legitimatu behar zen, baina mende bukaeran Erregimentutik baztertu eta organo independentea bilakatu zen. Praktikan, Aldundia XVIII. mendean zehar sendotuz joan zen, Jaurerriaren gobernuan

garrantzia hartuz eta Erregimentu Nagusiaren garrantzia murriztuz. Horrela, organo biei *Jaurerriaren Gobernu Unibertsala* deitzen hasi zitzairen, bien arteko desberdintasunik egin gabe.

Aldundiak eginkizun ezberdinak zituen. Erregimentua biltzen zenean, bilkura zuzentzen zuen. Era berean, Batzar Nagusietarako deialdia egiten zuen eta horien burua zen. Batzarretan ahotsa zuen, baina ez botoa. Bertan egiten ziren akordioak gauzatzen zituen, soldadutza antolatzen zuen eta armadaren buruzagiak izendatzen zituen, Jaurerriaren aurrekontuaren arabera zergak eta arielak biltzen zituen, bideak zaintzeaz arduratzen zen, ongintza zerbitzuak kudeatzen zituen, biztanleriaren segurtasuna babesten zuen eta, Batzarrak egiten zuen bezala, Foruak gordetzen zituen.

3.4 Sindikoak

Jaurerriaren gobernua osatzen zuten organoak eta karguez hitz egin dugu dagoeneko. Horien artean garrantzitsuena Korrejidorea zen, Jaun/Erregeak izendatzen zuena, baina garratzi bereziko beste kargu bat ere bazegoen, zeregin oso inportantea burutzen zuena: Sindikoa.

Jaurerrian bi Sindiko Prokuradore zeuden, lehenengoa eta bigarrena. Gainerako gobernu karguak bezala (Korrejidorea izan ezik), Batzarretan aukeratzen ziren bi urtean behin; sindiko bat Ganboatarrek aukeratzen zuten eta bestea Oinaztarren bandoko kideek. Sindikoak interes publikoa eta Foruak zaintzearekin zerikusia zeukan guztiaz arduratzen ziren.

Sindikoeak foru-pasea burutzen zuten. Bizkaian aplikatu beharreko xedapenak Foruekin bateragarriak ziren edo ez egiaztatu ondoren, euren esku zegoen foru-pasea eman edo ez ematea. Hala ere, gero, Letraduetako batek euren txostena sinatu behar zuen. Era berean, Sindikoeak Aldundian hartutako akordioei betoa jarri ahal zieten Foruen aurka egiten zutela uste bazuten eta haiek ziren Jaurerria kausa edo auzi guztietan ordezkatzeko zutenak.

Bestalde, Batzar Nagusiak eta Erregimentuetarako deialdia eskatzen zuten eta bileretan gai-zerrenda aurkezten zuten. Batzuetan, aldez aurretik Erregimentua edo Aldundian agertutako kontu garrantzitsuak Batzar Nagusira eramaten zituzten, horien inguruko erabakiak asanbladan hartzeko. Horrez gain, Sindikoak Jaurerrian auzotu nahi ziren guztiek egiaztatu beharreko odol-garbiketa edo kaparetasun informazioaz arduratzen ziren.

4. Bizkaiko foru-zuzenbidea

Ikusi eta aztertu ditugu Jaurerriaren gobernu osatzen duten erakundeak, baina foru-erregimena organo horiez haratago doa bizkaitarren gobernu modua zehazterako orduan eta zuzenbide publikoa eta batez ere zuzenbide pribatuaren esparruko alderdi ugari hartzen ditu barne.

Foru-zuzenbidea Erdi Aroan zehar sortu zen, Jaurerria gizarte, politika eta ekonomia arloan garatzen zen bitartean. Ohiturazko zuzenbide bat izan zen, idatziz jasota ez egon arren Jaurerriko agintari judizialek mendeetan zehar aplikatu zutena. Landa eremuetako bizkaitarrek berezko tresna bat bezala ikusten zuten, euren bizitzeko modua zaintzen zuena.

Erdi Aroan, beste Erresuma eta lurraldeetan ere ohiturazko zuzenbidea nagusitu zen, eta leku horiek ia guztiek arauak idatziz jaso zuten, bestelako arautegien aurrean (errege-zuzenbidea, erromatar-kanonikoa) euren ohiturazko zuzenbidearen iraupena bermatzeko.

Bizkaiak ere berdin egin zuen eta egoerak hala eskatu zuenean zuzenbidea idatziz jaso zuen. Horrela, XIV. mendean zuzenbide penalari buruzko testu bi idatzi ziren: *Joanes Nuñez Larakoa Jaunaren Koaderno Penala* eta *Ermandadearen Kapitulatua*. Arautegi biak bandoen arteko guduen testuinguruan idatzi ziren, delitugintzarekin bukatzeko helburuz, garaiko arazo nagusia.

4.1 Foru Zaharra eta Foru Berriaren sorrera

XV. mendean bizkaitarrek Batzar Nagusietan ohiturazko zuzenbidea idatziz jasotzeko erabakia hartu zuten, hainbat mendez geroztik erabiltzen zituzten arauak idatzi barik edukitzeak arazoak ekar zitzakeela ulertu zutelako. *Foru Zaharraren* hitzaurrean bertan aitortzen denez, zaila zen bizkaitarrek berezko eskubide, ohitura, frankizia eta askatasunak zituztela frogatzea eta Jaunak (garai hartan Gaztelako Erregea) horiek errespetatzea lortzea, idatziz jasota ez bazeuden eta parte biek, bizkaitarrak eta Jauna, onesten ez bazituzten.

Forua idazteko, bizkaitarrek komisio bat izendatu zuten 1452ko ekaineko Batzarrean. Ostera, ez zuten juristen komisio bat osatu; aldiz, Foru Alkateak eta gizon onak aukeratu zituzten, hau da, prestakuntza teknikorik gabeko pertsonak, baina Bizkaiko ohiturazko zuzenbidea ondo ezagutzen zutenak.

Mandataria hauek *Foru Zaharra* idatzi zuten eta hilabete eta erdi beranduago Batzarrean aurkeztu zuten, asanbladak onartu zezan. Korrejidoreak ez zuen Forua idazteko komisio horretan parte hartu, Erregearen beste kontu batzuekin arduratuta zegoela argudiatuz, eta Batzarrean Forua irakurri zutenean ere, bizkaitarren onespina jaso zedin, ez zen aurkeztu. Testua irakurri eta gero, guztiek onartu zuten eta Batzarrak dokumentua Erregeari (Bizkaiko Jauna ere zena) bidali zion bere onespina lortzeko. Hala ere, errege-baimena jaso baino lehen indarrean jarri zuten. 1452 urtean bertan, Henrike IV.a Erregeak, Bizkaiko Jaun bezala, *Forua* baieztatu zuen.

Foru Zaharrak ohitura jasotzen zuen arren, ez zen zehatzegia eta Foruan agertzen ez ziren kasu batzuk aurrekarien arabera epaitzen ziren.

XVI. mendearen hasieran aldaketa batzuk egin zituzten eta delitu jakin batzuetarako zigorrak bigundu ziren, bandoen arteko gatazkak bukatu eta gero, zorrotzegiak zirelako. Baina aldaketa horiek ez ziren nahikoak izan eta laster Forua zaharberritu behar zela pentsatzen hasi ziren. Forua nahiko

berria zen arren, hirurogeita hamalau urte, garai hartan gizartea asko aldatu zen, beste kontuen artean bakea berreskuratu zelako, eta ekonomia asko garatzen ari zen. Horregatik, oso teknikoa ez zen *Foru Zaharra* zaharkituta geratu zen.

Hori adierazi zuten bizkaitarrek *Foru Berriaren* hitzaurrean, 1526ko apirilaren 5eko Batzar Nagusian onartu zena: “*el Fuero Viejo fue antiguamente escrito, é ordenado en tiempo que no havia tanto sossiego, é justicia, ni tanta copia de Letrados ni experiencia de Causas en el dicho Señorío*”. Bertan aitortu zutenez, *Foru Zaharra* hainbeste zehaztaperen tekniko behar ez ziren garaian idatzi zen eta beraz, bertan jasotzen ziren xedaperen asko ez ziren beharrezkoak eta, aldiz, praktikan sarriago jartzen ziren beste asko falta ziren.

Horregatik bizkaitarrek Forua berriztatzea erabaki zuten eta komisio berri bat izendatu zuten, baina oraingo honetan Letradunez eta Forua ondo ezagutzen zuten pertsonen osatuko zena: “*Personas de Letras, é de ciencia, é conciencia, é experimentados en el dicho Fuero, usos, é costumbres, é libertades de Vizcaya*”. Beraz, komisio teknikoago bat osatu zuten, hiru Batxiler eta Lizentziadun batekin. Hala ere, komisioan Foru Alkate bat eta kualifikaziorik gabeko baina lurraldeko usadioa ondo ezagutzen zuten beste bederatzi pertsona ere egon ziren. Horiez gain, Korrejidorea ere komisioaren parte izango zen. Bilbon bilduta, komisio berriak *Foru Berria* idatzi zuen, laster organo ezberdinen onespina jasoko zuena. 1526an bertan Erregimentuak eta Karlos I.a Erregeak onartu zuten eta hurrengo urtean, berdin egin zuten Batzar Nagusiek.

Foru Berria ere usadio eta ohituretan oinarritzen zen eta *Foru Zaharrean* bezala, lege asko “*havian de Fuero, uso y costumbre*” goiburuarekin hasten ziren, baina testu berriak formula horri “*y establecían por Ley*” esaldia gehitzen zion beti. Horrela, bizkaitarrek ordura arte ohiturazko zuzenbidea zenari forma legala eman nahi zioten. *Foru Berriak* aurreko Foruaren xedaperen asko hartzen zituen barne, baina hobeto egituratuta zegoen.

Hogeita hamasei titulutan banatuta, Foruaren edukia eguneratu zuten, erabiltzen ez ziren legeak ezabatuz eta funtsezko erakundeak modu zehatzagoan arautuz.

4.2 Foruak arautzen zituen gai nagusiak

Oro har, kontuan izan behar dugu *Foru Berria* Jaurerria eta hiribilduen artean komunikaziorik ez zegoen garaian idatzi zela, oraindik *Chinchillaren Kapitulatua* indarrean zegoelako. Batzar Nagusietara joan ezinik, hiribilduek ez zuten *Forua* idazteko prozesuan parte hartu, eta beraz honek elizateen zuzenbidea jaso zuen eskusiboki. Horrela, Lur Lauaren mandatariek, *Foru Berria* idazteko Bilbon bildu zirenean, bilera Bilboko hiribildutik kanpo egin zutela jaso nahi izan zuten, Martín Saez de la Najaren etxean (“*que es fuera de la Noble Villa de Bilbao*”). Hala ere, ikusi genuenez, Foruaren xedapen askok bizkaitar guztiengan eragina zuten, hiribilduetako auzokideak barne.

Forua gai ezberdinetan banatzen zen: lehenengo eta behin, zuzenbide publikoari buruzko hainbat xedapen zegoen, Bizkaiko foraltasunaren funtsezko elementu ezberdinak arautzen zituztenak. Ildo honetan, esanguratsua da lehenengo tituluaren izena: “*De los privilegios de Vizcaya*”. Horrez gain, zuzenbide prozesala, zuzenbide zibila eta zuzenbide penalarren inguruko gaiak arautzen ziren, eta eduki ekonomikoko lege batzuk ere zehazten ziren.

Zuzenbide publikoari dagokionez, aipatu ditugu dagoeneko lege garrantzitsuenetako batzuk, hala nola, Jaunaren zina, foru-pasea, hiribilduak eratzeke Batzarren baimenaren beharra, bizkaitarrek bere Jaunari zor zioten soldadutza berezia eta kaparetasun unibertsala.

Honela zehazten zen Jaunak Foruak errespetatu behar zituela: “*guardar á la Tierra llana de Vizcaya, é Villas, é Ciudad, é Durangueses y Encartaciones... todos sus Privilegios, franquezas, é libertades, Fueros, é usos, é costumbres, é Tierras, é Mercedes que de él han segun los ovieron*

en los tiempos pasados é les fueron guardados” (1. tit., II. legea). Ikusten dugunez, legeak ez zuen soilik Forua aipatzen; foruaren ordenamendu juridikoa osatzen zuten elementu guztiak adierazten zituen, batez ere antzinako usadioetan oinarritzen zena.

Zin egitea Bilboko hiribilduaren sarreran egiten zen lehenengo, Erregimentuaren aurrean, eta Larrabetzuko San Emeterio eta San Zeledonio elizan gero. Ondoren, Jauna Gernikara abiatzen zen eta han bizkaitarrek Errege eta Jaun bezala harrera egiten zioten eta berriro Foruak babesteko zina egiten zuen arbolaren azpian. Azkenik, Bermeoko Santa Eufemia elizan ere zina egiten zuen.

Kargua hartzen zuen Jauna bizkaitarren deia jaso eta urte bateko epean etorri behar zen Bizkaira, zina egiteko. Hori ez egitekotan, Foruak ezartzen zuenez, errentak jasotzeko eskubidea galtzen zuen (burdinoletatik jasotzen zituen zergen salbuespenarekin). Gainera, Foruak zin egin arte ez zen bere agindurik betetzen.

Foruak errespetatzeko zina beste lekuetan ere egiten zen Behe Erdi Aroan, adibidez, Nafarroa, Aragoi edo Valentzian. Subiranoa eta bere menpekoen arteko harremana ulertzeko garaiko modua zen, alde bien arteko paktu baten bitartez. Kontratuzko harreman bat ezartzen zen, non subiranoak bere menpekoen eskubide eta pribilegioak aintzat hartzen zituen eta hauek men egiten zioten.

Foruak Jaunari ordaindu beharreko errentak zehazten zituen (1. tit., IV. Legea): laborarien basetxeen gaineko ehun mila marabediko baterakozentsu bat; hiribilduek ordaindu beharreko zentsua, hiribilduei lurak uzteagatik Jaunak jasotzen ez zituen laborarien errenten ordainez; probestu-errentak; eta eliza batzuen hamarrenak, Bizkaiko hainbat kapare bezala Jauna eliza batzuen jabea zelako.

Errenta hauetatik kanpo, bizkaitarrek ez zuten zergarik ordaindu behar, Foruaren lege horrek adierazten zuenez: *“todos los dichos Vizcaynos, Hijos-*

Dalgo de Vizcaya, y Encartaciones, y Durangueses, siempre lo fueron, é son libres, y essentos, quitos é franqueados de todo Pedido, Servicio, Moneda, é Alcavala, é de otra qualquiera imposición que sea, ó ser pueda, assi, estando en Vizcaya, y Encartaciones, é Durango, como fuera de ella". Horrek, ordea, ez du esanahi ezer ordaindu behar ez zutenik. Izan ere, Erregeak, Bizkaiko Jaun bezala, askotan eskatu zizkien bizkaitarrei ekarpen ekonomikoak, baina ez zerga finkoak, baizik eta eskaera puntualak, nahiko ohikoak zirenak eta Batzarretan onartu behar zirenak.

2. tituluan Foruak Jaurerriaren ofizialak zehazten zituen eta horien soldata ezartzen zuen. Espresuki debekatzen zuen ofizial horiek euren jardueragatik bestelako diru kopuruak jasotzea. Hori kohetxotzat hartzen zen. Era berean, 4. tituluak ofizial horiei egoitza epaiketa egin behar zitzaiela xedatzen zuen eta aldeko epaia jaso arte ezin ziren euren karguetara bueltatu.

Larrazabal irakasleak, *La Foralidad de Bizkaia* obran *Foru Berriaren* alderdi interesgarri bat azpimarratzen du. Foruak, bizkaitarren eskubide indibidualak bermatzen zituen, bizkaitar guztien berdintasun juridikoa aintzat hartuz, lurraldeko biztanle guztiak kapareak zirelako. Horrela, bizkaitar guztiek beste lurraldeetan nobleek bakarrik zeuzkaten bermeak zituzten, hala nola, torturaren debekua (heresia, Erregearen kontrako ekintza, moneta faltsua eta sodomia kasuetan izan ezik), epailearen agindurik gabe atxilotuak izateko debekua, zorrengatik kartzelaratuak izateko debekua, egoitzaren bortxaezintasuna edo Bizkaian bertako epaiengatik epaitua izateko eskubidea, apelazio kasuak eta Joana Erreginaren 1507ko Probisioak zehazten zituen kasuak salbuetsiz. Hauek ziren Probisioak salbuesten zituen kasuak: "*aleue, ò traycion, o Riepto, ò crimen de falsa moneda, ò falsedad de carta ò sello del Rey*". (7. tit., II. legea)

Zentzu honetan, interesgarria da Bizkaiko Epaile Nagusiaren figura aipatzea, Foruan ere jasotzen zena. Epaile Nagusia Erregeak izendatzen

zuen epaile bat zen, XV. mende bukaeraz geroztik Valladoliden bizi zena. Bertan epaiketa-gela baten burua zen: Bizkaiko Gela, Errege Kantzelaritzaren menpekoa. Bizkaiko Gela hau bizkaitarren auziak Bizkaitik kanpo epaitu zitzakeen bakarra zen.

Epaile Nagusiak Bizkaiko legeen arabera ebazten zituen jatorriz bizkaitarrak ziren baina Bizkaitik kanpo bizi ziren biztanleen auzi zibil eta penal guztiak eta kaparetasunari buruzko kausak. Era berean, Korrejidorearen epaien eta Jaurerriaren beste justizien aurkako apelazioak kudeatzen zituen.

Horrela zioen Foruaren 1. titularen XIX. legeak: *“que ningun Vizcayno de Vizcaya, tierra-llana, villas y ciudad della, y de Encartaciones, ni Durangueses, por delito alguno... ni por deuda alguna, no pueda ser convenido, hallandose fuera de Vizcaya, por los alcaldes del crimen de sus Altezas, ni por otro Juez alguno de sus Altezas, ni destos Reynos, & Señoríos, ni juzgado por ellos; salvo por el dicho su juez mayor de Vizcaya, aunque los tales delitos, é deudas, sean hechos, contraydos fuera de Vizcaya, en Castilla, en qualquier parte della”*. Eta gauza berbera ezartzen zuen 7. titularen I. legeak: *“Que los Vizcaynos en primera instancia, no puedan ser sacados de Vizcaya”*.

Bizkaiko Epaile Nagusia prestigio handiko kargua zen eta Valladolideko Errege Kantzelaritzaren hierarkian bigarren tokia hartzen zuen, Presidentearen atzetik. Kargua XIX. mendera arte iraun zuen, Errege Kantzelaritza desagertu zen momentua.

Zuzenbide publikoaren ondoren, sistema penal eta prozesala arautzen zen Foruaren zazpi eta hamaikagarren tituluen artean eta hogeita hamalaugarren tituluari. Honi bizkaitarren eskubideak defendatzea zegokion, horiei delituak leporatu arren. Horrek ez zuen esan nahi, kondenatzen zituztenean, zigorrak gogorrak ez zirenik; izan ere, maiz diru (normalean kaltearen bikoitza), kartzela edo erbeste zigorrak ezartzen ziren arren, delitu batzuk zigorrada, gorputz-adarren mutilazioa eta heriotzarekin zigortzen zituzten.

Bederatzigarren tituluaren hamargarren legea bereziki gogorra zen. Lege horrek zantzu bidezko kondena baimentzen zuen, zantzu horiek noblea ez zen baten aitortpena lortzeko tormentuaren erabilera justifikatzeko modukoak baziren. Bizkaitar guztiak nobleak izanik torturatu ezin zituztenez, delitugilea ustez erruduna bazen delitua frogatutzat ematen zen eta zegokion zigor arrunta jartzen zitzaion. Lapurreta, geziarekin norbait zauritu eta eremu bakartian edo gauez eta azpikeriaz egindako hilketen kasuetan, heriotza zigorrak barne hartzen ziren. Beste motako delituetan ere, zantzuen bitartez zigortzea posiblea zen, baina ohiko kasuetan baino zigor bigunagoak aplikatzen ziren eta zigor horiek ez zuten heriotza, gorputz-adarren mutilazioa, odol-isurtzea, gorputz-zigorra, ondasun galera edo hiru urte baino gehiagoko erbestea barne hartzen.

Xedapen hau *Ermandadearen Kapitulatuan* ere ezartzen zen, ikusi genuen bezala, idatzi zen garaian bandoen bortizkeriarekin bukatzeko beharra zegoelako eta zuzeneko lekukoak aurkitzeko zailtasunak zituztelako. *Foru Berrian*, bando gerrak dagoeneko bukatu zirenez, araua bigundu egin zen eta zigor arrunta ezartzen ziren kasuak askoz mugatuagoak ziren.

Foruak espazio handia eman zion zuzenbide zibilari. Ohiturazko zuzenbidearen bitartez agintzen ziren herrietan, zuzenbide zibila arautzeko azkena izan ohi zen eta orokorrean zuzenbide penala izaten zen lege forman idazten zen lehenengoa. Bizkaian berdin gertatu zen, bizkaitarrek bandoen arteko gatazken ondorioz zuzenbide penala egituratzeko premia zutelako. Zuzenbide pribatuaren esparruan, ordea, ez zuten arazorik euren usadioen arabera gobernatzeko.

Bizkaiko zuzenbide zibila Erdi Aroko landa gizartearen bizimoduari lotuta jaio zen. Zuzenbide hau funtsean ohiturez osatzen zen, zuzenbide pribatuaren erakundeak eta ekonomia bizitza arautzen zutenak. Bere iraupena bermatzeko eta bere existentzia frogatu ahal izateko, bizkaitarrek

Foruan jasotzea erabaki zuten. Eta helburu biak erdietsi zituzten; izan ere, XIX. mendean foru-erregimena ezabatu zenean, Bizkaiko zuzenbide zibilak indarrean jarraitu zuen eta, gorabehera ezberdinetatik igaro eta gero, gure egunetara ere iritsi da.

Foru Berrian, Bizkaiko zuzenbidearen ezaugarri nabarmenenak osatzen zituzten erakunde batzuk arautzen ziren. Horien artean tronkalitatea, foru-komunikazioa eta testamentua egiteko askatasuna aipa daitezke.

Tronkalitatea ondasun onibarren eta horien jabe diren familien arteko harremana da. Foruak belaunaldi askoz geroztik familia baten menpe egon ziren ondasun higiezinak transmititzeko arau batzuk ezartzen zituen.

Horrela, ondasun onibarrak jatorrizko familiatik ateratzea saihestu nahi zen, eta senide tronkeroei lehentasuna ematen zitzaien ondasunak eskuratzeko orduan. Tronkero gisa ondasun onibarraren jabe izan zen tronkoaren ondorengo guztiak hartzen dira. Horrela, nortzuk eta zein ordenan ondasunak eskuratu edo *ab intestato* jaraunsle izateko eskubidea zuten zehazten zen, eta ondasunak arrotzei dohaintzan ematea debekatzen zen. Maila ezberdineko senide tronkeroak zeuden, laugarren mailara iritsiz.

Bizitza bitartean eskuratutako ondasunak baziren, tronkalitatea guraso, seme-alaba eta ondorengoei mugatzen zitzaien, eta familiako ondasunak baziren, tronkalitatea aurreko eta alboko senideetara zabaltzen zen, laugarren mailara iritsiz.

Foru-komunikazioaren arabera ezkontza baten ondasun guztiak, higiezin edo onibarrak, komunak ziren, nahiz eta senarrak ondasun ugari izan eta emazteak ondasunik ez, edo alderantziz (20. tit., I. legea). Ondorioz, senarrari ondasun higiezin, onibar edo abelburuak saltzea debekatzen zitzaien, emaztearen baimena izan ezean, nahiz eta ondasun horiek senarraren aldetik etorri (20. tit., IX. legea). Ezkontza disolbatzen bazen, bikoteak seme-alabak zituen ala ez begiratzen zen. Seme-alabak bazituzten komunikazioa gauzatzen zen eta ondasun guztiak erdizka banatzen zituzten,

jatorria kontuan izan barik; seme-alabarik ez bazegoen, ez zen komunikaziorik burutzen eta bakoitzak, senarra eta emaztea, edo euren ondorengoek, ezkontzari emandako ondasunak eta elkarrekin lortutako ondasunen erdia berreskuratzen zuen.

Oinarri honen gainean, Foruak hipotesi batzuk zehaztu zituen ezkontza ezberdinetako seme-alabak zeudenean ondasunak transmititu edo besterentzeko. Era berean, ondasunak saltzeko posibilitatea arautzen zuen zorrak ordaintzeko, kide batek delituak egin zituelako, eta abar.

Foru Berriak xedatutakoaren arabera, testamentua egiteko askatasuna ez zen erabatekoa, testamentu egileak jaraunslea askatasunez izendatu ahal zuelako, baina nahitaezko jaraunsle multzo batetik. Talde horretan, lehenengoak seme-alabak ziren, ondoren aurrekoak eta azkenik albokoak. Jaraunslea pertsona jakin batzuetatik aukeratzeko beharra mugapen berria zen, 1452ko *Foru Zaharrean* existitzen ez zena, honek ondasun higiezin guztiak libreki xedatzea baimentzen baitzuen.

Foru Berriaren 20. eta 21. tituluetakoa hainbat legek jaraunslea aukeratzeko askatasun mugatu hori arautzen zuten, eta beste gauzen artean, ondasunak xedatzeko posibilitateak seme-alabekin edo seme-alabarik gabe, testamentua egiteko forma posibleak eta hildako ezkontidearen testamentua baliogabetzeko aukera zehazten zituen.

Askatasun hori, testamentuaren egileari ondasun higiezin eta onibar guztiak bere ondorengoetako bakar bati uzteko baimena ematen ziona (aurretik aipatutako ordena errespetatuz), besteak alde batera utziz, Bizkaiko zuzenbide zibilaren funtsezko ardatzetako bat zen. Askatasun horrek familia-ondasunen batasuna mantentzeko beharra aintzat hartzen du (funtsean, baserria), ondasunak ondorengoen artean banatuko balira guztien familiak mantentzeko nahikoak izango ez litzatekeelako.

Foru Berriaren xedapenen gaineko ibilbide labur honekin bukatu baino lehen, Foruak Jaunak eta bizkaitar batzuek antzinatek Aita Santu eta

Erregeen baimenarekin euren menpe zituzten monasterio eta eliza batzuen patronatuei ematen zien babes nabarmendu beharra dago (32. titulua), eta baita 33. titulua ere, Jaurerriaren biztanleentzako elikagai hornikuntza bermatzen zuena.

Foruak, Bizkaian lurraldearen naturagatik zegoen elikagai eskasia kontuan harturik, beste erresumetatik inportaturiko elikagaiak beste lekuetan saltzeko xedez Bizkaitik ateratzea debekatzen zuen, Erregearen armada hornitzeko ez bazen. Era berean, bizigaiak garraiatzen zituzten itsasontziek, Bizkaiko portuetara iristen zirenean, elikagaien erdia Bizkaian deskargatu behar zuten bizkaitarrei saltzeko; gainerako merkantziarekin nahi zutena egin ahal zuten, Erregearen etsaiei saltzea izan ezik.

33. tituluaren bertan, bizkaitar ororen askatasuna aldarrikatzen zen, elizateetako fielek ezarritako prezioan mota guztietako bizigaiak erosteko, udal-ordenantzek kontrakoa esaten ez bazuten. Foruak, ordea, bizkaitarrei eta Jaurerritik kanpokoei burdin-beta beste erresumetara ateratzea debekatzen zien. Neurri honen helburua Bizkaiko burdinolen hornikuntza bermatzea zen, burdingintza lurraldeko jarduera industrial nagusia baitzen (1. tit., XVII. legea).

III. ARO MODERNOA. XVI. ETA XVII. MENDEAK BIZKAIAN

Aro honek lurralde guztientzako komunak diren ezaugarri batzuk dauzka, Bizkaian sartu baino lehen aztertuko ditugunak.

Europa osoan zehar ikuspuntu politiko berriak indarra hartuz joan ziren, boterea ulertzeko modua eraldatuz. Horrela, kontinenteko erresuma ezberdinak Behe Erdi Aroko Monarkia paktistatik Monarkia absolutista batera pasatu ziren. Atzean geratuko zen bere erresuma osoan hiriburu edo gorte finko barik justizia ezarri eta bere tropak zuzentzen zituen Erdi Aroko erregearen irudia. Gorteetan egindako juramentu eta akordioen bitartez bere herrian oinarritzen zen erregea, alegia. Eta herriak era berean bere erregearen babesa jasotzen zuen. Harreman hori Koroatze ekitaldian hasten zen, erregeak Jaungoikoaren aurrean herriaren ohiturak, bere menpekoen pribilegioak eta herritarrek aurreko erregeekin adostutako guztia errespetatzea zin egiten zuenean. Ondoren herriak monarkari leialtasuna zin egiten zion.

Aro Modernoan hau guztia aldatu egin zen eta erregeek euren borondatea inposatzen saiatu ziren, adostutako legeen gainetik. Horregatik, Gorteek gero eta batzar gutxiago egingo zituzten.

Absolutismo monarkikoarekin batera Estatu Modernoak agertu ziren. Estatu berri hauek administrazio zentralizatua ekarri zuten, funtzionario profesionalek kudeatzen zutena, nazioarteko harremanak modernizatu zituzten, diplomazia egonkor bat ezarriz, eta errege-armada profesional eta iraunkorra sortu zuten, Erdi Aroko jaunen miliziak ordezkatzuz.

Espainiari dagokionez, Elisabet eta Fernando Errege Katolikoen eskutik sartu zen Aro Modernoan, oinordetzan Erdi Aroko Estatu batzuk hartu eta

Estatu Moderno bat eratu zutenek. Lehenengo eta behin Gaztela eta Aragoiko Koroak elkartu zituzten. Ondoren Nafarroako erresuma gehitzea lortu zuten, 1512an, Fernando Katolikoaren trebetasunari esker, bere alaba Joana Erreginaren erregeordea zena, eta Albako Dukearen kanpaina militarri esker, zeinean Gaztela eta beste lurraldeetako tropak erabili zituen (Bizkaia eta Gipuzkoa barne); Nafarroan Gaztelarekin elkartzearen aldeko bando bat zegoenez, Nafarroak Erresuma izaera mantendu zuen Gaztelako Koroaren barruan.

Errege-boterearen batasun prozesu hau ezinbestekoa izan zen. Hala ere, erresuma eta lurralde bakoitzak, Gaztela eta Aragoiko Koroen barruan, berezko erakunde eta legeak mantendu zituen, eta Erregearekiko menpekotasuna zen lurralde ezberdinen arteko lotura bakarra.

Beste alde batetik, 1492an Errege Katolikoek Granada konkistatu eta Errekonkistari bukaera eman zioten, zortzi mendeetan zehar penintsulako erresuma kristau guztien bizitza baldintzatu zuena. Hori dela eta, beste kontuez arduratzeko aske geratu ziren eta, urte berean Amerika deskubritu zenez, erregeek arreta lurralde horren konkista eta kolonizazioan jarri zuten. Jarduera horretan bizkaitar eta euskaldun askok parte hartu zuten, Gaztelako Koroaren parte zirelako. Horrela, Gaztelak Inperio Kolonial handia sortuz joan zen.

Aro Modernoa itsasoz haraindiko aurkikuntza handien garaia izan zen. Kontinente berriak aurkitu ziren, ustiatzeko errekurtoekin, “zibilizatu” eta kristautzeko jende berriekin, munduko mapetan idazteko lurralde berriekin... Mundu berri bat, europarren artean banatu beharra zegoena.

Baina, Atlantikoaren beste aldeko Indietan ez ezik Espainiako erregeek Europako politikan ere esku hartu zuten; Austriar eta Habsburgotarrek (Errege Katolikoek ondorengoak) oinordetzaz Italia, Burgundia eta Herbehereetan ondasun ugari jaso zituzten. Han xahutu zuten Ameriketako irabazitakoa, garaiko Europako gerra guztietan parte hartuz.

Beste alde batetik, absolutismo garai honetan, bere boterea handitzean Erregeak jarduera legegilea ere areagotu zuen eta, aldi berean berezko erakunde eta legeak zeuzkaten erresuma ezberdinetako Monarka zenez, egoera eta gai jakin batzuetan, erresuma eta lurralde ezberdin horien ordenamendu juridikoak ez errespetatzeko joera hartu zuen, bere boterea absolutua zela sinesten baitzuen. Hori dela eta, lurralde horietako bakoitza bere Gorte edo Batzarren bitartez errege botereari aurre egiten saiatuko zen. Adibide argi bat Bizkaia eta bere “foru-pasea” dugu.

Aro Modernoak hiru mende hartzen ditu barne (XVI., XVII. eta XVIII.a). XVI. eta XVII. mendeetan Austriarrek agindu zuten eta XVIII. mendetik aurrera Borboiek. Azken hauek Frantziatik mentalitate politiko ezberdin bat ekarri zuten absolutismoaren barruan: Despotismo Ilustratua.

XVI. mendeko Austriarren garaian, Karlos I.a (1516-1556) eta Filipe II.a (1556-1598) erregeekin, Espainiak munduan nagusitasun politikoa lortu zuen. Karlos, Errege Katolikoek biloba, Alemaniako Enperadorea izan zen eta Filipe II.ak, bere semea, Portugal eta bere inperio kolonial zabala oinordetzan hartu zuen. Espainia potentzia handia bilakatu zen. Gaztelako erresuma monarkiaren nukleoa zelarik, penintsulako erresuma batzuk, itsasoz bestaldeko hainbat lurralde, eta Europako beste lurralde batzuk hartzen zituen barne.

Hurrengo mendean gainbehera hasi zen. Filipe III.a (1598-1621), Filipe IV (1621-1665) eta Karlos II.a (1665-1700) errege Austriarrek ekonomia krisia eta barne matxinada larriak (Portugal eta Katalunian) pairatu zituzten, Europan gerrak galdu zituzten, unibertsitateak gainbeheran sartu ziren, eta abar. Hala ere, Inperioak oraindik ospea eta handitasuna kontserbatzen zuten.

Austriarrek Errege Katolikoek utzitako antolaketa guztia mantendu zuten eta oro har euren menpeko erresuma eta lurralde ezberdinen erregimenak errespetatu zituzten, tentsioak eta momentu zailak izan zituzten arren. Oinordetzan hartutako estatua mende askotako tradizioan oinarritzen zela

eta Erdi Aroan zehar garatu ziren estatu ezberdinen batasunetik jaioa zela oso kontuan izan zuten politika egiterako orduan. Dinastia absolutista bat ziren, bere autoritatea eta borondatea Koroaren menpeko lurralde eta Erresuma guztietan inposatzen saiatzen zena, baina inoiz ez zuten lurralde ezberdin horiek elkarren artean berdindu edo bateratzeko asmorik izan, beranduago Borboiak behin eta berriro egiten saiatu zirenez.

Bizkaiko Jaurerria eta Araba eta Gipuzkoako probintziek ez zuten arazo gehiegirik izan Austriarrekin. Bizkaian istilu batzuk egon ziren, Foruen aurkako xedapen batzuen ondorioz, kasu batzuetan oso gogorrak izan zirenak; adibidez, 1631eko gatzaren estankoaren ondorioz piztutakoak. Baina liskar horiek guztiak Bizkaiko erregimen tradizionalari kalte egin barik konpondu ziren, kasu gehienetan Erregeek zin egindako paktuak errespetatu zituztelako. Karlos V.a Enperadoreak ere, abdikatu eta gero bere semea Filipe II.ari ildo berdinarekin jarraitzeko aholkua eman zion. Borboiek tronua hartzean, ordea, XVIII. mendean, errege-boterea eta foru-probintzien arteko tentsioak areagotuko ziren. Nahiz eta Filipe V.ak 1702ko maiatzaren 2an Bizkaiko Foruak berretsi eta probintzia hauek Ondorengotza Gerran lagundu zioten arren, bere mentalitate absolutista eta asmo bateratzaileak Foruen askatasunekin talka egiten zuen. Horregatik, XVIII. mendean aurreko mendeetan baino tentsio handiagoak egongo ziren, baina, hala eta guztiz ere, ez zen lurraldea bateratuko.

1. XVI. mendeko biztanleria

XVI. mende hasieran Bizkaian ia 70.000 biztanle zegoen (30 inguru, km² bakoitzeko) eta Jaurerriak Penintsulako gainerako lurraldea baino biztanle dentsitate handiagoa zuen (29 biztanle km²-ko). Bizkaia barruan, Bilbo eta Nerbioiko guneei dentsitaterik handiena zuten eta biztanle gutxienei eremua Arratiako Harana zen.

Mende osoan zehar biztanleria haziz joan zen. Ez dakigu zer-nolako proportzioan, baina mende bukaerako izurriteak eragin handia izan zuen Bilbo eta Portugaleten, eta are gehiago Balmasedan. Gainera epidemia gertatu zen urteetan ere, uzta txarrak egon ziren, eta ondorioz, gosea. 1599. eta 1600. urteetan jende ugari hil zen.

2. Bizkaiko XVI. mendeko ekonomia-aren alderdirik nabarmenenak: nekazaritza, arrantza eta merkataritza

Nekazaritza

Nekazaritza eta abeltzaintza oinarrituta, Bizkaiko ekonomia Erdi Aroan zehar eboluzionatuz joan zen eta merkataritza eta industria jarduerak gehitu zitzaizkion. Hala ere, oro har erregimen txiroa zen, ia-ia autohornikuntzakoa. Baina Bizkaiko Foru Berrian jasotako merkataritza-askatasunari esker, lurraldean atzerriko produktuak askatasunez sartu ahal ziren. Hori dela eta, merkatariek garrantzia hartu zuten eta horietako askok salerosketa nabarmenak eginez aberastu zuten. Merkataritza txikien egoera ere asko hobetu zen, eta baita artisauena, hirietako langileena, eta abar.

Baina nekazaritza zen jarduera nagusia. Nekazari gehienak, lantzen zituzten lurzoruen eta bizi ziren etxeen jabeak ziren.

XVI. menderako dagoeneko abeltzaintza ez zen jarduera nagusia, baina oraindik nolabaiteko garrantzia mantentzen zuen, Bizkaiko nekazariak aldizkako jarduerak bilatu ohi zituztelako errekurso gehiago lortzeko. Ogibide horien artean abeltzaintza, arrantza edo burdinaren industrian laguntzeko jarduerak zeuden: zur bilketa eta ikatza egitea, burdina meatzeetatik burdinoletara garraiatzea, etab.

Era berean, burdinolek Bizkaitik kanpora burdin produktuak ateratzen zituzten, Bizkaiko biztanleen kontsumorako beharrezko nekazaritza-produktuak inportatu ahal izateko.

Bizkaiak ez zeukan mahatsondoa eta garia lantzeko klima eta orografia egokia eta hala aitortzen zuen Bizkaiko 1452ko Foru Zaharrak: “*La tierra de Vizcaya e de las Encartaciones e de Durango es muy montañosa e non siembran ni cogen pan*”. Foruak, era berean, zuhaizti ugari zegoela eta sagarrondoaz aparte (babes berezia zuena), intxaurrondoak, gereziondoak, gingondoak, mizpirondoak, haritzak, lizarrak, gaztainondoak eta mahatsondo-enborrak zeudela adierazten zuen. Baina, Andrés Mañaricúak aitortzen digunez, azken hauek ez ziren ugariak izan Bizkaian, Erdi Aroko dokumentu askok mahatsondoei buruz hitz egiten duten arren, horien artean, 1399ko Bilboko Ordenantzak.

Gariari dagokionez, leku batzuetan lantzen zen, bai, baina argi eta garbi ez zen Bizkaia osoa hornitzeko nahikoa eta horrek Jaurerria eta Bilboko hiribildua kezkatzen zituen. Horren froga dugu XVI. mendean ere, Bizkaiko ogi eta ardo eskasiaz hitz egiten jarraitzen zutela; adierazpen horien artean sagarrondo ugaritasuna ere aipatzen zuten. Ildo horretan, 1548an idatzitako *Libro de las Grandezas y cosas memorables de España* obran, Pedro Medinak Bizkaia zein Gipuzkoa ardo eta ogi gutxiko lurralde menditsuak direla esaten du: “*en algunas partes comen pan de mijo, que llaman borona; beben vino de manzanas que llaman sidra y por la mayor parte se proveen de pan y vino de otras partes, que traen por mar y tierra*”.

Dena den, Bizkaiko nekazaritza garatuz joan zen eta poliki-poliki basoak eta abeltzaintzarako larreak murriztuz joan ziren zerealak lantzeko lekua utziz. Horrela, nekazaritza aurreratu egin zen eta artoak garrantzia hartu zuen.

Zereala gero eta gehiago lantzen joan zen heinean sagastiak murriztu ziren eta ondorioz, sagardo produkzioak behera egin zuen. Mahatsondoak garapen eskasa zeukan Bizkaian eta kalitate txikiko ardoa egiteko erabiltzen

zen, txakolina. Bi edari hauek, sagardoa eta txakolina, pixkanaka-pixkanaka Errioxako ardoarekin ordezkatu zituzten, oraindik irauten duen Bizkaia eta Errioxaren arteko merkataritza-harremanari hasiera emanez.

Arrantza

Itsasertzean, jarduera nagusia arrantza izan zen. Osagarri bezala ere, familiek ortu txikiak landu eta Penintsulako barnealdera esportatzeko eskabetxe edo arrain gazituak prestatzen zituzten.

Kostaldeko jardueraren bitartez legatza, bisigua eta bestelako arrain preziatuak eskuratzen zituzten. Alturako arrantzari dagokionez, balearen ehizan oinarritzen zen, antzinatik praktikatzen zena, hasiera batean Bizkaiko Golkoan eta gero, XVI. mendean, gero eta urrunago, Ternuara ere iritsiz. Balea oso preziatua zen, bere koipea, haragia, mihia, hezurak, odola etab. aprobetxatzen zirelako; oso errentagarria zen.

Hain zuzen ere Ternuarako espedizio horietan hasi ziren era masiboan bakailaoa arrantzatzen, aurrerantzean oso garrantzitsua eta preziatua izango zen espeziea.

Merkataritza

XV. mendetik aurrera ekonomiak garapen nabarmena izan zuen eta XVI. mendean hazkunde hori bistakoa zen, merkataritza, burdina (meatzaritza, industria eta esportazioa), ontzigintza eta nabigazioan oinarritu zena.

XVI. mendeko merkataritzari dagokionez, Bizkaia estatuaren merkatu garrantzitsuenetako bat bilakatu zen, itsaso eta lurretik gainerako penintsularekin salerosketan ibiltzen zelako. Bizkaitarrek betidanik nekazaritza produktu gehienak inportatzeko beharra izan zuten euren biztanleak hornitzeko, eta produktu horiek ekartzeko burdina eta arraina esportatzen zuten.

Bizkaia eta Gaztela lotzeko bi bide nagusi zeuden XVI. mendean: Balmasedatik Nerbioi ibaira joaten zena, Kadagua ibaian barrena; eta Miranda de Ebro eta Gasteiztik Urduñara zetorren bidea, Bizkaian sartzeko. Baina Bizkaia barruan bide gehiago egin behar izan zituzten Araba, Gaztela eta baita Andaluziatik ekarritako zerealak garraiatzeko. Eta bide horiek burdina garraiatzeko ere erabili zituzten, Somorrostroko meatokietatik burdinoletara.

Era berean, Bizkaia nazioarteko merkataritzan ere aritu zen, Europako merkataritza-puntu nagusienekin negozioak eginez, hau da, Flandes, Frantzia eta Ingalaterra. Atzerrira arraina eta burdina bezalako produktuak bidaltzen ziren (Bizkaikoak), baina batez ere Gaztelako produktuak esportatzen ziren, eta horien artean, artilea zen garrantzitsuen.

Salerosketa horiek Bizkaiaren bitartez egiten zirenez, bizkaitarrak garraiolariak eta itsasontzien armadoreak ziren. Besteen produktuak garraiatzeaz arduratzen ziren, Gaztelakoak batez ere. Beraz, benetako merkataria baina gehiago, garraiolariak zirela esan daiteke.

XVI. mende hasieran, aldiz, Bilboko ontziolen jabeek eta eskualdeko merkataritza familia nagusiek merkataritza-munduan murgiltzen hasi ziren. Horrela, merkataritza eta bankari bilakatu ziren Anberes, Brujas, Londres, Rouen, Nantes, Lisboa, Medina del Campo, Burgos, Madrid, Sevilla eta Florentzian bulegoak irekiz eta ordezkariak jarritz, merkataritza europar eta ozeanikoan esku hartzeko. Era berean, bizkaitarrak Medina del Campo, Lyon, Besançon, Plasencia, Londres, Florentzia, Venezia, Lisboa edo Frankfurt bezalako tokietako nazioarteko azoketan izan ziren.

Alberto Angulok adierazten duenez, XVI. mendearen lehenengo herenean merkataritza bilbotar hauek garraiolari eta armadore mailatik haratago joan ziren, merkataritza eta bankari bilakatzeko, euren inportazio eta esportazioak finantzatzeko ahalmena lortuz. Hala ere, bilbotar gehienek garraiolari ogibidean jarraitu zuen, eta esportatzen zituzten produktuen artean jarraitasuna eta garrantzia izaten jarraitu zuen bakarra artilea izan

zen. Ondorioz, Bizkaiak Burgoseko merkatarien menpe jarraitzen zuen, haiek kontrolatzen zutelako artilearen kontratazioa eta merkaturatzea. Burgosek karga zeukan eta Bilbok karga garraiatzeko ontzi eta portuak.

XVI. mendean artilea esportazio produktu nagusia zen. Horregatik, produktu hori eta bere produktoreen interesak babesteko, Mesta izeneko erakundea existitzen zen, Erdi Aroan jatorria zuena eta Gaztelako Koroaren nekazari transhumante handien (goi nobleziako kideak zirenak) alde egiten zuena.

Burgosek guztiz kontrolatzen zuen artilearen salerosketa eta 1494an Kontsulatu bat eratu zuen, aurretik Valentzia eta Bartzelonak egin zuten bezala, arautegi espezifikoa eta berezko agintari eta epaileekin. Horrenbestez, hiriak lehenengo Atlantikoko Kontsulatua sortu zuen eta bere jurisdikzioa Bilbora zabaltzen saiatu zen, arrakastarik gabe. Errealitatean Burgosek kokapen ezin hobea zeukan merkataritza bideei zegokionez. Izan ere, Gaztelako Azoka-hiri nagusiak, Medina del Campo eta Villalón, eta Bilboko portuaren artean zegoen.

Bilbok Bizkaia eta Europako iparraldeko portuen arteko merkataritza ia guztia bereganatzen zuen eta merkataritza hiribildu bezala gora egin zuen. Gorakada horretan faktore ezberdinek eragina izan zuten, baina bereziki nabarmenak izan ziren hiri-gutunean eman zizkioten pribilegioak, Bizkaitik zehar egiten ziren salerosketak erakartzeko posizio ezin hobean jarri zutelako. 1465etik aurrera, Brujasen Bizkaiko Nazioaren Kontsulatu bat existitu zen, Gaztelako Kontsulatuaren ondoan, Europako portu eta plazetan merkataritza bizkaitar ugari egon zela egiaztatuz.

Gainera, bere kokapen geografikoari esker, Bilbo portu nahiko segurua zen, itsasadar batean zegoelako, piratengatik babestuta, baina edukiera handiko ontziak jasotzeko ibilgu nahikoarekin, eta horrez gain, handik Gaztelarako bideak ateratzen ziren. Hori faktore oso garrantzitsua zen, merkataritzak ontzi handiak behar zituelako eta Bizkaian Bilboko portua zen ontzi horiek jasotzeko baldintza zehatzak biltzen zituen bakarra. Era

berean, lurretik ere erraza zen penintsulako beste erresumetatik Bilbora heltzea eta Gaztelako Koroaren babesa zeukan, bizkaitarrek erregearen zerbitzuan sarritan aritu baitziren itsasoan mairuen aurkako borrokan eta, ondoren, Karlos I.a eta Filipe II.aren garaian, bertako ontziolek eta euren jabeek era aktiboan Frantzia eta Ingalaterrako gatazketan parte hartu baitzuten.

Antzinatean, Bilbon merkataria, armadoreak, ontzi-jabeak eta batez ere pilotuak biltzen zituen elkarte bat existitzen zen: “Universidad de los Maestres, Capitanes de Naos y Mercaderes de la Villa de Bilbao” izenekoa. Izan ere, esan dugunez, Bilboko jarduera nagusia itsasoko garraioa izan zen, merkataritza baino gehiago.

XIV. mendean, Burgoseko Kontsulatua sortu baino lehen, Bilboko hiribilduaren kontzejuak merkataritza ordenantza garrantzitsu batzuk idatzi zituen. Horrela, aipatutako Burgoseko Kontsulatua sortu zenetik pixkanaka-pixkanaka beti existitu zen Burgos eta Bilboren arteko lehia handituz joango zen, Burgosekoek Flandeseko ehundegiek eskatzen zuten karga zuelako, eta bilbotarrek karga hori garraiatzeko ontziteria eta ontzi gidari aditu taldea. Bilbotarrak nabigazioa, ontzigintza eta ontzi gidatzean espezializatuta zeuden.

Gauzak horrela, Bilboko merkataritzak bultzada definitiboa jaso zuen Bilbo-Burgos merkataritza ardatza sortu zenean. Momentu horretan Bizkaiko hiriburua Burgoseko merkatarien portu bihurtu zen.

Zentzu honetan, garai hartan Burgos Gaztelako lehenengo hiria zen eta Bizkaiko hainbat jauntxorentzako bigarren bizilekua bilakatu zen, San Juan eta San Esteban auzoetan ezarri zirenak. Bizkaitarrak Burgosera joateko arrazoietakoa bat metal-industriak bertan hartu zuen garrantzia izan omen zen, eta baita monetaren industria, galdaragintza eta errementaritzaren hazkundera. San Estebanen hain zuzen ere, burdinola ugari kokatu ziren. Era berean Burgoseko artilleriaren industriak ere gora egin zuenez, lehengaiak Somorrostrotik eta Bizkaiko beste lekuetatik ekartzen zituztela pentsa

daiteke, bizkaitarrak garraioaz eta batzuetan ere transformazioaz arduratzen zirelarik.

Esan dugun bezala, Burgosek kokapen ezin hobearen merkataritza jardura finantzatu, aktibatu eta Gaztelako beste lekuetara bideratzeko. Bertan Merkatarien Unibertsitatearen egoitza zegoen, merkataritzaren sustatzaile nagusietako bat eta Gaztelako aberastasunaren oinarria ziren artilea bezalako produktuak atzerrian salerostea bultzatzen zuena. Burgosen grina esportatzaile horrek Kantauriko portuen arteko konpetentzia naturala sortu zuen, elkarren artean salerosgaiak atzerrira eramateko norgehiagoka zutenak, baina pixakana-pixkanaka, XVI. mendean zehar Bizkaiko portuak Santander eta Laredo baino garrantzi handiagoa hartuz joan ziren.

Portua aukeratzeko orduan, Burgos eta Kantauriko portu bakoitzaren arteko tartea garrantzitsua zen, garraiolariak distantziaren arabera ezartzen zituztelako prezioak. Horrek Kantabriako itsas-hiribilduei kalte egin zien, Menesesek garaian egindako kalkuluen arabera, Bilbora 31 legoako distantzia baitzegoen eta Santanderrera, aldiz, 37koa.

Gainera, Euskal lurraldeko zerga-salbuespenak ere Euskadiko portuen alde jokatzeko zuten. Horregatik, garaiko dokumentu batean zehaztu zen mende horretan Urduña eta Balmasedako portuak ireki zirela, Bilboko bidean, bertan birtamarrenik ordaindu behar ez zelako, hau da, hamarrenaren hamarrena, gutxi gora behera %1 gehiago.

Burgoseko Kotsulatua merkataritza garatzeko ezinbestekoak ziren bideak kontserbatzeaz arduratzen zen eta prezio hobeak eskaintzen zituzten portuetara zihoazen bideak konpontzen zituen, batez ere Bilbo eta Laredo.

Bizkaitarrek interes komunak zeuzkaten Burgosekin eta gogo guztia jarri zuten harremanak errazteko. Horretarako komunikazio on bat izatea ezinbestekoa zen, salerosgaiak ibilbide laburrenengatik garraiatu ahal izateko.

Urduñako bideak mandazainen artean nolabaiteko tradizioa omen zuenez, lehenengo pausoa Vitoria, Urduña eta Balmasedan aduanak irekitzea izan zen. Aldi berean Karlos V.a Enperadoreari Urduñako bidea irekitzeko errege-baimena eskatu zioten.

Antza, bidea eraikitzen hasi ziren, baina Araba, Gipuzkoa eta Nabarra eraikitze-lanen kontra jarri ziren. Gipuzkoak gainera, obra ekiditeko esku hartzea erabaki zuen eta gauez egunean zehar eraikitakoa hondatzen zuen; ondorioz, Jaurerriak suntsiketa saihesteko jende armatua jarri behar izan zuen. Hala ere, arabar eta nafarrek behin eta berriro auziak bultzatu zituzten eta azkenean enperadoreak lanak bertan behera utzi zituen, 1553ko maiatzaren 17ko Errege Aginduaren bitartez.

XVI. mendean ere, Bilboko patriziatuak merkataritza jarduera guztia kontrolatzeko erakunde politiko berri bat martxan jartzea lortu zuen, garraiolari bezala aberastu ziren armadore familiek bultzatu zutena, merkataritza harremanetan euren influentzia indartu nahi zutelako. Hain zuzen ere, 1511ko ekainaren 22an Joana Erreginak Bilboko Kotsulatua eratu zuen, Sevillatik igorritako errege-gutun baten bitartez. Ordutik aurrera Kotsulatu honek bideratuko zuen hiribilduaren itsas eta merkataritza jarduera, Bilbo eta Burgosen arteko tentsioak eraginez.

Burgos eta Bilbo lehenengo Kotsulatu atlantikoak izan ziren eta Gaztelako Koroaren lehenengoak ere. Beranduago Sevillako Kotsulatua sortu zen, 1539an eta XVII. mendean dagoeneko, Madril eta Donostiako Kotsulatuak.

Berezko Kotsulatuarekin, Bilbok bere portuan burutzen zen merkataritza jardueraren kontrola hartu zuen, batez ere artilearen salerosketa. Gainera, 1531n Kotsulatuak Bilboko hiribilduan XIV. mendean geroztik existitzen ziren merkataritza ordenantzak barneratu zituen, eta beraz, portuko lanak eta merkataritza auziak ere bere menpe geratu ziren. 1569an Filipe II.ak Bilboko Kotsulatuaren Ordenantzak aldarrikatu zituen.

Bilbo lehen mailako portua izan zen eta salerosgaiak sartu eta ateratzeko gune nagusia. Hori dela eta, hiribilduak beti izan zuen Europako iparraldeko influentzia eta bertako biztanleek mentalitate berezia garatu zuten, gainerako lurraldeko pentsamoldearen oso ezberdina.

3. Burdinolak

Burdinolek kapitulu berezia behar dute, ekonomia arloan izugarrizko garrantzia izan baitzuten XVIII. mendea baino lehen. Izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoan elikagai-produktu urriak zeuden eta beraz, burdina produzitu behar zuten ez bakarrik euren kontsumorako, baizik eta esportatu eta falta zitzairen elikagaiak erosi ahal izateko. Gainera, burdinolek lana ematen zioten olagizon mordoari eta egurgile askori, egur-ikatz egileei, garraiolariei...

Gaztelako burdina funtsean Euskaditik zetorren, Bizkaia eta Gipuzkoa baitziren Penintsulako burdin ekoizle nagusiak. Europa mailan ere, Euskal probintzia hauek produktore nagusienetako bat izan ziren eta Erdi Aroan Europako Atlantikoko guneko eremu nagusia hornitu zuten, Frantzia barne.

Badakigu Bizkaian Erdi Arotik burdina ustiatu zutela eta 1440an Gernikako Batzar Nagusiak Burdinolen Forua onartu zuela, burdinolentzako jurisdikzio berezia sortuz. Horrek garai hartan burdin industriak zeukan garrantziaren berri ematen digu. Hala ere, ez dago datu zehatzik existitzen ziren burdinola zenbakiari buruz ezta XVI. mende aurreko ekoizpenari buruz.

Tradizionalki, burdinolak ustiapen txikiak ziren, familiakoak, kapital inbertsiorik ez zutenak eta orokorrean teknika zaharkituak erabiltzen zituztenak. Funtsean, batez ere Somorrostrotik erauzten zuten mineral aberatsa aprobetxatzen zuten.

XVI. mendean zehar burdinola hauek metodoa hobetuz joan ziren eta aldaketa txiki batzuen salbuespenarekin aurrerantzean erabiliko zuten teknika garatu zuten.

Mende hasieratik berrikuntza garrantzitsu bat sartu zuten: indar hidraulikoa erabiltzen hasi ziren errotatxoak eta hauspoa mugitzeko. Aurrerapen teknologiko honen ondorioz burdinolak mendietatik ibaietara mugitu zituzten. Ordura arte, funtzionatzeko egur-ikatzak behar zutenez beti mendian eraikitzen ziren, baina energia hidraulikoa baliatzen hastean lantegiak lekualdatu zituzten.

Bizkaiko lurralde osoan burdinolak zeuden, baina ekialdeko gunean dentsitate handiagoa zegoen, Gipuzkoako muga inguruan.

Orokorrean mea Somorrostro inguruan erauzi eta handik itsaso edo lurretik burdinoletara eramaten zuten. Sektore garrantzitsu hau babesteko, Foruak burdin minerala esportatzea debekatu zuen, “*saca de hierro*” delakoa, eta baita egur-ikatzak esportatzea ere. Gainera, olagizonei lehentasuna eman zien herri-mendiak erabiltzerako orduan. Dena den, maiz debeku hori betetzen ez zenez, olagizonek kexu agertzen ziren, euren produktuak egiteko burdinarik gabe geratzeko arriskuan zeudelako eta gainera, mineral hori esportatuz, euren burdinarekin atzerrian beraien produktuei konpetentzia egiten zieten objektuak egiten zituztelako, batez ere Frantzian.

XVI. mendearen lehenengo bi herenetan, lehenengo burdinolen produkzioa asko zabaldu zen, barne eta kanpo eskaria handitu zelako. Ildo honetan, hazkunde demografikoa ere faktore garrantzitsua izan zen; gero eta jende gehiagok lurra lantzen zuenez burdinazko nekazaritza lanabes eta tresna gehiago behar ziren. Era berean, armagintza eta ontzigintza industriarako produktuen eskariak nabarmenki areagotu ziren. Kontuan izan behar dugu Amerikaren kolonizazioa eta Austriarren Europako guduen garaia zela.

Hasiera batean iltzeteria fabrikatzen zuten gehienbat, gero aingurak, eta beranduago arma-industriak garrantzia hartu zuen, arkabuz eta bonbardak esportatuz.

Ez daukagu Bizkaiko burdinola edo produkzio kopuruari buruzko datu zehatz nahikorik, gai horren inguruan Andrea Navagieroren datuak soilik iritsi baitira gure egunetara. Autore horren arabera, 1525ean Gipuzkoa eta Bizkaiak urtero 800.000 dukat irabazten zuten burdinaren ustiapenarengatik. Horrez gain, ikerketa bat ere dago, balio erlatibokoa, Pedro Medinak “Grandezas de España” obran sartu zuena. Horren arabera, 1550ean Euskadiko lurralde osoan guztira 300 burdinola zeuden eta urtero 300.000 kintal ekoizten ziren.

Are gehiago zehazten du: Bizkaian 180 burdinola inguru egongo liraateke, gehienak Barakaldo inguruan, Gipuzkoan 100 eta Araban 20.

Bizkaia barruan, burdinola gehienak hurrengo ibaietan kokatu ziren: Ibaizabal (31 burdinola izatera iritsi zen), Kadagua (23), Arratia (19), Artibai (19), Oka (19), Barbadun edo Mercadillo (12), Nerbioi (12), Lea (10) eta Butroi.

Zifra horiek zuzenak izatekotan, burdin industriaren hedapen handieneko unearen aurrean egongo ginateke eta sektoreak dagoeneko Bizkaiko ekonomian toki garrantzitsuenetako bat izango luke.

Olagizonek arautegi berezia zuten, eta berezko agintariak, hau da “Burdinoletako Alkateak”. Alkate horiek eskualdeko burdinolen jabeek aukeratzen zituzten eta euren eginkizuna burdingintza-jardueraren ondorioz sortzen ziren arazoak konpontzea zen.

Historikoki Euskadin ez zen kalitate handiko industria transformatzailerik garatuko, industria ezpatagilea eta burdinaga edo zepoak bezalako produktu batzuen salbuespenarekin. Horrela, Euskadiko ezpatak ospetsu bilakatu ziren Europa osoan euren kalitate onagatik (Shakespearek berak “bilboa”

deitzen dio ezpata bati “Windsorreko atso alaiak” obran, Ingalaterra isabelarrean Bilbon egindako ezpatek izen ona zutela egiaztatuz). Era berean, Hamlet-en bosgarren ekitaldian ere “bilboes” deitzen die zepo bezala erabilitako burdin barrei.

Arma-lantegiak Markina eta Elorrio bezalako Bizkaiko hiribilduetan kokatu ziren. Bertan sastakaiak, lantzak, pikak eta pistolak edo kanoiak bezalako suzko armak egiten ziren. Koroak produkzio guzti hau bultzatu zuen, garai hartako gatazketarako armak behar zituelako.

Olagizonen Gremio garrantzitsuaren ordenantzetan, 1524koak, hurrengo “maisu ezpatagileak” aipatzen dira, bakoitzak bere markarekin, iruzurrik ez egoteko: Juan de Vidaguren, Pedro de Zamudio, Juan de Beaduren, Martín de Gorocibay, Martín de Ugarte, Martín de Mantulis, Domingo de Azcoitia, Juan de Olagorta eta Martín Ochoa de Achuri. Gaur egun marka hauek Bilboko Merkataritza Ganbera apaintzen dute, erreprodukzio gisa.

Arkabuzen fabrikazioari dagokionez, lehenengo errege Austriarrek kontrataturiko Alemaniako bi artisauen eskutik sartu zen Euskadin, eta egiaztatuta dago Bizkaiko arkabuzari bat, Leguizamon, Ausburgotik etorritako bi artisau hauetako famatuenaren dizipulua izan zela, Segismundo Marquat izenekoa.

Beste arkabuzari euskaldun famatu batzuk Joaquín Celaya, Bustindui familia (XIX. mendera arte iraungo duen leinua), Aldazabaltarrak, Zarandonatarrak eta Zuloagatarrak izan ziren.

4. Ontzi eraikuntza eta pirateria

Euskadiko nolabaiteko garrantzizko portu guztiek ontzigintza jarduera garatu zuten, baina bereziki nabarmena da Bilboko itsasadarrean eta erriberako elizateetan zehar Portugaletera arte eraikitako ontziola multzoa.

Era berean ontziolak zeuden Getxo, Plentzia, Bermeo, Mundaka, Lekeitio eta Ondarroan. Ontzigintza Bizkaiko industria jarduera sendoenetakoa izan zen.

Alberto Angulok adierazten duenez, ontzigintzak garapen ikaragarria izan zuen Erdi Aroan. Gero eta ontzi sendoagoak egiten ziren, ez bakarrik merkataritzan erabiltzeko baizik eta gerrarako eta kostaldea piraten erasoetatik defendatzeko ere bai.

Ontzigintza industria Bizkaiko jarduera tipikoen premiak asetzeko helburuarekin jaio zen; izan ere, bizkaitarrek ontziak behar zituzten arrantzatzeko eta salerosgaiak garraiatzeko. Pedro Medinak bere liburuan azaltzen duenez, bertan Espainiako beste inon baino ontzi gehiago eraikitzen ziren: *“hay en estas provincias mucha madera para navíos; y así se hacen en ellas más naos y navíos que en ninguna otra parte de España”*.

XV. mende bukaeran dagoeneko, euskal ontziolek izen ona zuten, teknika dotorea erabiltzen zutelako. Hori dela eta, atzerriko portuek Bizkaia eta Gipuzkoako ontziolei enkargu garrantzitsuak egiten zieten, 1470ean Europako iparraldeko Hansako hiriek Bilbori egindako enkargua bezala.

Euskal ontziolek aro distiratsua izan zuten mende honetan, nazioarteko enkarguez aparte, artilea eta burdina garraiatzeko Bizkaiko nabigatzaileentzako ontziak eta Gaztelako erregeentzako galera eta itsasontziak eraikitzen zituztelako.

Hala ere, Errege Katolikoek agintea hartu bezain laster neurri politikoak hartu zituzten euskal ontziolek lehentasunez Errege Armada horni zezaten. Ondorioz, atzerrirako esportazioak murriztu ziren. Errege Katolikoen ondoren, Karlos I.a eta Filipe II.ak ere politika berdinarekin jarraitu zuten, European zituzten gatazkei aurre egiteko armada indartsua osatu nahi zutelako. Hori dela eta, Koroak estatu-ontziolak ere eraikitzea erabaki zuen, Zorrotzako Ontziola adibidez.

Nerbioiko ontzioletan mota guztietako ontziak egiten ziren: galeoiak, galerak, karabelak, fragatak, patatxak, etab. Aniztasun hori Bizkaiko arrantza eta merkataritza sektorearen sendotasunaren erakuslea zen, bere ontzigintza industria mantentzeko kapaza izan zena, atzerrian baino teknika atzeratuagoak izan arren. Iparraldeko ontziolek kabotajea eta arrantzarako itsasontziak eraikitzen jarraitu zuten, alturako nabigaziorako itsasontzi eskaria desagertu zen arren. Gainera, ontziolen inguruan txirikordatzeko, irute eta ehun lantegiak zeuden, ontziak bela eta sokez hornitzeko.

Ezaguna da Erdi Arotik aurrera Europako herrialde ezberdinetan zehar salerosgaiak garraiatzen zituzten ontziak erasotzen zituzten pirata eta kortsarioak egon zirela. Horregatik, 1493an Errege Katolikoek horien aurkako armada antolatu zuten, Bizkaiko Golkoan lapur ugari baitzegoen.

Bilboko agintariek ere piraten kontrako neurriak hartu zituzten: 1528an itsaslapurreta arautu zuten frantziarren aurka eta 1546an Bizkaiko kostaldea Ingalaterra eta Frantziako kortsarioen aurka defendatzeko esku hartu zuten. Horiez gain, XVI. mende erdian Kantauri itsasoan Portugaleko piratak ere zeudela jaso zen.

Europako monarka ezberdinek pirateria babesten zuten “kortso patenteak” emanaz, hau da, euren etsaiak ziren herrialdeen ontziak erasotzeko baimena. Europako erregeentzako neurri politiko bat zen, batez ere Ingalaterra, Frantzia, Holanda eta Espainian erabili zutena. Espainiaren kasuan, Filipe II.a eta Filipe III.a izan ziren jarduera honen babesle nagusiak, zeinek Herbehere Batuen aurkako gerra bitartean, lurralde horrekin merkataritza egitea debekatu eta etsaiari edozein baliabide erabiliz aurka egitea agindu zuten.

1579an Bizkaiko agintariek Erregearekin akordio bat sinatu zuten eta Koroak bi ontzi jarri zituen kostaldean, merkataritza-ontziak piraten erasoengatik zaintzeko.

5. XVII. mendeko krisia

XVII. mendean Bizkaiko esportazioek behera egin zuten eta ondorioz, bertako ekonomia gainbeheran sartu zen, bere sistema burdin produktua esportatzearen truke elikagaiak inportatzean oinarritzen zelako.

Faktore ezberdinek eragin zuten esportazioen atzerakada, baina garrantzitsuenetakoa bat Filipe II.a eta bere ondorengoek Herbehereekin libratutako gerra izan zen, bizkaitarrak Europako merkataritza-bideetatik aldendu zituelako, Gaztelako artilearen trafikoa murriztuz.

Beste arrazoi bat Filipe II.ak 1588an Ingalaterraren aurka bidali zuen Armada Garaiezinaren hondamendia izan zen, Bizkaiko flota desagerrarazi zuena. Horrek noski, ondorio latzak izan zituen Bizkaiko itsas-merkataritzan. Gainera, Portugal, Ingalaterra eta Holandako piratek behin eta berriro erasotzen zuten Bizkaiko kostaldea.

Horrez gain, 1575ean Filipe II.ak Ingalaterrarekin salerosketak eten zituen, eta pixkanaka-pixkanaka Herbehere Batuekin berdin eginez joan zen, bere semea Filipe III.ak 1598an behin betiko debekua ezarri zuen arte.

XVI. eta XVII. mendeen artean ontzigintzan arazoak hasi ziren eta artisau askok emigratu behar izan zuten, edo nekazaritzara pasatu ziren. Bilbon jada ontzi gutxi eraikitzen ziren. Gainera, XVI. mende bukaeran itsasadarrean uholdeak egon ziren eta berdin gertatu zen 1606, 1615 eta 1651n. Uholdeek ontzigintza sektorea hondoratzen bukatu zuten, Bilboko itsasadarreko alde bietako azpiegiturak, lantegiak eta kaiak hondatuz. Hori dela eta Jaurerriak Koroari eskatu zion Zorrotzako ontziola zaharrean errege-ontziola eta armategi bat eraikitzeko, Errege Armadarentzako ontziak fabrikatzeko helburuz. Eta Koroak eskaera hori onartu zuen 1615ean.

Baina oraindik Indietarako ibilbiderako galeoiak egiten ziren eta dokumentuetan jasota dago 1600. eta 1698. urteen artean 73 galeoi eraiki zirela, batez ere Zorrotzako ontzian, eta gutxi batzuk Deustun ere.

Bizkaiko krisia ontzigintza jardueratik haratago joan zen eta burdin industria ere eragin zuen, batez ere 1580tik aurrera, Europan bi burdingintza zentro berri agertu zirenean, Suedia eta Liejan. Zentro bi hauek kalitate oneko burdina lantzen zuten eta prezio merkeagoak eskaintzen zituzten; gainera bertan teknika hobeak erabiltzen zituzten eta eskulan merkeagoa zeukaten. Horregatik Bizkaiko esportazioek behera egin zuten.

Bizkaiko burdinoletan tradizionalki beheko labeetan burdinaren minerala zuzenean murrizten zen, egur-ikatz erabiliz; horrela masa oreitsu bat lortzen zuten eta honi zepak ateratzen zitzaizkion, mailukaden bitartez kentzen zituztenak. Suedian, aldiz, labe garaia erabiltzen zuten, egur-ikatzarekin. Beraz, burdina totxoetan ateratzen zuten eta ez zuten zepak mailuekin kentzeko beharrik.

Kalitate ezin hobe izan arren, atzerapen teknologikoen erruz euskal burdinak lehiakortasuna galdu zuen. Burdin suediarra baino askoz puruagoa zenez, ez zuten teknika berriak hartzeko beharrik ikusi.

Beste alde batetik, euskal burdina garestiagoa zen, eskulana ere garestiagoa zelako. Izan ere, Bizkaia Gaztearen esparru ekonomikoan zegoen eta Amerikatik iristen zen zilarraren ondorioz, prezio oso altuak zituen. Faktore honek, Bizkaiko merkataritzaren etenaldi orokorrari gehituta, burdinolen egoera are gehiago larriagotu zuen. XVII. mendean burdinola asko desagertuz joan ziren eta 1590erako krisia erabatekoa zen.

Baina ez zen soilik Bizkaiko merkataritza izan XVII. mendean behera egin zuena; nazioarteko merkataritzak ere atzera egin zuen. Eta merkataritza sektore osoak atzera egitean, egoera berri bat azaldu zen eta salerosketak egiteko modua guztiz aldatu zen. Lehiakortasuna areagotu zen,

nazioarteko trukeak lortzea gero eta gogorrago eginez. Ondorioz, merkatariaiek konpainia handietan biltzen hasi ziren, baldintza hobeetan lehiatu ahal izateko.

Herbehereen aurkako gerrak artilearen merkataritza eragin zuenez, eta baita salerosketa bideak ere, Bilbon atzerriko konpainia horietako asko ezarri ziren.

Ordura arte, Burgoseko merkatariaiek izan ziren Bizkaian zehar garatzen zen merkataritza jarduera kontrolatu izan zutenak, bizkaitarrak garraioaz arduratzen ziren bitartean. Baina Burgoseko merkatariaiek ez ziren nazioarteko egoera berriari moldatzeko gai izan eta atzerriko konpainia horiek pixkanaka-pixkanaka merkataritza ibilbide nagusien kontrola hartuz joan ziren. Gainera, Bilbok berezko Kontsulatu bat zuenez, kontratazioak hiribildutik egiten hasi ziren eta kontratazio zentroa Burgosetik Bilbora pasatu zen. Hortik aurrera Burgos gainbeheran sartu zen, bere Kontsulatuak hori saihesteko saiakera ugari egin zituen arren.

Hala ere, bilbotarrek ez zuten egoera hori baliatu eta euren lurraldean zehar burutzen zen merkataritzaren kontrola merkatariek atzerritarren eskutara pasatu zen. Horrela, Europako merkatarien kolonia garrantzitsuak sortu ziren Bilbon, batik bat ingeles eta holandarrak, kontratazioez arduratzen zirenak.

Printzipioz, bilbotarrek garraioa kudeatzen jarraitu zuten eta antza ez zien gehiegi kezkatzen burgostarren ordean ingeles eta holandarrek salerosketak kontrolatzea. Burgosek, ordea, hori saihestu nahi zuen.

XVII. mende erdialdean, Gaztelako artilearen negozioaren %70a bilbotarren esku zegoen, Santander eta Donostia merkatutik kanpo utziz. Ikusten dugunez, Bilbo krisia saihesteko kapaza izan zen eta bere portua garrantzitsuena bilakatu zen, Monarkia gerran ibili arren Europara irekita jarraitzea lortu zuelako. Bilboko burgesiak indar handia hartu zuen, Bilbon ezarritako atzerriko merkataritza konpainien botereari aurka egiteko

modukoa eta bere portuko jarduera kontrolatzen hasi zen, ordura arte atzerritarrek maneiatu izan zutena.

Horrela, 1665ean ingelesek Bilboko portuarengan jurisdikzioa izateko kontsulatu bat sortu nahi izan zutenean, bilbotarrak kontra jarri ziren eta bere sorrera saihestu zuten. Handik aurrera, etengabea oztopoak jarri zizkieten atzerriko merkatariei, Bilboko portuan euren jarduera garatu ez zezaten.

Gainera, 1699an Bilboko Hiribilduaren Ordenantzak aldatu zituzten, arrotz edo atzerritar orok zuzenean nahiz zeharka Bilboko merkataritzan esku hartzea debekatuz. Geroztik, bilbotarrek era eksklusiboan beren hirian zehar egiten ziren salerosketen kontrola hartu zuten.

6. Nekazaritza XVII. mendean

XVII. mendean zehar, Bizkaiko esportazio tradizionalen eskaria murriztean, industria, merkataritza eta itsaso jardueretan lan egiten zuen jendea pixkanaka-pixkanaka ogibide horiek utziz joan zen, lurra lantzen hasteko, hori zelako kanpotik ekarri ezin zituzten elikagaiak lortzeko modu bakarra.

Ondorioz, nekazaritza ustiapenerako espazioa zabaldu zen eta lurraren produktibitatea handitzeko berrikuntza garrantzitsuak egin ziren. Aldi berean, artoaren laborantza hedatu egin zen, aurreko mendetik “mijo de Indias” bezala ezagutzen zena, ordura arte landutako zerealek baino produktibitate handiagoa zuelako. Artoa oso ondo moldatu zen euskal haranetara, beste zerealek ez bezala, lur hezeak behar zituelako. Horrenbestez, “mijo de Indias” delakoa ordura arte lantzen ez ziren gunetan hazi ahal izan zuten, abereak bazkatzeko erabiltzen zituztenak. Eta artoa hazteko gune horiek labakitzean, gainera, laborantzarako azalera handitu zen.

Era berean, artoari esker lurraren produkzioa hobetu egin zen, arbia eta gariarekin txandakatzean, erabili gabeko lugorriak ezabatu zituztelako.

Produktibitatea handitu zenez, jende gehiagok nekazaritzan lan egiteko aukera izan zuen, beste sektoreetan lanik ez zegoen momentu batean eta, lehen bezain beste nekazaritza-produktu inportatu ezin izan arren, bizkaitarrek ez omen zuten gose garai larririk pairatu depresio ekonomikoko aro honetan.

XVII. mendeko bizkaitarrentzat Amerikara emigratzea ere krisialditik ihes egiteko aukera ona izan zen, eta hala egin zuten askok. Batez ere, kostaldeko eta hirietako jendeak emigratu zuen, eremu horietan laborantzarako lur eskasak zeudelako eta beraz, elikagaiak lortzeko premia handiagoa zegoelako. Bizkaiko barnealdean, aldiz, errazagoa zen elikagaiak lortzea, lurzoru gehiago egoteaz gain, Araba eta Gaztelatik hurbilago zeudelako. Gainera, hiriko biztanleek posizio hobean zeuden euren gazteak Indietako Eliza edo Administrazioaren goi-karguen menpeko lanpostuetan kokatzeko.

7. Politika eta gizarte gatazkak. Gatzaren matxinada

XVII eta XVIII. mendeetan zehar Bizkaian gizarte gatazka ugari piztu ziren. Istilu horiek “matxinada” izena hartu zuten San Martin olagizonen santu zaindariaren omenez, Matxin. Horrela ere olagizonei deitzen zitzairen eta olagizonetatik, ezizena nekazari eta arrantzaleei zabaldu zitzairen, landa edo arrantzan lanik ez zegoenean, burdinolekin zerikusia zuten zereginak egiten zituztelako. Meatzari edo ikatz eta burdin garraiolari gisa jarduten zuten, besteak beste. Gatazka hauetan horiek guztiak parte hartu zuten: olagizonak, nekazariak, arrantzaleak, marinelak, etab. Horregatik deitu zitzairen matxinadak. Gatazka hauek gainera, kate moduan zabaltzen ziren, herri batetik bestera.

Matxinada nagusiak XVII. mende hasierako gatzaren matxinada (1631-1634), XVIII. mendeko aduanak lekualdatzearen aurkako matxinada (1718) eta, XIX. mendean jadanik, Zamakolada (1804) izan ziren.

Era berean, 1766an, Gipuzkoako Debako haranean Bizkaian nolabaiteko eragina izan zuen matxinada piztu zen. Batez ere Gipuzkoako muga inguruan izan zuen eragina, hau da, Ondarroa, Markina eta inguruko lurraldeetan.

Matxinada hauek XVII. mendeko krisi orokorraren ondorioz piztu ziren. Herbehereen aurkako gerrak Errege Ogasuna asko estutu zuen eta Gaztelaren presio fiskala nabarmenki handitu zen. Gainera Filipe IV.aren ministro ahalguztidunak, Olivareseko konde-dukea, Koroaren menpeko gainerako erresumen zergak Gaztelakoekin berdindu nahi zituen, Monarkiaren zama fiskalak arintzeko.

Atzetik krisi ekonomiko orokorra zegoen, zerga astunekin, elikagaien prezioen inguruko espekulazioarekin, herri-ondasunen usurpatzearekin eta Amerikatik ekarritako metal bitxien inportazioen murrizketa larriarekin.

Beste alde batetik, Austriarrek Madril eta Vienaren bitartez euren nagusigoa inposatu gura zuten Europan. Horretarako, etengabeen soldaduak behar zituzten eta ahalegin ekonomiko handia egin behar zuten hori guztia finantzatzeko, errekurtsu gutxi zegoen garaian. Gizon eta diru hondamena ikaragarria izan zen.

Errege-ogasunaren estutasun egoera horren aurrean, errege Austriarrek eta euren Kontseiluek zergarik ordaintzen ez zuten lurralde eta erresumak Gaztelaren zerga sisteman sartzen saiatu ziren. Horregatik, XVII. mendean hainbat matxinada piztu ziren Austriarren menpeko lurralde ia guztietan. Larrienak Portugalen gertatu ziren, 1640an Koroarengatik behin betiko banandu zena. Katalunia ere bereiztetik gertu egon zen. Bizkaian, aurretik aipatutako matxinadak piztu ziren Koroak Gaztelako zerga salbuespena

zuten probintzietara zabaltzearen kontrako erantzun moduan. Erregearen esku-hartzeak Foruak ezarritako zerga-salbuespena eta merkataritza-askatasunari aurka egiten zionez, bizkaitarrak Korrejidorearen kontra altxatu ziren.

Baina Foruen defentsa ez zen istilu hauen arrazoi bakarra izan; barne-gatazka bat ere egon zen, gizatalde ezberdinak elkarren kontra jarri zituenak.

Bizkaian, herri-nukleoek garrantzi handia hartu zuten, batez ere Bilboko hiribilduak. Bertan, merkataritzari esker goi-burgesia oso aberatsa eta indartsua agertu zen, landako lur-jabeen nobleziarekin, hau da, jauntxoak, lehia egiten zuena. Gainera, hirietan ere merkadari, artisau eta langileen burgesia txikia sortu zen.

Beste aldean, biztanleriaren gehiengoa zegoen, landan lan egin eta bizi ziren nekazariak, eta orokorrean, euren lurzoru eta baserrien jabeak zirenak.

Landan ere jauntxoek oinetxeak zituzten, eta errentak ematen zizkieten lurrak. Haiek eta baserritarrek Batzar Nagusietan esku hartzeko eta Jaurerriaren gobernu-karguez arduratzeko eskubidea zuten, baina landako aristokraziak nekazariak postu horietatik baztertzea lortu zuen eta mende hasieratik botere organo hauek aristokratizatuz joan ziren. Horretarako nekazarien parte-hartzea mugatzen zuten xedapen ezberdinak erabili zituzten, adibidez, batzarkidea izateko gaztelaniaz hitz egin eta idazten jakin behar izatea.

Bizkaia eta Gipuzkoako biztanle guztiek kaparetasun unibertsala zuten; gai honetan Bizkaiko Foruak ez zuen inolako desberdintasunik egiten bizkaitarren artean. Horregatik, Mañaricúa irakasleak adierazten duenez, Bizkaian kapare izatea *“ez da maila pribilegiatu baten parte izatearen adierazlea, hori bakarrik gertatzen da atzerrira joaten denean. Bere Lurraldean dagoenean, ez. Izan ere, guztiek dauzkate funtsezko eskubide berdinak, hala nola, tormentua jasotzeko edo zorrengatik atxilotua izateko debekua eta kargu publikoetan jarduteko eskubidea”*.

Lehenago ikusi dugunez, kaparetasun unibertsalak legearen aurreko berdintasuna bermatzen zuen, baina ez berdintasun soziala; izan ere, bizkaitarren artean ezberdintasun nabariak zeuden ekonomia, botere, influentzia eta maila sozialari dagokionez. Eta hauek krisi eta urritasun momentuetan areagotzen ziren. Istiluen jatorria, beraz, Bizkaiko gizartean bertan zegoen, Bizkaiko sistema politikoa kolokan jarri zuten matxinada ezberdinetan ikusiko dugunez.

Bizkaiko matxinatuek beti Bilbora bideratzen zituzten erasoak, han bizi baitziren Jaurerriaren gobernu karguak eta hiribildu hori zelako merkataritza jardueraren zentroa. Herritarrek berdintasun ekonomikoa eta gizarte parekatzea aldarrikatzen zuten, eta Bilboko kaleetan boteretsuei Jaurerriaren gobernua herriaren esku uzteko eskatu zieten. Landako nobleziari Monarkiaren alde jartzea egozten zioten, bizkaitarren eskubide eta pribilegioen defentsa alde batera utziz.

Gatzaren Matxinada

Matxinada hau 1631 eta 1634 urteen artean piztu zen Bizkaian, Filipe IV.aren erregealdian. 1631eko urtarrilaren 3an hasi zen dena, Korrejidoreak gatzaren estankoa ezartzeko Errege Agindu bat jaso zuenean, gatzaren prezioa %44ean igotzen zuena. Xedapen horren bitartez, Errege Ogasunak Jaurerriaren gatz guztia enbargatuko zuen, handik aurrera era eskusiboan saltzeko xedez.

Gaztelan Koroak mende bat aurrerago eskuratu zuen gatzaren monopolioa, bertako gatzaga guztiak bere menpe hartuz, baina Bizkaiko egoera desberdina zen. Bizkaitarrek gatz nahi zuten tokietatik ekartzen zuten, orokorrean itsasotik, Gipuzkoak egiten zuen bezala, Frantzia, Portugal edo Cadizetik.

Errege Aginduak Foruak zapaltzen zituen, merkataritza askea eta Bizkaiaren zerga-salbuespena erasoz. Horregatik, 1631ko urtarrilaren 18an,

Jaurerriaren agintariek kontraforutzat hartu zuten eta agindua ez betetzea erabaki zuten.

Baina Lope Morales Korrejidoreak ez zien jaramonik egin eta neurriak martxan jartzeko xedez Errege Agindua aldarrikatzea agindu zuen. Horrek jendea haserretu egin zuen eta aginduaren aurkako alegatu ezberdinak idatzi ziren, gehiegikeria hori saihesteko edozein ekintza legitimatuz.

Jaurerriaren agintariek Erregearentzako Memoria bat idatzi zuten, legeak zapaltzen zituen Foruen xedapenak zehaztuz, eta Madrilera bi ordezkari bidali zituzten, Koroarekin negoziatzeko.

1631ko maiatzaren 6an Errege Kontseiluak legea kontraforua ez zela erantzun zuen eta indarrean jartzeko agindu zuen. Horren truke, Ternuako arrantza jarduera kontserbatu eta areagotzeko, Kontseiluak Erregearen gatzagetako gatzak kargurik gabe saltzea eskaini zion Jaurerriari, hau da, Erregeari kostatzen zitzaion prezio berdinean.

Baina Errege Kontseiluak neurri bat kontraforua zen ala ez epaitzeko eskumena hartu izanak asko haserretu zituen bizkaitarrak, ordura arte beti Jaurerriaren agintariak izan baitziren hori epaitu izan zutenak.

Hala ere, matxinadaren piztailea izan arren, arazoa ez zen soilik gatzaren estankoa izan, aurretik antzeko tirabirak egon ziren eta. Kontua zen Koroak gero eta presio fiskal handiagoa ezartzen zuela.

1601ean, Filipe III.a errege zelarik, Gaztelako “milioien” zerga, hau da, ardoa, olio, ospina eta haragiaren prezioen gaineko zergak biltzen zituen, Bizkaira zabaltzen saiatu ziren. Ordea, Jaurerriak legeak Foruen kontra egiten zuela alegatu eta Erregeak ez zuen Bizkaian aplikatu.

1629an, Filipe III.ak berriro ere, soldatu zerbitzua eskatu zion Jaurerriari eta, hiribildu gehienetako prokuradoreak kontra egon arren, Batzar Nagusiek Erregeari laguntza militarerako dohaintza egin zioten. Guztira bi

galeoi, artilleria eta muniziorako 36.000 dukat eta berrehun marinelenzako sei hilabeterako soldata eskaini zioten.

Hori ordaindu ahal izateko, ardoa, arraina, oihala, artileak, abereak eta orokorrean aduanetatik pasatzen ziren produktu guztien gaineko zergak jarri ziren. Zerga hauek biztanleria guztiarengan eragina zuten baina, bereziki merkataria eta hiriko auzokideei kalte egiten zieten, ezin zirelako landako produktuez hornitu. Arrantzaleek, marinelek eta Bilboko hiriak presio handia egin zuten zerga hau beste modu batean ordain zedin, eta Bizkaian inoiz izan ez zituzten zerga horiek ezabatzeko. Izan ere, merkataritzari kalte handia eragiten ari zioten, batez ere arrantza sektoreari, Baiona, Donibane Lohizune eta inguruko tokietara mugitzen ari zena.

Hauek izan ziren bizkaitarren haserrearen aurrekariak. Baina, Jaurerriaren ordezkariak Gorteetan Erregearekin eztabaidatzen ari ziren bitartean, eta Bizkaia erantzunaren zain zegoelarik, 1631ko martxoaren 31n Filipe IV.ak dohaintza-eskaera berri bat egin zuen, Flandeseko gerrarako soldatu zerbitzua eskatuz. Batzar Nagusiek onartu egin zuten, horrek Koroarekin gatzaren inguruko gestioak erraztuko zituela pentsatuz.

Normalean landako nobleziak onartzen zituen eskaera hauek, Batzar Nagusietan nagusi zirelako, baina trebetasunez, dohaintza horietarako zergak merkataritza-salerosketen gain jartzen saiatzen ziren, euren jabetzak zergarik gabe utziz. Horregatik merkataria jauntxoak aurka jarri ziren, nobleziak boterea euren interesen arabera maneiatzen zuela arrazoituz.

Herriak bezala, landako nobleziari Gorteei lotuta egotea leporatzen zioten. Izan ere, jauntxoak Koroaren menpe zeuden, euren familiako bigarrenak monarkiaren goi-administrazioan kargu finkoak baitzituzten. Eta merkataria eta matxinatuek Foruak irmoki babesteak jauntxo horiei erregeboterearekin arazoak sor lizkiekeela uste zuten eta horregatik dohaintzak onartzen zituztela. Hori dela eta, esan daiteke matxinada zuzenean euren kontrakoa izan zela, eta ez Erregearen kontra.

1631ko irailaren 23an, Gernikako Batzar Nagusian, bertaratutako jendetzak leher egin zuen batzarkide eta ahaldunen aurkako istilu gogorrek sortuz. Ordezkariek “pertsona normalak” izatea aldarrikatzen zuten, eta ez “calzas negras” deiturikoak, hau da, nobleziako zaldunak. Liskarren ondorioz Batzarra eten behar izan zuten, hurrengo egunerako utziz.

24an, egoera are larriagoa izan zen, baina ahaldunek akreditazioa jaso ahal izan zuten. Mila bostehun bat pertsona bertaratu ziren euren haserrea adierazteko eta presio handia egin zuten. Matxinada arriskua areagotuz zihoan eta ahaldunek gatzari buruzko Errege Agindua ez aplikatzea erabaki zuten.

Horrek Korrejidorea haserretu eta atsekabetu zuen eta gatzaren enbargoa edonola ezartzeko erabakia hartu zuen. Eta horrek matxinada piztu zuen.

1632ko urrian gatazka larriagotu zen. Lope de Morales Korrejidorea kanpoan zegoela, bere ordezkoa Juan Calderón de la Barcak zerga nola edo hala kobratzea erabaki zuen eta hori jakinarazteko pregoia egin zuen.

Jaurerriaren eta Bilboko Udaletxeko agintariek, horrek izan zezakeen ondorioen beldurrez, beste pregoi bat egin zuten, Korrejidorearena barne hartu barik, kontrako jarrera adieraziz.

Abenduan iskanbila handituz joan zen eta Bilboko hiribilduan marinel, larrugin, bizargin, jostun eta hiriko beste ofizioetako biztanleak mobilizatu ziren, ordaindu behar zituzten zergak ezabatzeko eskatuz.

Jende guzti horri inguruko elizateetako auzokideak batu zitzaizkion, herritar guztiak berdinak zirela aldarrikatuz. Azkenik Korrejidorearen Audientziaren ordezkoa hil zuten.

1633ko Jaurerriaren Batzar Nagusian, gatazka berriro ere gaizkiagotu egin zen, Gernikan bi mila marinel eta nekazari armak hartuta aurkeztu zirenean. Batzarrean indarrez sartu ziren batzarkideei merkataritza zerga

berriak indargabetzen behartzeko, garestiegiak zirelako. Gainera bidelapurreta zapaltzeko diru gehiago ez ematea eskatzen zuten, eta egin zituzten aldarrikapen guztien artean, bat baino ez zen gatzari buruzkoa. Horrek gatza matxinada piztu zuen txinparta izan zela egiaztatzen du, baina ez matxinadaren arrazoi nagusia.

Erregeak Bizkaira Ciudad Realeko dukea bidali zuen bitartekari gisa eta alde biek harrera ona egin zioten. Honek Morales Korrejidorearekin istiluak zapaldu eta normaltasuna berreskuratzea erabaki zuten. Biek, Errege Agindua ezabatzearen aldeko joera izan arren, istiluen eragileak zigortzeko prest zeuden. Horrela, 1634ko maiatzaren 24an sei arduradun nagusiak atxilotu zituzten. Berehala epaitu zituzten eta gau horretan bertan exekutatu zituzten. Gainerako matxinoek, Bilbo inguruko mendietatik isiltasunean exekuzio ekitaldia ikusi ondoren, ihes egin zuten.

Exekuziotik hiru egunetara, maiatzaren 27an, Erregeak sinatutako Errege Zedula batzuk iritsi ziren, istilu-sortzaileei barkamena eskainiz eta Errege Agindua indargabetuz.

Barkamena ez zen matxinadaren sei buruen hilketa saihesteko garaiz heldu, Ciudad Realeko dukeak azkartasunez jardun zuelako, baina gainerako matxinatuak bai, barkatu zituzten.

Erreboltarien aurkako kanpaina hau Bilbotik antolatu zen. Matxinada gogortu zenean eta Bizkaiko Jaurerriaren Gobernu Unibertsala zalantzan jarri zuenean, merkatariek matxinatuak alde batera utzi zituzten, gertakarien bilakaeraren beldur. Hasiera batean matxinatuen protesta eta eskakizunekin bat etorri arren, momentu horretan Erregeari matxinada zapaltzeko laguntza eskaini zioten eta aldi berean, gatzaren legea indargabetzeko eskaera egin zuten.

Bilboko burgesiak ezin zuen onartu nekazari eta marinelek erregimen politikoa zalantzan jartzea eta mugimendua bertan behera uztea erabaki zuten, Erregearen alde egiteko. Honek are gehiago okertu zituen Bilbo eta

Lur Lauaren arteko harremanak eta mundu bien arteko tartea are gehiago handitu zen.

IV. XVIII. MENDEA: BIZKAIKO ARO DISTIRATSUA

1700. urtean Karlos II.a, Habsburgo leinuko azkeneko erregea, ondorengorik gabe hil zen. Hori dela eta, Luis XIV.a Frantziakoa eta Maria Teresa Austriakoa infantaren biloba, Filipe Anjoukoa, tronura igo zen eta Borboi etxea Espainian agintzen hasi zen. Filipe V.a (1700-1746) Ondorengotza Gerran austriar erregegaiari gailendu zitzaion (Austriako Karlos artxidukea) eta leinu horretako lehenengo erregea bilakatu zen.

XVIII. mende hasierako gerra honen eta XIX. mendeko hasierako Independentzia Gerraren artean beste lau erregek erreinatu zuten Filipe V.a eta gero: bere semea Luis I.a, urte bat besterik ez 1724an; Filipe V.a berriz ere, 1746ra arte; bere beste bi seme Fernando VI.a (1746-1759) eta Karlos III.a (1759-1788); eta azkenik bere biloba Karlos IV.a (1788-1808), Antzinako Erregimenaren azken erregea izan zena.

Bere aitona Luis XIV.a Frantziakoaren pausoak jarraituz, Filipe V.ak pentsamolde absolutista ekarri zuen. Beraientzat, botere guztia erregearen menpe zegoen, inolako mugapenik gabe, eta beraz baliabide guztiak nahi zuenean erabiltzeko ahalmena zeukan.

Filipe V.ak Espainian sartu zuen XVIII. mendeko europar monarkien joera absolutista, Despotismo Ilustratuaren oinarriak ezarriz. Jose Antonio Escudero irakasleak esaten duen moduan, Despotismo Ilustratu hori *"Ilustraziotik jaiotako berrikuntza ideologikoaren ondorio bat da, goiko mailatik egindako iraultza, politikoki absolutista eta izaera zeharo zentralista izan zuena."*

Goiko mailatik egindako iraultza horretan aldaketak boterearen aldetik antolatzen ziren. Estatu Liberalaren teoriarrien (Ilustratuak) eta absolutismo monarkikoaren ordezkarien arteko aliantza bat zegoen. Tradizioa eta iraultzaren arteko hitzarmen bat izan zen, "despota" eta "ilustratuen" arteko konpromisoa. Era berean, politika esparruan, nobleziaren estamentuarekin zerikusirik ez zuten pertsonen parte-hartze handiagoa ekarri zuen gobernuaren zereginetan.

Baina, adierazi dugunez, Filipe V.ak beste erregegai bati aurka egin behar izan zion, Austriako Karlos artxidukea, Espainian erreinatzen hasteko. Ondorengotza gerra horretan, Espainiako herri ezberdinek, berezko foru-erregimenak zituztenak, era desberdinean jokatu zuten.

Aragoiko Koroak (Aragoi, Valentzia eta Mallorcako erresumak eta Kataluniako printzerria) Austriako Karlos artxidukearen alde egin zuen, hasiera batean Filipe V.ari leialtasuna zin egin arren.

Gaztelako Koroak, ordea, berezko foru-erregimenak zituzten Nafarroako erresuma, Bizkaiko jaurerria eta Araba eta Gipuzkoako probintziak barne hartzen zituenak, Filipe V.a defendatu zuen.

Gerra irabazten zuen neurrian, Filipe V.ak Aragoiko Koroaren berezko erregimenak indargabetuz joan zen, Planta Berriko dekretuen bitartez. Horrela, Aragoi, Valentzia, Mallorca eta Kataluniako eskubide publikoak eta berezko erakundeak ezabatu zituen eta lurralde horiek Gaztelako zuzenbidea eta erakunde publikoen menpe jarri zituen. Ondorioz, berezko Gorteak galdu zituzten eta Gaztelako Gortekin bat egin behar izan zuten.

Planta Berriko lehenengo dekretua 1707an onartu zen eta Aragoi eta Valentziako erresumak indargabetu zituen: “... *enteramente, como desde luego doy por abolidos y derogados todos los referidos Fueros, privilegios, prácticas y costumbres hasta aquí observadas en los referidos reinos de Aragón y Valencia; siendo mi voluntad, que estos se reduzcan a las leyes de*

Castilla y al uso, práctica, y forma de gobierno que tiene y ha tenido en ella y en sus tribunales sin diferencia alguna en nada”.

Dekretu honek Valentziako erresumaren erakundeak indargabetu eta bertako zuzenbide publiko nahiz pribatua ezabatu zuen. Aldiz, ez zen berdin gertatu Aragoiko erresumaren kasuan, Erregeak 1707ean indargabetutako zuzenbidearen alderdi batzuk berrezarri zituelako, 1711ren amaieran. Zuzenbide zibila edo pribatua itzuli zion, baina ez bere erakunde tradizionalak (Gorteak, Justizia Nagusia, Generalitatea).

Hurrengo dekretuetan Erregeak ez zuen guztia indargabetu. Adibidez, Mallorcako erresumaren (1715) edota Kataluniako printzerriaren (1716) dekretuen kasuan, larraldeek zuzenbide zibila, penala eta prozesala eta Itsasoko Kontsulatua kontserbatu zituzten, baina zuzenbide publikoa eta erakunde gehienak galdu zituzten.

Hala ere, Erregeak argi utzi nahi izan zuen bera zela legeak promulgatzen eta indarberritzen zituena. Horregatik Kataluniako 1716ko dekretuan kataluniarren berezitasun judizialak berak, bere eskumenak baliatuz, hala erabakitzen zuelako mantentzen zituela zehaztu nahi izan zuen, “... *que son de nuevo establecidas por este Decreto*” esaldia erabiliz. “*De nuevo establecido*” edo berriz ezarritako legeak, berak ezabatu nahi izan ez zituenak ziren. Erretorika hau errege-absolutismoaren adibide bikaina dugu.

Harrezkero, Nafarroako erresuma, Bizkaiko jaurerria eta Araba eta Gipuzkoako probintzien foru-zuzenbideak soilik jarraitu zuten Espainian indarrean. Horrela, bere menpeko erresuma guztiak lege berdinekin arautzeko borondatea adierazi zuen arren, Erregeak ez zuen inolako antolamendu bateratzailerik sustatu eta lurralde hauetako berezko erregimenak errespetatu zituen. Hona hemen monarkak adierazi zuena 1707ko ekainaren 29ko Planta Berriko lehenengo Dekretuan, Aragoi eta Valentziako Foruak indargabetu zituena: “*mi deseo de reducir todos mis reinos de España a la uniformidad de unas mismas leyes, usos, costumbres y tribunales, gobernándose igualmente todos por las leyes de Castilla tan*

loables y plausibles en todo el Universo". Gaztelako erresumako legeak gustuko zituen Koroaren menpeko gainerako erresumek baino botere handiagoa ematen ziotelako monarkari. Argi geratzen da, beraz, Filipe V.arentzako bateratzea eta gaztelanizatzea gauza berdina zirela.

Ikusten dugunez, bere erresuma eta lurralde guztiak lege berdinaren menpe jarri nahi zituen Filipe V.ak. Bere grina bateratzaileak, ordea, kontraesanak zituen: alde batetik dekretuetan Erregearen legeak promulgatu eta indargabetzeko boterea adierazten zen, eta bestetik Foru batzuk (Bizkaikoak adibidez) mantentzen ziren. Eta Foru hauek, foru-baimena baliatuz, Erregearen boterea mugatzeko ahalmena zuten, Foruen kontra zihoazen aginduei betoa jarri ahal baitzieten.

Baina lurralde hauek gerran bere alde egon zirenez eta gerra aurretik, bere arbasoak egin zuten moduan, Foruak zin egin zituenez, Filipe V.ak ez zuen lurralde hauetan ezer indargabetu. Eta XVIII. eta XIX. mendeetan bere ondorengoek joera berdinarekin jarraitu zuten eta bertako Foruak zin egin zituzten.

Hala eta guztiz ere, XVIII. mendean tentsio gogorrak egongo ziren behin eta berriro foru-erregimenak eta Borboi erregeen artean, euren pentsamolde absolutista foru-lurraldeen izaerarekin bateraezina zelako.

Baina, tentsioak gero eta ugariagoak izan arren, Borboien absolutismoa ez da Espainiako lurraldeak bateratzeko gai izango. Batasuna hurrengo mendean iritsiko zen XIX. mendeko Konstituzio liberalen eskutik.

Ildo horretan, Rafael Mieza eta María Ángeles Larrea irakasleek gogoratzen digutenez, guda irabazi eta Aragoiko Koroaren erresumen zuzenbide publikoa eta erakundeak bateratu eta gero, Filipe V.aren aholkulariek arreta Euskal Probintzietan jarri zuten. Lurralde horiek Ondorengotza Gerran bere alde agertu izan ziren arren, Koroaren lurretan aduanak zeuzkaten, Gaztela eta Bizkaiaren arteko mugetan, eta ez itsaso

portuetan. Eta horrek, Errege-ogasunaren iritziz, kalte handiak zekarzkion Errege-altxorrari eta Estatuaren autoritatea iraintzen zuen.

Hortaz, 1717an Errege Dekretu berri bat eratu zen, aduanak Euskal Probintzien mugetatik itsaso portuetara lekualdatzeko. Neurri horrek Koroarekin istiluak piztu zituen, baina horiek gero aztertuko ditugu.

1. XVIII. mendeko Euskadiko alderdi demografiko nabarmenenak

XVIII. mendean, Euskadik populazio handia hartzen zuen bere baitan, Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldean biztanle-dentsitate altua baitzegoen, Espainia eta Euskadiko barrualdeko gunetan baino askoz altuagoa, km² bakoitzeko 20 biztanle zutenak.

Aurreko mendeko bizi-maila altua mantentzea oso zaila zen, lantzeko lur gehiago ez zegoelako. Egoera horren aurrean bi agertoki azaldu ziren: demografikoki hazten jarraitzea, lehenago erdietsitako bizi-maila jaitsiz, edo hazkunde demografikoa moteltzea bizi-maila hori mantendu ahal izateko.

Bigarrena aukeratu zuten eta ezkontza kopurua jaitsi egin zen; gainera, jendea gero eta beranduago ezkontzen zen. Ondorioz, jaiotza tasa jaitsi zen, aro horretako ohiko parametroetatik aldenduz.

Beste alde batetik, jendeak Ameriketara emigratzen jarraitu zuen eta horrek ere biztanleria murrizten jarraitu zuen.

2. XVIII. mendeko Bizkaiko ekonomia, nekazaritza eta gizarte egitura.

Hainbat autorek "mendeen mendea" deitu izan diote XVIII. mendeari Euskadin. Izan ere, ekonomia asko garatu zen, aurreko aroekin konparatuz maila oso altuetara iritsiz. XVII. mendean krisia pairatu eta gero, burdinolak bere onera itzuli ziren eta nekazaritza sektoreak ere hazkunde handia izan zuen.

Baina bereziki deigarria izan zen merkataritza jarduerak hartu zuen bizitasuna. Garai honetan merkataritza burgesia benetako protagonista bilakatuko zen, ekonomian ez ezik, Bizkaia eta Euskadin garatu ziren harreman sozial eta politiko guztietan ere eginkizun garrantzitsua burutuz.

XVIII. mendean mundu guztiak onartu zituen kapitalismo komertzialak eskaintzen zituen abantailak, dagoeneko lur ezagun guztiak merkaturatzeko mehatxu egiten zuena.

Horrela, burgesiak, merkatuen jaun eta jabe zenez, beste jarduera ekonomikoak kontrolatzeko neurriak ezarri behar izan zituen eta garaiko sistema ekonomikoaren benetako protagonista bilakatu zen.

Burdinolak

Oro har, merkataritza burgesiak ez zuen bere irizpidearen arabera errentagarriak izan zitezkeen sektoreetan sartzeko aukera galdu. Eta hala egin zuten burdinolekin, hain zuzen ere. Olagizonak industrialari txikiak ziren, baliabide ekonomiko eskasekoak, eta gainera, burdin produkzioaren urtaroko izaerak euren jarduera mugatzen zuen. Azaroan burdina fabrikatzen hasi aurretik, gastua egin behar zuten: ikatza eta mea erosi, makinak konpondu edota erremintak erosi. Ondoren maiatzera arte itxaron behar zuten produktu bukatua saldu ahal izateko.

Hori dela eta, maiz salerosleei maileguak eskatu ohi zizkieten, produkzioaren gaineko hipoteken truke eta normalean urteroko ehuneko hogeita hamarra baino interes handiagoarekin. Hala ere, eragiketa hauek

burdinolak suspertu zituzten, olagizonentzako hipoteka-oztopoak ekarri arren.

Filipe V.a Erregearekin, euskaldunek Errege Zedula berria erdietsi zuten 1702an, Amerikako kolonietako burdin hornikuntzaren monopolioa lortuz.

Hala ere, oraindik Andaluziatik kontrabandoko burdina sartzen ari ziren, Ameriketara euskal burdina bezala saltzeko. Hori ekiditeko, burdinari marka bereziak jarri zizkioten, eta Bizkaia eta Gipuzkoako Sevillako burdinaren ontziratzeen kontrola hartu zuten.

Amerikako eskariaz gain, mende honetan zehar euskal burdinaren eskaria asko handitu zen Ingalaterra eta Gaztelako barnealdean. Horregatik, bizkaitar zein gipuzkoarrek ez zuten Sevillako burdina kargatzeko prozesua kontrolatzean arreta gehiegirik jarri mende bukaerako krisia heldu zen arte. Orduan, 1799tik aurrera, ontziratzeen kontrola berrartu zuten, kasu honetan Cadizetik.

XVIII. mendean euskal burdinaren ekoizpenak gora egin zuen era nabarmenean, eta 240.000 kintalera heldu zen, aurreko aroetako 140.000 kintalak gaindituz. Ondorioz, burdinola kopurua handitu zen; 1766ean, guztira 162 lantegi ari ziren funtzionatzen. Hala ere, eta teknologia berriak ezagutu arren, sektorea ez zen berritu, lekuko oligarkiei ez zitzaielako labe garaiak ezartzea interesatzen. Eta horrela jarraitu zuten burdinolek funtzionatzen XIX. mendera arte.

Laburbilduz, XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasierako gerrak eta Britainiako burdingintzaren garapen ikaragarriaren ondorioz, euskal sektore siderurgikoa gainbehera sakonean sartu zen eta XIX. mendeko azken hamarkadetan Bizkaiko burdingintza modernoa jaio arte ez zen indarberritu.

Merkataritza

Bilbok bere partetik, Gaztelatik etorritako artile salerosketaren funtsezko erdigunea izanik, etekin handia atera zion nazioarteko merkataritzaren susperraldiari. Horrela, 1699an egindako Udal-ordenantzen erreformaren bitartez, portuan burutzen zen merkataritza-jarduera guztia era eskusiboan hiriko merkatarien kontrolpean geratzea lortu zuen. Atzeritarrei, ordea, neurri honek kalte handia egin zien, aurrerantzean ezin izango baitzuten Bilboko portuan salerosketa gehiagorik egin. Hiribilduko burgesiarentzako, garaipen handia izan zen, bere portuko merkataritza-jardueraren kontrol totala hartu zuelako, kontratazioetatik ibilbideak gainbegiratzera arte.

Prozesu guzti horretan egoera politikoak Bilboren alde jokatu zuen, Borboiek Espainian boterea hartu zutelako, eta nagusiki, bilbotarrak Ondorengotza Gerran Filipe V.aren alde egon zirelako. Bestalde, Euskadiko kokapen estrategikoa funtsezkoa zen Borboien dinastiarentzat eta frantsesen gerra interesentzako. Izan ere, Kataluniako lurraldea artxidukearen eraginpean zegoen eta beraz, Euskadi Espainia eta Frantzia arteko komunikaziorako funtsezko tokia bilakatu zen.

Beste alde batetik, Ingalaterra eta Holanda Frantziaren etsai klasikoak ziren eta elkarren arteko hainbat gerra izan zituzten. Baina Borboien interesen alde jartzeak ez zien bilbotarrei inolako merkataritza-kalterik eragin eta harreman komertzialak mantendu ahal izan zituzten ingeles zein holandarrekin. Esate baterako, 1714ean Espainiatik esportatutako artilearen ia %50a Bilboko portutik atera zen.

Itsas arautegia zaharkituta zegoela ikustean, bilbotarrek XVIII. mende hasieran Kontsulatuaren Ordenantzak berritzen eta luzatzen hasi ziren eta azkenean, 1737an, Bizkaiko Jaurerriak eta Filipe V.ak Bilboko Kontsulatuaren Ordenantza Berriak onartu zituzten. Erreforma hau beharrezkoa zen, 1569an Filipe II.aren erregealdian lehengo ordenantzak iragarri zirenetik 1737ra arte, itsas zuzenbidea zeharo aldatu izan zelako. Frantziak adibidez, dagoeneko aparteko Ordenantza batzuk idatziak zituen, Bilboko Kontsulatuan egindako erreforman eragin handia izan zutenak.

1737ko Bilboko Kontsulatuaren Ordenantza hauek lehenengo aldiz konpainia kontzeptua zehaztu zuten Espainian, hau da, negoziatzeko edota legezko kontuen inguruan eztabaidatzeko biltzen diren pertsona bi edo gehiagoren arteko sozietate kontratua. Hurrengoa zeritzoten:

“Compañía, en términos de comercio, es un contrato, o convenio que se hace, o puede hacerse entre dos, ó más personas, en virtud del cual se obligan recíprocamente por cierto tiempo, y debajo de ciertas condiciones y pactos, á hacer, y proseguir juntamente varios negocios, por cuenta, y riesgo común, y de cada uno de los compa-ñeros respectivamente, según, y en la parte que por el caudal, ó industria que cada uno ponga, le puedan pertenecer, así en las pér-didas, como en las ganancias, que al cabo del tiempo que asignaren, resultaren de la tal Compañía”.

1737ko Ordenantzek Bilboko Kontsulatuaren merkataritza araudia luzearen lege-sorta nabarmenena osatu zuten eta Europako garrantzitsuenak bilakatu ziren. Jose Maria Arriolaren hitzetan: *“1738an, 1760an, 1769an, 1775ean, 1787an, 1796an, 1813an eta 1818an argitaratu ziren. eta nekez aurki liteke Bilbon ale bat gordetzen ez zuen idazmahairik”.*

Espainia osoa eta bere kolonietan zehar hedatu ziren eta Katalunian bereziki ezaguna izan zen Vilanova i la Geltrú-n José Rubio Jaunaren bulegoan 1813an egindako argitalpena.

Bilboko portua gorantz ari zen eta hiribildutik produktu ezberdin mordoa sartzen zen, hala nola, azukrea, tabakoa, kakaotzea, oihalak eta interes ekonomiko handiko beste zenbait elementu. Aniztasun horrek Bilboko merkatuari kutsu berezia eman zion. Produktu horietako asko era klandestinoan Gaztelara bidaltzen ziren, eta hortik, etorkizunean Bilboko burgesiarentzako oso garrantzitsua izango zen jarduera berri bat jaio zen: kontrabandoa.

Kontrabandoa

Espainiako toki askotan kontrabando-jarduera garatzen zenez, botere publikoak Monarkia Hispanikoaren menpeko lurralde ezberdinetan neurri ezberdinak aplikatu zituen legez kontrako aktibitate hau gelditzeko eta lurralde bakoitzak kontrabandoaren aurka borrokatzeko arauak modu desberdinean ezarri zituen.

Ildo horretan, euskal probintziak izan ziren Koroari arazo gehien eragin zietenak, kontrabandoaren aurkako arau horien aplikazioak Euskal Probintzien agintarien eta Errege-ogasunaren ordezkarien artean erakundegatazka larriak sortu zituelako.

Baina arazo nagusia ez zen Koroak kontrabandoa ekiditeko egin nahi zituen aldaketa legal, jurisdikzional eta praktikoak, baizik eta probintzien agintarien kooperazio falta. Izan ere, euskal probintzien agintariak arau berriak mesfidantzaz ikusten zituzten (adibidez, euren jurisdikzioan begirale kopurua igotzea), beraien askatasunak murriztuko zituztenaren beldur zirelako. Horregatik, Jaurerriaren agintariak Koroari erakutsi nahi zioten arauen kontra zeudela haiek euren neurri propioekin arazo hori kudeatzeko gai zirelako, eta gainera, modu horretan Koroaren gastua murrizten zutela.

1717an aduanak kostaldera eramanez zituztenetik, Erregeek bazekiten euskal autoritateek Koroaren ekonomia arindu ahal zutela kontrabandoa jazartzeko esku hartzen bazuten, begirale gehiago jartzea oso garestia zelako. Baina beste alde batetik, probintziako autoritateen eskaintza hori interesatua izan zitekeelako susmoa zuten eta Koroarekiko leialtasuna urratzen zuela. Erregearen interesak baino gehiago, euren auzotarren interesak babestu nahi zituztela uste zuten, Euskadiko familia asko kontrabandotik bizi zelako.

Horrenbestez, Gaztelatik gertuago zegoenez, Koroak Arabako lurraldean kontrabandoaren kontrako neurriak ezarri zituen, proba moduan. Izan ere, Arabako agintariak kontrabando-jarduera justifikatzen zuten, bizimodua

ateratzeko legezko modua zela esanez eta gatazkaren erantzukizuna begiraleei leporatzen zieten.

Aldi berean, Bizkaiko lurraldean, aduanak mugitzen ari ziren bitartean biztanleriaren artean Koroaren begiraleekiko ikara piztu zen eta horiek Foruak eta bizkaitarren askatasunak ezabatzeko helburua zutenaren zurrumurrua zabaldu zen. Foru-agintariek, zuzenean horrelako interpretaziorik egin ez zuten arren, Errege Zergarako begiraleak euskal askatasunen aurkako elementu gisa aurkeztu zituzten eta mugako ekonomian bizimodua ateratzen zuten familia batzuen oinarri ekonomikoen etsai amorratuak bezala. Gainera, kexa ugari zegoen begiraleen neurrigabekeriari buruz.

Borboien dinastiak, Koroa berreraikitzeke ezinbestekotzat jotzen zuen kontrabando jarduera guztia, nola edo hala, ezabatzea. Eta jarduera hori Gibraltar eta Pirinioak eta Portugaleko mugetan garatzen zen, batik bat, komentatu berri ditugun Euskadiko kasuaz gain. Ekonomia orokorrak ezin zuen penintsularen iparraldeko egoera onartu eta beraz, mugaren etxe guztien gaineko kontrol gogorra ezarri zen, kontrabandistek gordeleku gisa erabili ez zitzaten.

Bereziki garrantzitsuak izan ziren jarduera honetarako, Koroak Arabarekin (1723) eta Bizkaia eta Gipuzkoarekin (1727) sinatu zituen hitzarmenak, aduanak barnealdera itzultzeko eta begirale eta probintziako arduradunen eginkizuna eta mugak arautzeko.

Ontzigintza

XVIII. mende hasieran, Ondorengotza Gerraren ondoren, Kantauriko ontziolen jarduera ia geldirik zegoen, etsaien erasoek eta gerrek eragiten zituzten suteen ondorioz. Eraso horien adibide Gipuzkoako Pasaia Portua dugu, non ingelesek eraikitzen ari ziren itsasontziak erre eta biltegian gordetako artilleria eta bestelako gauzak bereganatu zituzten.

Era berean, Koroak gero eta enkargu gutxiago egiten zizkien Euskadiko ontziolei eta ontziren bat kontratatzen zuenean asko atzeratu ohi zen ordainketetan. Gainera balearen arrantzak behera egin zuen eta bakailao-ontzien eskaria gelditu zen. Ondorioz, ontziolak asko ahuldu ziren.

Hala ere, Borboiek merkataritza-ontzien berpizkundera bultzatu zuten eta Bizkaiko ontziolak nolabait suspertu ziren Bizkaiko mende horretako merkataritzaren egoera distiratsuari esker. Baina ez zituzten teknikak berritu, holandar, frantses eta ingelesek egin zuten moduan, eta horregatik ez ziren krisi horretatik ateratzeko gai izan.

Koroak Errege Armadaren erreforma handia ere gauzatu zuen, Borboiek tronura igotzean egoera penagarrian zegoena; ontzi zahar gutxi batzuk baino ez ziren geratzen, tripulazio eskasarekin, marinela ordaintzeko diru nahikorik ez zegoelako. Horretarako ordenantza batzuk aldarrikatu eta ontziak eraikitze teknikak hobetu zituzten, beste batzuen artean, Gaztañeta maisu euskaldunari esker.

Rosario Porresek adierazten duenez, XVIII. mendean euskal lurraldean gatazka armatu gehiagorik egon ez zen arren, gerra arriskua ez zen desagertu, eta Euskadiko ontziolak beraz, ez ziren guztiz seguruak, gerra guneeetatik hurbil zeudelako. Ondorioz, Koroak beste lekuetako ontziolei lehentasuna eman zien.

Horrela, Erregeek Espainiako kostaldea hiru barrutietan banatu zuten: Ferrol, Cadiz eta Cartagena, eta toki horietan jarri zituzten Errege-ontziolak. Ferrolgo ontziolek, hortaz, euskaldunen tokia hartu zuten, eta bertara eraikitzaile euskaldun asko mugitu ziren. Geroztik Euskadiko ontzioletan Armadarentzako ontziak soilik eraiki ziren ontziola ofizialetan enkargu guztiak hartu ezin zituztenean.

Bizkaian, Zorrotzako arsenalak soilik biziraun zuen. Bertan Espainia eta bere kolonien arteko posta-zerbitzua egiten zuten posta-ontziak eraikitzen zituzten; hauek Coruñatik Habana eta Buenos Airesera abiatzen ziren eta

beraz, bizkorrak izan behar ziren. Eginkizun horretan Zorrotzak izen ona lortu zuen, kalitate handiko lana egiten zuelako. Arrakasta horri esker, XVIII. mendean zehar hainbatetan handitu egin zuten ontziola.

Nerbioiko ontzioletan ere ehun tona baino gehiagoko ontziak eraikitzen jarraitu zituzten, batez ere Indietako ibilbidea eta Baltikoan merkataritza egiteko. Gainerako Bizkaiko kostaldeko hiribilduetan itsasontzi txikiak besterik ez ziren eraikitzen, ontziola txikietan, baxurako arrantzan erabiltzeko; ondorioz, garrantzia galduz joan ziren.

Mende bukaeran Zorrotzaren ontzi-industria zen gorantz zihoan bakarra eta, beste ontziolak suspertzen saiatu ziren arren, Konbentzio Gerra, Independentzia Gerra eta lehenengo Karlistaldiaren ondorioz, sektorea gainbehera sakonean murgildu zen.

Nekazaritza

Nekazaritza sektorearentzat ere, mende oparoa izan zen XVIII.a. Bizkaia, Gipuzkoa, Arabar Errioxa, eta baita Euskal Probintzien hegoaldeko eremu zerealistetan produkzioa izugarri hazi zen, kasu batzuetan ehuneko berrogeiko hazkundea erdietsiz.

Horretarako ezinbestekoa izan zen luberriketak ugaritzea (ahal izan zen heinean) eta laborantza areagotzea. Aldi berean eta merkataritzaren eraginez, moneta-ekonomia finkatuz joan zen, autokontsumo erregimenak indarra galtzen zuen bitartean.

Produkzioa, orduan, espezializatu egin zen eta nekazaritza produktuen trukeak ugaritu ziren, barne merkatu trinkoa osatuz. Honen adierazgarri garbia XVIII. mendeko bigarren zatian agertu ziren azoka kopuru handia dugu. Hori izan zen Bizkaian, Ermua, Busturia, Fruiz, Berriz, Gatika eta Amorebietako azoken kasua.

Faktore guzti horiek baserritarren bizitzetan eragin erabakigarria izan zuten, truke horiekiko gero eta menpekotasun handiagoa zutelako. Baina aldaketek ez zuten nekazarien bizi-maila hobetu eta askotan alderantziz gertatu zen, laborarien lur-jabe handiekiko menpekotasuna handitu zelako. Ondorioz, lantzen zuten lurraren jabe ziren nekazari kopuruak era nabarmenean behera egin zuen eta horietako askok maizter bilakatu behar izan ziren.

Aldi berean, landaren merkantilizazioaren ondorioz, espekulazioa bezalako fenomenoak agertu ziren, batez ere gariaren esparruan garatu zena. Jarduera honek 1765ean gora egin zuen, era ofizialean gariaren tasa ezabatu zenean.

Aurretik deskribatu dugun burdinaren industrian bezalaxe, nekazariak ere maileguak eskatu zituzten, lur-eremuak luberritzeko edo lur berriak erosteko. Baina nekazaritza bezalako sektore batean, zeinean nekez kontrola daitezkeen faktoreak eragiten duten (klimatologia, adibidez), zeharo arriskutsua zen maileguak eskatzea. Hortaz, XVIII. mendean zehar praktika honek ondorio larriak izan zituen nekazariarentzat eta, zorrak ordaindu ezin zituztenean, lurraren jabetza galtzen zuten, mailegu-emaileen eskuetara pasatzen zena, kasu gehienetan merkatariak zirenak.

Era berean, kontratuak irizpide kapitalisten arabera idazten hasi ziren eta horrek nekazariei kalte egin zien, kontratuak epe laburrera egiten zirelako eta beranduago etekina ateratzeko aukeren arabera eguneratzen zirelako.

Espekulazio-jarduera areagotzean, udalerrien ondasunen salmenta ere handitu zen. Izan ere, elikagai eskasiako garaietan, nekazari askok ez ziren gariaren prezio handiak ordaintzeko gai eta, beraz, udalerriek diferentzia ordaintzen zuten. Ondorioz sarritan zorpetzen ziren, eta herri-ondasunak hipotekatu edo saldu behar izaten zituzten.

3. Bizkaiko bideak XVIII. mendean

María Ángeles Larrea Irakasleak adierazten duenez, mende honetan Bizkaiak azpiegitura-lan garrantzitsuak burutu zituen, Bizkaia mesetarekin eta Gipuzkoa eta Gasteizekin lotu zuten errepide berriak irekiz.

Antzinatik zetorren bizkaitarren Kantauriko kostaldetik mesetaranzko bideak irekitzeko grina, baina orain, Burgosek bere periferiaren gaineko nagusitasuna galdu zuela eta Santander merkantziak Europako Iparraldera eta Amerikara garraiatzeko lehentasuna lortzear zegoela ikusi ondoren, komunikazio-bideak hobetzea are premiazkoagoa zela ulertu zuten. Momentu horretan ulertu zuten Bizkaiko Jaurerriak eta Bilboko hiribilduak lurreko komunikazio-bideek erabat baldintzatzen zutela euren merkataritza-jarduera.

Hori dela eta, Bilboko Kontsulatuko kideek trebetasun handiz Jaurerriko batzarkideak errepide berria eraikitzeko komenigarritasunaz konbentzitu zituzten eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Urduñako bidea eraikitzea onartu zuten, Bilbo Pancorbo-Burgosekin lotu zuena. Errepidea Jaurerriak eta Bilboko Hiribilduak bere Kontsulatuarekin finantzatu zuten bere osotasunean. Lanak 1764an hasi eta zortzi urte beranduago bukatu ziren.

Azpiegitura honek garrantzi ikaragarria izango zuen Bizkaiarentzako, baina bereziki onuragarria izan zen Bilboko Hiribildua eta bere Kontsulatuarentzako. Izan ere, bide berriari esker hiriko merkataritza-jarduera erabat areagotu zen, tokiko merkataria guztien mesederako eta gainera, eraikitze-lanetan hainbat langileri ogibidea eman zion.

Horri esker, Bizkaiko biztanleriak gora egin zuen eta, 180 urteren buruan, dentsitate ertaineko probintzia bat izatetik penintsulako biztanle dentsitate handieneko lurraldea izatera pasatu zen.

Bilboko hiribildua Jaurreriaren lehenengo portua eta Kantauriko portu nagusia bilakatu zen, Santanderri elkarren arteko norgehiagoka tradizionalan aurre eginez. Horrela, Gaztelako salerosgaiak (batez ere, artilea) beste portuetara desbideratzea ekidin zen, Bilbok dagoeneko mesetaren barnealdetik zetorren produktuentzako irteera ona zuelako.

Jaurreriak argi ikusi zuen Santanderreko portuaren aurka lehia egiteko beharra eta Bizkaia osoak, Enkarterri izan ezik, esku hartu zuen Urduñatik igarotzen zen Bilbo-Pancorbo errepidearen lanak finantzatzeko, Bilboko hiribildua eta bere Kontsulatuarekin elkarlanean.

Azpiegitura hori eraikitzea posiblea izan zen Jaurreriaren elementu guztiak bat etorri zirelako. Bilbok oso trebe jokatu zuen hasieratik eta egoera bere beharretara egokitzen jakin zuen. Horrela, portuan biltegi eta eraikin gehiago eraiki zituen, kaiak eta nasen baldintzak hobetuz merkatariek euren salerosgaiak Nerbioiko ezker aldean, hau da, Abandoko Errepublikan, deskargatu ez zitzaten. Azken neurri horri esker salerosketa guztien kontrola eskuratu zuten.

Kontuan izan behar dugu ontzi guztiak ezin zirela Bilbora iritsi. Beraz, handienak “El Desierto”, Lutzana eta Olabeagan aingurak botatzen zituzten eta merkantziak gabarretan deskargatzen zituzten, Bilbora garraiatzeko.

Gainera, 1753an, itsasadarreko Portugalete eta “El Desierto” eremuaren arteko gunea kanalizatu zen, guztira 2.400 metro. Horrez gain Deustu, Getxo, Leioa, Erandio eta Abandoko elizateek erriberako kaiak eraikitzen lagundu zuten, itsasadar guztia portu bihurtzeko. Hemendik zetorren, hain zuzen ere, Bilboren interesa instalazioak egoera onean izateko, salerosgaiak Hiribildutik kanpo gera ez zitezen. Horrela, bizkortasunez, Bilbo interes ekonomiko handiko zentroa bilakatu zen.

Egoera honetan, lur zabala eta Bilboren arteko lehia berpiztu zen, elizate askok uste zutelako elkarren artean finantzatutako Urduñatik pasatzen zen Bilbo-Pancorbo errepideak nagusiki Bilboko Hiribilduari mesede egiten

ziola. Denboraldi batez Bilboren alde jarri ziren Santanderren konpetentziaren beldur zirelako, baina, horren ondoren ez zuten Bilbok gainerako lurraldeak baino etekin handiagoa ateratzea onartu nahi izan. Hori dela eta, Bilbori lehia egiteko beste portu bat eraikitzea bururatu zitzairen eta 1792ko Batzar Nagusietan Mundakan portu bat eraikitzeko proiektu bat aurkeztu zuten. Beranduago, XIX. mendean dagoeneko, txosten berri bat aurkeztu zuten, Bilboko itsasadarrean baina Hiribilduaren kontroletik kanpo, Abandoko elizatean Bakearen Portua eraikitzeko. Dena den, proiektu biak ez ziren burutu.

Bilboko hiribildua eta Jaurerriaren arteko dualtasuna etengabea izan zen Bizkaiko historian, hiribilduak mentalitate eta interes ezberdinak zituelako. Urduñatik igarotzen zen Bilbo eta Burgosen arteko errepidea, Bilboko merkataritza-burgesiaren lehenengo pausoa izan zen euren hazkunde ekonomikoa mugatzen zuten “foru-oztopoak” gainditzeko.

Horrela, hiribilduko portua zuzenean Amerikarekin salerosketak egiten saiatu zen, baina gobernu zentralak bilbotarrei eskubide hori ukatzen zien zerga-salbuespena mantentzen zuten bitartean. Eta Jaurerriak zerga-salbuespena irmo defendatzen zuen.

Bloke bien arteko aldea handituz joan zen, irizpide eta interes oso desberdinak zituztelako eta gero eta tirabira gehiago izan zituzten, Foruak merkatarien produktuak esportatzeko oztopo bilakatzen ari baitziren. Gainera, Bilboko hiribildua haziz joan zen heinean, pisu politikoa hartuz joan zen, botere politiko eta administratibo garrantzitsua bilakatuz.

Era berean, Bilbok bere auzotarrek ozeanoz haraindiko bidaietan harturiko esperientzia baliatzen jakin zuen. Itsasotik, hain zuzen ere, atzerritar ugari iritsi ziren (Frantzia, Alemania, Ingalaterra, Irlanda, Suediatik...), lanbide ezberdinetan jardun zutenak eta Hiribilduari kutsu kosmopolita ekarri ziotenak, beste etekinen artean.

Beste maila batean, Urduñak ere etekin handia atera zion Bilbo-Pancorbo errepideari, aduana-hiri garrantzitsu bezala finkatu zelako. Geroztik bere

biztanleria eta etxe eta eraikin publikoen kopuruak gora egin zuten.

Aduana berri bat eraiki behar izan zuten, merkantzia eta pertsona trafikoko handia zegoelako. Urduña 1758an 1.324 biztanle izatetik, 1787an 2.224ra igaro zen.

Urduñatik pasatzen zen Bilbo-Pancorbo errepidea eraikitzen bukatzean, beste komunikazio bideak egiten hasi ziren. Horien artean garrantzitsuen Durangoko bide hirukoitza izan zen. Bilbo eta Burgosen artean garaturiko azpiegitura ikustean, Durangaldeak ere bere komunikazio-bideak hobetu nahi izan zituen. Horrela, Urduñarekin lehia egiteko Urkiolatik mesetarako irteera eraikitzeko eta Gipuzkoarekin komunikazioa garatzeko proiektuak martxan jarri zituen, eta beranduago, Bilborekin Galdakotik konektatzekoa ere.

Durangoko merindadearen biztanleriak nortasun sendoa zeukan Jaurerriaren barruan eta isolaturik geratzeko beldur zen. Horregatik, hogeii udalerrri inguru konbentzitu eta Durango-Gasteiz (Urkiolatik) eta Durango-Gipuzkoa (Eibartik) errepideen eraikitze-lanak onartzea lortu zuten; oster, azken bide honek ez zuen Bilboko Hiribilduaren esku hartzerik izan.

Lanak 1777an hasi eta 1789an bukatu ziren. Ondoren, 1803tik aurrera, Durangotik Bilbora Galdakaotik zihoan errepidea eraikitzen hasi ziren, eta oraingo honetan Bilboko Hiribilduak eta errepidearen ibilaldiko herriek derrigorrean parte hartu behar izan zuten. Errepide hauek, aldez aurretik proiektatu eta onartu izan ziren, baina frantsesen aurkako Konbentzio Gerraren ondorioz ezin izan ziren gauzatu.

Azpiegitura berri hauei esker, Ibaizabal eta Deba ibaiaren ertzean artisau-industria lehiatsua ezarri zen, urteekin garrantzia hartuz joango zena, eta geure egunetara arte garatzen jarraitu dena. Horrela, errepide bat sortu zen Bilboko itsasadarraren parean, bere kanalizazioa erraztu zuena eta ibai ahotik haratagoko guneen garapena suspertu zuena, beranduago

itsasadarraren ertz bietan garatuko zen industria eta merkataritzaren oinarriak ezarriz.

Gainera, Durangoko bide hirukoitzari esker, ibilbideko alde bietan biztanleria hazi zen, Bilbo eta Urduña arteko errepideak lortu ez zuena.

4. Matxinadak

XVIII. mendean matxinada garrantzitsu bat egon zen Bizkaian, 1718an aduanak lekualdatu eta gero hasi zena. Horrez gain, 1766an Gipuzkoan alearen matxinada piztu zen, Bizkaiko mugako lurraldeetara zabaldu zena.

1718 eta 1766ko matxinaden artean, Gipuzkoako leku ezberdinetan istilu eta tentsiozko egoera ugari sortu ziren: 1731n Irunen, itsasoratze baten ondorioz; Azpeitian, ogia garestitu zutelako; 1733an, Placencia eta Soroluzeko arma lantegietan; 1738an, Gasteizen, udaletxea menperatzen zuen oligarkiaren aurka; urte berean Hernanin, herri-mendiekin lotuta; eta 1755an haragiaren ondorioz matxinada txiki bat piztu zen Gipuzkoan, 1766ko alearen matxinadaren aitzindaria izan zena, esan dugunez Bizkaian ere nolabaiteko eragina izan zuena.

1718ko matxinada, aduanen lekualdatzea

Gatazka honek eta mende aurreko gatzaren matxinadak zenbait ezaugarri komun dituzte. Biak presio fiskalaren eraginez lehertu ziren eta bietan nekazarien eta landako nobleziaren (jauntxoak) arteko tentsioak azaldu ziren, nekazariak mesfidantzaz ikusten zituztelako azken hauek eta Koroaren arteko loturak. Era berean, gatazka bietan ere jauntxoen eta merkatarien (batez ere, Bilbokoak) arteko tentsioak azaleratu ziren. Baina Gatzaren matxinadarekin desberdintasunak ere izan zituen. Nabarmenena, oraingo honetan Bilboko auzotarrek istiluetan parte hartu ez zutela izan zen.

1718ko matxinada aduanak barnealdeko portu lehorretatik kostaldera eta Frantzia eta Portugaleko mugetara lekualdatzeko agindu baten ondorioz piztu zen: 1717ko abuztuaren 31ko dekretua. Horren helburua Koroarentzako diru-sarrera gehiago lortzea zen.

Erregeak agindu honekin foru-askatasunak errespetatzen zituela esaten zuen, kontsumorako hainbat produktu (zerealak, ardoa, olioak eta lekaleak) Euskadin askatasunez salerosi eta deskargatzea baimentzen zuelako. Hainbat produktu, bai, baina ez guztiak. Gainera, dekretuak xedatzen zuenez, Bizkaiak aduanak kostaldera eramatea onartzen ez bazuen, Bilbok artilearen esportazioan zituen pribilegioak galduko zituen.

Bizkaitarrei zaila egiten zitzaien horrelako neurri bat onartzea Filipe V.a bezalako monarka batetik, euskaldunek Ondorengotza Gerran Austriarren leinuaren erregegaiaren aurrean baldintzarik gabe bere alde egin zutela kontuan izanik. Neurri honekin, Erregeak zentralizazio prozesua jarri zuen martxan, Borboien politika tipikoa euren Estatuaren kontzeptuan, zuzenean foru-erregimenaren askatasunak erasotzen zituena. Horrek eragin berezia izan zuen Euskal Probintzietan, ordura arte, aduana erregimen orokorraren kanpo mantendu izan baitziren, euren aduanak probintziak eta Gaztelaren artean kokatzen zirelarik, hain zuzen ere Urduña, Balmaseda eta Gasteizen. Beraz, salerosgaiek Bizkaia eta Gaztelaren arteko muga pasatzean soilik ordaindu behar zituzten zergak. Hala ere, Erregeak ez zuen uste dekretuarekin probintziei inolako kalterik egiten zienik, ohiko kontsumorako produktu jakin batzuk salerosteko askatasuna mantentzen zutelako, dagoeneko ikusi dugunez.

Baina Bizkaia inportazioekiko menpekotasun handia zeukan eta premiazko produktuekin batera zergak ordaindu behar zituzten beste produktuak iristen ziren, eta horrek, merkantzia guztiaren goranzko berrikuspena egin behar izatea eragiten zuen.

Dena den, neurriak ez zuen eragin berdina izan hiru probintzietan eta maila sozial ezberdinetan. Arabak ale produkzio handia zuen eta bertan

nekazari ugari bizi ziren; Bizkaia eta Gipuzkoak, aldiz, ale produkzio oso txikia zeukaten eta beraz, inportazioen menpe zeuden. Gainera, mantendu beharreko landaz kanpoko biztanle ugari zeuzkaten.

Gizatalde ezberdinei dagokionez, aduanak lekualdatzea bereziki kalte egiten zien merkatariei eta artisau eta nekazarien maila baxuei. Baina, merkatarien artean, ez zuen guztiengan eragin berdina izan; boteretsuengan, hau da artilea eta burdina esportatzen zutenak, eragin txikia izan zuen, burdina muga-zergetatik salbuetsita zegoelako eta artilearen kasuan, aldaketa bakarra lehen barnealdeko portu lehorretan (Gaztelaren mugan) ordaintzen zutena orain kostaldean ordaindu behar izango zutela zen. Aldiz, kolonietatik ekarritako produktuak salerosten zituztenei eta kontsumorako produktuen inportatzaileei kalte handia eragin zien, lehen ordaintzen ez zuten muga-zerge berria ezarri zitelako.

Herriari dagokionez, lekualdaketa nekazari eta artisauentzako oso kaltegarria izan zen, premiazko produktuak garestitu zirelako, adibidez bakailaoa, oihalak, etab. Gainera, aldi berean lurraldeak lehortu luzea pairatu zuen eta uzta ugari galdu ziren. Horrek gosea eragin zuen.

Horrez gain, Errege Aginduaren ondorioz kontrabandoak indarra galdu zuen, jende ugari egoera latzean utziz. Izan ere, legez kanpokoak izan arren, familia mordoak ateratzen zuten bizimodua jarduera horretatik, tokiko agintariak beste aldera begiratzen zuten bitartean.

Aduanak lekualdatzeko dekretua jaso eta berehala, Bizkaiko Batzar Nagusiek neurria errefusatu zuten eta Gorteetara ordezkaritza bat bidali zuten Erregeari neurria kontraforua zela azaltzeko. Baina ordezkaritza horrek ez zuen arrakastarik izan eta negoziaketa eta eztabaida ugariren ondoren, ez zuen Koroarekin inolako akordiorik lortu.

Landako nobleziak, Batzar Nagusiak kontrolatzen zituen, aduanak lekualdatzearekin kaltetu nagusia merkataritza-burgesia zela, eta batez ere Bilbo, uste zuen. Burgesia hau, organo politikoetan botere handia eskuratu

izan zuen azken urteetan eta horregatik, agian, Batzarrak eta Jaurerriak ez zioten Koroari presio nahikorik egin. Ez ziren ohartu neurriak ere nekazariei kalte egiten ziela eta, seguruenik hori dela eta jauntxoak herriaren amorruren jomuga izan ziren.

Azkenean, 1718ko martxoaren 19an, aduanak kostaldera mugitu ziren eta auzokideen lehenengo protestak piztu ziren. Laster hasierako protesta horiek ekintza bortitzak bilakatu ziren eta matxinada hasi zen. Aduana langileak izan ziren herritarren amorruren lehenengo biktimak. Auzokideek irainak bota eta mehatxu egiten zieten, euren ostatuetan paskinak jartzen zituzten... Eta Frantziatik arrainez beteta iristen ziren ontziak aztertzen zituzten bakoitzean matxinada pizteko arriskua zegoen.

Istilu larrienak Nerbioiko itsasadarra, Mundakako itsasadarra eta Gernikan jazo ziren eta orokorrean portuak eta kostaldetik gertueneko landa guneeetan eman ziren, ez barnealdeko probintzietan, horiek erraz hornitu ahal zirelako Arabako lautada eta Burgoseko produktuekin. Hori dela eta, Durango, Arratia, Orozkoko harana eta Enkarterriko ekialdean ez zen altxamendurik egon.

Matxinada 1718ko abuztuan piztu zen, Bilboko zerga-biltzaile bat hil eta Bermeo eta Algortako aduana zaindarien itsasontziei su eman zietenean.

Irailaren 4an Begoña, Deustu eta Abandoko elizateetako nekazariak Bilbon sartu ziren eta Korrejidorearen etxera abiatu ziren, Karlos Zoracoiz, berehala dekretua indargabetzeko eskatzeko, baina honek ezetz esan zuen. Gero Diputatu Nagusi baten bila joan ziren, Enrike Arana, eta ihes egin zuenez bere etxeari su eman zioten. Berdin egin zuten aduana etxea eta noble batzuen etxeekin, traidoreak zirela sinesten baitzuten, Jaurerria, hiribilduetan edo Bilboko Kontsulatuan karguak izan edo batzarkideak izanik, Errege Aginduari aurka behar bezala ez egiteagatik. Horrela, Vargaseko Markesa, Diego Allende Salazar eta beste pertsonalitateen etxeei su eman zieten.

Hurrengo egunean, irailak 5, unerik larrienak bizi izan ziren, goizeko zortzietan inguruko elizateetako bost mila gizon inguru Bilbora jaitsi zirenean lantza eta su-armaz hornituta. Hiru handiki hil zituzten, horien artean Enrique Arana Diputatu Nagusia, Areatzan bere burua irekiz. Neurrigabekeriaz jardun zuten hiri osoan zehar, etxeak errez eta ondasunak suntsituz. Handiki askok korrika ihes egin zuten euren emazteekin, komentu eta elizetan gotorlekua hartzeko, baina leku horiek ere ez zituzten matxinoek errespetatu eta haien bila sartzen ziren.

Hirugarren egunean, gatazka beste udalerrietara hedatu zen, batez ere Portugalete, Somorrostro eta Bermeo. Bilboko alkatea eta lehen erregidorea hil zituzten eta matxinada hain sendoa izan zenez, Gipuzkoara ere zabaldu zen. Azkenean, bilbotarrek armak hartu behar izan zituzten, inguruko nekazarien bortizkeria gelditzeko.

Azaroaren 11n errege-tropak Bizkaian sartu ziren, inolako erresistentziarik gabe, eta zenbait errudun Bilboko Plaza Zaharrean exekutatu zituzten. Baina matxinadak arrakasta izan zuen, 1723an aduanak barnealdeko Gaztelako mugetara itzuli zirelako. Dena den, erabaki honetan beste faktore batek ere eragina izan zuen: aduanak itsasoko portuetara eramatean, Errege Ogasunak diru gehiago lortu beharrean, dirua galdu zuen, salerosketa gehienak Frantziara desbideratu zirelako.

1718ko matxinada piztu zuen funtsezko arrazoia landako nobleziak Erregearen agindu baten aurrean, merkatariei eta herriari kalte egingo ziola jakin arren, batez ere nekazariei, erakutsitako pasibotasuna izan zen. Horregatik, une oro landako noblezia matxinadaren jomuga izan zen, Batzar Nagusiak menperatzen zituena eta Jaurerriaren kargu garrantzitsuenak okupatzen zituena. Berriro ere, gatzaren matxinadan egin zuten bezala, euren interes partikularrak babesterako orduan Koroarekin bigunegiak izatea leporatu zieten. Horregatik arpilatu eta erre egin zituzten euren etxeak eta horregatik hil egin zituzten landako hainbat noble.

Hala ere, oso posiblea da merkatariek matxinoak berotu izana, Bilboko auzokideak ez baitziren gehiegi mugitu matxinada gelditzeko eta agian horren ondorioz ezin izan zuen korrejidoreak hiria defendatzeko indarrrik antolatu eta Errege Armadari laguntza eskatu behar izan zion.

1766ko alearen matxinada

Aduanen lekualdatzearen matxinada eta 1755ean Tolosaldean abereak ateratzeko debekuak eragindako altxamendu herrikoien ondoren, ez zen gizarte gatazka nabarmen gehiagorik egon Euskadin, eta are gutxiago Bizkaian, nahiz eta Erregeak 1763an Gasteiz, Balmaseda eta Urduñako aduanetatik pasatuko ziren salerosgai guztiak Burgosen erregistratzea agindu zuen, Santanderreko portutik irteten zirenak desgrabazio nabarmenak zituzten bitartean.

Baina 1766. urtean, krisi denboraldi betean gariaren prezioak neurritz kanpo gora egin eta gero, Debako haranean matxinada berri bat piztu zen, Bizkaiko lurralde gutxi batzuetara ere hedatu zena, Markina inguruan.

Aldi berean Espainian beste matxinada batzuk ere sortu ziren: “Esquilacheren aurkako matxinadak”. Altxamendu hauek ogasun idazkaria zen Esquilacheko markesak janzerari buruzko agindu bat atera zuenean, kapa laburragoa eta hiru puntako kapela erabili behar zirela xedatuz, piztu ziren. Hala ere, premiazko produktuen prezioen igoera izan zen benetako eragilea.

Agindu hau Markesa eta bere emaztearen ospe txarrari gehitu zitzaion (etxean tabakoarekin estraperloa egitea leporatzen zieten) eta Madrilgo herria piztu zuen. Kleroaren laguntzarekin, aginduaren ondorioz bere sotanak moztu behar izango zituen, auzokideak Ogasun Idazkariaren etxean sartu ziren, agindu hori ezabatzea eta premiazko produktuen prezioak beheratzea eskatuz.

Horrek Erregea ikaratu zuen eta eskaerak onartu zituen, baina altxamenduak Madriletik haratago zabaldu ziren. Gipuzkoan oihartzun handia izan zuten; Bizkaian aldiz, oso txikia. Horregatik, Gipuzkoako matxinoak Bizkaira abiatu ziren, Markina hartu eta lurraldea gatazkan inplikatzeko. Markinako herriak armak hartu zituen prezioen beherapena eskatzeko, baina Bilbok milizia bat sortu zuen eta ahalegin handirik gabe matxinada zapaltzea eta buruzagi nagusiak atxilotzea lortu zuen. Bizkaiko gainerako lurraldeetan ez zen altxamendurik egon eta Jaurreriaren agintariek Madrilera ordezkaritza bat bidali zuten Karlos III.ari euren leialtasun irmoa helarazteko.

Bizkaian asko hitz egin zen kapak laburtu eta kapela aldatzeko legeaz, baina ez zen ondorio nabarmenik egon. 1770ean Gaztelako Kontseiluak hegal zabaleko kapelak eta kapa luzeak berriro debekatu zituenean, bizkaitarrek agindua bete zuten, garrantzi gutxiko istiluren bat egon zen arren.

Justifikazio moduan, Koroak jendearen segurtasuna hobetzeko neurria zela esaten zuen, estalita joatea “gaizkileen kontua” baitzen.

Mende bukaerako tentsioak

XVIII. mende bukaeran bi faktorek gizartean eragin negatiboa izan zuten: landaren gainbehera eta merkataritzaren atzeraldia.

Merkatu nazionala ulertzeko modua aldatu egin zen eta Monarkiak foraltasunarekin talka egiten zuten hainbat neurri hartu zituen. Esate baterako, 1788an Koroak 1487ko Chinchillaren Kapituluaren parte bat berrezartzen saiatu zen, Erregeari botere gehien ematen zion parte, alegia.

Era berean barnealdeko aduanetan Euskal Probintzien merkataritza-jarduera zergapetzen hasi ziren, Euskadiko merkataritza-burgesiak ordura arte disfrutatutiko pribilegio nagusienetako bat ezabatzeko xedez.

1778an ere, Koroak xedatu zuen Bilbo eta Donostiak Amerikarekin salerosketak egin nahi bazuten euren aduana-sistema aldatu behar zutela, hiri biek lehenengo momentutik errefusatu zutena.

1779an Koroak zergak ezarri zizkien Espainiako edozein portutik Bilbo eta Donostiako portuetara bidalitako produktu guztiei.

Ikusten denez, probintzia salbuetsientzako urte latzak izan ziren eta Foru-probintzia eta Erregearen arteko tentsioak etengabeak izan ziren.

Horrela, XIX. mende hasieran iraultza giro nabarmena zegoen, arrazoi hauek eta gero aztertuko ditugun beste batzuen eraginez.

5. Euskalerraren Adiskideen Erret Elkarte

1766. urtean etorkizunean funtsezkoa izango zen erakundea agertu zen: Euskalerraren Adiskideen Erret Elkarte. 1765ean Azkoitian sortua, Karlos III.aren erregealdian, Espainian sortutako lehenengo adiskideen elkarte dugu.

Azkoitiko zalduntxoek (horien artean bere sustatzaile nagusia Frantzisko Xabier Munibe Idiakez, Peñafloridako Kondea, nabarmendu zen) elkarte sortu berrian garaiko bizitza intelektualeko pertsonaia aipagarrienak biltzea lortu zuten. Orokorrean arrazionalismoaren aldeko ilustratuak ziren, merkataritza mundutik zetozenak, baina landako aristokraziako kideak ere bazeuden.

Lau urte Toulouseko jesuiten ikastetxean igaro eta gero, Peñafloridako kondea bertan barneratutako kontzeptuak Espainian aplikatzeko gogoarekin itzuli zen eta bere herrialdearen kultura-egoera berpizteko elkarte bat sortzea bururatu zitzaion.

Euskaldunzale sutsua, “Azkoitiko triunbiratua” delakoa eratu zuen bere lagunak Manuel Ignacio Altuna Portu eta Joaquin Egia Agirrerekin. Talde honi laster pertsonaia ospetsuak, elizgizonak eta kulturadun pertsonak erantsi zitzaizkion. Periodikoki Insausti Jauregian batzartzen ziren (kondearen bizilekua) eta Sozietate Ekonomiko bat eratu zuten, Euskal Herriaren garapena bultzatzeko helburuz.

Intelektual talde horren ustez, aldaketa ekonomikoen bitartez posiblea zen gizartea zaharberritu eta klase sozial xumeen bizi baldintzak hobetzea. Xede horrekin, industria, merkataritza eta arteak bultzatu zituzten Euskal Herrian eta baita Amerika eta Filipinetan ere. Hori guztia, jakina, euren euskal nortasuna alde batera utzi barik.

Euren ahaleginari esker, oinarrizko eskolak eraiki ziren Gasteiz, Loiola, Bilbo, Donostia eta Bergaran. Azken honetan Errege Mintegia ezarri zuten, Euskadiko lehenengo goi-mailako irakaskuntzako zentroa izan zena. XVIII. mendean Unibertsitateak gainbehera betean zeuden eta, beraz, zientzia modernoa eta, batez ere, zientzia esperimentalak, unibertsitateetatik kanpo geratu ziren. Gai horiek ikasteko, Frantziaren ereduari jarraiki, Zientzia Errege Akademiak agertu ziren eta elkarte hau imitatuz (Espainian lehenengoa izan zena), estatu osoan adiskide elkarte ekonomikoak sortu ziren.

Egia esan Euskalerriko Adiskideen Erret Elkarteak hasiera hasieratik gazteen heziketan arreta handia jarri zuen, prestakuntza eta heziketa kultural, zientifiko eta moral ona Euskal Herriaren etorkizunaren oinarria izan behar zela sinesten zutelako.

Elkartearen arautegiaren lehenengo artikulua ederki laburbiltzen du bere xedea:

“El objeto de esta Sociedad es el de cultivar la inclinación y el gusto de la Nación Vascongada hacia las Ciencias, Bellas Artes y Letras; corregir y

pulir sus costumbres; desterrar el ocio, la ignorancia y sus funestas consecuencias; y estrechar más la unión de las tres Provincias Vascongadas de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa”.

Mintegi edo ikastetxe on bat antolatzeko helburua zuten eta, 1767an Jesuitak kanporatu eta gero hainbat irakaskuntza zentro hutsik geratu zirenez, Ministerioari mintegi bat Loiolako Eskolan kokatzeko baimena eskatu zioten, baina ezezko erantzuna jaso zuten.

Azkenean, behin eta berriro eskatu ondoren, irakaskuntza-zentroa egitea onartu zuten, Errege Mintegia izenarekin eta atean errege armaria jartzeko aginduarekin. Beranduago, Bergarako Errege Mintegi Abertzalea bilakatu zen. Ikastetxe hori, herrialdean egindako bigarren irakaskuntza obra handia izan zen, 1550ean Ávilako apezpikua Rodrigo Sánchez de Mercado Zuazolak eraikitako Oñatiko Unibertsitatearen ondoren.

Une horretan, Oñatiko Unibertsitatea gainbehera betean zegoen, baina 1772an hiru euskal probintziek eta Oñatiko Kontzejuak unibertsitatea suspertzea lortu zuten eta Espainia mailan arrakastatsuenetakoa bilakatu zen. Horrela, ilustratu talde hauen ahaleginei esker Oñatiko Unibertsitateak bere urte distiratsuenak bizi izan zituen. Hala ere, XIX. mendearen hasieran, Frantziako Konbentzioaren tropek Euskadi hartu eta gero, Erregeak 1807an ezabatu zuen, gainbeheran zegoelako.

Bergarako Errege Mintegira bueltatuz, Karlos III.ak berak kimika eta mineralogia katedren irakasleen kontratazioak egiten eta laborategiak osatzen lagundu zuen. Horrenbestez, Mintegia lehen mailako kultura-zentroa bilakatu zen, Europa osoan garrantzitsua, kontinente osoko aparteko irakasleekin.

Elkarteak ere emakumeei prestakuntza emateko ahaleginak egin zituen, bazekielako XVII. mendean heziketa txarra jasotzen zutela. Hori dela eta, 1784ko matxoan Monarkak emakumeentzako mintegi bat sortzea onartu

zuen. Zoritxarrez, mintegi hori ez zen inoiz gauzatu eta bere ordeiz Gasteiz, Bilbo, Bergara eta Donostiako marrazketa eskolak sortu ziren.

1765ko apirilean Gasteizen batzarra egin eta gero, Elkarteak estatutuak onartu zituen eta euren armarria diseinatu zuen: hiru esku lotuta adiskidetasunaren sinbolo gisa eta horien erdian zinta bat *irurac bat* goiburuarekin, elkarte jaioberria osatuko zuten hiru probintzien arteko elkartasuna adieraziz.

Marrazketa Manuel Salvador Carmona artista ospetsuaren esku utzi zuten, era sinplean baina estatutuek xedatutakoa zehatz-mehatz islatuz, Elkarteak gaur egunera arte erabili izan duen grabatua egin zuena.

XX. mendean Elkartea berpiztu zenean, enblema berdina erabili zuten, baina perlazko zirkunferentzia baten barruan sartura eta ereinotz-sorta biz inguratuta.

1785ean Peñafloidako kondea hil eta bere lehengusua bilakatu zen Elkartearen zuzendari berria, Montehermosoko markesa. Hala ere, Karlos III.a hiltzean Elkartearen jarduerak nabarmenki behera egin zuen.

Oro har, diru kopuru handiak jasotzen jarraitu zuten, Amerikako kideek bidaltzen zituztenak, baina dirulaguntza hauek laster desagertu ziren eta Amerikako ikasle batzuen mantenu gastuak kobratzeko arazoak ere izaten hasi ziren.

Adiskideen Elkartearentzako urte latzak heldu ziren: Frantziako iraultza, Amerikako gerrak eta 1794ko abuztu amaierako frantziarren aurkako gerra. Azken honetan Konbentzioaren tropek Mintegia guztiz birrindu zuten.

XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasieran, Elkartea erabateko gainbeheran sartu zen, bere kideek hori saihesteko ahal izan zuten guztia egin zuten arren. Beste alde batetik, Karlos IV.ak tronua hartu zuenean

(orokorrean elkarte ekonomikoei jaramon egin ez ziena), boterea Godoyren esku utzi zuen, Euskal Probintziekin harreman txarra zuena.

1804an Elkarteari Mintegiaren zuzendaritza kendu zioten. Saiakera ugari egin ziren Elkartea sendotzeko eta horrela Mintegiaren zuzendaritza berreskuratzeko, baina oztopo gehiegi jartzen zizkieten.

1808an, Bergarako Errege Mintegi Abertzalea gobernuaren menpe geratu zen eta izena aldatu zioten; aurrerantzean Nobleen Errege Mintegia deituko zen. Jabe berriek Mintegia funtzionatzeko baliabideak eskuratu zituzten eta ikasketak mantendu eta ikasle kopurua handitzea lortu zuten.

Beranduago Elkartearen zuzendaria, Montehermosoko markesa, hil zen eta Narroseko markesak hartu zuen gidaritza, hasieratik Elkarteko kidea izan zena. Urte horretan Mintegia berreskuratu zuten baina bere ekonomia oraindik ezgonkorra zen.

Garai horretan nekazaritza sektorea pizteko hainbat ekintza berritzaile eta iraultzaile martxan jarri zituzten. Belardi artifizialak sortu zituzten eta abere-hazkuntza sustatu zuten, etekina eta kalitatea hobetzeko xedez. Era berean, ikerketa garrantzitsuak egin zituzten, batez ere industria siderurgikoaren inguruan. Harrikatza bilatu zuten eta burdinolak hobetzen saiatu ziren. Berrikuntza esparruan, gaitasun handiko gazteek atzerrian heziketa jasotzeko beka programak martxan jarri zituzten.

Leandro Silvánek adierazten duenez, Errege Mintegiaren menpeko laborategietan garai hartan Espainian ohiz kanpokoak ziren ikerkuntza lanak egiten ziren. Horietako batean, 1783an, lehenengo aldiz wolfram metalikoa (tungstenoa) bakartzea lortu zuten, aparteko propietateak dituen elementua.

Hala eta guztiz ere, Euskalerriaren Adiskideen Erret Elkartek ezin izan zuen gizartea piztu, XVIII. mendeak aurrera egiten zuen heinean gaiztotzen zen krisi ekonomikoaren aurrean. García de Cortázar eta Montero maisuen

arabera, Mintegiaren ahalegin guzti horiek ez ziren krisia gelditzeko gai izan eta ez zuten defendatzen zituzten erreformak finantzatzeko modu egokia aurkitu. Uneren batean Euskal Banketxe bat eratzea bururatu zitzaien, baina azkenean ez zuten ideia hori gauzatu.

Kulturari dagokionez, Mintegiak eraginkortasunez zientzia positiboak zabaldu zituen. Horren seinale dugu, Leandro Silvánnek zehazten duenez, Mintegitik atera ziren intelektualek beranduago Eskola Tekniko profesionalen fundazioetan esku hartu zutela.

Adibidez, Fausto Elhuyar Jaunak Meatzeetako Ingeniari-eskolan esku hartu zuen eta Jose Sanz Zaldibarrek Bideetako Ingeniarien eskolaren (Betancourtek sortu zuena) ikasketa-planak ezarri eta irakasleria aukeratu zuen. Gainera, Mintegi honek eragin handia izan zuen Espainiako Industria-ingeniarien eskolen garapenean.

6. Bilbo eta Bizkaia XVIII. mendean

XVIII. mendean Bilbo Bizkaiko izatezko hiriburua zen, baina ez zuzenbidezkoa, Jaurerria eta bere Batzar Nagusiek ez ziotelako inoiz hiriburutza Bizkaiko inolako hiri edo hiribilduri eman nahi izan.

Laster Bilbok Jaurerriaren merkataritza, industria eta meatzaritza jarduera bildu zuen eta oso goizetik burgesia indartsu baten egoitza izan zen, XVIII. mendean Borboiko Leinua tronuan zegoen bitartean ospe eta botere handia lotuko zuena.

Manuel Basas irakasleak adierazten duenez, XVIII. mendean argi ikusten da Hiribilduak eta bere portuak egiten zuen eginkizuna, ez soilik Jaurerrian baizik eta salbuetsitako Euskal Probintzia guztietan, eta baita Espainiako monarkiaren menpeko lurralde guztietan ere. Era berean, argi ikusten da itsasoz bestalde izan zuen proiektzioa, batez ere Bilboko portua eta

itsasadarraren eginkizun ekonomikoaren ondorioz garatu zena. Izan ere, Hiribilduak Europako iparraldearekin eta Amerikarekin harremanak izan zituen; Amerikako bi hemisferioekin, ezin baitugu ahaztu Bilboko merkataritza boteretsuen esku hartzea Kolonia britainiarrak Ipar Amerikatik independizatzeko gerran.

Bilboko hiribildua Bizkaiko Udaletxe garrantzitsuaren eta Bilboko Kontsulatuaren egoitza zen, Jaurerriaren erakunderik garrantzitsuenak. Horrez gain, oso antzinatik, Korrejidorea Bilbon bizi zen eta Aldundiaren egoitza ere bertan zegoen, eta ez Gernika, Bermeo, Markina edo Bizkaiko beste lekuan. Hortaz, Bizkaiko gizon boteretsuenak Bilbon bizi ziren eta Hiribilduaren bi erakunde garrantzitsuenetan zuzendaritza karguak zituzten: Udaletxea eta Bilboko Kontsulatua.

Beste alde batetik, XVIII. mendean industria eta merkataritza asko hazi ziren eta goi-mailako burgesiak Lur Lauan jabetzak erosi zituen. Horri esker hiribilduko burgesek Jaurerrian ofizioak lortu zituzten, Udaletxean edo Bilboko Kontsulatuan jadanik zituztenei gehitu zituztenak. Horrela, burgesia sektorea azkar aristokratizatu zen, bere negozio tradizionalak alde batera utzi barik, eta Lur Lauaren familia handiekin elkartu zen.

Bizkaiko maiorazko eta lur-jabe aberatsek Bilbon bizitzea gustuko zuten, bertan erosotasuna, dibertimendua eta solasaldiak aurkitzen zituztelako. Lan egiten zuten erakundeetatik hurbil egon nahi ziren eta segurtasuna bilatzen zuten, landan pobretasunaren ondorioz maiz mehatxuak jaso edo lapurretak pairatzen zituztelako. Gainera, Bilbon, goi-burgesia aberatsaren giroan, euren alabentzako senarrak aurkitzen zituzten, eta euren oinordekoentzako emazteak.

Beste alde batetik, Bizkaiko gizartearen osagai guztiei, Gipuzkoan bezala, kaparetasun unibertsala aintzat hartzen zitzaien; kapare oro noblea zen, eta Antzinako Erregimeneko estamentuzko gizartean, noblezia pribilegiozko estamentua zen. Nobleek disfrutatzen zituzten pribilegioen artean, garrantzitsuenetakoa zerga-salbuespena zen. Baina Bizkaiko

gizarteak maila altuago batean kokatzen zituen onibar garrantzitsuak (lurrak) zituzten nobleak, hau da, aristokrazia, eta beste jarduerak egiten zituzten horiek mespretxatzen zituzten, nahiz eta kaparetasun unibertsalaren bitartez nobleak ere izan.

Horregatik gobernuaren eginkizun garrantzitsuak maiorazko eta lur-jabe handien menpe zeuden, hau da bizitza nobleko jendea. Hauek Lur Lauan oinetxeak eta onibarrak zituzten, baina aldi berean Bilboko auzotarrak ziren euren Jaurerriko kargu garrantzitsuen ondorioz. Hortaz, Udaletxe eta Bilboko Kontsulatuko karguetarako hautagarriak ziren.

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez zuten inoiz bere ahaldunentzako baldintza sozioekonomiko jakinik eskatu, baina Bizkaia eta Bilboko handikiek inguruabar ezberdinen bitartez botoak eta ordezkaritzak bereganatzeko modua aurkitu zuten. Pilar Feijoóren aburuz, hori posiblea izan zen gutxiengo bat lur gehienaren jabea zelako eta bertan lan egiten zuen biztanleria isilarazi zuelako. Horrela, pertsonaia gutxi batzuek, maiz elkarren artean ahaideak zirenak, Batzar Nagusietako postuak eskuratu zituzten. Eta horiek ziren Gobernu Unibertsaleko eta Aldundi Nagusiaren karguak aukeratzen zituztenak.

Bilboko Udaletxean eta Kontsulatuan ere, aristokratizazio prozesu hori garatu zen eta kargu ezberdinak lortzeko ohore eta aberastasun maila bat eskatzen hasi ziren. 1699ko Bilboko Hiribilduaren Ordenantzek xedatu zutenez, mekaniko, tabernari, okin eta abarreko lanbideak zituztenek ezin zuten goi-kargurik izan. Ildo berdinean, 1737ko Bilboko Kontsulatuaren Ordenantzek goi-burgesia eta nobleziako kideak soilik aintzat hartzen zituzten gobernu postuetarako hautagai gisa.

Beste alde batetik, Kontsulatuaren Ordenantza hauek xedatutakoaren arabera, hautaketa orotik kanpo geratzen ziren hurrengo hauek:

“Ni Abogados, ni Escribanos, Procuradores, Médicos,... Plateros, Corredores de Lonjas, Cambios y Navíos, Sastres, Zapateros; ni otros que

tuvieren tales oficios aunque estén pagando Avería”

Ikusten dugunez goi-burgesiaren menpe zegoen Bilboko boterea. Hauek merkataritza eta industriaren bitartez aberasten ziren, baina lurreko errenta eta zentsuak ere bazituzten. Horiez gain euren bizilekua Bilbon ezarri zuten maiorazkoak ere oso boteretsuak ziren. Hauek lurren zentsu eta errentetatik bizi ziren, baina merkataritza eta industria jardueratik ere dirua jasotzen zuten. Multzo biak odol loturak zituzten eta antzeko bizitzeko moduak.

Horregatik Pilar Feijoók zalantzan jartzen du tradizionalki Historiak aurkeztu digun Bizkaiko gatazkak azaltzeko teoria antagonista. Izan ere, Bizkaiko istiluak beti aurkeztu zaizkigu Bilboko merkataritza-hiribildua (Udaletxea eta Kontsulatua) eta Jaurerriaren zuzendaritza-organismoen (Batzar Nagusiak, Erregimentua, Aldundia) arteko borrokak bezala. Baina pertsona berdinak Jaurerria eta Bilboko Udaletxe eta Kontsulatuko karguetan bazeuden, teoriak izaera antagoniko hori galtzen du nolabait.

Bilboko burgesia ertaina ere aberastu egin zen, maila txikiago batean, eta merkataritza eta industria sektorean euren eginkizun tradizionalak garatzen jarraitu zuen. Baina erakundeetan nolabait baztertuta sentitzen ziren, alde batetik Bizkaian eta Bilbon onibarrik ez zutelako, lur gutxi zegoenez oso zaila baitzen horiek erostea, eta bestetik, onibarrak eskuratu ezin zituztenez Jaurerriaren gobernuan kargurik ezin zutelako izan.

Horrelakoa zen egoera Karlos III.ak Udal Ordenantzak berritu zituenean, goi-klaseen menpe zeuden Espainiako udaletxe guztiak demokratizatzeke. 1766ko maiatzaren 5eko auto baten bidez, Erregeak Diputatu eta Sindikoen figurak sortu zituen, herri-hauteskunde bitartez hautatzen zirenak eta ahalmen handiak zituztenak. Horien artean, salmentan jartzen ziren generoen pisu eta neurriak, kalitatea eta prezioak kontrolatzea. Era berean, mediku eta zirujauen hautaketan ahotsa eta botoa zuten eta udal ekitaldi guztietara bertaratu behar ziren.

Lege horrek Espainia osoko udalerrietako oligarkia ikaratu zuen eta udaletxe guztietan protestak egon ziren.

Bilboko goi-burgesia eta maiorazkoei ere ez zitzaien bat ere gustatu. Burgesia ertaineko merkatari eta artisauek, ordea, poztasunez hartu zuten, horrela nolabait udaletxearen kontrola hartzeko aukera izango zutelako. Hala ere, ez zen erraza izan eta gogor borrokatu behar izan zuten kargu berri horiek boteretsuen menpe gera ez zitezen, oligarkiak herri kontrol hori gainditzeko kargu horiek okupatzen saiatu zen eta.

Hortaz, kargu hauetan bereizketarik gabe klase biak izan ziren. Erdi mailako klaseak udaletxean sartzea lortu zuen eta geroztik udal-bilkuretan bata eta besteen arteko borroka handiak egon ziren, aurkako interesak zituztelako.

Hala ere, goi- eta erdi-burgesiak batzuetan ere bat zetozen euren interesetan. Biek merkatu berriak aurkitu nahi zituzten eta horretarako Foruetako alderdi jakin batzuk aldatu beharra zegoen.

Aldiz, landako erdi mailako klaseak, maizter indartsuak eta jabe aberatsek eta baita errentadun apalek osatzen zutena, Foruen errespetuan bere defentsarik onena aurkitu zuen. Hauek forulege guztiak mantendu nahi zituzten eta ondorioz, burgesiaren aurka jarri ziren.

XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasierako krisiaren eraginez, liskar hauek larriagotu egingo ziren.

Hala ere, Manuel Basasek adierazten digunez, XVIII. mendean zehar Bilboko hiribilduaren pisu ekonomiko eta politikoa finkatu zen, udalerri txikia eta biztanleria gutxikoa izan arren (mende bukaeran ez zen hamaika mila biztanlera heltzen). Gainera, Madrilgo Gorteetan eta Amerikako plazarik dinamikoetan influentzia handia zuten bizkaitar boteretsuak zeuden.

XVIII. mendea oso onuratsua izan zen Bilbo eta Bizkaiko burgesiarentzako, Basasek berak esaten duenez, Frantziako ideia progresistak ondo ulertu zituelako eta, gizartearen egitura aldatzea eskatzen zuen aro oparo berri baten aurrean, gidaritza hartzen jakin zuelako.

Horrela, mendea aurrera joan ahala sektore tradizionala eta berritzailearen arteko gatazka unerik larrienera iritsi zen, gainbehera ekonomikoaren erdian eta XVIII. mendearen bukaeran Frantziako Errepublikako Konbentzioaren armada iraultzailea penintsulan sartzen zen bitartean.

V. XIX. MENDEA. KRISI GARAIA

1. XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasierako asaldaketak

Konbentzio Gerra (1793-1795)

1789ko Frantziako Iraultzan entziklopedista frantziarren ideiak gailendu ziren. Iraultza handia izan zen, odoltsua, zeinean herriak behin eta berriro gillotina erabili zuen Antzinako Erregimenaren maila pribilegiatuen aurka: noblezia eta kleroa.

Frantziako iraultzaren ondoren, matxinatuek 1792an monarkiari boterea kendu eta “Konbentzio Nazionala” izeneko asanblada konstituziogilea osatu zuten, Monarkia era ofizialean indargabetu eta Frantziako Lehenengo Errepublika aldarrikatuz.

Frantziako iraultzaileek Luis XVI.a erregea, Maria Antonieta erregina eta euren seme-alabak atxilotu zituzten eta 1793an Erregea eta Erregina gillotinan hil zituzten. Gertakari horrek Europako monarkia guztiak sumindu zituen eta denek gerra adierazi zioten Frantziari. Espainian, Karlos IV.ak estatu bien artean Filipe V.aren garaitik existitzen zen Familia Ituna hautsi eta Frantzia eraso zuen, Frantziako monarkiaren legezkotasuna defendatzen zuten Europako beste herrialdeekin batera.

Hori dela eta, Pirinioetatik gertueneko gunetean, hau da, Euskadi eta Katalunia, jarduera militar handia egon zen eta Espainiako armadak Frantzian sartzea lortu zuen. Erantzun moduan, 1794ko uztailean, Frantziako Konbentzioaren tropak Nafarroatik Espainian sartu ziren, Gipuzkoa inbadituz. Abuztuan, Donostia hartu zuten eta hurrengo urtean, Legutio, Agurain, Gasteiz eta Miranda de Ebro. Bizkaiak ere, gerraren ondorio latzak pairatu zituen; 1795eko uztailean inbaditu egin zuten eta hilabete bereko 18an, historian lehenengo aldiz, frantziarrek Bilbo militarki okupatu zuten.

Frantziako iraultzaileen aurkako gerrak oihartzun handia izan zuen Espainian, bertan Frantziako iheslari mordoa zegoelako, batez ere Euskadi bezalako gune mugakideetan. Horien artean monarkia eta aristokraziako kideak zeuden, apaizak, mojak... Espainiara iristean euren inguruko jendeari iraultzaileek eta Frantziako agintariek egindako basakeria guztien berri eman zietenak, iraultzaren kontrako giroa piztuz.

Frantziako bortizkeriaz entzutean, jendeak Antzinako Erregimenaren oreka soziala arriskuan zegoela ulertu zuen eta urte batzuez geroztik Espainian zehar zabaltzen ari ziren iraultza gogoak baretu egin ziren. Izan ere, azken urteetan Frantziako filosofo entziklopedisten obrak hedatu ziren eta jende ugari aldaketa sozialaren alde jarri zen, aristokrazia eta kleroaren pribilegioak baliogabetzeko eta legearen aurreko guztientzako berdintasuna lortzeko helburuz. Euskadin adibidez, toki guztietatik zeuden Frantziako ideia progresisten aldeko idazkiak.

Frantziako ideia iraultzaileekin batera, erlaxazio moralerako joera agertu zen eta gizartearen sektore batzuetan axolagabekeria erlijiosozko klima sortu zen. Ideia berrien eraginez, hainbat pertsonen katolizismoa hoztu egin zen.

Egoera horretan, azkenaldian jarduera handirik izaten ari ez zen Inkisizioak liburu iraultzaile horiek jazartzen hasi zen eta irakurri eta zabaltzen zituzten ilustratu-frantsestuei zigorrak jarri zizkien. Hori gertatu zitzaien Euskalerriaren Adiskideen Erret Elkarteko kide batzuei, Oñatiko Unibertsitateko hainbat maisuri eta burges erradikalenei.

Euskadiko leku ezberdinek frantziarren aurkako jarrera ezberdina izan zuten. Donostia erresistentziarik egin gabe entregatu zen eta berehala Aldundia Getarian bildu zen. Bilera horretan delegazio bat eratu zuten, frantsesekin Gipuzkoa probintzia neutral eta burujabea bilakatzeko aukera negoziatzeko, Frantziako Errepublikaren orbitan sartuko litzatekeena, berezko Foruak eta erlijioa kontserbatuz.

Baina Frantziako tropek ez zieten jaramonik egin eta azalpenik eman gabe lurraldea Frantziako Errepublikaren menpe jarri zuten. Hala ere, hurrengo urtean, Robespierre hil eta gero, Konbentzioak Gipuzkoaren neutraltasuna mantentzen saiatu zen, Gipuzkoako erakunde tradizionalak errespetatzeko hitza emanez. Eta tokiko agintariei hori ondo iruditu zitzaien.

Gipuzkoan, frantziarren aurkako erresistentzia landako noblezia eta nekazariak antolatu zuten. Haiek izan ziren inbaditzaileen aurka armak hartu zituztenak, Getarian bildutako Aldundiak orokorrean hiritarren merkataritza-interesak ordezkatu zituen eta. Bitartean, Arrasaten Aldundi berri bat osatu zen, Monarkiari leiala zena eta frantziarrei aurre egiteko prest zegoena. Hori dela eta, gune horretan Konbentzioa eta Espainiako armadaren borroka ugari garatu ziren.

Bizkaian, agintariek Errege Armadarekin elkarlanean defentsa antolatu zuten. 5.200 gizon errekrutatzea erdietsi zuten, lorpen handia, lurralde osoan 116.000 biztanle besterik ez zegoela kontuan izanik. Hala ere, herri askok ez zuten errekrutatze prozesuan parte hartu, batez ere Enkarterrikoak, eta joandako soldaduen artean ere, desertzio ugari egon ziren. Gainera, foru-armadaren instalazioak egoera kaxkarrean zeuden, horien artean instalazio medikoak, eta intendentziaren antolakuntza tamalgarria izan zen.

Frantziarrek Bilbo hartu zutenean, eliteek ihes egin zuten, ez bakarrik frantsesen beldur, baizik eta herri matxinadak piztu ahal zirelako susmoa zutelako. Hortaz, goiko maila hauek ez zuten inolako defentsarik antolatu eta Bizkaiko kleroa izan zen lurraldea defendatzeko biztanleria zuzendu zuena, gurutzada antzeko bat osatuz. Gipuzkoan bezalaxe, Bizkaian Bilboko burgesia epelagoa izan zen frantsesekin, baina landako noblezia eta nekazariak inbaditzaile atzerritarren aurka altxatu ziren, hainbeste nahasmen soziala sortzen ari ziren “ideia liberal kaltegarriak” gelditzeko helburuz.

Bloke bakoitzak inbaditzaileen aurrean hartu zuen jarrera hori urte batzuk beranduago landa eta hiri munduaren arteko harreman haustura definitiboa eragingo zuen aitzindaria izan zen. Ordura arte, beti kontu materialen inguruko arazoak izan zituzten, baina une honetan, elkarren arteko borroka esparru ideologian sartu zen, boterea eta harreman sozialak ulertzeko modu ezberdinen inguruan.

Kanpaina militarrean, Frantziako tropek berehala erantzun eta espainiarren hasierako lorpenak gainditu zituzten. Frantziak Europako koalizioari fronte guztietan irabazi zion. Dena den, 1795an Frantziako bando erregetiarrak Konbentzioa desagitea lortu zuen. Hori dela eta, 1795an Basileako Bakea sinatu zen eta frantsesek euskal lurraldeetatik alde egin zuten. Espainiak, lurralde batzuk galdu arren, bakea Godoyren garaipen bat bezala aurkeztu zuen eta Karlos IV.ak bere lehen ministroari Bakearen Printze titulua eman zion.

Bakea sinatu arren, Frantziaren asmoa ez zen aldatu euskal probintziei zegokionez. Lurralde frantses-euskaldunekin batu nahi zituen eta Frantziaren menpeko bi sail sortu, bere mugak indartzeko helburuz. Beranduago, Independentzia Gerra hasi zenean, berriro saiatu ziren xede hori gauzatzen.

Konbentzio Gerraren ostean, gauzak asko aldatu ziren Euskadin. Alde batetik, udal-mailako ekonomia egoera tamalgarrian geratu zen eta udalerriek herri-lursailak prezio baxuetan saldu edo alokatu behar izan zituzten. Horrek kalte handia egin zien auzokideei, ezin zituztelako gehiago larreak dohainik erabili euren abereentzako, sua egiteko egurra biltzeko, etab.

Beste alde batetik, Koroa haserre zegoen, euskaldunek euren lurraldea behar bezala defendatzeko gai izan ez zirelako. Izan ere, Foruen arabera, haiek arduratu behar ziren lurraldea modu eraginkorrean defendatzeaz. Eta horretarako, foru-armada ondo antolatuta eta baldintza onetan eduki behar zuten, Bizkaian gertatu ez zena. Baina batez ere, Koroak gipuzkoarren jarrera gaitzetsi zuen, gerra egoera bere burujabetasuna eskuratzeko baliatzen saiatu zena, Frantziako Errepublikan integratzen ere saiatuz.

Hori dela eta, Manuel Godoyk Foruak eta euskal erakundeak indargabetzen pentsatzen hasi zen. Asmo horrekin, Karlos IV.aren gobernuak Foruen izena zikintzeko kanpaina bultzatu zuen, errege-kontzesio bat zirela argudiatuz, eta ez pribilegio eksklusiboa, eta beraz, Erregeak edozein momentutan baliogabetu ahal zituela.

1796an Erregeak lehenengo kolpea eman zuen: Nafarroaren gain-karta eskubidea ezabatu zuen. Horrela, foru-baimenaren beharrik gabe monarkaren aginduak lurralde horretan askatasunez aplikatzeko bidea erraztu zuen.

Era berean, Foruen indargabetzea ikuspuntu historiko eta juridiko batetik arrazoitzen saiatu ziren. Horretarako, obra ezberdinak argitaratu zituzten

Foruen bidegabekeria salatuz, euskal probintziek Koroaren parte izatearen abantailez gozatu, baina ez zutelako zergarik ordaintzen edo armadarako gizonik eskaintzen.

Godoyren kanpaina honetatik obra historiko ezberdinak jaio ziren, horien artean “Diccionario Geográfico-Histórico de España”, Historia Akademiak 1802an argitaratutakoa, zeinetik Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroaren liburukiak besterik ez ziren idatzi, Godoyren propaganda guztiarekin.

1806 eta 1808 artean, ikuspuntu historiko batetik Erregearen erreformetarako bidea prestatzeko xedez, “Las Noticias Históricas de las tres Provincias Vascongadas” obra argitaratu zen, Juan Antonio Llorenteren eskutik, Koroaren zerbitzuan historia testuak idatzi zituen goi-mailako klerikoa.

Beranduago, Llorentek Jose Bonaparteren zerbitzuan ere lan egingo zuen, honen Espainiako erregea izateko eskubidea justifikatuz. Eta Fernando VII.a itzuli zenean ere, bere zerbitzuan lan egiten saiatu zen, baina honek ez zion jaramonik egin.

Bizkaian, egoera ez zen bat ere itxaropentsua, gerraren ondorioz lurraldeak zorra handiak zituelako. Hori dela eta, sistema fiskala berrikusi behar izan zuten eta hori aldatzeko iritzi ezberdinak agertu ziren.

Hasiera batean, jauntxoak zerga gehienez arduratu behar izan ziren, baina 1797an egoera zeharo aldatu zen. Simon Bernardo Zamakolaren gidaritzapean, landako handikiak zerga-sistema aldatzeko elkartu ziren.

Eztabaida gogorrak izan eta gero, eta mehatxu larriak jaso ondoren, Bilbok merkataritza operazioen gaineko zergak jartzea onartu zuen.

Denborarekin, tentsioak gora egin zuen. Horrela, 1800ean, Batzar Nagusietan zergak luzatzea erabaki zen, Erregearentzako dohaintza bat biltzeko helburuz, baina hori Bilbori ez zitzaion bat ere gustatu eta irain bat

bezala hartu zuten. Horrez gain, presio fiskalak zalantzarik gabe merkataritza jarduera moteldu zuen, eta Bilbon negozioak egitea kontu latza bihurtu zen.

Urte horretan bertan, Zamakolak Bilboren nagusitasun ekonomikoarekin bukatzea erabaki zuen. Horretarako, Abandon, Nerbioiko ezker aldean, merkataritza-portu berria eraikitzea bururatu zitzaion, Bilboko hiribilduaren aurrean kokatuko litzatekeena, baina bere kontroletik at. Horren bitartez, Bilboko merkataritza monopolioarekin bukatu nahi zuen, Jaurerria indartuz.

Zamakolaren ideiak harrera bikaina izan zuen Bizkaiko Batzar Orokorretako ahaldunen artean eta ondoren, Madrilen ere planteatu zuen, Koroaren sostengua lortzeko xedez. Bilbok, aldiz, bere indar guztia erabili zuen proiektu hori gauzatu ez zedin.

Bilboko handiki nagusiak, Udaletxea eta Kontsulatuak ordezkariak bidali zituzten Erresumaren hiriburura, Zamakolaren proiektuari kontra egiteko. Baina hauek ez zuten arrakastarik izan eta 1801eko abenduaren 31an, Godoyk, lehenengo momentutik proiektuaren alde egon zena, Abandoko elizatean portu berria eraikitzeko baimena eman zion Jaurerriari. Godoyk Bakearen Printze titulua zuenez, portu berriari “Bakearen Portua” deitu zioten.

Modu harrigarrian, 1804an elizate batzuk, batez ere Bilbo ingurukoak, altxatu egin ziren. Ustekabezko altxamendu honen arrazoiak ez daude argi, baina antza sinesmen bat zabaldu zen, Zamakolak Foruak urratuz portu berria eraikitzearen truke Bizkaiko herria errege armadaren esku jarriko zuela adierazten zuena.

Baliteke ustezko hitzarmen hori sinatutako akordioarekin bat ez etortzea, baina Bilbok ere bere interesen alde jokatzeko zuen, eta zalantza horiek aprobetxatu zituen. Batzuek Bilboko hiriak berak matxinada piztu zuenarekin ere espekulatu izan dute.

Zamakolak ihes egin behar izan zuen eta Diman babes hartu zuen, bere jatorrizko herria. Handik erantzun armatua antolatzen saiatu zen. Hala ere, saiakera guztietan porrot egin zuen eta matxinatuek hiribildua hartu eta Jaurerriaren agintariak bahitzen saiatu ziren. Zamakoladaren ondorioz, tropa ugari Bilbon eta Gipuzkoako gunen batzuetan sartu ziren, baina Bakearen Portuko lanak bertan behera geratu ziren, beste arrazoien artean Zamakola hil zelako. Ondoren Batzar Nagusi batek sinatutako akordioak aurkaratu zituen, Zamakolaren proiektuaren erabateko porrota gauzatuz.

Egoera ekonomikoari dagokionez, 1780tik 1790erako hamarkadan luberriketak nekazaritza, abeltzaintza eta mendiaren arteko oreka hautsi zuen, baso eta larreak ezabatu zirelako. Horren ondorioz, produkzioak hondoa jo zuen.

Gainera 1800 inguruan merkataritza sektorea hondoratu zen, beste arrazoiren artean, industria iraultzari esker kotoia gorantz joatean artilearen salerosketak hondatu zirelako, merkataritza ibilbide handiak desagerraraziz.

Independentzia Gerra

1795eko Basileako Bakearen ondoren, Karlos IV.ak bi aukera zituen: Ingalaterrarekin aliantza sortzea, Espainiaren itsasoko arerio tradizionala eta etsai sutsua Ameriketara, edo Frantziarekin ituna egitea, ideologia iraultzailea izan arren (lehenengo Direktorioarekin eta gero Napoleonekin) ingelesten etsaiak ere zirenak.

Frantziarekin aliantza sortzea erabaki zuen eta Ingalaterraren aurkako gerretan murgildu zen. Ondorioz, 1805ean Trafalgarreko batailan Espainiak ontzidia galdu zuen eta 1808an tropa napoleonikoek penintsula inbaditu zuten, Portugalera iristeko helburuz (Ingalaterraren aliatua zena). Baina frantsesek aitzakia hori baliatuta Espainian geratu ziren.

1808ko maiatzeko krisi politikoa sortu zen. Godoyren aurkako matxinadaren ondorioz, Karlos IV.ak bere semea Fernando VII.ek abdikatu

behar izan zuen. Napoleonek, orduan, legezketasun arazoak zeudela argudiatuz, errege biak Baionara deitu zituen. Bertan, Fernando VII.a bere aita Karlos IV.ari tronua itzultzera behartu zuen eta aldi berean, hau Espainiako Koroaren eskumenak Frantziaren menpe uztera behartu zuen. Espainian ez zituzten abdikazio horiek kontuan hartu eta Fernando VII.ak alde egin baino lehen utzitako Gobernu Batzar Gorenari men egiten jarraitu zuten.

1808ko maiatzaren 2an, errege-etxetik Francisco de Paula Jauna infantea eramaten zutela ikustean, Madrilgo herria frantsesen aurka altxatu zen. Horrek errepresio gogorra ekarri zuen, maiatzaren 2ko fusilamendu ospetsuekin bukatu zena. Frantsesak berriro ere Espainian sartu ziren eta Espainolek erantzun bezain laster gerra piztu zen. Horrela hasi zen Napoleonen aurkako Independentzia Gerra eta, José Antonio Escudero irakaslearen arabera, momentu horretan ere hasi zen Espainia Antzinako Erregimenetik mundu garaikidera eraman zuen XIX. mendeko iraultza.

“Frantsestuak” delakoek, Frantziaren ideia liberalen jarraitzaileak, hainbat erreforma sartuz Antzinako Erregimenari akabera emateko abagunea ikusi zuten. Ordea, egia da ere frantziarren aurka jarri ziren liberalak egon zirela eta atzerritarren aurrean Espainia defendatu zutenak, euren ideia politikoak alde batera utziz.

Frantziako influentziaren aurrean, euskaldunak bi multzotan banatu ziren: alde batetik, kleroa, nekazariak eta artisauek argi eta garbi inbasorea eta bere ideien aurka jarri ziren. Beste aldetik, noblezia ilustratuak inbaditzaileei laguntza eskaini zien.

Baionako Konstituzioa

Bitartean, 1808ko ekainean, Napoleonek Espainiako Koroa bere anaiaren esku utzi zuen. Horrela, Jose Bonaparte Jose I.a Espainiako Erregea bilakatu zen. Aldi berean, Napoleonek deitutako Espainiako jaun gorenaren asanblada batean, 1808ko uztailaren 6ko Baionako Estatutua onartu zen,

espainol frantsesten sostenguearekin. Estatutu hori ez zen zehazki konstituzio bat izan, Gutun Aitortu bat baizik, José Bonapartek testua aurkeztu zuelako eta ez Asanbladak, eta Asanblada horren kideak Napoleonek berak aukeratu zituelako, eta ez herriak.

Baionako Konstituzioa edo Estatutua oso denbora laburra iraun zuen indarrean Espainian, maiatzaren 2ko frantsesen aurkako altxamenduaren ondorioz eta Espainiako tropak Bailéneko borrokan garaile atera zirelako. Momentu hartan, frantsesen aurkako gerra Espainia guztira zabaldu zen eta herria bere aberria defendatzeko elkartu zen, erresistentzia izpiritu ikaragarria erakutsiz eta lurralde osoan zehar gerrilla borroka eraginkorra gauzatuz. Horrela, Napoleonen tropak nagusiagoak ziren arren, garaipena lortu zuten.

García de Córdazar eta Montero irakasleek aitortzen dutenez, Baionako Konstituzio honetan berdintasun juridikoa eta zerga berdintasunaren printzipioek Antzinako Erregimena kolokan jartzen zuten eta baita Foru-erregimena ere, honela baitzioen Baionako testuaren 144. Artikuluak:

“Los Fueros particulares de las provincias de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava se examinarán en las primeras Cortes, para determinar lo que se juzga más conveniente al interés de las mismas provincias y al de la nación”.

Asanblada honetan parte hartu zuten Euskadiko frantsestuek nolabaiteko erresistentzia jarri zuten, Yandiola bizkaitarraren kasua adibidez, baina azkenean Baionako Konstituzioa delakoaren testua onartu zuten. Ikusten dugunez, Baionako espainiarren asanblada honek, foru-ordenamentuak berriz aztertzea erabaki zuen, testuak esaten zuenez, kasu bakoitzean erantzun egokia emateko. Eta erabaki hori Espainiako Gorteen menpe geratzen zen eta ez euskaldunen irizpide eksklusiboaren esku.

Jose I.ak tronua hartzean, Frantziako tropek Espainiako lurralde guztia okupatu eta gero, erregimen liberala ezarri zuen, foraltasuna kolokan jarritz.

1810ean Napoleonek Euskal Probintziak, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia banandu zituen eta horietan gobernu militarrek ezarri zituen. Lurralde horiek enperadorearen esku utzi zituen, Katalunia eta Bizkaira arteko Pirinioetako lurralde guztiak kontrolatzeko helburuz.

Laster, Napoleonek Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak ezabatu zituen eta Gobernu Kontseilu bat osatu zuen, probintzia bakoitzeko ordezkari batekin. Bizkaiko ordezkaria Juan José Yandiola izan zen. Ondoren probintzia bakoitzean Kontseilu bat sortu zuen, Euskadiko frantsesten esku geratu zena.

Frantsesek oso azkar okupatu zuten Euskal Herria: Donostia, Gasteiz eta Iruñea frantziarren menpe egon ziren gerra osoan zehar, baina Bilboren kontrola sarritan eskuz aldatu zen. Inbasio napoleonikoaren aurrean, Bilboko herria frantsesen kontra altxatu zen 1808ko abuztuaren 6an. Orduan, Napoleonek dibisio bat bidali zuen, Merlin jeneralaren gidaritzapean eta frantziarrek Hiribildua hartu zuten abuztuaren 16an, erresistentzia sendo bati aurre egin eta gero. Hurrengo hilabeteetan bilbotarrek hiru aldiz askatuko zuten hiribildua, berriro frantziarren esku geratzeko.

Herrialdeko toki batzuetan gerrilla ekintzak ere antolatu ziren, batez ere Nafarroan, non Espoz Minaren figura nabarmentzen hasi zen. Dena den, gerrak ez zuen euskal lurraldea gehiegi zigortu, nahiz eta 1813an Napoleonen etsai ziren tropa ingelesek Donostia arpilatu eta erre zuten, frantsesei laguntzea leporatuta.

Bilboko hiribilduan frantsestuak egon ziren (frantsesen aldeko liberalak), baina baita inbaditzaileen aurka jarri ziren liberal abertzaleak ere.

García de Cortázar irakaslearen arabera, Bilbon fraideek antolatu zuten frantziarren aurkako erresistentzia, Abandoko frantziskanoek eta Deustuko kaputxinoek batez ere. Bilboko gainerako klero sekularraren jarrera askoz epelagoa izan zen, agian burgesia liberaletik gertuago zegoelako. Herria eta

klero gehiena, ordea, argi eta garbi Frantziako inbaditzaileen aurka jarri zen.

Frantziako influentziaren aurrean, euskaldunak bi multzotan banatu ziren: alde batetik kleroa, nekazariak eta artisauak argi eta garbi inbasorea eta bere ideien aurka jarri ziren eta beste aldetik, noblezia ilustratua eta goi-burgesiak orokorrean frantsesei laguntza eskaini zien.

Testuinguru honetan, azpimarragarria da bilbotar bi Jose Bonaparteren ministroak izan zirela: Mariano Luis Urquijo eta Jose Mazarredo, aurretik Borboiekin ere ministroak izan zirenak. Biek lan ahalegin handiak egin zituzten euren auzokoek frantsesak onartu eta laguntzeko. Espainiako liberal frantsestuek egoera baliatzen saiatu ziren, frantsesen laguntzaz Antzinako Erregimena hondatzeko erreforma multzoa ezartzen hasteko.

Jaurerriaren agintariek era anbiguoan jardun zuten, alde batetik Napoleonen kontra zegoen herriarekin solidarioak izan nahi zutelako, baina beste alde batetik frantsesen beldur zirelako.

Frantziarrek Bilbo 1808 konkistatu eta gero, Bizkaiko Jaurerriaren Batzar Nagusiek, Mazarredo almirantearen gidaritzapean, Jose I.a Bizkaiko Jaun bezala zin egin zuten.

Cadizeko 1812 Konstituzioa

Espainiako lehenengo Konstituzio liberala izan zen eta Independentzia Gerra betean eratu zen Cadizen, frantziarren okupaziotik aske zegoen tokia.

Gerra egoerak utzitako botere hutsunearen aurrean Probintzia Batzar herrikoi eta espontaneo batzuk sortu ziren, lurralde bakoitzaren boterea hartu zutenak. Beranduago, Batzar hauek gobernu organo bateratu bat eratu zuten: Batzorde Zentral Gorena.

1810eko urtarrilaren 29an, ezohiko Gorte Nagusietarako deialdia egin zuten Cadizen eta 1810eko udan frantsesek ez okupaturiko probintzietan diputatuak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren. Hautaketa sufragio unibertsalaren bitartez egin zen eta hori posible izan ez zenean, zozketaz; Amerikako probintzietako diputatuak ere egon ziren.

Horrela, Herri-batzar ezberdinek Cadizera ordezkariak bidali zituzten eta han bilduta diputatuek lehenengo eta behin lege politikoak berritu behar zirela erabaki zuten. Horregatik 1812ko martxoaren 19an, testu konstituziogilea aldarrikatu zuten. San José eguna zenez, “La Pepa” deitu zioten.

Konstituzio honek Antzinako Erregimen absolutistari amaiera eman zion, estatu liberal berria sortuz. Egitura politiko berrian, lehen Erregearen menpe zeuden botere legegile, betearazle eta judiziala banatu ziren. Momentu hartaz geroztik, botere legegilea herriaren menpe geratuko zen, zeinak ordezkari batzuen bitartez, Konstituzio bat osatu zuten. Lege arrunt guztiak beraz, testu horren menpe geratuko ziren.

Botere betearazlea Erregearen esku geratuko zen, baina mugaketa nabarmenekin. Botere judiziala auzitegiek hartuko zuten. Antzinako Erregimenaren estamentuzko gizartea disolbatu egin zen, noblezia eta kleroari pribilegioak kenduz eta pertsona guztiak berdinak bilakatu ziren legearen aurrean.

Era berean Espainia osoko zuzenbidea bateratu egin zen, Cadizeko Konstituzioaren 258. artikulua xedatu zuen bezala: *“el Código Civil, el Criminal y el de Comercio serán los mismos para toda la Monarquía, sin perjuicio de la variaciones que, por particulares circunstancias, podrán hacer las Cortes”*. Artikulu honek zuzenean eragiten zituen Nafarroa, Euskal Probintziak, Aragoi, eta abar, ez baitzuen euren berezko nortasuna aintzat hartzen, lurralde nazionala zirela argudiatuz. Xedapen hau nahiko deigarria da, kontuan hartzen badugu Konstituzioaren hitzaurrean Cadizeko

Gorteetako diputatuek Foruak eta Konstituzioa bateragarriak zirela adierazi, eta Euskadiko antolaketa tradizionala goraipatu zutela.

Agindua inolako istilurik gabe onartu zen, Katalunia, Aragoi, Mallorka, Nafarroa, Euskadi edo beste lurraldeetako inork kodifikazio bateratzailearen aurka ezer esan barik, guztiek oraindik berezko eskubide zibilak mantentzen zituzten arren; Nafarroa eta Euskal Probintzien kasuan, gainera, berezko erakundeak eta zuzenbide publiko eta pribatua ere kontserbatzen zuten.

Cadizera bertaratu ziren euskal diputatu gutxiek ez zuten erresistentziarik jarri Konstituzioa onartzerako orduan. Batzuek testu konstituziogilearen uniformismoa eta oinarri zentralizatzailearen kontra protesta egin zuten, baina aldi berean liberalismoak aldarrikatzen zituen berdintasun, askatasun eta bestelako printzipioak eurentzako berriak ez zirela adierazi zuten, sistema liberala euskaldunen Foru tradizionalen antzekoa zela argudiatuz.

Foru-arazo zibil honen ondorioz, zuzenbide zibila kodifikatzeko azkena izan zen eta, aipatutako Konstituzioaren 258. artikulua aurrerantzean testu konstituziogile guztietan sartu zen arren, konstituzioaren arabera ere ezarri zen Espainiako zuzenbidea gaika kodifikatu eta bateratu behar zela, baina ez ziren aldarrikatu beharreko kodeak zehaztu.

Herrialdeak zuhur jokatu zuten Cadizeko Konstituzioaren aurrean. Euskadiko hiribilduetako liberalek poz-pozik hartu zuten eta omenaldi zintzoa eskaini zioten. Erakunde politiko tradizionalak, aldiz, zer egin ondo jakin gabe geratu ziren, Bizkaiko Jaurerriaren Batzar Nagusiaren agirietan islatu zuten bezala, 1812ko urriaren 16an San Nikolas Bariko elizan egin zirenak, Mendizabal jeneralak deituta, Konstituzioa irakurtzeko eta zin egiteko helburuz.

Bizkaiko ahaldunek harrituta agertu ziren Batzarrean. Konstituzioa eta Foruak oso antzekoak zirela adierazi zuten, baina Bizkaiari Forua

Konstituzioa baino gehiago komeni zitzaiola zehaztu zuten. Honela zioen agiriak:

“...penetrada la Junta general de los sentimientos más grandes de respeto y aprecio a la Constitución política de la Monarquía Española, decretó tributarla el homenaje más sincero de su obediencia y reconocimiento; y poseyendo este Señorío desde tiempo inmemorial la Constitución privativa de este suelo, debiéndola su felicidad todas las generaciones que han gozado de ella, no sabiendo la Junta si recibida dicha Constitución Española es necesario renunciar absolutamente a la de Vizcaya, o si son conciliables en todo o en parte las ventajas de las dos...”

Batzarkideek Konstituzioa aintzat hartu zuten, baina ez zuten zin egin ez zeukatelako argi Foruekin bateragarria zen edo ez. Bizkaiko ogasuna aldatzen zuten legeak zin egitea oso arriskutsua zen, batez ere Jaurerriak autonomia fiskala eta barne aduanak zituela kontuan izanik, Lur Lauko lur-jabeei erabat interesatzen zitzaiena, eta haiek ziren Bizkaiko Batzarretan agintzen zutenak. Horregatik prozesua atzeratzea erabaki zuten, denbora irabazteko, eta Cadizera bi mandatari bidali zituzten, erregeordetzari bizkaitarren ikuspuntua azaltzeko eta Foruak eta Konstituzioaren arteko bateragarritasuna eztabaidatzeko.

Cadizen, ez zituzten bizkaitarren azalpenak kontuan hartu, aitzakiak zirela ulertzen zutelako eta Batzar Nagusiei berehala Konstituzioa zin egiteko agindu zieten.

Gero, Bilbo berriro frantsesen menpera pasatu zenez, kontua zegoen bezala gelditu zen. 1813ko udan ordea, tropa frantziarrek porrota jaso zuten Gasteizen eta behin betirako Bizkaitik alde egin zuten eta handik gutxira gerra amaitu zen, baina gauzak ez ziren aldatu.

Absolutismoarekin, XVIII. mendean, Nafarroa eta Euskal Probintzietan Erregearen botere absolutua eta Foruen arteko tentsioak sortzen ziren, baina hemendik aurrera, XIX. mendean, tentsioak Konstituzioaren grina

bateratzailea eta Foruek defendatzen zituzten berezitasunen artean izango ziren.

Gerraren bukaera eta Espainiako monarkiaren berrezarkuntza

Gerra eta frantziarren inbasioa bukatzean, Espainiako monarkia berrezarri zen eta Fernando VII.a tronura itzuli zen. Boterea hartu bezain laster, 1814an, Erregeak Cadizeko Konstituzioa indargabetu eta absolutismoa berriz ekarri zuen. Hala ere, gobernu zentrala eta foru-lurraldeen arteko tentsioak ez ziren desagertu, absolutismoak liberalismoak bezala Nafarroa zein Euskal Probintzien foru-erregimenak erasotzen zituelako. 1818an Fernando VII.ak Euskal Probintzietan soldadutza inposatu zuen, lurralde horiek Foruak zehazten zuena baino gizon gehiago bidaltzera behartuz.

Hirurteko liberala (1820-1823)

Liberalak, Fernando VII.a itzuli zenetik oposizioan baztertuta zeudenak, konstituzionalismoa berrezartzeko azpijokoan ari ziren sei urtez geroztik. Azkenean, 1820ko urtarrilaren 1ean euren xedea lortu zuten eta Riego jeneralaren altxamendu militarren bitartez Erregea 1812ko Cadizeko Konstituzioa berriz indarrean jartzera behartu zuten.

Espainia beraz, modernitate politikoaren bidera itzuli zen, hiru urtez liberalismoa eta konstituzionalismoa berreskuratuz. Konstituzioaren berrezarpena gauzatzeko, frantsestak erbestetik itzuli ziren. Euskal Probintzietan, aldaketak ez zuen harrera ona izan, hiri nagusietan izan ezik, hau da, Bilbo, Donostia eta Gasteiz. Euskaldunek oposizio gogorra egin zioten, erregimen berriak aduanak kostaldera eramane zituelako eta zerga eta soldadutza salbuespena ezabatu zelako. Konstituzioak Foruak desagiten zituen.

Absolutismoak iparraldeko nekazarien sostengua izan zuen beti, partiden bitartez erresistentzia antolatzen zutenak. Hirietan, aldiz, iraultzaile

gogotsuenek sozietate abertzaleak osatu zituzten, ideia liberalak defendatzeko, eta era berean, logia masonikoak ere existitu ziren.

Hau guztia, anarkista eta oposiziogile grinatsuenen gehiegikeriari lotuta, Europako legitimistak arduratu zituen eta Espainian militarki esku hartzeko Aliantza Santu bat osatu zuten. Horrela, “San Luisen Ehun Mila Semeen” Frantziako armadak, Angulemako dukearen gidaritzapean, Fernando VII.ari absolutismoa berrezartzen lagundu zion 1823an.

Hamarkada Gaitzesgarria

Hamarkada honetan (1823-1833), liberalek jazarpen gogorra jaso zuten eta Ingalaterra edo Luis Filiperen Frantziara emigratu behar izan zuten. Hortaz, postura biak, tradizionala eta liberala, are gehiago aldendu ziren eta urte askoz lehian ibili ziren, bakeak egin barik.

Konstituzio liberala indargabetu arren, garai honetan merkataritza-zuzenbidea kodifikatu egin zen eta 1829an Merkataritza Kode berria aldarrikatu zen. Berriketa hau burgesiak bultzatu zuen. Izan ere, burgesak indarra hartzen ari ziren eta interes berezia zuten merkataritza-zuzenbidea kodifikatu eta Espainia osoan bateratzeko, salerosketak egiteko existitzen ziren oztopoak ezabatzeko.

Merkataritza Kodea foru-lurralde guztietan onartu zen eta Bizkaiaren kasuan, Jaurerriak foru-pasea eman zion.

1829ko Merkataritza Kode berriak Bilboko Kontsulatuaren 1737ko *Merkataritza Ordenantzetatik* hartu zuen inspirazioa, baina Jaurerriak Kodeari foru-pasea eman zion momentuan, ordenantza hauek Bilbon indargabetu ziren eta ondorioz Kontsulatua desegin zen. Hala ere, Kontsulatuaren arauak Amerikako Kolonietan indarrean jarraitu zuten, hauek Espainiatik bereizi zirenean. Horrela, Mexiko, Uruguai, Txile, Paraguay eta Guatemala bezalako lekuetan mantendu ziren, 1877an behin betiko desagertu ziren arte.

1829. eta 1886. urteetan, Bilbon erakunde berriak sortu ziren, aldezturik ezabatutakoak ordezkatzeko. Horrela, Merkataritza Errege Auzitegiak eta Merkataritza Errege Batzordeak desagertutako Bilboko Kontsulatua eta Unibertsitatearen lekua hartu zuten. Ondoren, Manuel Basas maisuak aitortzen duenez, nekazaritza, industria eta merkataritzari buruzko Komisio, Batzorde eta Kontseilu probintzialak sortu ziren Bizkaian; eta baita Kai-eraikitze Batzordea edo Bizkaiko Merkataritzaren Sustapen eta Defentsa Batzorde Iraunkorra. Azken honek 1866ko martxoaren 8an sortuko zen Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren oinarriak ezarri zituen.

Garai honetan Amerikak, Frantziak Espainia inbaditu zuela baliatuz, 1810ean hasitako emantzipazio prozesuari amaiera eman zion. Gauzak horrela, 1830ean Espainiak Karibeko irla guztiak baino ez zuen kontserbatzen, hau da, Kuba eta Puerto Rico.

Bizkaiari dagokionez, hamarkada honetan garapen ekonomiko nabarmena izan zuen eta obra publiko eta partikular ezberdinak egin zituen.

Urte hauetan ere, Foruen polemikaren inguruko liburu ezberdinak agertu ziren, Novia Salcedok Juan Antonio Llorenteren “Noticias Históricas” obrari kontra eginez idatzitakoa, adibidez. Baina askoz gehiago agertu ziren.

Erregeak gero eta gehiago mugatzen zituen Foruak, baina aldi berean, euren biziraupena gero eta lotzen zen absolutismoarekin. Absolutistek mesfidantzaz begiratzen zioten liberalismoari eta, Fernando VII.a hil baino lehen, absolutista erradikalenek dagoeneko On Karlos infantea, erregearen anaia, ondorengoa izan behar zela uste zuten, bere alaba Elisabeten ordeztu orduan neskak bat baino ez zena.

2. Gerra Karlistak

XIX. mendean Europa aldaketa sozial eta ekonomiko garrantzitsuen agertokia izango da eta horiekin batera, transformazio politiko eta juridikoak ere iritsiko dira. 1789ko Frantziako Iraultzan jaio ziren ideiak Europa eta Amerikan arrakasta handia izan zuten eta laster hedatu ziren Antzinako Erregimenari bukaera emateko.

Horrenbestez, European Estatu liberal berrien oinarriak finkatuz joan ziren, kasu batzuetan era bortitzean Frantzian edo Estatu Batuetan bezala, Gizonen Eskubideen Aldarrikapena eta Independentzia Aldarrikapenarekin, eta beste batzuetan motelago XIX. mendeko Espainian gertatu zen bezala.

Fernando VII.aren azken hamarkada zitalean, absolutistek barne gatazkak izan zituzten, tronuaren ondorengotzaren inguruan, herrialdearen bilakaeran eragin handia izango zutenak.

Koroaren oinordetza hartzeko semerik ez zegoenez, sektore gogorrenak Karlos Maria Isidroren inguruan bildu ziren, Erregearen anaia. Baina 1830ean Elisabet printzesa jaio zen, honen xedeari traba eginez.

Egoera horren aurrean, Monarkak Baiespen Pragmatikoa promulgatu zuen, Oinordetza Legea edo Lege Salikoa ezabatuz, emakumeei agintzea debekatzen ziena. Ondorioz, gizartea bi bandotan banatu zen eta 1833an Fernando VII.a hil zenean, lehenengo Gerra Karlista hasi zen.

Erregearen anaiak, On Karlos infantea, Abranteseko adierazpena argitaratu zuen, tronurako eskubidea aldarrikatuz. Baina Fernando VII.aren alargunak, Maria Kristina Borboikoa, tronua hartu zuen, bere alaba Elisabet II.aren erregeordetzan, hura ume bat zelako. Une horretan Antzinako Erregimena defendatzen zuten absolutistak leku ezberdinetan On Karlosen alde altxatu ziren. Erregina, beraz, liberalekin elkartu zen.

Lehenengo gerra karlista zazpi urtez luzatu zen eta batez ere Euskadi eta Nafarroan garatu zen, nahiz eta momentu ezberdinetan ere Katalunia, Aragoi, Valentzia eta beste lurraldeetan ere istiluak egon ziren.

Gerra hau bi erregegaiei arteko gatazkatik haratago zihoan. Bi ikuspuntu politikoen arteko borroka izan zen, absolutismoa eta liberalismoa, eta hiri mundua (nagusiki liberala) eta karlismoa defendatzen zuen landako munduaren arteko norgehiagoka.

Era berean, gerrak ere Europa mailan oihartzun handia izan zuen oinarri ideologikoa zuelako; izan ere Espainiak zituen arazoak kontinentearen beste lurraldekoen antzekoak ziren. Alde batetik karlistak, absolutistak eta nekazariak zeuden; gehienak lege Salikoaren alde zeuden eta On Karlosen jarraitzaile sutsuak ziren. Euren lemak esaten zuen bezala, “Jaungoikoa, Aberria eta Erregea”, tradizioa defendatzen zuten, hau da, absolutismoa eta Antzinako Erregimenera bueltatzea.

Zumalakarregi, Maroto, Cabrera eta Merino apaiza bezalako jeneralen gidaritzapean, Aliantza Santuaren potentzien sostengu moralak izan zuten.

Euskal Probintziak eta Nafarroa bando karlistan egon arren, hasiera batean gerraren helburua ez zen Foruak defendatzea izan, errege karlistek, Borboiak bezala, mentalitate absolutista baitzuten. Gizarte tradizionala defendatzen zuten, liberalen “modernitatearen” aurrean.

Beraz, Foruen defentsa ez zen gerra lehertzeko faktore erabakigarria izan; Estatu liberala eta Antzinako Erregimenaren arteko guda izan zen. Landako mundua liberalen transformazio sozio-ekonomikoen beldur zen eta horregatik bertako biztanleek hiriak gorroto zituzten (Bilbo eta Donostia, eta, maila txikiagoan, Gasteiz). Nekazariak Jaurerriaren lurzoruaren jabetzaren erregimena defendatzen zuten, liberalismoak aldatu zuena, eta Karlistek ere erlijio integritatea mantendu nahi zuten, euren ustez liberalek hondatzen ari zirena.

Lehenengo altxamendu karlisten aldarrikapenen artean ez zen Foruaren defentsa agertzen, foraltasuna tradizioaren adierazpena zela sinesten zutelako. Eta hori zen haiek defendatzen zutena.

Beste alde batetik, isabeldarrak zeuden, hau da, liberalak (moderatu zein progresistak), burgesak eta armadako kideak, Baiespen Pragmatikoa eta Elisabet Erregina defendatzen zutena, eta bere ama Maria Kristinaren erregeordetza.

Foraltasuna guztiz ezabatu nahi ez zuen arren, liberalismoak lurralde guztiarentzako Konstituzio bakarra ezarri nahi zuen eta Foruak erregimen liberalera egokitu nahi zituen. Horretarako, pribilegio batzuk ezabatu behar ziren (aduanak, foru-pasea, etab.), Estatuarekin arazorik ez izateko.

Apaizekin altxatutakoek beste gauzen artean masoiak, heretikoak, immoralak, eta abar deitzen zieten euskal liberaleri, baina ez zieten Foruen aurka joatea inoiz leporatu. Izan ere, liberalek Foruen pribilegioak nahi zituzten, baina Espainiako merkatu nazionalari uko egin gabe, industria, merkataritza eta finantzetan aurrera egiteko beharrezkoa zutena.

Larrea eta Mieza irakasleek karlismoa foraltasunarekin lotzen duen estereotipoaren kontra daude, Foruak guztien ondarea izan zirelako, karlistena zein liberalena. Gerraren arrazoiak beste leku batean bilatu behar dira, eta ez Foruen defentsan. Euskaldun gehiagok karlismoaren alde egin zuten, bai, baina bando biak foruzaleak ziren.

Foruen defentsa hain argi izan ez zuena On Karlos izan zen, baina, ohi baino gehiago kostatu zitzaion arren, azkenean onartu zituen. Orduan, 1836an, karlistek euren goiburuari, “Jaungoikoa, Aberria, Erregea” Foruak hitza gehitu zioten: “Jaungoikoa, Aberria, Foruak eta Erregea”.

Gerra zibil honetan, Euskadi eta Nafarroan eragin berezia izan zuena, gerrilla sistema erabili zen. Gatazka 1833tik 1839ra luzatu zen eta hiru

fasetan banatu zen: lehenengoa, karlisten aurreratzea; bigarrena, atzeraegitea; eta azkena, isabeldarren garaipena.

Karlistek hainbat hilabete zeramaten Bilboko altxamendua prestatzen eta arrakasta izan zuten. Urriaren 3an On Karlosen aldeko lehenengo manifestaldiak egin ziren eta jendetzak Bilboko burgesen aurkako gorrotoa erakutsi zuen. Aldundiaren parte batek, Valdespinako markesaren gidaritzapean, On Karlos Errege aldarrikatu zuen eta Bizkaia osoa bere alde jarri zen, partida karlista ugari lurraldea kontrolatzen zutelako. Karlistek Gasteiz ere hartu zuten eta Donostia soilik geratu zen liberalen menpe, bertan gobernuaren tropa iraunkorrak baitzeuden. Egun gutxi batzuetan gobernuko tropek Sarsfield jeneralaren gidaritzapean Gasteiz eta Bilbo askatu zituzten, errealitatean hiri horietan karlismoak ez zuelako jarraitzaile gehiegirik izan.

Horren ondoren, gobernu liberalak apaizek bultzatutako altxamendua zapaltzea erraza izango zela pentsatu zuen, txarto antolatutako eta gaizki armatutako nekazariak baino ez zirelako. Baina orduan Tomás Zumalakarregi agertu zen, momentu horretan Iruñean zegoen 45 urteko gipuzkoarra, eta nekazariak antolatzeko modua aurkitu zuen, frantziarren aurka gerrillak antolatzen esperientzia zuelako.

Horrela, 1833. eta 1835. urteen artean, Karlos V.a iparraldetik aurrera eginez joan zen, jeneral isabeldar ugari menperatuz, horiek ezin zutelako Zumalakarregi gainditu.

1834an Errege Estatutua aldarrikatu zen, praktikan foru-erregimena ezabatzen zuena, nazio guztiarentzako ordenamendu juridiko berdina ezartzen zuelako. Baina Madrilen ere jende asko agertu zen euskaldunekin Foruen inguruan ados jartzearen alde.

1835ean, ia Euskadi eta Nafarroa guztia karlisten menpe zegoen eta hauek komunikazio bideak ere kontrolatzen zituzten. Bakarrik hiru hiri handiak (Bilbo, Gasteiz eta Donostia), kostaldeko udalerri batzuk eta

Agurain eta Gasteiz arteko gune bat zeuden liberalen mende. Hala ere, karlismoa banatuta zegoen.

1835 eta 1837 artean borroka herrialde guztira hedatu zen eta karlistei hiri nagusiak hartzea buruan sartu zitzaien. Horrela, Zumalakarregiren iritziaren kontra, 1835eko ekainaren 10ean Bilbo setiatu zuten. Bertan, Begoñako balkoi batetik bere armada zuzentzen ari zenean, Zumalakarregi hil egin zuten. Bilbotarrek setioari eutsi zioten Espartero jenerala laguntzarekin iritsi zen arte. Orduan, karlistek setioa altxatu zuten.

Handik gutxira, karlistek bigarrenez Bilbo setiatu zuten eta berriro ere porrota jaso zuten bilbotarrek egindako erresistentzia eta defentsa sutsuaren ondorioz. Espartero berriz ere laguntzeko garaiz heldu zen eta Lutxanako batailaren ondoren Bilboko setioa altxatu zuen 1836ko Eguberri-egunean.

Garaipen horrek kausa liberalarentzako garrantzi izugarria izan zuen eta Espainia osoak Bilboko setioaren erorialdia ospatu zuen. Erreginaordeak Hiribilduari *Invicta* titulua eman zion, *Noble Villa* (Errege Katolikoek 1475ean emandakoa) eta *Muy Noble y Muy Leal* (Filipe III.ak 1603an emandakoak) tituluei gehitu zitzaiona.

Dena den, liberalek garaipenak lortzen jarraitu ziren arren (Durango hartzea, adibidez), gerra ez zen bukatu gerrillek euren jarduerarekin jarraitzen zutelako.

Karlistak altxatutako probintziak bloke bakar batean batzen saiatu ziren, 1837an “errege espedizio” bat (horrela deitu zioten Karlos V.ak berak pertsonalki zuzendu zuelako) Nafarroatik Madrilera abiatu zen bitartean. Martxa egiteko arrazoiak ez daude argi, baina Aguado Bleyek zehazten duenez, baliteke Maria Kristina erreginak uneren batean On Karlosi errenditzea pentsatu izana, hau Elisabet II.arekin ezkontzeko baldintzarekin, eta hori izatea espedizioaren eragilea.

Espedizioak porrot ikaragarria jaso zuen eta Argandara baino ezin izan zen iritsi, aurreikusitako emaitzarik lortu gabe. Ondorioz, karlistek Ebrora arte atzera egin behar izan zuten. Horrek armadaren kemena ahuldu zuen eta bi joera agertu ziren: “apostolikoak” (erradikalak) eta “transakzionistak” (moderatuak).

Aldi berean Calatrava Madrileko gobernura iritsi zen. La Granjako matxinada eta bi urte beranduago, altxatze militar berri bat egon zen, indarrez gobernu erradikal progresista bat inposatu zuena. Gobernu horrek Konstituzio berria aldarrikatu zuen 1837an eta elizaren ondasunak desamortizatu zituen, beste arrazoiren artean gerra finantzatzeko xedez. Mendizabal ministroak zuzendu zituen desamortizazioak.

Euskal Probintzietan, Gorteetan onartutako dekretu baten bitartez, 1837ko irailaren 19an Foru Aldundiak desegin eta horien ordezt Probintzia Aldundiak sortu zituen. Probintzia Aldundi bakoitzerako buruzagi politiko bat izendatu zen.

Gobernu erradikalaren garaipenarekin eta 1837ko Konstituzioaren ondoren, liberalismoa bi alderditan bereizi zen: progresista eta moderatua, bat berritzailea eta bestea kontserbadoreagoa.

Momentu honetan dagoeneko bando biak nekatuta zeudela nabaritzen zen eta gero eta jende gehiagok pentsatzen zuen gobernuak Foruak babesteko bermeak eskaini behar zituela, Foru-kontua On Karlosen kausarengandik bereiziz, edo bestela gerra inoiz bukatuko ez zela.

Idea hau ez zen berria. Hain zuzen ere, aldezt aurretik Berastegik (Gipuzkoa), José Antonio Muñagorriren eskribaua, hori planteatu zuen 1838ko abuztuan egindako “Bakea eta Foruak” izeneko aldarrian. Bere helburua, gobernu liberalaren laguntza sekretuarekin, karlismoa zatitzea zen.

María Cruz Mina irakaslearen aburuz, foraltasuna liberal moderatuek asmatu zuten, Foruak Estatu Konstituzionalaren barruan defendatzeko, eta ez Antzinako Erregimenaren erakundeen bitartez.

“Bakea eta Foruak” ideian, Bizkaiko burgesek ekonomia garatzeko beharrezkoa zuten bakea lortzeko modua aurkitu zuten, beste abantailak ematen zizkieten foruak galdu barik. Era berean, Espainiako liberal moderatuek jarraitzaile gehiago lortu eta gatazkan garaile ateratzeko abagunea ikusi zuten. Eta hori lortzen bazuten 1837ko konstituzio progresista desegin eta bere ordezkari konstituzio moderatu bat jarri ahal izango zuten.

Karlistak oso nekatuta zeuden eta are gehiago ahuldu ziren Maria Kristina erreginaordeak egin zien eskaintzarekin: Bakea eta Foruak, On Karlos gabe. Karlismoa dagoeneko bloke trinkoa ez zenez, sektore moderatuaren artean ideiak oso harrera ona izan zuen.

1837. eta 1839. urteen artean, bando karlistaren barnean distentsio ugari sortu ziren, gerrarengatik ahituta zeudelako; horren adierazlea dugu gipuzkoarrek, batzuetan, ez zituztela On Karlosen aginduak betetzen.

3. Bergarako Hitzarmena

1839ko udan, On Karlosen oposizioa izan arren, Maroto jeneral karlistak Espartero jeneral isabeldarrarekin harremanetan jartzea erabaki zuen. Bilera hori gelditzeko asmoz, Karlosek Gipuzkoako karlistei Maroto kargugabetzeko eskatu zien, baina hauek ez zuten bere agindua bete. Jeneral biak, beraz, Durangon elkarriketatu ziren, ingeles eta frantsesen bitartekotzarekin, eta bertan akordio batera iritsi ziren, 1839ko abuztuaren 31n. Akordio hori Bergaran berretsi egin zuten, euren tropen aurrean elkarren artean besarkada bat emanez.

Hitzarmen honen bitartez gerrari amaiera eman zioten. On Karlosek porrot nabarmena jaso zuen, baina militar karlisten lanbideak eta graduak aintzat hartzeko armistizioa onartu zen, karlistei armada liberalean sartzeko aukera emanez, eta Foruak mantendu ziren.

Hitzarmena gauzatzerako orduan, Espartero jeneralak liberalak ordezkatu zituen eta beranduago gertakari honengatik Bergarako Printze titulua jaso zuen. Karlisten aldetik Maroto jenerala izan zen ordezkaria, edo hobeto esanda, Bizkaia eta Gipuzkoako karlisten ordezkaria, Araba eta Nafarroakoek ez baitzuten hitzarmena sinatu. Horregatik, bakea sinatu arren, Euskal Herrian gerra ez zen berehala bukatu, beste arrazoen artean On Karlosen Gorteak hitzarmena traiziotzat hartu zuelako. Beraz, gerrak Gaztela-aragoiko frontean jarraitu zuen, Cabrerarekin Maestrazgoan. Oraindik sinatutako bakea onartzen ez zuen sektore bat zegoen eta horri esker karlismoak bizirik jarraitu zuen. Hala ere, Cabrera jeneralaren tropek ezin izan zioten egoerari denbora luzez eutsi, beste lurraldeak defendatu behar ez zituenez, gobernuak fronte horretara tropa gehiago bidali ahal izan zituelako.

Errealitatean, gerra karlista 1840an bukatu zen, Bergarako Hitzarmenetik hilabete batzuetara. Irailean On Karlosek Frantziara alde egin zuen Urdaxtik (Nafarroa).

Hitzarmenean xedatu zenez, Espartero jeneralak gobernuaren aurrean Foruak babesteko konpromisoa hartu zuen. Horregatik askok kausa hori betirako irabazi zutela pentsatu zuten, baina Foruen inguruan egiten ziren aipuak anbiguo eta nahasiak ziren. Honela zioen hitzarmenaren testuak:

“El Capitán General Baldomero Espartero recomendará con interés al Gobierno el cumplimiento de su oferta de comprometerse formalmente a proponer a las Cortes la concesión o modificación de los Fueros”.

Testuan aipatzen den “eskaintza” gobernuaren taktika bat zen. Euskal Herriko egoera juridiko, politiko eta administratiboa mantenduko zelaren

bermeak ematen ziren. Baina aldi berean dena Gorteen menpe geratzen zen, subiranotasun nazionala gordetzen zutenak. Testuan, Foruak emateaz (“*conceder*”) edo aldatzeaz (“*confirmar*”) hitz egiten da, baina ez Antzinako Erregimeneko Foruak baieztatzeaz. Gehienez jota, salbuespenezko egoera bat (Foruak) nazioaren Konstituzioarekin bateragarri egiteko modua bilatuko zuten.

4. 1839ko urriaren 25eko Legea

Bakea sinatu eta aste batzuk beranduago, 1839ko urriaren 25ean, Maria Kristina Erreginak Euskal Probintzien eta Nafarroako Foruak onartzen zituen lege bat berretsi zuen. Aldi berean, gobernua foru-erregimenak aldatu aurretik probintzia hauen ordezkariekin negoziatzeko konpromisoa hartu zuen.

Horrela, legeak hurrengoa xedatzen zuen:

Art. 1 “Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía.”

Art. 2 “El Gobierno, tan pronto como la oportunidad lo permita, y oyendo antes a las Provincias Vascongadas y a Navarra, propondrá a las Cortes la modificación indispensable que en los mencionados Fueros reclame el interés de las mismas, conciliándolo con el general de la Nación y de la Constitución de la Monarquía, resolviendo entre tanto provisionalmente, en la forma y sentido expresados, las dudas y dificultades que puedan ofrecerse, dando de ello cuenta a las Cortes.”

Monarkiaren batasun Konstituzionalaz hitz egitean (“*unidad Constitucional de la Monarquía*”), Konstituzioa lurralde orotan indarrean zegoela aditzera ematen zen, aurka egingo liokeen bestelako erregimen edo

foru-erregimenaren gainetik. Beraz batasun konstituzionala Foruekin bateraezina izango zen.

Testu anbigua zen eta interpretazio ezberdinak onartzen zituen, baina bakea nahi zutenez, hitzarmena sinatu egin zuten. Hala ere, laster tentsioak heldu ziren. Gainera, lege honek Foruak konstituzioarekin bateragarri egiteko aldatuko zirela esaten zuen. Horregatik, 1839ko urriaren 25eko lege honek, errealitatean, Foruak indargabetzen zituen, kontrakoa xedatu arren. Ganbera bietan (Kongresua eta Senatua) 1. artikulua esaldi anbiguo horren inguruan asko eztabaidatu zuten, “*unidad Constitucional de la Monarquía*”, bere esanahia eta irismena zehazteko helburuz. Izan ere, horren inguruan egindako interpretazioaren menpe egongo ziren Foru Aldundiekin mantenduko ziren elkarriketak eta Gobernuaren Foruak eguneratzeko erabakiak.

Azkenean, Kongresuak esaldi horren arabera botere legegile bakar bat, hau da Espainiako Gorteak, eta botere betearazle bakar bat, hau da, Erregea, aintzat hartuko zirela xedatu zuen.

Liberal moderatuak Foruak baldintzarik gabe onartzearen alde zeuden, baina liberal progresistek beti defendatu zuten legeak ezarritako formula. Beraz, lege hori garatu beharra zegoen zein Foru aldatu edo ezabatuko ziren zehazteko, legeak berak ez zuelako horrelakorik zehazten.

Bizkaia eta beste euskal probintzietako elite boteretsua foruen aldeko liberalek (hiri zentroak kontrolatzen zituztenak) eta nekazaritzako lurzoruen jabeek osatzen zuten. Hauek guztiek 1839ko urriaren 25eko legeak Foruak berresten zituela ulertu zuten eta hasieratik beren eskuetan zegoen guztia egin zuten aurreikusitako foruen aldaketa atzeratzeko eta beranduago, saihesteko.

Legea onartu zenetik, euskal liberalak Foruak eta Konstituzioa bateragarri egiten saiatu ziren eta baita lortu ere; mugapen batzuekin, baina Foruak eta Konstituzioa 1876ra arte bateragarri egitea lortu zuten.

Beste alde batetik, karlistak ez ziren ados geratu eta militar askok hitzarmena onartu zuten arren, ez ziren denbora luzez Elisabet II.a eta Konstituzioari leial mantenduko eta bi karlistaldi gehiago piztuko ziren, 1848an eta 1872an.

Legeak lasaitasuna ekarri zuen Euskal Herrira. Horregatik Bizkaiko probintzia-erakundeek (Foru Aldundia eta Batzar Nagusiak) eta Bilboko Udaletxeak eskerrak eman zizkioten Espartero eta Gorteei eta Elisabet II.aren kausari leialtasuna adierazi zioten. Era berean, ospakizun handiak egin ziren Bergarako Hitzarmenaren lehenengo urteurrenean.

Esparteroren erregeordetza progresista

1840an, progresista moderatuek bozkatutako udal lege baten kontra jarri ziren, 1837ko Konstituzio progresistaren izpirituaren kontrakoa zela argudiatuz. Hala ere Maria Kristina erreginak legea onartu zuen.

Hori dela eta, progresistak 1840ko irailaren 1ean Madrilen matxinatu ziren. Esparterorekin arazoak izan eta gero, Erreginaordeak dimititu eta Frantziara abiatu zen. Orduan gobernu progresista bat osatu zen eta 1841ko martxoan Espartero Erregeorde izendatu zuten. Gerra karlistan izandako arrakasta eta Bergarako Hitzarmena sinatu izanak asko lagundu zion Esparterori Maria Kristina abdikatu eta gero agintea hartzeko. Baina progresistek agintea hartzean, Foruak aldatu zituzten, Esparteroren aurkako matxinada ugariren ostean.

Bizkaiak inolako begikotasunik gabe egin zion harrera gobernu eta Erregeorde berriari, aurreko urtean Esparterori omenaldi ezberdinak egin zizkioten arren. Progresistek antiklerikalismo gogorra praktikatzen ari ziren eta gainera bizkaitarrak Foru erreforma baten beldur ziren. Izan ere, 1839ko azaroaren 18ko dekretuaren bitartez, Aldundiek ordezkariak izendatu behar zituzten, Foruak era definitiboan moldatzeko, 1839ko urriaren 19ko legeak xedatzen zuenez.

Hurrengo urtean, Euskadiko Aldundiak Bilbon batzartu ziren eta Foruetatik ahal zuten gehiena kontserbatzen saiatu behar zirela adostu zuten. Mandatariek ahalegin guztiak xede horretan jarriko zituzten.

Madrilera ailegatzean Euskadi eta Nafarroako mandatariak indarrak batzen saiatu ziren, gobernuarekin foru-aldaketa negoziatzen hasi baino lehen. Baina laster elkarren arteko desakordioak sortu ziren. Nafarroako ordezkariak berehala bereizi ziren Bizkaia, Araba eta Gipuzkoakoengandik, haiek baino interes handiagoa zutelako arazoa konpondu eta akordio batera heltzeko. Euskadiko mandatariek, aldiz, euren Foruen alderdi gehienak mantendu nahi zituztenez, geroratze-taktika erabili zuten; denbora irabazi nahi zuten, garai hartan gobernu zentrolean gorabehera ugari zegoenez, euren interesen alde joka zezakeen aldaketaren bat egon ahal zelako.

Esparteroren erregeordetza onuragarria izan zen Nafarroako liberalentzako, progresisten artean influentzia handia zutenak, eta Nafarroako Aldundia iraileko matxinadaren alde egon zen. Gobernuarekin negoziatu eta gero, 1841eko abuztuaren 16an nafarrek Lege Itundua (horrela deitu izan zen nafarrek onartu zutelako) sinatu zuten, nolabaiteko autogobernua eman ziena. Lege horren arabera, Nafarroa gainerako nazioaren erregimen juridiko berdinarekin menpe geratu zen eta botere legegilea galdu zuen, bere Gorteak desegin eta Espainiako Gorteetan integratu zelako. Hala ere, berezko Zuzenbide Zibila kontserbatu zuen, eta autogobernurako eskumenak, militar material eta antolaketa fiskalari zegokienez (urteroko kupo finko baten bitartez). Horrela, Aldundiak eskumen handiak lortu zituen autogobernu partzial hori bideratzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Foruak indargabetu ziren eta bertako Aldundia Euskadiko foru aldarrikapenetatik aldendu zen. Geroztik, eta gorabehera handiak egon ziren arren, Nafarroako bando karlistek galdutako hirugarren gerra karlista barne, bertako erregimen juridikoak ez zuen inolako

erregulazio bateratzailerik hartu. Esan daiteke 1841eko abuztuaren 16ko legeak ezarritako egitura, funtsean, gure egunetara iritsi dela.

Bitartean, Diego Leon liberal moderatuak zuzendutako talde batek Esparteroren Erregeordetzaren aurkako estatu kolpea eman zuen. Euskadiko Aldundiak, Nafarroa ez bezala, estatu kolpearen alde jarri ziren eta herriari Foruak defendatzeko deia egin zioten, Maria Kristina erreginari agintea berreskuratzen laguntzeko helburuz. Baina herritarrek ez zieten jarraitu, beste arrazoien artean Karlos V.ak karlistei istiluan esku ez hartzeko eskatu zielako. Aldundiak O'Donnell-en jazarraldi militarren konplizea izan ziren, Iruñea eta Montes de Oca-ko goarnizioaren parte batzuen laguntzarekin Gasteizen altxatu zena.

Esparterok altxamendua zapaldu zuen Espainia eta Euskal Herria osoan zehar, neurri handi batean burgesia donostiarra eta Donostiako Udaletxeak eman zioten laguntzari esker. Altxamenduak jaso zuen porrotak ondorio latzak ekarri zizkien foruzaleei, Esparterok Foruak ezabatu baitzituen, Gasteizen 1841eko urriaren 29an sinatutako dekretu baten bitartez, 1839ko urriaren 25eko legea garatu zuena. Horrenbestez, Aldundiak eta Batzar Nagusiak desegin zituen, eta “foru-pasea” behin betirako ezabatu zuen, Batzar Nagusiek Erresumaren legeak eta gobernuaren xedapenei eman edo ukatzen ziotena.

Horrez gain, Barnealdeko aduanak kendu eta kostaldera eta Frantziako mugara mugitu zituzten. Lehen auzialdiko epaitegiak eta garrantzi gutxiagoko beste batzuk ezarri zituzten, Espainiako gainerako lurraldeetan bezala. Korrejidorearen izena aldatu zuten, “buruzagi politiko” deitzera pasatu zena, eta ordena publikoa bere esku geratu zen. Udaletxeak Espainiako gainerako herrietan bezala antolatu zituzten eta hauteskunde prozesuak sufragio zentsitarioaren bitartez egiten hasi ziren Espainiako beste lurraldeetan egiten zuten bezala. Esparteroren dekretuak Foru Aldundiek atzeratu nahi izan zuten aldaketa ekarri zuen.

Neurri hauek ezarri zirenean, protesta ugari piztu ziren, baina Esparteroren dekretuak ez zuen guztia hondatu; Bergaran Foruak mantentzeko konpromisoa hartu zuen eta esan bezala “aldatu” egin zituen. Aldundiei mugapen nabarmenak jarri arren, Bizkaiak berezitasun militarrek, zerga-salbuespena eta foru-zuzenbide zibila mantendu zituen. Ikusten dugunez, Bizkaiak bere foru-erregimen tradizionaleko alderdi batzuk baino ez zituen mantendu. Gainerakoa Esparterok ezabatu zuen dekretua sinatu eta gero, aldebakarrez, Aldundiekin hitz egin barik.

Elisabet II.aren adin-nagusitasuna

1843an Serrano, Narváez eta Prim-ek altxamendu berri bat antolatu zuten eta Esparterori tronua kentzea lortu zuten. Izan ere, erregeordea benetako diktadorea bilakatua zen eta bere alderdiko buruzagien artean etsai ugari zituen. Agintea galdu zuenean, Espartero jenerala Londresera abiatu zen eta bertan heroia balitz bezala egin zioten harrera.

Altxamendu hau moderatuentzako garaipen handia izan zen. Gorteen, Maria Kristina erregeordetza hartu behar ez izateko, Elisabet II.aren adin-nagusitasuna aldarrikatu zuten, orduan hamahiru urte baino ez zituen.

1845ean beste Konstituzio bat aldarrikatu zuten, 1868ko iraultzara arte indarrean egon zena. Orduan ideia iraultzaileekin bat zetorren Konstituzio berri bat aldarrikatuko zuten, 1869an.

Konstituzio berria aldarrikatu baino lehen, gobernuak, 1844ko uztailaren 4ko dekretu baten bitartez, euskal probintzietako Foruak berrezarri zituen, baina ez guztiz. Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak berrezarri eta Udaletxeen hauteskunde sistema tradizionala berreskuratu arren, foru-lurraldeek “foru-pasea” galdu zuten. Gainera ez zuten aurreko egoera judiziala edo barneko aduanak berreskuratu eta ordena publikoa buruzagi politikoen menpe jarraitu zuen. Azkenik, dekretuak Foruen moldaketa definitiboa lege-proiektu batekin burutuko zela xedatu zuen, Aldundiekin eztabaidatu eta gero.

Euskadiko moderatuentzako onuragarria izan zen Espainiako moderatuek nazioaren gobernua hartzea, elkarren artean isileko akordioa egin zutelako liberal foruzale hauek euskal egoeraren kontrola har zezaten, progresistak eta karlistak alde batera utziz.

Horrenbestez, elite horrek Udaletxe, Batzar Nagusi eta Aldundien bitartez boterea bereganatu zuen. Izan ere, gobernu isabeldarrek administrazioa, armada, heziketa eta abar bateratzeko lan egiten jarraitzen zuten arren, Foru Aldundien esku utzi zuten euskal probintzien administrazioa, Euskadiko agintarien sostengua behar zutelako eta probintzia horietan altxamendu karlisten beldur zirelako.

Euskal foruzaleak ederki moldatu ziren egoera honetan, euskal lurraldean horrelako altxamendu bat kontrola zezaketen bakarrak zirelako. Gainera, kausa forala dinastia-gatazkatik bereiztea erabaki zuten, eta oso ondo atera zitzaien, Foruak defendatzeko eta sistema oligarkikoa mantentzeko karlisten nolabaiteko laguntza jaso baitzuten, biztanleria gehiena tradizionalista zelako.

1845etik eta 1868ra bitarteko denboraldia bereziki gogorra izan zen Foruentzako, edozein momentutan aldatuak izatearen mehatxupean bizi izan zirelako, baina aldaketa hori ez zen inoiz zehaztu eta, aldiz, Foruak are gehiago garatu ziren, Foru Aldundiek kontserbatzen zituzten ahalmenei esker. Politika arloan murrizpenak izan arren, asko hazi ziren autonomia administratibo eta ekonomikoaren esparruan.

Horregatik, Esparteroren garaiko protestak baretuz joan ziren, batez ere aduanak kostaldera eta Frantziako mugara lekualdatuz industria eta merkataritza are gehiago garatu ahal zutenaz ohartu zirenean. Aurreko mendean Lur Laua eta hirietako burgesiaren artean hainbeste polemika eragin zuten barnealdeko aduanak ez zitzaizkien gehiago interesatzen.

Orain Euskadiko Aldundiak politikoki estatu konstituzionalaren barruan egituratzea besterik ez zegoen, era kohesionatuan eta nazioaren gobernuaren aldaketetatik bereizita. Kontuan izan behar dugu Elisabet II.aren erreinaldia aro ezegonkor batean garatu zela, joera ezberdinetako liberalak azpijokoan ari ziren bitartean. Altxamendu askoren garaia izan zen, zeinean jeneralak egoeraren epaileak bilakatu ziren.

Giro horretan, Euskadiko Aldundietako ordezkariak gobernua aldatzen zen bakoitzean berriz hasi behar ziren foru-arazoa konpontzen. Garaiko gobernu moderatu askok era iraunkorrean arazoa konpontzen saiatu ziren, baina euskaldunek erreforma oro mesfidantzaz ikusten zuten, aurreko lege indargabetzaileen ondoren kontserbatutakoa galtzearen beldur zirelako. Horregatik, mandatariak, Bizkaiaren gidaritzapean, Madrilera “dena edo ezer” kontsignarekin abiatzen ziren, eta geroratze-teknika erabiliz erreforma bertan behera geratzea lortzen zuten.

Modu horretan biziraun zuen foru-sistemak gerra karlistak amaitu ziren arte, 1876an, Espainiako iritzi publikoa, orokorrean, Foruen kontrakoa izan eta Gortean eztabaida oso gogorrak egon arren.

Elisabet II.aren erreinaldiaren azken urteetara iristean, garapen ekonomiko handia zegoen eta industrializazioa dagoeneko martxan zen; lehenengo lantegiak ireki ziren eta burdingintza modernoa hasi zen. Bizkaiarentzako aro onuragarria eta egonkorra izan zen. Foru Aldundiek izen ona hartu zuten, tokiko korporazioak defendatzearen, eta ez oligarkia boteretsuaren interesak soilik.

Foraltasuna euskal gizartearen elementu integratzailea bilakatu zen, biztanleriaren gehiengoak defendatzen zituelako, karlista zein liberala izan. Donostiako eta beste hiri-eremuren bateko progresistak ziren era erradikalean foruen kontra agertzen ziren bakarrak.

Guztiak batera Foruak defendatzean, probintzien artean aurretik inoiz existitu ez zen batasun sentimendua sortu zen, probintzia horiek beti

elkarrengandik bereizita egon baitziren, antzeko usadio eta erakundeak izan arren.

1845 eta 1849 artean gatazka berriz piztu zen, Elisabet II.a Frantzisko Asiskoa bere lehengusuarekin ezkondu zenean, Karlos IV.aren Montemolineko kondearen kandidatura baztertuz (Karlos V.aren semea). Erregegai karlistak, bere ezkontza-xedeetan aintzat hartu ez zutenez, gerra berria martxan jarri zuen, “*guerra dels matiners*” delakoa, edo bigarren Gerra Karlista.

1846ko udazkenean zehar, partidek behin eta berriro altxamenduak egin zituzten, baina inolako diziplinarik gabe eta elkarren arteko koordinazio barik. Agian horregatik matxinadak ez zuen Espainiako beste lurraldeetan arrakasta handirik izan.

Euskal Herrian hain zuzen ere, matxinadak oihartzun txikia izan zuen, Euskadi eta Nafarroako Batzordeak errege-agiri bat sinatu zuen arren, “Ordena, askatasuna eta justizia” lemapean, Euskal Herriko Foruak, Aldundia eta lege nagusiak defendatzeko.

Era berean, Gaztela Zaharra, Gaztela-Mantxa eta Andaluzian altxamenduak egon ziren, baina ez zuten arrakastarik izan. Mugimenduak Katalunian soilik izan zuen indar nahikoa, bertan gerra sozial izaera hartu zuelako, zentralismoaren kontrako aldarrikapenekin.

Martiners-ek nekazarien sostengua izan zuten eta armada isabeldarrak buruzagi karlista batzuk erosi zituen gerrilla bertan behera utz zezaten.

Partidek gerrilla-jarduerarekin jarraitu zuten 1847an zehar, esperientzia handiko buruzagien gidaritzapean eta Cabrera itzuli zenean, “Maestrazgoko tigrea” ezizena zuena, soldadu berri ugari batu zitzaizkien.

Armada isabeldarrean, aldiz, buruzagi eta kapitain jeneralak behin eta berriro aldatzen ziren (Bretón, Manuel Pavía...), eremu mugatu batean

istiluak gelditzeko armadaren ezintasuna agerian utziz.

Aurreko erregegaia Karlos V.ak bere seme Montemolineko kondearen mesedean bere eskubideei uko egin zienean, hau Espainiara etorri nahi izan zuen, 1849ko udaberrian bere tropen buruzagitza hartzeko, baina frantsesek mugan atxilotu zuten. Gainera, Cabrera jenerala zauritu egin zuten eta Frantzia erbesteratu behar izan zen. Hori dela eta, azken partida karlistak disolbatu eta Frantziara ihes egin zuten. Maiatzerako ez zegoen karlisten arrastorik Katalunian.

Bere erreinaldiko azken urteetan (O'Donnell-en gobernu 1863an erori zenetik 1868an tronua galdu zuen arte), Elisabet II.a gobernu moderatuetan soilik oinarritu zen agintea gauzatzeko. Baina gobernu horiek oso azkar aldatzen ziren, gehienetan Gorteetako presio-taldeen azpijokoaren arabera, horregatik maiz ustelkerian aritzea leporatzen zieten. Bitartean, gero eta handiagoa zen oposizioa antolatuz joan zen; Prim jeneralak zuzentzen zituen progresistak etengabeaz azpijokoan ari ziren eta altxamendu militar ugari burutu zituzten.

Bizkaiari dagokionez, Bergarako Hitzarmena (1839) eta 1868ko iraultzaren artean urte onak bizi izan zituen. Moderatuek ekarritako egonkortasun politikoari esker, Europako industrializazioaren influentziaren baliatu ahal izan zuen ekonomia garatzeko.

Testuinguru horretan, Bizkaiko burgesak industriarekiko interesa agertzen hasi ziren eta, merkataritza alde batera utzi barik, gorantz zihoan jardueran esku hartzen hasi ziren. Horrela hasi zen Bizkaiko industrializazioa. Bizkaitarrek ederki aprobetxatu zuten aduanak kostaldera eta Frantziako mugara lekualdatu zituen Esparteroren 1841eko dekretua eta nazio-merkatuan indarrez sartu ziren, industrializazioan aitzindariak bilakatu.

1841ean bertan, bilbotarrek Boluetako “Santa Ana” eratu zuten, Ibaizabalen ertzean zegoen burdinola zahar bat transformatuz. Hau izan zen

Euskadiko lehenengo Sozietate Anonimoa eta bere produkzioa nazio-merkatuan jartzeko xedez, egur-ikatzeko lehenengo labe garaia eraiki zuena.

Handik eta bi urtera, 1843an, Ibarra anaiek “Fábrica Nuestra Señora de la Merced” sozietatea sortu zuten, Guriezoko burdinola zahar batean. Lantegi hau Euskadiko industria siderurgiko modernoaren aitzindaria dugu. Urte batzuk beranduago, 1855ean, leku hobe batera mugitu zuten, Galindo eta Nerbioi ibaiak bat etortzen diren tokira, Desierto deitutako gunean. Orduan sozietatea aldatu eta izen berria jarri zioten: “Fábrica Nuestra Señora del Carmen”. Beranduago, Bizkaiko Labe Garaiak bilakatuko zen.

Bilboko itsasadarra eta ezkerraldea Bizkaiko industrializazioaren gunerik garrantzitsuena bilakatu ziren. Altzairua ekoizteko Bessemer bihurgailuak, Europako siderurgia goitik behera aldatu zuena kostuak asko murrizten zituelako, burdin fosforikoa behar zuen, eta Suedia eta Bizkaian baino ez zeuden mineral mota hori lortzeko erreserba garrantzitsuak. Bizkaikoak eskari handia izan zuen, azaleran aurki ahal zelako, Trianoko mendietan, kostaldetik hurbil. Erraz eskuratzen zen eta kostaldera denbora gutxian eramaten zen, handik Europako leku ezberdinetara garraiatzeko. Gainera, Suediako burdinarekin gertatzen ez zen bezala, klimari esker urte osoan zehar ekoiztu ahal zen.

1865etik aurrera, Bizkaiko meatzealdean ustiapen intentsiboak hasi ziren. Minerala Ingalaterrara esportatu eta bertatik ikatz ingelesa ekartzen zuten, merkea eta kalitate handikoa zena, Asturiasekoa baino hobe. Sektorean enpresa ugari eratu ziren, “Franco-Belga”, “Orconera”, “Parrocha”, atzerriko kapitalarekin, baina Bizkaiko kapitalaren parte hartzearekin ere. Beranduago euren meatzeak zuzenean ustiatzen zituzten jabeak ere agertu ziren, Ibarratarrak, Lezama Legizamondarrak, Sota eta Aznar, Martinez Rivas, eta abar. Horrela, bilbotar hauek Bizkaiko industrializazioa burutu ahal izateko kapital nahikoa bildu zuten.

Meatzaritzak hain irabazi handiak ematen zituela ikusita, Foru Aldundiak fondo publikoekin lehenengo “meatzaritza-trenbidea” eraiki zuen, Trianoko mendiak eta Bilboko itsasadarra lotuz. Eraikitze lanak 1865ean bukatu zituzten. Ondoren beste trenbideak eraiki ziren, titulartasun pribatukoak.

Ikusi berri dugunez, Elisabet II.aren erreginaldian Bizkaian gizon ekintzaileak agertu ziren, atzerritarren enpresa ereduari jarraituz, merkataritzaren bitartez irabazitako kapitalak industriak eratzeke inbertitu zituztenak, sarritan tekniko atzerritarren bitartez kudeatzen zituztenak. Burgesia bilbotar honek ez zuen inoiz merkataritza alde batera utzi, industrian ahalegin handiak jarri arren, garai hartan arabar eta gipuzkoarrek egin ez zutena.

Bizkaitarren bizitasun horrek ere eragina izan zuen finantza sektorean. 1857an Bilboko Bankua eratu zuten Merkataritza Batzordearen inizatibaz, antzinako Bilboko Kontsulatua ordezkatu zuen erakundea. Ekintza horretan esku hartu zuen akziodun-taldearen barruan, merkataritza burgesiaren pertsona garrantzitsuenak zeuden: Ibaratarrak, Arellanotarrak, Zababurutarrak, Epalzatarrak, Orbegozotarrak, eta abar.

Bilbo eta bere portuak antzinatik Espainiako iparraldeko gainerako portuen artean izandako nagusitasunari eutsi ahal izateko (batez ere, Santanderrekin lehian), Bilbo barnealdearekin lotu zuen trenbide sarea eraikitzea erabaki zuten. Horrela, 1863an Euskadiko lehenengo trenbidea sortu zen: “Bilbo-Tudela Trenbidea”, Miranda de Ebrotik pasatzen zena. Beranduago beste linea bat egin zuten: “Iparraldeko Trenbidea”, 1864tik aurrera Irun eta Miranda de Ebro lotu zituen. Bi linea hauekin, Bilbok komunikazio ederra lortu zuen Gaztela eta batez ere Frantziarekin, eta horrenbestez, Gaztelako portu gisa jarduten jarraitu zuen, beti egin zuen bezala.

Seiurteko Iraultzailea (1868-1874)

Prim jenerala, erregimen moderatuaren kontra azpijokoan aritzeagatik erbesteratuta zegoen Afrikako Gerrako beteranoa, atzerritik “la Gloriosa” mugimendu militarra antolatu eta garaile atera zen. Ondorioz, Elisabet erregina, Donostian uda igarotzen ari zena, Frantziara alde egin behar izan zuen 1868ko irailean. Momentu horretan hasten da seiurteko iraultzailea. Sei urte horietan herrialdeko sektore progresistek iraultza erradikala bultzatu zuten. Seiurtekoa estatu kolpe batekin bukatu zen, karlistekin gerran zeuden bitartean, eta Alfontso XII.a, Elisabet II.aren semea, tronura igo zen.

1869an ideia iraultzaileen arabeko Konstituzio berria idatzi zen, Erregeari botere politikoa kendu ziona. Literalki esaten zuenez, “*El Rey reina pero no gobierna*”.

Gorteen erregeordetza Serrano jeneralari eman zioten, Prim jenerala gobernuko presidente izendatu zuena. Honen ardura nagusia Espainiarako errege bat lortzea izan zen, Europako errege leinuetako printzeen artean. Italiar bat konbentzitu zuen, Amadeo Saboyakoa, Espainian 1870eko urtarrilaren 2an erreinatzen hasi zena. Baina italiarrak hiru urtez bakarrik eutsi zion tronuari, abdikatu zuen arte.

Politika arloan egoera ezegonkorra zen, sektore desberdinetan zatiketa politikoa zegoelako. Iraultza egin zuten gobernuko alderdiak (alderdi unionista, progresista eta demokrata) erradikal eta moderatuen artean zatituta zeuden eta, gainera, oposizio alderdi sendoak zeuden: karlistak, errepublikanoak eta alfontsoak.

Karlistak Eliza eta Estatuaren arteko istiluen paraleloan indarra hartzen joan ziren, iraultzarekin erabat larriagotu zirenak. Bi joera ezberdinetan banatzen ziren: neokatolikoak, Cándido Nocedalen gidaritzapean bide parlamentarioarengatik apustu egiten zutenak, eta matxinada armaturako joera zuen beste talde bat, aurrekoa bezain anitza.

Gobernuaren arbitrariotasunaren ondorioz, bigarren talde hori nagusitu zen eta karlistak altxatu egin ziren. Horrela hasi zen 1872an hirugarren Gerra Karlista. Gatazka hau arazo-zerrenda luze bati erantsi zitzaion: Kubako matxinada, zatiketa politikoa eta langileen mugimendua. Gauza horiek guztiek Amadeo I.a Saboyakoaren abdikazioa arindu zuten, 1873ko otsailaren 11n gauzatu zena. Egun horretan bertan Errepublika aldarrikatu zen, era berean zatituta egon zena eta hamaika hilabetez agindu zuena.

Bizkaiak hostasunez hartu zuen 68ko erregimena, eta garaiko agintariei Bizkaiko erakundeak euren menpe mantentzea lortu zuten. Ondo zekiten herrialdeko ordena eta karlistak kontrolatzen bazituzten Madrileko gobernuak oztopo gehiegirik jarriko ez ziela. Hori dela eta Foru Aldundia, gobernu iraultzailearen progresismoaren alde ez zegoena, neutral agertu zen eta horrela, Bizkaiko kontserbadoreek botereari eutsi ahal izan zioten, Madrilen galdua zutenean.

Baina gobernuaren progresismo erradikalak asko kezkatu zituen karlistak, eta baita liberal moderatuak ere. Oraingo honetan bai, erlijio-kontuak guztiak ikaratu zituen, Madrileko gobernuak erlijio-gatazka muturreraino eraman zuelako, aurreko gobernu moderatuen Eliza eta Estatuaren arteko harreman onen politika bertan behera utziz.

Hasieran, karlistek bide legala hartu zuten eta hauteskundeetan parte hartu zuten. Modu horretan, 1869ko Gorte Konstituziogileetan Diputatuen Kongresurako Bizkaiko lau eserlekuak eskuratu eta 1871eko hauteskundeetan, Espainia osoan 79 diputatu lortu zituzten, Ganberako indar politiko garrantzitsua bilakatuz, Necedalen gidaritzapean.

Hau guztiaren ondorioz, seiurteko iraultzailearen lehenengo urteetan nolabaiteko bakea egon zen Bizkaian, eta ekonomiak hazten jarraitu zuen. Baina aldi berean gerra karlista ernatuz joan zen eta Karlos VII.ak Elisabet II.aren lekukoa hartu eta politika progresistak jasan ezin zituzten horien buruan jarri zen.

1870ean dagoeneko Espainiako leku ezberdinetan mugimendu karlistak egon ziren, Bizkaian ere oihartzuna izan zutenak, baina armadak laster menperatu zituen. Istilu horietan, Euskadiko kleroa eta alkate batzuen esku hartzeaz aparte, Aldundiak parte hartu zuenaren susmoa egon zen eta horregatik kargugabetu zuten. Bilbon, aldizkari ezberdinek gobernuaren lege iraultzaileen berri ematen zuten, karlista, foruzale moderatu eta abarren gertuko ikuspuntuetatik.

1872ko hauteskundeetan karlistek ordezkaritza txikia lortu zuten eta estrategiaz aldatzea erabaki zuten. Horrela, boterea lortzeko bide legala probatu ondoren, gerrarengatik egingo zuten apustu. 1872ko apirilean, Karlos VII.aren aginduei jarraituz altxamendu nabarmenak egon ziren Aragoi, Maestrazgoa eta Euskadi eta Nafarroan. Horrenbestez, Euskal Herria gerraren jokaleku bihurtu zen berriro ere.

Altxamendutik egun gutxi batzuetara, armada karlistak porrot egin zuen Orokietan (Nafarroa). Bertan, Karlos VII.a oso gutxigatik ez zuten atxilotu eta Frantziara ihes egin behar izan zuen.

Bizkaian jende asko zegoen gobernuarekin haserre, ez soilik karlistak. Izan ere, 1870ean Aldundia kargugabetzean pertsona garrantzitsu asko gobernuaren kontra jarri ziren. Horrela, ofizial karlista eta isabeldarren buruzagitzapean sei batailoi osatu zituzten, On Karlosen zerbitzuan jarri zirenak. Gernikan bildu ziren eta bertan altxamendua egitea erabaki zuten.

Madriren, Sagastaren gobernuak altxamendua gelditzea erabaki zuen eta Euskadira Serrano jenerala bidali zuten. Durango eta Elorrión batzarrak egin eta gero, gobernuak eta karlistak akordio batera iritsi ziren: “Amorebietako Hitzarmena”. Horrenbestez karlistak Serrano jeneralaren tropei entregatu ziren eta horren truke gobernuak hurrengo onartu zuen: Foruak onartzea, altxaturiko ofizialen aurkako neurririk ez hartzea eta Aldundia Foru Aldundi bat izatea, gerra-gastuak ordaintzeko modua zehaztuko zuena.

Hitzarmena sinatzeko ezinbestekoa izan zen Bizkaiko buruzagi klasearen moderazioa. Alde bietako sektore erradikalei ez zitzaien akordioa gustatu.

Espainiako beste lurraldeetan altxamendu karlista ez zen bukatu. Nafarroako erriberan jarraitu egin zuen eta baita Gipuzkoan ere, Santa Cruzeko apaiz ospetsuak gerrilla gerra berpiztu zuelako. Hala ere gerra honek Katalunian besterik ez zuen garrantzia izan.

Bizkaian, 1872ko altxamendu karlistaren ondoren Bilboko hiribilduak istilu berriak ekiditeko neurriak hartu zituen. Horretarako, boluntarioek hiria karlisten erasoengatik babesteko “Laguntzaileen Batailoi” famatua osatu zuten. Bilbo salbuespena zen Bizkaian, lurralde osoa gobernuaren kontra azpijokoan ari zelako, lur lauко jauntxoен gidaritzapean (eta ez industrialariena). Probintzia honetan karlismoak kleroaren kontrako legeak, ezkontza zibilak eta gobernuak harturiko antzeko beste neurriekin konforme ez zeuden guztiak biltzea lortu zuen, nahiz eta gobernu iraultzaileak Foruei traba handiegirik egin ez zien.

Hiriguneek, batez ere hiriburuak, liberalen kontrolpean jarraitu zuten, burgesia eta artisauen sostenguarekin, eta karlismoak landa-guneei tinko eutsi zien, ohikoa zenez. Bitartean, Karlos VII.a Bordelen itxaroten ari zen, Elio jeneralarekin batera, Euskadi eta Nafarroako indarrak berrantolatu arte.

Amadeo Saboyakoa jausi eta Errepublika aldarrikatu zutenean, 1873ko otsailean, hirugarren eta azken gerra karlista hasi zen. Karlistek Errepublikaren antolaketa txarra baliatu zuten abantaila hartzeko. Hilabete horretan bertan, Valdespinako markesak Bizkaian altxamendua martxan jarri zuen, tropak Dolagaray jeneralaren menpe jarritz eta uztailean, Karlos VII.a Baztanetik Espainian sartu zen.

Karlista gehienak iparraldean eta Errioxan bildu ziren eta, berriro ere, liberalek Bilbo, Gasteiz eta Donostiako hirien kontrola izan zuten. Berriro ere karlistak hiriburu hauek eskuratzen saiatu ziren eta berriro ere Bilbo aukeratu zuten, burgesiaren indarra eta handitasunaren sinboloa zena.

Bilboko setioa 1874ko otsailean hasi zen. Karlistek armada ia guztia eta euren jeneral onenak (Dorregaray, Elio, Valdespina eta Larramendi) hiribildu ingurura mugitu zituzten. Gobernuaren partetik, Serrano jenerala arduratu zen hiria babesteaz, Concha, Primo de Rivera, López Domínguez eta Zabala jeneralekin batera.

Bilbok setioari eutsi zion, berriz ere ausardia itzela erakutsiz eta bere baliabide propioekin, gosea eta bonbei aurre eginez. Bilboko garnizioa eta Laguntzaileen batailoiak defentsa horretaz arduratu ziren. Oso garrantzitsua izan zen emakumeen laguntza, lubakiak eraikitzen ere lagundu zutenak. Eraso karlista guztiak gelditu zituzten eta 1874an, Concha jeneralak 125 eguneko setioa gainditu eta Bilbo askatu zuen, “Somorrostroko Bataila” ospetsua irabazi eta gero.

Porrot hori kolpe gogorra izan zen karlistentzako. Hala ere, ez zuten gerra uzteko asmorik. Bitartean, Loiolako Santutegian Karlos VII.a errege gantzutu zuten eta honek bere Gortea Lizarran ezarri zuen. Gobernu bat osatu zuen, hiru ministeriorekin, Posta eta Telegrafo zerbitzua ezarri zuen, Oñatiko Unibertsitatea ireki zuen eta Azpeitian artilleria akademia bat eta Bergaran Ingeniaritza eskola bat ireki zituen. Oñatin txanponak egin zituen, justizia kudeatu zuen, noblezia tituluak eman eta Gernikako Foruak zin egin zituen.

Bilboko setioa altxatu ondoren, Concha jeneralak iparraldeko armadaren buruzagitza hartu eta Lizarrara abiatu zen, baina bala-tiro batek hil zuen eta bere tropek atzera egin zuten 1874ko ekainean. Uda eta udazkenean bi aldeetako armadek ez zuten jarduerarik izan, nahiz eta karlistak arrakastarik gabe Irun hartzen saiatu. Ordea, Frantziako mugetatik munizioa eta armak lortu zituzten.

Horrelakoa zen egoera Martínez Campos jeneralak Saguntan “*Gora Alfontso XII.a*” oihukatu zuenean, 1874ko abenduaren 19an, garnizio ezberdinen sostenguarekin (horien artean Madrilekoa) eta Canovas del

Castillo bezalako politikarien bermeekin, monarkiaren berrezarpenaren protagonista nagusia eta lehenengo sei urteetan erregimenaren buru izan zena.

Alfontso XII.a aldarrikatu eta gero, gerra karlistak ez zuen gehiegi iraun. Elisabet II.aren semea tronuan berrezartzeak bando karlista guztiz hautsi zuen, jende asko bando horretan 68ko gobernu iraultzailea eta Errepublikari kontra egiteko soilik zegoelako, eta ez karlista izateagatik. Hortaz, orain ez zuten arrazoi gehiagorik ikusten gerra egiten jarraitzeko. Gainera, kantonamenduen altxamendua zapaldu eta gero, armada liberalak indar guztiak iparraldean jarri ahal izan zituen eta 1875ean karlistak garaitu zituen Maestrazgoa eta Katalunian. Urte bukaeran tropa liberalek Bizkaia eta Nafarroan zehar aurrera egin zuten.

Alfontso XII.a hitzarmena lortzen saiatu zen, lehenengo karlistaldian bezala; bakea Foruen truke. Karlistei bere ama Elisabet II.aren erreginaldian izandako abantaila guztiak mantentzeko bermeak eman zizkien, baina hauek borrokatzen jarraitzea erabaki zuten.

Horrela, 1876ko otsailean Alfontso XII.ak bere armadaren buruzagitza hartu zuen eta handik eta hamabi egunetara Karlos VII.a hainbat batailoiekin Frantziara abiatu zen *“Itzuliko naiz!”* esanez. Ordea, ez zen inoiz itzuli. Gerra amaituta zegoen eta 1876ko martxoan, Alfontso XII.a Madrilera bueltatu zen.

5. Foruen indargabetzea

Karlismoa gainditu eta gerra irabazi ondoren, ezarri berri zen monarkiaren gobernuak (Antonio Canovas del Castilloren gidaritzapean) estatu konstituzionalaren batasuna gauzatu eta euskal probintzien behin betiko “konponketa konstituzionala” egiteko eskuak libre zituen.

Espainiako iritzi publikoa karlistekin haserre zegoen, eta azkeneko gerra honen kalteak leporatzen zizkien: hildakoak, ekonomia-kalteak... Hortaz, biztanleria oro har ados zegoen probintzia horien foru-erregimena ezabatzearekin.

Prentsak ere Foruen kontrako giroa berotu zuen: probintzia horiek gerrarekin karlismoa lau urtez defendatu bazuten, Foruak galdu behar zituzten. Altxamenduaren arrazoi nagusia Foruen defentsa izan zela uste zuten eta ez zuten kontuan hartzen ideia karlisten osagai nagusia absolutismo monarkikoa zela. Beranduago bai, osagai berriak gehitu zitzaizkion, hala nola erlijioa edo foruak, gerra Nafarroa eta Euskal Probintzietan kokatu zelako, beste gune batzuen artean, eta bertan gainera, autonomia defendatzen zelako, ideologia liberalaren uniformismoaren aurrean.

Era berean, ez zuten kontuan izan gerra Katalunia, Aragoi eta Maestrazgoan ere libratu zela, Forurik babesten ez zuten lekuak.

Gainera, azken altxamendu karlistan (edo gerra karlista) eragin handia izan zuen Errepublika eta 68ko iraultzaileen erradikalismoak, erlijio-sinesmenak eta herritar gehienek usadioak eraso baitzituzten. Baina argi zegoen karlistek defendatzen zuten Antzinako Erregimena iraganeko kontua zela eta beraz, jendeak Foruak ere beste garai batekoak zirela uste zuen.

Beste alde batetik, inork ez zituen Euskadiko liberalak kontuan hartzen, foruzaleak izanik beti Koroari leial mantendu zirenak, ausardia osoz, ordena konstituzionala defendatzeko euren bizitza arriskuan jarritz. Horiek Foruen indargabetzea saihestu ahal izateko itxaropena zuten, Foruak eta Konstituzioa bateragarriak zirela uste zutelako. Baina Espainiako gainerako lurraldeetako kideek ez zieten lagundu.

Gorteetan konstituzio proiektua eztabaidatzen zuten bitartean, 1876ko apirilaren 6ko Errege Agindu baten bitartez euskal probintziei maiatzaren 1ean Foru aldaketa negoziatzeko ordezkaritzak bidaltzea eskatu zitzaien.

Era berean, 15 egun beranduago Nafarroako ordezkaritza deitu zuten, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduaren aldaketak zehazteko. Ordezkaritzekin hitz egin eta gero, gobernuak aldaketarako lege-proiektuak aurkeztuko zituen, Gorteei onar zitzaten.

Horrenbestez, Foruen indargabetzeak inposizioa edo mendekuaren itxura har ez zezan, Canovasek 1839ko urriaren 25eko legeari men egin zion, gobernuak erabakirik hartu baino lehen Euskal Probintziak eta Nafarroaren proposamenak entzun behar zituela xedatzen zuena. Lege horren arabera, Foruek indarrean jarraitzen zuten, baina Konstituziora egokitu behar ziren.

1841eko Esparteroren legetik aurrera (Foruen alderdi batzuk indargabetu zituen) eta 1844ko uztailaren 4ko legearen ondoren (Esparterok indargabetutako alderdi gehienak berrezarri zituen), ordezkaritzak noizean behin bildu ziren, hogeita hamar urtean zehar, baina inoiz ez zen foruak moldatzeko gobernua eta Euskal Probintzien arteko akordiorik egon. Hortaz, Foruek 1844ko legearen ondoren geratu ziren bezala jarraitu zuten. Nafarroarekin, ordea, 1841ean akordio batera heldu ziren, Lege Itundua delakoa, eta lurraldea konstituzio-erregimenean txertatu zen.

Canovasek Euskal Probintziak eta Nafarroako batzordeei adierazi zien gobernuarentzat derrigorrezkoa zela 1845eko Konstituzioaren 6. artikulua betetzea, gainerako konstituzioetan ere xedatzen zena eta espainiar guztiak Estatuaren zergak ordaintzera behartzen zituen. Artikuluaren arabera lurralde guziek gizon eta diru kopuru bat eman behar zuten Estatua eta defentsa komunaren zerbitzuak mantentzeko. Beraz, eztabaidak gai horren ildotik joango ziren aurrerantzean: Ekarpinak eta Kintak.

Era berean, Canovasek 1839ko urriaren 29ko legea aintzat hartzen zuen. Lege horrek Foruak berrezarri zituen, baina 2. artikuluan Gorteei batasun konstituzionalarekin bateragarria ez zen guztia aldatu ahal zutela xedatzen zuen.

Beste alde batetik, Canovasek Errege Aginduan foru-erakundeek “oraingoz” gerran zehar izandako forma mantenduko zutela adierazi zuen.

Askok diote Canovasek hasieratik Euskal Probintzietako Foruak indargabetzeko asmoa izan zuela. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa uste dute, inoiz ez zituela ezabatu nahi izan eta horregatik Foru Aldundiekin negoziatu zuela, agian, bere printzipio aldaezinak onartzen bazituzten euren autonomia administratibo eta ekonomikoa kontserbatu ahal izango zutela pentsatzen zuelako. Hala ere, Canovas beti saiatu zen akordio bat lortzen, baina Espainiako iritzi publikoaren aurrean ez zuen aukera gehiegirik.

Gobernua eta Euskadiko hiru Foru Aldundiak hainbatetan batzartu ziren baina ez ziren ados jartzen; Nafarroako Aldundiko Batzordearekin, berriz, laster iritsi ziren akordio batera. Batzorde honek Canovasen baldintzak onartu zituen eta gainerako kontuetan 1841eko Lege Itundua errespetatu zuen.

Euskadiko batzordeak, ordea, ez ziren gobernuarekin ados jartzen. Printzipio kontu bat zen. “Guztia edo ezer-ez” lemapean, negoziatzaile euskaldunek euren ideiei irmo eutsi zieten, Bizkaian Fidel Sagarminagaren gidaritzapean jardun zutenak. Ez zeuden euren askatasun historikoak errespetatzen ez zituen lege bat onartzeko prest. Agian aurreko urteetan hainbestetan erabilitako eta hain emaitza onak eman zien geroratze-taktika berriz erabili ahalko zutela uste izan zuten. Baina ez zuten kontuan izan oraingo honetan gerran galtzaile atera zirela, parte bien arteko akordiorik gabe. Eta gainera, Alfontso XII.ak hitzarmen bat eskaini ziela eta haiek deuseztatu zutela, gerra egiten jarraitzeko. Izan ere, Erregeak, iparraldeko tropen buruzagitza hartu bezain laster, bere burua legearen ordezkaria bezala aurkeztu eta Elizak pairaturiko kalteak konpontzeko prest zegoela aldarrikatu zuen eta hurrengo eskaini zien armak uztearen truke: *“Volveréis inmediatamente a disfrutar todas las ventajas que durante treinta años gozasteis bajo el cetro de mi madre”*.

Azkenean, probintziekin akordio batera iritsi ezinik Canovasek berak Gorteetan lege-proiektua aurkeztu zuen. Eztabaida luze eta beroak egon ziren, eta artikulu pila egunkarietan. Batzuek Foruak neurritasunarekin defendatzen zituzten, irmokeriaz beste batzuek, eta orokorrean probintzia hauekiko gaitzondo handia egon zen, baita Bilbo karlisten setioarengatik babestu zuren horien kontra ere; hori izan zen Sánchez Silva Sevillako diputatuaren kasua, adibidez. Beste alde batetik, Mateo Benigno Moraza arabarrak, Gorteetan foraltasunaren defendatzaile sutsuenetako bat, ikuspegi kaotikoa aurkezten zuen Euskadin Forurik gabe. Ildo berean nabarmenak izan ziren ere Vicuña diputatu bizkaitarraren hitzaldiak.

Euskadiko diputatu liberal guztiek, salbuespenik gabe, Foruak babestu zituzten, ezer gutxi egin ahal zutela jakin arren. Euren hitzaldietan nahigabe eta bihozmin handia nabaritzen zen berezko antolaketa-sistema galtzear zeudelako.

Azkenean, 1876ko uztailaren 21eko legea onartu zen, euskal diputatu guztien kontrako botoarekin, nahiz eta batzuk alderdi dinastikoaren menpeko liberalak izan. Horrela zioen lege horren lehenengo artikulua: *“Los deberes que la Constitución política ha impuesto siempre a todos los españoles, de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del Estado, se extenderán, como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las Provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava, del mismo modo que a las demás de Nación”*.

Lege horrek Euskal Probintziei zergak ordaintzeko eta armadako kinta eta deialdietan gizonezko kupoa aurkezteko betebeharra ezarri zien eta, era berean gobernuari baimena eman zion foru-erregimenean beharrezko erreformak egiteko.

Legeak xedatzen zuenez, Aldundiek aukeratu ahal zuten armadako kinto kupoa aurkezteko modurik komenigarriena eta gobernuak “tokian tokiko zer-nolakoek erakutsi eta eskarmentuak aholkatu dezaten moduko aldaketak

egiteko” baimena gordetzen zuen, probintziek zergak ordain ditzaten (*“modificaciones de forma que reclamen las circunstancias locales y la experiencia aconseje”*). Legearen paragrafo hau izan zen aurrerago aztertuko dugun autonomia administratibo eta fiskaleko erregimena, hau da Kontzertu Ekonomikoa, lortzeko gakoa.

Horrez gain, legeak zerga eta zerbitzu militarreko salbuespena mantendu zien gerran zehar liberalismoa eta monarkaren alde agertu zirenei. Legeak ez zuen foru-erregimena guztiz ezabatzen, baina gobernuari sistema aldatzeko botere handiak ematen zizkion.

Canovas oso trebea izan zen legea ezagutarazterako orduan. Indargabetze bat bezala aurkeztu ezean, foruzaleen eta erabateko ezabapenaren jarraitzaileen arteko akordio gisa aurkeztu zuen, Euskal Probintziekin Bergaran 1839an adostutakoa betetzen ari balira bezala. Ez zen inoiz garaituen aurkako mendekua erakusteko tentaldian erori.

Euskadik espero zen moduan erantzun zuen: Bizkaiko Batzarrak bildu ziren eta Aldundiak lege hori aplikatzeko gobernuarekin lankidetzan ez jardutea adostu zuten. Berdin egin zuten Araba eta Gipuzkoako Batzarrek.

Bizkaia probintziarik bihurriena izan zen: ez zuen legea onartzen; Fidel Sagarminagaren gidaritzapean, “guztia edo ezer-ez” politikarekin jarraitu zuten. Honek, Bizkaiko Diputatu Nagusia izanik, hiru aldundiak zuzentzen zituen erresistentzia pasibo eta desobedientzia zibileko programarekin. Sagarminaga liberal foruzalea izan zen eta bere inguruan Foruak zorrotasunez defendatzen zituzten pertsona taldea bildu zen. Askok Euskadiko alderdi nazionalista baten hastapenak ikusten dituzte hemen. Canovasi uztailaren 21eko legea indargabetzea eskatu zioten, baina hori ezinezkoa zen.

Hala eta guztiz ere, Araba eta Gipuzkoako Aldundiek, beti moldagarriagoak izan zirenak, eta Bizkaiko liberal toleranteenak Gobernuarekin hitz egiten jarraitu nahi zuten, gobernuari “tokian tokiko

zer-nolakoek erakutsi eta eskarmentuak aholkatu dezaten moduko aldaketak egiteko” baimena ematen zion Legearen paragrafo hori euren alde baliatzeko xedez.

Euskadiko erakundeen jarreraren ondorioz, oso zaila izan zen legea indarrean jartzea, are gehiago kintak ezarri behar zituzten udaletxe guztiek aho batez dimisioa aurkeztu zutenean. Gobernuak orduan, foru-erakunde administratiboak ezabatu zituen; horrenbestez, Foru Aldundiak desagertu eta horien lekua Probintziako Aldundiek hartu zuten. Dena galdu zuten. Gobernuarekin negoziatu izan balute, behintzat konpetentzia eta abantaila batzuk mantendu ahal izango zituzketen, Nafarroako Lege Itunduaren antzeko akordio baten bitartez. Zuzenbide zibila, bai, kontserbatu egin zuten, Nafarroak 1841eko Lege Itunduarekin egin zuen bezala, eta Aragoi, Mallorca eta Kataluniak XVIII. mende hasierako Planta Berriko Dekretuen bitartez egin zuten bezala.

Nolanahi ere, karlisten porrot militarren ondorioz Foruak era iraunkorrean indargabetu zituzten arren, gerra ez zen foru-sistemaren krisiaren arrazoi bakarra.

Bilbo eta Donostia bezalako Euskadiko hiri garrantzitsuetan, azken mendeetan zehar pentsamolde liberaleko merkataritza- eta industria-burgesia garatuz joan zen. Eta Foruek, maiz, burgesia horren aurrerapena oztopatzen zuten.

Oztopo nagusia (eta antzinatek Lur Lauarekin eztabaida gehienak eragin zituen) barne aduanak ziren arren, eta hauek dagoeneko kostaldera eta Frantziako mugetara lekualdatuak ziren Esparteroren 1841eko dekretuen bitartez. Baina burgesiak gauza gehiago behar zituen. Adibidez, industria garatzeko langileria. Ordea, langile horiek kanpotik etorri behar zirenez, foru-xedapen batzuek oztopo egiten zieten, foru-lurraldean (eta baita hiribilduetan ere) herritartzeko odol garbikoak zirela frogatu behar zutelako.

Horrez gain, burgesia horrek Espainiarekin erregimen komuna finkatu nahi zuen, eta bakea lortu eta karlismoa garaitu. Grina horiek Bizkaian garatu zen hazkunde industrial ikaragarriarekin batera azaldu ziren, Espainiako beste lekuetan baino askoz nabarmenagoa izan zena, eta Euskadiko beste lurraldeetan baino garrantzitsuagoa ere.

Hala eta guztiz ere, liberal foruzaleak ez zeuden Foruen erabateko ezabatzearekin guztiz konforme. Hazkunde ekonomikoari traba egiten zioten alderdi batzuk bakarrik aldatu nahi zituzten, eta gainerakoa kontserbatu. Hori dela eta, Foruen indargabetzea ez zitzaien bat ere gustatu, haiek ere karlismoaren kontra borrokatu baitzuten.

1876. urtearen ondorengo ikuspegi politikoa (ez ekonomikoa) oso goibel agertzen zen gehiengoarentzako, eta gehiengo horren parte batek “guztia edo ezer-ez”-aren irmotasunean jarraitzen zuen, itxaroten, baina legea hausteko asmorik gabe.

Jarrera horren irtenbide bakarra, Larrea eta Miezak adierazten dutenez, “ezereza” zen.

Montero irakaslearen arabera, indargabetzeak sentimendu ezberdinak eragin zituen eta Canovasen populartasunak era nabarmenean behera egin zuen. Euskadiko alderdi kontserbadorea jarraitzailerik gabe geratu zen eta hamabost urte inguru behar izan zituen berreskuratzeko. Monarkiko, zein liberal, zein anarkistek Canovas gorrotatu zuten eta monarkikoek Sagastaren alderdi liberalarekin bat egin zuten.

Dena den, Presidenteak Euskadi sistema konstituzionalean txertatu nahi zuen eta horretarako euskal burgesiaren laguntza behar zuen, Berrezarpena ondo funtziona zezan. Horregatik, Bizkaiko gizatalde horrek, eta orokorrean Euskadiko liberal guztiek, gobernuaren negoziatzeko interesa baliatzen jakin zuten eta Canovasek Foruen indargabetzea mantentzeko jarrera irmoa izan arren, tolerantziaren bidea aukeratu zuten eta akordio batera heltzeko lanean hasi ziren.

Gobernuak berehala onartu zituen Euskadiko solaskide gisa eta elkarrekin Kontzertu Ekonomiko eta Administratiboaren formula erabaki zuten.

Eta horrela, 1878ko otsailaren 28ko dekretu baten bitartez, Kontzertu Ekonomikoak ezarri ziren eta hiru euskal probintziek autonomia fiskala eta administratiboa mantendu zuten, Espainiako gainerako probintzietatik bereiziz.

Sistema berriaren bitartez Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko administrazioa lurralde horietako Probintziako Aldundien esku geratu zen eta probintzia bakoitza bere lurraldeko zergak kudeatzen hasi zen. Zergak biltzeko modua eta zerga-kopurua zehaztea Aldundi bakoitzari zegokion eta gero hauek, urtero, Estatuari aldezturik zehaztutako kupoa ordaintzen zioten.

Horrenbestez, Aldundien eskumenak asko sendotu ziren eta probintziek autogobernurako gaitasun handia lortu zuten, foru-erregimenaren azken urteetan izan zutenaren antzekoa.

Bestalde, nahitaezkoa zen urtero kupoa ordaintzea eta beraz, aurreko garaietako Erregearen dohaintza-eskakizunak, Batzarrek eman edo ukatu ahal zituztenak, behin betiko desagertu ziren. Gainera, Aldundiek eskumen fiskal eta administratiboa bazuten, Gobernuak hala nahi izan zuelako zen, hortaz, gobernuak nahi zuenean ahalmen hori kendu ahal zien.

Aldizka, estatu eta aldundiak Kontzertu Ekonomikoak berritzeko ados jartzen ziren. Lehenengo Kontzertuak, adibidez, zortzi urteko luzera izan zuen. Aurrerantzean, berdin jarraitu zuten, tarteka Kontzertuak berritzen, kupoa edo Estatuari ordaindu beharreko kopurua bakarrik aldatzen zutelarik.

Hasiera batean, kupoa oso onuragarria izan zen euskal probintzientzako. Izan ere, horien aberastasunari buruzko estatistikarik ez zegoenez, kupoa

Espainiako beste probintzien arabera zehaztu zen eta ondorioz, zegokiena baino gutxiago ordaindu behar izan zuten.

Aldundien hauteskunde modua ere aldatu zen. Lehen sistema tradizionala erabiltzen zuten, landako klase eta jauntxoek menpeko Batzar Nagusietan hautaketa eginez. Orain, berriz, karguak Berrezarpenaren hauteskunde tipikoen arabera aukeratzen hasi ziren eta boterea botoak erosteko diru nahikoa zuten horien menpe geratu zen.

Sistema berri hori oso mesedegarria izan zen burgesia liberalarentzat (industrializazioaren protagonista nagusia), Aldundien kontrola hartu ahal izan zutelako eta handik, komeni zitzaizkion politikak martxan jarri zitutelako. Aldi berean, Euskadiko gehiengo batek, botere ekonomikorik ez zuena, aurreko garaietan nahiz eta jauntxoek menpe egon Batzar Nagusiek ematen zioten gaitasun politikoa galdu zuen.

Oro har, Kontzertuak Konstituzio liberalen berezko uniformismoa eta autonomia probintziala elkartu zituen konponbide irudimentsua izan ziren. Gobernuarentzako neurri zeharo eraginkorra izan zen, bakea eta euskal burgesiaren sostengua lortu baitzuen. Eta aldi berean burgesiak dagoeneko ez zuen hain txarto ikusten foru-sistema ezabatzea, Kontzertuak ordezkari oso onuragarria bihurtu baitziren. Gainera haiek izan ziren Canovasen gobernuarekin ordaindu beharreko kupoak negoziatu zituztenak eta euren interesentzako kuota oso mesedegarriak ezartzea lortu zuten.

Era berean, Kontzertuek egonkortasun handia ekarri zuten Euskal Probintzietara, Foruak indargabetu ondoren ezinezkoa zirudiena. Gainera, Berrezarkuntza garaian Aldundiek erabateko autonomia administratiboa lortu zuten eta, Imanol Villak gogoratzen digunez, gobernuarekin hitzarmenak egin ahal zituzten, ekarpen eta zergak zehazten zituzten, ondasunak eta zor-tituluak eskuratzen zituzten, jesapenak jaulkitzen zituzten, maileguak hartzen zituzten, kontratu administratiboak sinatu ahal zituzten, desjabetzeak gauzatzen zituzten, errepide eta trenbideak eraikitzen zituzten eta gorputz armatuak zeuzkaten. Hala ere, gobernuak eskumen

fiskal batzuk gorde zituen, hala nola, tabakoaren estankoa edo justizia, meategi eta garraioaren gaineko zergak kobratzea.

Adiskidetze politika hau oso arrakastatsua izan zen eta hurrengo urtean, 1879ko hauteskundeetan, paktistek “La Unión Vascongada” edo “Política Vascongada” bezalako alderdi foruzale zorrotzak gainditu zituzten.

Euskadi Kontzertu Ekonomikoetara egokituz joan zen eta atzean geratu zen Canovasen kontrako gorrotoa. Horrela, 1893an Sagastaren alderdi liberaleko kide izan ziren liberal euskaldun guztiak, batez ere Bizkaian, alderdi kontserbadorera pasatu ziren, Canovasen alderdiak muga-zergen protekzionismoa babesten zuelako. Eta industrializazio garai hartan, neurri hori ezinbestekoa zen Bizkaiko industrialarientzako, modu horretan Bizkaian hirugarren karlistaldiaren aurretik eratu ziren negozio, industria eta enpresak berriz altxatu ahal izango zituztelako.

Izan ere, siderurgia, meatzeak, trenbideak, bankuak eta orokorrean Bizkaiko azpiegitura ekonomiko guztia lur jota zegoen, gizon ugari galdu eta udal-ogasunak eta partikularrak gehiegi zorpetuta zeudelako.

Bizkaitarrek protekzionismoa behar zuten, bertako industria siderurgikoak produkzioa nazioarteko merkatuan kokatzeko aukerarik ez zuenez, nazio merkatura egokitu behar zelako, orain zabalik zegoena, Canovasen batasun konstituzionalari esker. Modu honetan azal daiteke, neurri batean, Bilboko burgesiaren jokaera aldaketa, orain finantzario eta industrialak zena, alderdi kontserbadorera gerturatuz, protekzionismoarengatik apustu egin zuena.

Interes horretan bilbotarrek kataluniarrekin bat egin zuten, haiek ere ehungintza industria garatzeko zerga-mugen protekzionismoa beharrezkoa baitzuten. Era berean, Gaztela bien eta Andaluziako latifundistekin bat etorri ziren, Amerikako alearen inbasioaren beldur zirenak. Gauzak horrela, lurralde hauek guztiek zerga-mugen protekzionismoa eskuratu zuten 1891n.

Bizkaiko biztanleria gehienak, industrialarien ahalmen ekonomikoa ez zuena eta gainera, politika egiteko gaitasun historikoa galdu zuena (nahiz eta hori teorikoa baino ez izan), Nerbioiko ezkerraldeko industrien inguruan eta San Frantzisko bezalako Bilboko auzo batzuetan biztanle multzo berri bat ezartzen zela ikusi zuen, industrian lan egitera zetozen kanpotarrek osatzen zutena. Egoera hau, tokiko biztanleentzako guztiz ezezaguna zen eta etorkizunean gatazkak eragingo zituen. Langile klase berri horrek sindikatueta eta Langile Alderdi Sozialista bezalako langileen alderdi internazionalistetan gotorlekua hartuko zuen.

María Ángeles Larrea eta Rafael Miezak adierazten dutenez, “oro har euskal mundua deitu dezakegun horrek, landakoa zein hirikoa, zalantza eta harriduraz ikusten zuen aldaketa bizkor hori eta neurri handi batean erabat baztertuta sentitzen zen; horregatik liskarrak agertzen hasi ziren”. Horrez gain, hurrengoa aitortzen dute: “Garaituaren samintasunaren kate luzearen ondorio nabarmenetako bat (1872 eta 1876 artean kolore politiko bat edo bestea izan arren herri-antolaketa berria etsipen eta harriduraz ikusten zuena) bizkaitarrismoa dugu, hau da, Sabino Aranaren nazionalismoa, 1893an agertu zena”.

Momentu hartaz geroztik, Foruak berreskuratzeko kexak, eta geroago beste protesta erradikalagoak, burgesia txikia eta landako klaseen esku geratu ziren. Goi-burgesiaren kide batzuk ere aldarrikapen hauen alde agertu ziren, Ramón de la Sota adibidez, baina horiek salbuespena izan ziren.

Bizkaiko zuzenbide zibila Foruak indargabetu ondoren

Nafarroa eta Euskal Probintzietako Foruak indargabetzean, 1841 eta 1876an, gobernuak lurralde horietako zuzenbide publiko guztia ezabatu eta foru-erakundeak desegin zituen. Horrenbestez, bertako ordezkariak Espainiako Gorteetan integratu ziren eta gobernuak lurralde guztien batasun politikoa erdietsi zuen.

Hala ere, lurralde hauetako zuzenbide zibil eta pribatuak indarrean jarraitu zuten, XVIII. mendean Filipe V.aren Planta Berriko Dekretuen ondoren, Aragoi eta Mallorcako erresumek eta Kataluniako Printzerriak zuzenbide zibila kontserbatu zuten bezala.

Bizkaiko zuzenbide zibila 1526-27ko *Foru Berrian* gordetzen zen, gainerako lurralde edo erresumena euren antzinako dokumentu bildumetan gordetzen zen bezala. Lege-testu hauek guztiek indarrean jarraitu zuten eta foru-lurralde hauen zuzenbide zibila arautu zuten Foruak indargabetu eta gero.

Beste alde batetik, Cadizeko 1812ko Konstituzioaren 258. artikulua ezarritakoari jarraiki, XIX. mendeko konstituzio guztiek Zuzenbidea gaika bateratzeko beharra aldarrikatu zuten, promulgatu beharreko Kodeak zehaztu ez zituzten arren, 1812ko testuak egin zuen bezala: “*el Código Civil, el Criminal y el de Comercio serán unos mismos para toda la Monarquía...*”.

Izan ere, foru-lurraldeak irmoki defendatu zuten berezko zuzenbide zibila eta horrela, 1851ean idatzitako Kode Zibilerako proiektua inoiz ez ateratzea lortu zuten, beste arrazoiren artean, Kode horrek foru-zuzenbide zibil guztiak ia euren osotasunean ezabatuko lituzkeelako. Eta foru lurraldeek gogor egin zuten horren aurka.

Beranduago, foru-zuzenbide zibilaren arazoa gaiztotuz joan zen eta ondorioz aipatutako Kode Zibilaren aldarrikapena bertan behera geratu zen urte askoz. Azkenean, 1889an atera zuten kodea.

Zibilisten arteko eztabaida foru-zuzenbide zibilak kontserbatu edo ezabatzeari buruzkoa zen beti. 1851ko porrotetik aurrera, aldiz, horietako batzuek Espainia osorako zuzenbide zibil orokorraren kodifikazioa foru-zuzenbide zibilekin bateragarria egiteko aukera aintzat hartzen hasi ziren.

Iritzi ezberdinak egon ziren, baina, bizkaitarra izateagatik, Allende Salazar epaile ospetsuarena aipatuko dugu, 1878an, historian oinarrituz, Espainiako zuzenbide zibilean 5 tradizio juridiko existitzen zirela adierazi zuena: Gaztelakoa, Aragoikoa, Kataluniakoa, Nafarroakoa eta Bizkaikoa. Hori dela eta, bost kode zibil egon behar zirela defendatu zuen, zuzenbide tradizional ezberdinak kontserbatu eta sistematizatu ahal izateko.

Prozesu guzti honen ondoren, 1888ko maiatzaren 11n, Oinarrien Legea atera zuten eta horren bitartez, azkenik, hurrengo urtean (1889) aldarrikatuko zen Kode Zibilaren testua idatzi zuten.

Oinarrien Legearen bitartez, ordura arte berezko foru-zuzenbidea mantendu izan zuten probintziek, “oraingoz”, zuzenbide hori bere osotasunean kontserbatuko zuten, Kodearen osagarri gisa foru-lurralde bakoitzaren zuzenbide zibilari buruzko eranskinak idatzi arte. Beranduago, eranskin horiek Kode Zibilean txertatuko ziren eta aldarrikatu egingo ziren.

1889ko Kode Zibilak hurrengo xedatzen du atariko tituluan, 12. artikulua, 2. paragrafoa.

“En lo demás, las provincias y territorios en que subsiste el derecho foral, lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración en su actual régimen jurídico, escrito o consuetudinario, por la publicación de este Código, que regirá tan sólo como derecho supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas por sus leyes especiales”.

Foruzaleek konponbide hori onartu zuten, baina, Tomás y Valientek adierazten duenez, probintziek ez zuten gogo handirik jarri eranskinak idazteko eta denbora luzea hartu zien lan hori betetzea. Euren zuzenbide zibilaren (idatzizkoa edo ohiturazkoa) behin-behineko egoera hori luzatzea nahiago zuten. Horregatik, 1889ko apirilko dekretu batek eranskina idazteko batzordeak osatzea agindu zien arren, oso geldoak izan ziren eta Aragoi izan zen lehenengo eranskina aldarrikatu zuena, 1925ean. Hurrengoak Bizkaia eta Araba izan ziren, euren lana askoz beranduago

bukatu zutenak. Probintzia bi hauen foru-zuzenbide zibilaren eranskinak 1959ko uztailaren 30ean aldarrikatu ziren.

Ondoren Katalunia, Balearrak eta Galiziakoak aldarrikatu ziren, eta Aragoiko eranskin berri bat ere, aurrekoa ordezkatzeko zuena. Azkenengoa Nafarroakoa izan zen, 1973an.

Foru-zuzenbide zibileko eranskinak atera ondoren, aipatutako lurralde guztietan eranskin horiek lehenengo araubide gisa geratu ziren eta bigarrenik, Espainiako Kode Zibila lehen graduko ordezkoko zuzenbide bezala geratu zen. Beraz, foru-zuzenbide bakoitzaren iturri edo testu historikoak indargabetu ziren.

Bizkaiaren kasuan, 1959. urtean foru-eranskina aldarrikatu zenean, 1526-1527ko *Foru Berria* guztiz indargabetu zen (aurretik parte bat indargabetu zuten dagoeneko). Hala ere, Kode Zibilaren Bizkaiko foru-eranskinak bere edukia barne hartu zuen.

Baina, Bizkaiko zuzenbide pribatua indarrean jarraitu arren, probintzia eta foru-lurralde hauek erakunde publikoak galtzean, arau horiek nolabait blokeatuta geratu ziren, jadanik Gorte edo Batzarrik ez zegoelako (Bizkaiaren kasuan bezala), eta horiek ziren, azken finean, araubidea berritu eta momentu bakoitzeko gizartera egokitzen zutenak.

Ondorioz, gero eta hutsune juridiko handiagoak zeuden eta beraz, gero eta maizago jo behar izaten zuten ordezkoko zuzenbidera, hau da, Espainiako Kode Zibila.

Azkenik, adierazi beharra dago 1978ko Konstituzioaren 149.8. artikulua foru-zuzenbide zibilekiko errespetua bermatzen duela eta Autonomia Erkidegoen zuzenbide horiek arautzeko konpetentzia aintzat hartzen duela.

Kontzertu ekonomikoei buruz pixka bat gehiago

Aurretik azaldu dugunez, lehenengo Kontzertu Ekonomikoa 1886an ezarri zen eta ordaintzeko kupoa beherantz kalkulatu zen, kalkulua beste probintziekin konparatuz egin zelako, ustez antzeko aberastasuna zutenak.

Lehenengo kontzertua zortzi urteko luzera izatea erabaki zuten eta 1877an, Sagastaren gobernuak epea luzatu zuenean, Kontzertu Ekonomikoa instituzionalizatu egin zen. Ondoren, 1894, 1906 eta 1925ean berriro luzatuko zen, euskal probintziek Estatuari ordaindu beharreko kupoa bakarrik aldatuz.

Kontzertu Ekonomikoak industrializazioak eragindako hazkunde ekonomikoarekin bat etorri zirenez, Euskadiko Aldundiak, batez ere Bizkaikoak, euren esku baliabide anitzak izan zituzten eremu ezberdinetan esku hartzeko.

Gainera, zergak ezartzeko ahalmenari esker, Euskadiko Aldundiak gehien kontsumitzen ziren eta premiazko produktuen gaineko (elikagaiak, erregaia, etab.) zeharkako zergetan oinarritutako politika fiskala martxan jarri ahal izan zuten.

Neurri horrek sektore txiroenei kalte egin zien eta gizartearen desorekak larriagotu zituen. Aldundiak kontrolatzen zituen oligarkiarentzako, aldiz, mesedegarria izan zen, Aldundietatik industria sektorea bultzatzen zutelako. Azken gizatalde hau alderdi dinastikoen alde (kontserbadore eta liberala) agertu zen.

Desadostasun bakarra sistema zeharo protekzionista ezartzearen inguruan agertu zen, kanpoko konpetentziarengatik babesteko. Xede hori 1891ean lortu zuten.

Azkenik kontzertua onartu zenean, karlistak eta burgesiaren parte txiki bat (horien artean Bilboko Euskalerrria Elkartearen kideak zeuden) bakarrik ziren kexu foruak indargabetu izanagatik.

Industria hazkundera bizitzen ari ziren hirietan, gutxiengoko sektore politizatuak erregimenaren kontrako taldeak, errepublikanoak eta sozialisten artean banatzen ziren. Beranduago, zerrenda honi Eusko Alderdi Jeltzalea gehituko zitzaion.

Landako munduak eta Nafarroak karlismoari leial jarraitu zuten, bere presentzia politikoa mantendu zuena, hauteskunde ezberdinetan diputatu akta gehienak eskuratuz.

Kontzertu ekonomiko hauek indarrean egon ziren 1937ko ekainera arte, erregimen frankistak 1936ko Autonomia Estatutuaren bitartez sortutako erakundeak desegin zituenean. Horrez gain Bizkaia eta Gipuzkoako kontzertu ekonomikoak ezabatu egin zituzten, altxamenduaren kontra agertu ziren probintzia “traidoreak” izateagatik, baina Araba eta Nafarroakoak mantendu zituzten, Francoren alde egon zirelako.

Franco hiltzean eta trantsizioa hasi zenean, Euskadi “komunitate historikoa” izendatu zuten. Horrenbestez, autonomia osoa eman zioten eta Autonomia Estatutua eratzeke baimena lortu zuen. Estatutu hori urriaren 25ean egindako erreferendumean onartu zen eta “Gernikako Estatutua” deitu zioten. Estatutu berritzailea izan zen, aurretik probintzia bakoitzak berezko erakunde eta legeak izan zituelako, baina 1979ko Gernikako Estatutuaren bitartez historian lehenengo aldiz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak batasun politiko eta instituzionala osatu zuten.

1979ko Estatutuak, beste gauzen artean, Euskal Autonomia Erkidegoari hezkuntza arloan eskudantziak eman zizkion, berezko polizia gorputza (Ertzaintza) osatzeko ahalmena, Foru Aldundien arabera lurralde-antolaketa berezia eta Kontzertu Ekonomikoen eguneratzean oinarritzen den finantzazio prozedura eskusiboa.

Egungo Kontzertu Ekonomikoen arabera, Aldundiek zergak biltzen dituzte eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailari bildutakoaren kopuru bat

ematen diote, Gobernu Zentralari ordaindu beharreko zenbatekoa barne hartzen duena. Baina hori beste kontu bat da...

VI. BIZKAITARREN UNIBERTSALITATEA ETA EUREN PARTE-HARTZEA MONARKIAREN ENPRESETAN

Bizkaiko Historiaren berrikuspen honekin bukatzeko egokia iruditu zaigu, adibide gisa, Historiaren garai desberdinetan eta jardueraren esparru desberdinetan jokaera nabarmena izan zuten bizkaitar batzuk labur aipatzea.

Bizkaitarrek euren lurrarekiko eta berezko Foru eta erakundeekiko maitasuna izaera unibertsalista batekin bateragarria egiten jakin izan zuten, euren Jaunarekin enpresa ezberdinetan parte hartzeari uko egin barik. Horrenbestez, mundu osoan zehar bidaiatu ziren, jarduera ezberdinetan esku hartuz, eta euren jaunekin elkarlanean aritu ziren, hau da, Gaztelako erregeak, gero Espainiako erregeak izango zirenak.

Historian zehar bizkaitar askok euren lurraldetik alde egin zuten zenbait arrazoiengatik. Batzuk beharragatik, lurra pobrea zelako, eta beste batzuk egoera zehatzengatik. Gaztelako, Europako eta Amerikako leku desberdinetara joan ziren eta, Aro Modernoan egindako ozeano-aurkikuntza handien ondoren, asiar kontinenteko urrunagoko lurralde arrotzetara heldu ziren. Bizkaitar hauetako batzuek ekintza gogoangarri handiak egin zituzten eta gehienak pertsona baliotsuak izan ziren, leku berri horietan ondo integratu zirenak.

Aspaldi hasi ziren bizkaitarrak penintsulatik irteten, izan ere, euren lurraldeak itsasora irekitako kostalde handia zuen. XIII. mendean jadanik

jasota dago bizkaitarrak, gipuzkoarrekin batera, itsasoan barrena balearen bila ibiltzen zirela eta horrek Bizkaiko golkotik gero eta urrunago eraman zituen. Horrela, XVI. mendeaz geroztik desplazamendu luzeak egin behar izan zituzten, zeinek Ozeano Atlantikotik Ternuara, Labradorrera eta San Lorentzo ibaiaren bokalera eraman zituzten, non bakailaoa ere arrantzatzen zuten. Bertan horien presentzia jasota geratu da gaur eguneko toponimo askotan, adibidez, Ille-aux-basques, Plasencia, Port-aux-basques, etab.

Merkataritza

Antzinetik bizkaitarrek nabigazioa praktikatu izan dute merkataritza arrazoiak zirela eta. Jarduera hau XIII. mendetik aurrera areagotu zen eta XV. mendean goreneko unea bizi izan zuen Bilboko portutik Europa iparraldeko portuetara eta Sevillako portura zegoen merkataritza-trafikoagatik, batez ere artile eta burdinaren sektorean.

Flandesen merkataritza bizkaitarren presentzia hain handia zen Brujas hirian, non XIV. mendean «Bizkaiko Etxea» existitzen zen, kontsuletxea edo negozio gunea izan zena, zeinetik euskaldunek merkataritza-estrategiak antolatzen zituzten. Horren ezarpen eta garrantziaren froga dugu, adibidez, 1443. urtean Bake itun bat egon zela Brujas hirian Hansa teutonikoaren 17 epaimahai eta 6 aldermanen eta hiri horretan ezarritako erreinuko 12 kapitain, 6 kontsul eta 5 merkataritza tituludunen artean, zeinetatik 5 Bilbokoak ziren.

Sevillan, Erdi Arotik, euskal merkataritza eta marinelak portuko jarduera biziaren protagonista garrantzitsuak izan ziren, Sevilla eta penintsulako barrualdea, Atlantiko edo Mediterraneoko nazioarteko itsasbideetako zentroak eta penintsularen hegoalde osoaren arteko salerosketetan esku hartuz. Etengabekoa zen itsasontzi bizkaitar eta gipuzkoarren nabigazioa euskal portuen eta Sevillaren artean burdina eramanez eta beste merkantziekin itzuliz. Trafiko hau XV. mendetik aurrera areagotu zen Europako oparotasunak Euskadiko burdina-produktuen eskaria handitu zuelako.

Amerikaren aurkikuntzaren ondoren, Sevilla mundu berriarekiko merkataritzaren gune nagusia izan zen eta bizkaitarrek jarduera horretan era aktiboan parte hartu zuten, bertan aspalditik bizkaitar kolonia ugari bat finkatuta zegoelako. Bizkaitar eta gipuzkoarren kolonia handia eta berebizikoa zen, “bizkaitar nazioa” deiturikoa, XVI. mendetik XVIII. mendera asko handitu zena eta kapera propioa eta baita kale bat ere, “Vizcaínos” kalea, izan zuena. Merkataritza indianoa zuzentzen zuten erakundeetan postu garrantzitsuak izan zituzten, adibidez, Kontratazio Etxea eta Indietako Kargatzaileen Kontsulatua, Sevillan egoitza zutenak eta 1503an eta 1543an sortu zirenak, hurrenez hurren.

Sevillako udal- eta eliza-erakundeetan ere karguak bete zituzten, asko bertan modu iraunkorrean bizi baitziren, nahiz eta zenbait marinela, merkataria etab. Euskaditik Sevillara eta bertatik Amerikara joan-etorrian ibili ziren.

1717an Kontratazio Etxea eta Indietako Kargatzaileen Kontsulatua Cadizera eraman zituzten eta horiekin batera merkataria bizkaitarrak ere mugitu ziren, hiri horretan aspalditik ezarrita zeudenei gehituz; izan ere, bizkaitarrek aldi berean bi portuekin salerosi zuten, bai Sevillako portuarekin bai Cadizkoarekin.

Cadizen ere zuzendaritza-postuak bete zituzten Kontsulatuan, udalerrian eta Elizan, Sevillan egin zuten moduan. Sevilla eta Cadizeko bizkaitar hauek XVIII. mendean industria eta merkataritza bizkaitar garaikidearen hedapenaren aitzindariak izan ziren Espainian zehar.

Argitu behar dugu mende horietan «bizkaitar» hitza askotan zentzu zabalago batean erabiltzen zela euskaldunak orokorrean identifikatzeko (bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak).

Bizkaiko Jaunak

Nahiz eta bizkaitarrek Gaztelako koroaren barnean erregimen politiko propioa izan, beti Gaztela eta Monarkiaren enpresetan parte hartu zuten. Errekonkistatik jada gertaera asko daude zeinetan bizkaitarrek mairuen kontra borroka egin zuten Gaztelako erregeak lagunduz. Horren adibide Didako Lopitz V.a Harokoa dugu, Bizkaiko Jauna eta Bilboko Hiribilduaren fundatzailea, 1309an Algecirasen hil zena Gaztela eta mairuen arteko borroka batean.

Bi gertaera oso garrantzitsu egon ziren, Espainiako erresuma kristautetzako arrisku handikoak, zeinetan Bizkaiko Jaunak euren bizkaitarrekin parte hartu zuten. Bata Navas de Tolosako gudua izan zen, 1212an, zeinean Espainiako erregeek elkaturik almohadeak garaitu zituzten eta horrela tropa kristauei Andaluziarako bidea zabaltzen zieten. Gudu honetan Didako Lopitz Harokoa II.ak parte hartu zuen bere semearekin batera eta sari moduan Alfontso VIII.a Gaztelako erregeak, Durangaldea betiko eman zion.

Bestea Saladoko gudua izan zen, 1340an, zeinetan Joan Nuñez Larakoa Bizkaiko Jaunak Alfontso XI.a Gaztelakoarekin esku hartu zuen, gipuzkoar eta arabarrekin batera. Han Afrikako iparraldetik penintsulara pasatu nahi zuten mariniak garaitu zituzten eta inbasio berri baten arriskua saihestu zuten.

Era berean, badakigu 1407an Bilbon eskuadra bat osatu zela mairuen kontra Gibraltarreko itsasartean borroka egiteko, hurrengo urtean Bilbora itzuli zena.

Baina Bizkaiko Jaunek Gaztelako historiaren gertaera politiko askotan ere parte hartu zuten, baita euren errege eta printzeen liskar dinastikoetan ere, zeinekin maiz ahaidetuta zeuden.

Esaterako, Lope Diaz Harokoa «Buru Ausarta», Bizkaiko Jauna, Urraka infantarekin ezkondu zen, Fernando III.a Santua Gaztelakoaren arreba, eta

Maria Diaz Harokoa Gaztelako Joan infantearekin ezkondu zen, Alfontso X.a Jakitunaren semea.

XIV. mendean, ezkontzak zirela eta, Bizkaiko Jaurerriaren ondorengotza eskubideak Henrike II.a Gaztelakoaren emazteari egokitu zitzaizkion, Joana Manuel Anderea, Didako Lopitz III.a Harokoa jaunaren hereniloba. Gero, bere semeak hartu zuen jaurerriaren agintea, Joan Jauna infantea, beranduago Gaztelako Joan I.a izango zena.

Ontzi-eraikuntza eta armagintza

Bizkaitarrak erregeekin elkarlanean aritu ziren beste kontu bat ontzi-eraikuntza eta armagintza izan zen, Koroak asko baldintzatu zituen jarduerak, batez ere, Errege Katolikoetatik aurrera.

XIII. mendean dagoeneko ontziola bizkaitarrek Gaztelako erregeen zerbitzuan lan egin zuten. Adibidez, Fernando III. Santua Sevilla setiatzen ari zenean, 1247an, Bonifaz almiranteari agindu zion portu bizkaitarrei ontzidi bat enkargatzea: *“mando luego a tornar á prisa que fuese á guisar naves e galera á Vizcaya á la mayor flota que pudiese é mejor guisada que viniese con ella a Sevilla”*.

Gero, XIV. mendean, Bizkaia eta Gipuzkoako nabigatzaileek euren ontziekin Gaztelako erregeen garrantzi handiko gerra-enpresetan esku hartu zuten. Algeciraseko setioan egon ziren 1342an, Petri I.aren gerra-espedizioetan 1359an, La Rochelle eta Portugaleko kanpainetan 1373an, Kanarien konkistan 1393an, eta abar.

Euskaldunak erregeen laguntzaile leialak izan ziren, bai musulmanen kontrako borrokan Erdi Aroan, bai Errege Katolikoek garaian, Amerikako enpresan parte hartuz. Era berean Espainiako Itsas Armadan ugariak izan ziren Bizkaiko burdinoletan fabrikaturiko artilleriarekin ondo armatutako ontziak.

Bilbotar eta bizkaitarrek behin eta berriro eskainitako zerbitzuak eskertzeko, Errege Katolikoek 1475an Bilbori “Hiribildu Noble” titulua (“*Noble Villa*”) eman zioten eta Bizkaiko jaurerriari “Txit Noble eta Leiala” titulua, “*Muy Noble y Muy Leal*”. Geroztik euren armarriek titulu horiek jasotzen dituzte.

1480an, Toledon bilduta, Gaztelako Gorteen Errege Katolikoei honako hau agintzea eskatu zieten: “*hacer galeras e naos en Vizcaya o en Sevilla ... pues para eso tienen mejor aparejo de todas las cosas que ningunos otros reinos*”.

Errege Katolikoek eta euren ondorengoek, Karlos I.a eta Filipe II.a, gero eta gehiago erabiltzen zuten Bizkaiko flota, horregatik ontziolei gero eta ontzi boteretsuagoak eraikitzeke behin eta berriro eskatzen zieten, gerra izatekotan erabiltzeko. Kontuan izan behar da garai honetan Europako errege-flotak ontzi partikularrez osatzen zirela gehienbat, marinel eta merkatarien familiek kanpaina militarretan monarken zerbitzura jartzen zituztenak. XVIII. mendera arte ez zuen Espainiak berezko ontziekin berezko Errege-armada osatu.

Zerbitzu horren truke, erregeek ontzigintza-sektorea babesten zuten, baina, era berean, atzerriko nazioetara itsasontziak esportatzea debekatzen zuten.

Antzekoa izan zen armagintzaren kasua, bere zentroa Plasencian zuena (Gipuzkoa) eta Gipuzkoako eta Bizkaiko zonalde zabal batean hedatzen zena, gune mugakidearen dozenaka hiribilduz osatutako industria-sarea eratuz. Zonalde hau Monarkiaren arma hornitzaile nagusia izan zen, Aro Modernotik XIX. mendera arte. Flandes eta Milan baino garrantzitsuagoa zen, eta beraz, Filipe II.ak 1537an Errege Arma-fabrika maila eman zion, Plasencian egoitza ezarriz. Industria hau monarkiaren interesengatik oso baldintzatuta egon zen, ontzigintza bezala. Armak esportatzea ere debekatuta zeukaten eta Sevilla eta Gaztelako beste tokietara eramateko ere, Monarkaren baimena behar zuten.

XVII. mendeko krisi ekonomikoan zehar, Bizkaiko ontzigintza-industriak ere momentu latzak igaro zituen. Izan ere Koroak baliabide urriak zituen gerren eraginez eta Amerikatik metal preziatuak iristen ez zirelako, eta hortaz, ontziolek errege-enkarguak berandu eta gaizki kobratzen zituzten.

Koroaren zerbitzura lan egin zuten armadoreen adibide gisa XVI. mendeko bi ontzi-jabe bilbotar aipa ditzakegu: Juan de Arbolantxa eta Martin de Bertendona y Gondra.

Juan de Arbolantxaren ontzioletan 1496an Joana anderea, Errege Katolikoen alaba, Flandesera eraman zuen ontzidia eraiki zen, bertan Filipe Austriakoa artxidukearekin ezkondu zedin, Filipe «Ederra» bezala ezaguna. Bidaia horretan ontzidiaren almirantea Gomez de Butron bilbotarra izan zen; beste bilbotar bat, Martin de Mujika, printzesaren diruzaina zen eta beste bilbotar bik lagundu zituzten, Juan Mandariz eta Juan de Arteaga.

Bigarren ontzi-jabea Martin de Bertendona y Gondra dugu, Bertendona almirantearen aita, geroago aipatuko duguna. Koroaren hurbileko ontzi-jabe bilbotarren familia bateko kidea zen. 1554an, orduan printzea zen Filipe jauna, gero Filipe II.a Erregea bilakatuko zena, Ingalaterrara eraman zuen Maria Tudor erreginarekin ezkontzeko abiatu zenean. Bidaia hori egiteko printzeak pertsonalki Bertendonaren ontzian nabigatzea aukeratu zuen, flota osatu zuten itsasontzi guztien artean. Eta 1556an, Karlos V.a Espainiara itzuli zenean, Yusteko monasterioan erretiroa hartzeko, Bertendonaren ontzi batean iritsi zen Laredoko portura.

Hala ere, erregeen politikaren ondorioz, Bizkaiko ontziolek itsasontzi txiki eta ertainen eraikuntza gelditu zuten eta atzeratuta geratu ziren, Europako merkatuan lehiakortasuna galduz.

Gerretan parte-hartzea itsasotik eta lurretik

Bizkaitarrek monarkiaren enpresetan egindako kolaborazioaren beste erakusgarri bat euren galeoi edo ontzidien agintean itsasgizon bizkaitarrek

izan zuten presentzia ugaria dugu. Horien artean Matxin de Mungia eta bi bilbotar ditugu: Juan Martinez de Recalde eta Martin de Bertendona.

Matxin de Mungia, Mungian jaioa, galeoi kapitaina izan zen eta Mediterraneo Itsasoan borrokatu zuen, espainol eta turkiarren arteko norgehiagokan. Barbarrojak beldur handia izan zion, suntsiketa handiak egin zizkiolako, baina azkenean otomandarrak 1539an Matxin de Mungia harrapatu zuen eta bere banderetara pasarazten saiatu zen. Matxinek birritan ezetz esan zuen eta burua moztu zioten.

Juan Martinez de Rekaldek, familia aristokratikokoa, gaztetik Bizkaiko ontzidian nabigatu zuen, Koroaren zerbitzuan. Lan nabarmena egin zuen Amerikara zihoazen flotei eskolta ematen eta Flandesera tropak eta tropa horiei ordaintzeko dirua garraiatzen. Gainera, Koroari egindako beste zenbait zerbitzu garrantzitsuren artean, katoliko irlandarrak ingelesten kontrako borrokan laguntzeko bidali zuten ontzidiaren burua izan zen. Gero, ontzigile garrantzitsua bilakatu zen, Gipuzkoa, Bizkaia eta Lau Hiribildutako Errege-ontziolak gidatuz. 1588an, Itsas Armada Garaiezineko Bizkaiko ontzidiaren buruzagia zen eta Armadaren bigarren buru izendatu zuten, Medinasidoniako Dukearen aginduetara, Kapitain Jenerala zena. Armada Garaiezinarekin porrot itzela jaso eta gero, A Coruña itzuli zen eta bertan hil zen.

Beste itsasgizon bilbotar nabarmena Martin de Bertendona dugu, lehen aipatutako ontzi-jabearen semea, Frantzia eta Flandeseko istiluetan Errege-armadan zerbitzatu zuena. Bere itsas-ezagupenak eta balio handia ikusita, Armadaren jenerala egin zuten eta Itsas Armada Garaiezinean ere parte hartu zuen Levanteko ontzidia edo Italiako ontzidiaren buruzagi izanez.

1591an, Azoreetarako espedizioan parte hartu zuen, flota britainiarra menderatuz, eta Atlantikoko ontzidi arinak zuzendu zituen, Calaisko itsasarte zabalik mantentzen zutenak.

Filipe III.aren garaian euskal ontziolekin akordio batera iritsi zen hamar galeoi eraikitzeko, zeinak Bizkaiko ontzidiaren funtsa izango ziren eta, beraz, Kantauriko ontzidiaren funtsa ere bai, Koroaren menpekoa. Bertendonarekin, berezko ontziez osatutako Errege-armadaren oinarriak ezarri ziren, XVIII. mendeko Borboiek disfrutatuko zutena.

XVIII. mendean beste bilbotar garrantzitsu bat dugu, Jose de Mazarredo Salazar (1745-1812), Espainiako Armadaren teniente jenerala izan zena. Bere ospea itsasoaren luzera-kalkuluarekin du zerikusia: itsasbideei buruz egindako behaketak, itsasoan izarren bidezko neurketak egiteko metodoa, eta abar. Zenbait ikerketaren autorea izan zen, zientzia-espeditzioak sustatu zituen eta gai guzti horien inguruan liburuak idatzi zituen.

Gobernuak Parisera bidali zuen eta bertan Napoleonen anbizioak mehatxatzen zituen Espainiako interesak defendatu zituen.

1802an Bilbora joatea eskatu zuen, baina han Independentzia Gerrak ustekabean harrapatu zuen. Napoleonek bere etxera erakarri zuen eta Baionako Asanbladan parte hartu zuen. Gero, tarte batez Jose Bonaparteren alde egin bazuen ere, Espainiako interesak berriz defendatu zituen eta Espainiako Armadak beti aintzat hartu du bere izugarrizko zerbitzua, 11 itsasontzi, 4 fragata eta jeneral frantsesek Frantziara eraman nahi zituzten beste ontzi batzuk salbatu baitzituen.

Aro Modernoan, 1793ko Frantziaren kontrako Konbentzio gerrara arte, Bizkaia ez zen inoiz Espainiako monarkiak Europako herri desberdinekin izan zituen gerren eszenatokia izan. Gipuzkoan, berriz, gudu ugari egon ziren, Frantziako muga zegoelako.

Hala ere, bai Bizkaiak bai beste euskal probintziek gerra guztietan parte hartu zuten, euren zerbitzuak berezko foru-arauen menpe egon arren. Euskal Probintziak ez zeuden soldadutzatik salbuetsita, baina gizon eta baliabide material ekarpena egiten zuten erregeak bere beharrak asetzeko eskatzen zuenaren arabera.

Atzerriko inbasio baten aurrean lurraldea defendatu behar zenean, herri osoa armetan altxatu ohi zen. Baina monarkak deitzen zituenean euren lurraldetik kanpo ere joaten ziren, infanteria eta marinel-zerbitzuetarako gizonak eskainiz. Era berean, Errege-armadarentzako ontziak jarri eta euren lurraldetatik igaro behar ziren tropei ostatua ematen zieten. Gero eta gerra gehiago zeudenez, monarkiak euskal probintziei gero eta gizon eta diru gehiago eskatzen zien. Horren adibide dugu Koroak Bizkaia eta Gipuzkoari Frantziaren aurreko lur- eta itsas-defentsak mantentzea eskatu ziela, lurralde horiei kalte ekonomiko etengabeak eraginez.

Erregeak eskatzen zuen bakoitzean infanteriarako edo marinelentzako errekrutatzeak egiten zituzten. Jaurerriaren agintariei zegokien euren lurraldearen barruan eskualde edo herri bakoitzak eskaini behar zituen infanteen kopurua zehaztea. Dirudienez, XVII. mendean Bizkaiak 400 infante mobilizatu behar zituen eta hurrengo moduan banatzen ziren: Elizateek laurden bat; Hiribilduek eta Hiriak erdia; Enkarterrik 66 infante eta bi tertzio; eta Durangaldeak 33 infante eta tertzio bat.

Marinelen errekrutatzeak oso ohikoak ziren, Bizkaiko eta Gipuzkoako marinela oso izen ona zutelako. Marinela euskaldun ugari egon zen Errege-armadan.

Horren adibide dugu 1628an Bizkaiko Jaurerriaren Batzar Nagusiak jaso zuen agindua, zuzenean Filipe IV.ak bere armada tripulatzeko (Bizkaian osatzea eskatu zuena) marinela errekrutatzen laguntzeko, beharrezkoak ziren galeoi eta ontziak eraikiz. Azkenean, Jaurerriak 1629an Domingo de Yrasagorria begiralearekin hitzartutako baldintzetan ontzidi batekin zerbitzatzea onartu zuen.

Era berean, XVIII. mendeko Bilboko Udaletxeko aktetan, hiribilduak erregearen eskakizunak asetzeko eta Batzar Nagusiek egindako banaketaren arabera bidali behar zituen itsasmutil eta marinel kopuruaren inguruko

aipamenak aurki daitezke. Itsasgizon hauek portu ezberdinetara abiatu behar ziren itsasontziratzeko: Galizian, Kantabrian, eta abar.

Aipatu ditugun itsasgizon ospetsuez gain, zenbait militar garrantzitsu ditugu.

Hurtado de Amezaga anaiekin hasiko gara, Uribe mendian, Kadagua ibaiaren ondoan, bizi zen Gueñesko patriarka baten semeak zirenak. Zazpi anai izan ziren: Andres, Baltasar, Gabriel, Joaquin, Jose, Juan Antonio eta Juan Francisco. Guztiek Flandeseko tertzioetan parte hartu zuten eta Holanda eta Italian borrokatu zuten, Karlos II.a eta Filipe V.aren zerbitzuan. Batzuetan zazpi anaiak bataila berdinean topo egiten zuten.

Juan E. Delmásek kontatzen duenez, Vaudemont printzeak hurrengoak galdetu ohi zion Flandeseko tertzioan zerbitzatu nahi zuen bizkaitar orori: “Amezaga deitzen al zara?”.

Guztiak soldadu onak izan ziren, Espainiako armadan kargu altuak bete zituzten eta Done Jakueren Ordenaren Zaldunak izan ziren, eta baten batek ere, Calatravako Ordenaren kide izan zen.

Anai batek, Baltasar, Bilbon jaioa, Filipe V.aren Europako gerra guztietan parte hartu zuen eta honek Riscal de Alegreko markeserria eman zion.

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da ere Bizkaian jaioetako bi militar ospetsuen ibilbidea: Jose Cadalso eta Francisco Javier Castaños.

Jose Cadalsok (1741-1782) karrera militarra eta idazketarako dedikazioa bateratzen jakin izan zuen eta arrakasta handia izan zuen idazle gisa. Bizkaiko familia noble baten kidea zen, oinetxea Zamudion zuena, eta bertan jaio ziren bere aita eta aitona, oinetxe horren jaunak izan zirenak.

Borboi Zalditeria Erregimentuaren parte izan zen eta Arandako Kondearen agintepean jardun zuen, Espainiako armadaren buruzagi

jenerala. Bere buruzagiek estimu handitan eduki zuten bere diziplina eta ausardiarengatik eta bere soldatuek asko maite zuten. Gibraltarren ingelesez aurka borrokatzen hil zuten.

Bestea, heroi nazional bat izan zen. Izan ere, Francisco Javier Castaños (1758-1852) 1809an armada inperialak gainditu zituen Baileneko guduan eta horrek Napoleonen garaiezin ospea hautsi zuen.

Aita Portugaletekoa zuen eta aitona, Galdamesekoa. Familia ospetsu batetik zetorrenez, Madrilen Noblearen Mintegian ikasi zuen. Oso karrera militar bikaina izan zuen eta 1793an Konbentzio gerran zauritu zuten, San Martzial mendiaren defentsan. Arapiles eta Gasteizko garaipen handietan parte hartu zuen, Wellingtonekin, baita Independentzia gerraren aurreko eta ondorengo beste gudu askotan ere. Politikari aipagarria ere izan zen eta Independentzia gerran zehar Erregeordetzaren Presidentea izan zen, 1810ean Cadizeko Gorteak deitu zituzten arte.

Fernando VII.ak Baileneko duke egin zuen eta bere testamentuan Erregeordetzaren Kontseiluko kide izendatu zuen, bere alaba Isabel II.a adingabea zen bitartean.

Zumalakarregi jeneralaren osaba zenez, On Karlos erregegaiak kausa karlistara erakarri nahi izan zuen, baina ez zuen lortu.

Bizkaian jaio ez diren pertsonak bizkaitar gisa aintzat hartzearen inguruan, Bizkaiko Foruak, lehenengo tituluaren XVI. legean, honako hau xedatzen zuen:

“Cualquier hijo natural vizcaíno o sus descendientes que estuvieren casados o avecindados, habitantes o moradores fuera de esta tierra de Vizcaya, en cualquier partes, lugares y provincias de los reinos de España, mostrando y probando ser naturales vizcaínos, hijos dependientes de ellos, a saber es, que su padre o abuelo de parte de padre son y fueron nacidos en dicho Señorío y probando por fama pública que los otros antepasados

progenitores de ellos, de parte de padres, fueran naturales vizcaínos; todos ellos sean por tales tenidos y reputados”.

Ikusten dugunez, Bizkaitik kanpo jaio eta egoitza handik kanpo zuten pertsonak, aitaren aldetik bizkaitarren seme edo ilobak baziren, bizkaitar gisa aintzat hartuak izatea aldarrikatu ahal zuten Espainiako eta Amerikako beste lurraldeetatik. Bizkaitarra izatea eskubide preziatua zen, bizkaitar guztiak kapareak baitziren, hau da, Antzinako Erregimenaren gizartearen estamentu pribilegiatu baten kideak.

Monarkiaren goi-kargu administratiboak

Aro Modernoan, batez ere XVI. eta XVII. mendeetan, bizkaitar askok monarkiaren goi-kargu administratiboak okupatu zituzten, Gaztela eta Amerikan sakabanaturik. Gainera, erregeen ondoan, ohikoa zen “idazkari bizkaitar” ospetsuak egotea, zeinak hain ospetsuak eta ugariak izan ziren, non Cervantesek berak ere “Kixote”-n horiei buruz hitz egiten duen, Antso Barataria irlan dagoen pasartean. “Guzmán de Alfarache” obran bizkaitarren inguruan hurrengoa ere esaten da:

“Muchos secretarios de príncipes y de su Magestad, de grande entereza y confianza, y otros contadores, y tienen a su cargo la administración de hacienda, y no se puede negar que la opinión que de ellos se tiene es de ser muy leales”.

Ezaguna da Bizkaiko familia nobletako bigarren ugarik idazkaritza karguak eskuratzen zituztela eta erregearengan eragin handia izan ohi zutela, batez ere Filipe II.arekin, izan ere, Estatuaren tresna administratiboaren funtzionamendu egokiaren arduradunak ziren.

Filipe III.arekin, monarkek boterea balidoetan delegatzen hasi ziren eta horrek idazkariak ilundu zituen. Hala ere garrantzitsuak izaten jarraitu zuten, baina ordura arte izandako erregeari hurbiltzeko erraztasuna galdu zuten. Filipe IV.aren garaian ere, egoerak berdin jarraitu zuen, baina Karlos

II.aren idazkariek garrantzia berreskuratu zuten eta XVIII. mendean, Borboiekin, Bulego Idazkariak benetako ministroak bilakatu ziren.

Pertsonaia hauetako batzuei buruz hitz egingo dugu. Hasteko, Errege Katolikoen garaian Juan de Arbolantxa bilbotarra dugu, idazkaria izan ez zena, baina 1503an Errege Katolikoen eskribau gisa agertzen zaigu eta horrez gain Gortean eta erreinu eta jaurerri guztietan notario Erregeen notarioa izan omen zen. Kontsiderazio honekin *Enkarterriko Foruaren* ordenazio eta erreforman parte hartu zuen.

XVI. eta XVII. mendeko Estatu Idazkari bizkaitar horien artean, bi nabarmenduko ditugu: Luis Ortiz de Matienzo eta Antonio de Ubilla.

Luis Ortiz de Matienzo (1584-1638), jatorriz bilbotarra, Italiako Estatu Idazkari kargua izatera ailegatu zen eta birritan Bilboko alkatea ere izan zen, bigarren aldia Filipe III.aren, Hiribilduan aldaketak egiten lagundu ziona.

Antonio de Ubilla (1654-1720) Xemeinko Ubillatorre oinetxe ospetsuaren bigarren bat izan zen, jaio zen lekua. Salamancan legeak ikasi zituen eta Grazia eta Justiziaren bulegoko idazkaria bilakatzea lortu zuen. Era berean Karlos II.aren idazkari pribatua izan zen eta erregearen heriotzaren ondoren bere testamentua Erreinuaren pertsonaiarik garrantzitsuenen eta atzerriko enbaxadoreen aurrean irekitzeaz arduratu zen. Filipe V.a zerbitzatu zuen eta honek Rivaseko Markes izendatu zuen.

Filipe V.aren garaian, Sebastian de la Quadra y Llarena daukagu, Villariaseko Markesa (1687-1766), Muskizen jaioa, Bizkaiko Jaurerrian. Filipe V.aren Estatu Idazkaria izan zen 1736tik 1747ra, 1744an San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiaren kofundatzailea izanik.

XVIII. mendean ere, beste bilbotar bat nabarmendu zen, Mariano Luis de Urquijo y Muga (1768-1817), Zuzenbidean lizentziatua. Bilbotar honek Floridablancako kondearen eskutik ekin zion bere karrera politikoari eta

Arandako kondearen babesa izan zuen, Estatuko Idazkaritzaren ofizial nagusi izendatu zuena. Gero Londreseko enbaxadan idazkaria izan zen eta Bataviako Errepublikan enbaxadorea.

Estatu Idazkari lehena izan zen eta bere kargutik Inkisizioaren eskumenak eta pribilegioak murriztu zituen eta, Napoleonek Estatu Pontifikalak inbaditu zituela aprobetxatuz, Erromak Espainiako apezpikuei kendu zizkien zenbait eskumen berreskuratu zituen. Garrantzizko enpresa kultural eta zientifikoak sustatu zituen, adibidez, Alexander von Humboldteren bidaia Espainiaren menpeko Amerikan zehar.

Baionako Asanbladara bertaratutako frantsestu bat izan zen eta bilkurako idazkaria izan zenez, Estatutua sinatu zuen. Jose Bonaparte Espainiako errege bezala onartu zuen eta berarekin berriro Estatu ministroa izan zen. Beraz, gerra amaitzerakoan Frantziara alde egin behar izan zuen.

Bilboko beste pertsonaia ospetsu bat Diego Gardoqui (1735-1798) politikari, diplomazialari eta finantzaria izan zen. Bere gaztaroan Londresen merkataritza-praktiketan eta ingelesean prestakuntza jaso zuen eta itzultzerakoan bere aitaren enpresan lanean hasi zen, «Joseph de Gardoqui e hijos».

Karlos IV.aren Estatu Batzordearen idazkaria izan zen eta Errege-ogasunaren superintendente nagusia.

Floridablancako Kondeak Amerikako Estatu Batuetara bidali zuen, Espainiak Ingalaterratik independentzia lortzeko eskainiko zien isilpeko laguntza negoziatzeko. Laguntza hori Bilboko Gardoqui merkataritza-etxearen bitartez bideratu zen (armamentua, munizioa, kanpadendak, etab.), ingelesak Saratogan garaitzeko funtsezkoa izan zena. AEBen independentziaren ostean, Gardoqui Espainiako lehenengo enbaxadorea izan zen herri horretan, 1784tik 1789ra.

Enpresa amerikarra

Bizkaitar askok Amerikako aurkikuntzan, konkistan eta kolonizazioan esku hartu zuten. Eginkizun honetan marinel, soldadu, abenturazale, funtzionario, merkatari eta misiolari gisa aritu ziren, besteak beste.

Hasiera-hasieratik, Kolonek egindako espedizio guztietan marinel bizkaitarrak aurki ditzakegu. Bere bigarren bidaiarako, adibidez, Genoakoak armadaren parte bat Bermeon hornitu zuen, Juan de Arbolantxa ontzi-jabe bilbotarraren laguntza eraginkorrarekin. Eta laugarren bidaian, ontzietako bat “La Vizcaína” deitu zen.

Magallanesen espedizioan ere bizkaitarrak egon ziren, baita Juan Sebastian Elkano gipuzkoarraren bidaietan eta garai horretan egindako beste hainbat espedizioetan ere.

Amerikaren lehenengo aurkitzaile eta kolonizatzaileen artean euskal abizen ugari aurki daitezke, baita lehenengo kargu administratiboak bete zituztenen artean ere. Mundu berrira egindako espedizioak ordaintzen zituzten merkatari bizkaitarrak ere egon ziren, horietako batzuk Sevillan auzotutako bizkaitarren ondorengoak izanik.

1501ean, Pedro de Arbolantxa ontzi-jabe bilbotarrak, Vasco Nuñez de Balboaren lagun eta adiskidea, Amerikara bidaiatu zuen Ovandoren espedizioarekin kontrolatzaile gisa. Bidaia berean, Diego Lopez de Salcedo zihoan, Enkarterrikoa jatorriz eta Ovandoren iloba zena, gotorlekuaren aguazil moduan jarduteko, kargu garrantzitsua zena.

1505an, Martin Sanchez de Zamudio ontzi-jabe bilbotarra Indiako Armadarekin zerikusia zuen guztiaren zuzendari egin zuten, Sevillako Kontratazio Etxeak eskatu zuen bezala. Gero, hura ere Indietara abiatu zen.

1512an, Santo Domingon Auzitegi bat eratu zuten eta bertan jarduteko izendatutako lehenengo hiru epaileen artean Juan Ortiz Matienzo

lizentziatua agertzen zaigu, Karrantzakoa, Sevillako Kontratazio Etxearen lehenengo ofiziala izan zena.

1513an, Vasco Nuñez de Balboak Panamako istmoa zeharkatu zuen eta Ozeano Barea aurkitu zuen. Erregeari aurkikuntza handiaren berri emateko bilbotar bat aukeratu zuen, lehen aipatutako Pedro de Arbolantxa, hain zuzen ere. 1514an heldu zen Espainiara kotoia, urrea eta aparteko perla batzuk eramanez, erregeari “bostena” ordaintzeko, hau da, legeak xedatutakoaren arabera aurkitutako altxor guztietatik monarkari ordaindu beharreko parte. Fernando Katolikoak harrera egin zion, bere alaba Joana erreginaren erregeorde bezala, eta Amerikako aberastasunaren berriak laster Espainia osotik zabaldu ziren, merkataritza garrantzitsuenen gutizia piztuz, zeinak itsaso berrira, Hegoaldeko itsasoa deiturikora, joatera animatu ziren.

Era berean, XVI. mendean, bizkaitarrek eginkizun garrantzitsua izan zuten Txileko aurkikuntza, konkista eta kolonizazioan. 1535an Diego de Almagroekin eta 1540an Pedro de Valdiviarekin joan ziren hamazazpi bizkaitarren izenak kontserbatu dira, horien artean Francisco de Galdames, Domingo de Orda eta Juan de la Reinaga bilbotarrak. Baina ospetsuena Alonso de Ercilla (1533-1594) izan zen, militarra eta diplomatikoa, eta indioei eta konkistari buruzko “La Araucana” epopeia txiletar handia idatzi zuena.

Bermeotarra jatorriz, Ercilla goi-mailako legelari baten semea zen eta Bermeoko portua menderatzen zuen Ercillako dorrearen jaunaren iloba zen; gaur egun dorre horren arrastoak baino ez dira geratzen.

Filipe II.aren ikasi zuen eta berarekin Ingalaterrara abiatu zen monarka María Tudor erreginarekin ezkontzera abiatu zenean. Bertan Txileren berri izan zuen eta 21 urterekin konkistan parte hartzea erabaki zuen, Araukaniako indio basatien kontra ausardia handiz borrokatuz eta Txileko hegoaldeko esplorazioan esku hartuz.

Txilera joandako beste bizkaitar bat Martín Ruiz de Gamboa (1531-1580) durangarra dugu. Hura soldadu gisa joan eta gobernadore bilakatzea lortu zuen. Bere gobernuaren neurri garrantzitsu bat “Gamboaren tasa” deituriko ordenantza ateratzea izan zen, Fray Diego de Medellin Santiagoko apezpikuak egindakoa. Honen bitartez, indioen lana bigundu nahi zen, eta enkomenderoen gehiegikeria murriztu. Arrakastarik ez izan arren, azpimarratzeko modukoa da gobernari eta apezpiku espainol bik indioak babesteko egin zuten ahalegina.

Gauza berdina egin zuen Frai Juan de Zumarraga (1468-1548) durangarrak Mexikon Hernán Cortésen garaian. Hura frantziskotarra eta Mexikoko lehenengo apezpiku eta artzapezpikua izan zen eta 1539an inprenta Amerikan sartu zuena. Indioen defendatzaile sutsua izan zen eta indioentzako eskola frantziskanoak sortu zituen, baita neska indigenentzako eskola famatuak ere.

Mexikon hasieratik bizkaitar asko egon ziren. Horrenbestez, bizkaitar batek sustatu zuen Espainia Berriaren iparraldeko lurralde berrien konkista: Diego de Ibarra. Hura izan zen Zacatecaseko meatzeen aurkitzaile nagusia eta, beraz, Espainia Berriko gizon aberatsenetariko bat. 1554an bere iloba, Francisco de Ibarra, bidali zuen lurraldea konkistatzera euskaldunez osatutako talde batekin. Lurralde berriak okupatu eta Bizkaia Berria sortu zuten, Francisco bera probintzia berriaren gobernadore eta kapitain jenerala bilakatuz. Berak eratu zuen 1563ko uztailaren 8an Durangoko hiria, probintziaren hiriburua, Ibarraren jatorrizko hiritik izena hartu zuena.

Aurkitzaile eta soldadu konkistatzaileen ondoren, bizkaitar asko Amerikara joan ziren itsasgizon, migratzaile eta merkatu indianoetara joaten ziren merkatari gisa. Horrela, euskal talde handiak agertu ziren Mexiko bezalako hirietan eta euskal komunitatea Espainia Berrian zehar zabalduz joan zen.

Komunitate horrek garapen ikaragarria izan zuen eta laster bere kideek erakunde zibil eta eklesiastikoetan eta ekonomiako sektore guztietan ondo

finkatu ziren eta Mexikoko Kontsuletxearen zuzendaritzaren kontrol handia hartu zuten. Era berean, Arantzazuko Andre Mariaren kofradia osatzen zuten anai zenbakia oso altua zen. Kofradia hau frantziskanoek osatu zuten, euskaldunen arteko elkargune gisa, etortzen ziren horiek laguntzeko eta euren artean zeuden behartsuak babesteko. Horregatik, “Colegio de las Vizcaínas” eskola eratu zuten, umezurtz geratutako euskaldunen alabak hezteko eta alargunak laguntzeko.

Amerikako beste lekuetan ere ugariak izan ziren kolonizazioan eta hiriak eraikitzen parte hartu zuten bizkaitarrak. Horren adibide daukagu Juan de Garay, Urduñan jaioa, 1580an bigarrenenez eta behin betiko Buenos Aires hiria fundatu zuena, eta Bruno Mauricio de Zabala durangarra, 1726an Montevideo eratu zuena.

XVIII. mendeko aurkitzaile eta kartografoen artean Juan Francisco de la Bodega y Quadra (1743-1794) daukagu, bere izena duten badia eta irlaren aurkitzailea. Muskizeko bizkaitarren seme eta biloba zen. Armadan itsasguarda gisa sartu zen 19 urterekin eta fragata-alferez, ontzi kapitaina eta, 1789an, Kaliforniako San Blas portuko komandantea izan zen. Gainera, nabigazioa eta aurkikuntzen inguruan zenbait obra idatzi, mapak marraztu eta neurriak hartu zituen.

Kalifornian bere izena daraman badia aurkitu zuen. Berarekin batera Jorge Vancouver ingelesak nabigatzen zuen eta biek ipar Pazifikoaren irlarik handiena aurkitu zuten, gaur egungo Kanadaren mendebaldean. Quadra eta Vancouver irla deitu zuten eta hura esploratu eta neurtu zuten.

Irla hau ingelesak esku geratu zen espainolekin egindako lurralde banaketaren ostean. Bertan 42. paraleloaren muga ezarri zuten. Pixkanaka-pixkanaka Quadra izena galduz joan zen eta Vancouverrekin geratu zen, baina irlaren toponimian oraindik izen espainol asko daude.

Misiolariak

Bizkaitarren hedapen unibertsalaren azalpen labur honetan ezin ditugu misiolariak ahaztu, urrutiko mundu horietara eskuzabaltasun handiz euren fedea (zeukaten onena) zabaldu nahi izan zutenak.

Erligio-ordenen edo klero diozesiarraren kide hauek mezu kristaua munduaren bazter guztietatik hedatu zuten. Horietako bat San Martin de la Asuncion izan zen, Japoniako martiria eta zeinaren jaioterri zehatza ez dakigun; eztabaidan ari dira Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herri.

Beste bizkaitar bat, Karrantzakoa, Frai Diego de Ahedo beneditarra izan zen, berbere piratak eta Turko Handiaren gatibuak askatzeko egindako bitartekotzarengatik nabarmendu zena. 1589an Palermoko apezpiku bilakatu zen eta “Topografia e Historia General de Argel” obra idatzi zuen.

Bukatzeko Elorrion 1827an jaiotako bizkaitar bat aipatuko dugu, San Valentin de Berrio-Otxoa, gaur Bizkaiko bigarren patroia. San Valentin misiolari domingotarra, Filipinetako apezpikua eta Tonkineko (Vietnam) apezpikua izan zen. Azkeneko honetan martiri moduan hil zen.

Kultura eta artea

Bizkaitarren espiritu unibertsalistaren inguruko orrialde hauekin amaitzeko, zientzia eta kultura esparruko pertsonaia entzutetsu bat aipatuko dugu lehenengo eta ondoren, jatorri bizkaitarreko artista handi bi.

Andrés de Poza Lizentziatua (1547-1595) Lendoño Behekoan (Urduña) jaio zen eta Lovainan, bederatzi urtez, eta Salamancan, hamar urtez, ikasi zuen. Frantsesez, ingelesez, italieraz, flandieraz eta latinez hitz egiten zuen, orduan ohiko gauza ez zena. Nabigazioari buruzko liburu bat idatzi zuen, beste bat Espainiako antzinako hizkuntzen inguruan eta hirugarren bat Bizkaiko noblezia defendatzeko. Bizkaian abokatu gisa aritu zen eta ospe handia izan zuen bai Bizkaian bai Bizkaitik kanpo. Donostiako Eskola Nautikoaren arduraduna izan zen eta Bilbon urte luzez bizi izan zen. Bertan

udaletxearen kontseilari eta Filipe II.ak eratu zuen lehenengo Kosmografia eskolaren katedraduna izan zen.

Jatorri bizkaitarreko artistetako bat Alonso Berruguete izan zen, Espainiako Errenazimenduaren eskultore aparta, Pedro de Berruguete bizkaitarraren biloba, oinetxea Markinako merindadean zuena. Bere semea eta bere biloba Alonso Bizkaitik kanpo bizi izan ziren eta pintore bikainak izan ziren, Alonsoren ospeak bere aitarena gaindituz. Alonso de Berruguetek Italian ikasi zuen eta eskultorea, pintorea eta arkitektoa izan zen. Lan bikainak egin zituen, esaterako, San Benito monasterioaren erretaula nagusia Valladoliden, Toledoko katedraleko koruaren aulkiteria eta Toledon ere, Tavera kardinalaren hilobia.

Bigarren artista handia Francisco de Zurbarán (1598-1664) dugu, izen bereko auzoko gizon baten biloba, Bilboko dorrerik zaharrenetariko bat kokatzen zen lekua. Bere aitona Extremadurara emigratu zuen eta han hasi zen Francisco margotzen. Mihise zoragarriak egiten zituenez, laster ospe handia hartu zuen. Gero Sevillan bizi eta lan egin zuen, baita Gortean ere, Filipe IV.aren errege-pintorea izanik. Bere lanen artean monjeen erretratuak eta erlijio gaien inguruko koadroak nabarmentzen dira.

Kontatzeko hainbat gertaera gehiago daude eta gogora ekartzeko bizkaitar asko gehiago, baina lan- eta geografia-esparru desberdinetan bizkaitarrek izandako presentziaren adibide gisa balio duten batzuk aipatzea besterik ez dugu egin.

Denboran zehar gehiago luza gintezke. Izan ere, Fernando VII.aren heriotza, gerra karlisten hasiera eta XIX. mende nahasira arte besterik ez gara heldu, kontuan izanik bizkaitarrak, eta euskaldunak orokorrean, elkarren artean lehian aritu ziren garaia izan zela, Isabel II.a erregina edo On Karlos erregegaiarekiko leialtasunaren arabera banandu zirenak. Bestalde, azkeneko gerra honen ondorioz, foru-erregimena indargabetu zuten eta une horretan erabaki dugu Bizkaia eta bere erakundeen inguruko XIX. mende amaierara arteko historia labur honi bukaera ematea.

BIBLIOGRAFIA

AA. VV., Historia del País Vasco. Siglo XVIII, Bilbo, 1985

AA. VV., El Puerto de Bilbao y su zona de influencia, Bilbo, 1970

AGUADO BLEYE, P. - ALCAZAR MOLINA, P., Manual de Historia de España (Tomo III), Madril, 1969

ALMAGRO GORBEA, M. Los orígenes de los vascos, Lección de ingreso en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Madril, 2008

ANGULO MORALES, A.-PORRES MARIJUAN, R.- REGUERA, I., Historia del País Vasco (Edad Moderna S. XVI al XVIII), Donostia, 2004

ARRIOLA ARANA, J. M., “Bilbao, año 1737”, El Correo, Bilbo, 1991

ARTOLA, M. Los orígenes de la España Contemporánea, I y II, Madril 1959

BERROJÁLBIZ, F.-VALLEBUENO, M., Vascos en Durango durante los siglos XVI y XVII, Los vascos en las regiones de México, ss. XVI-XX, Mexico, 2002

BASAS, M., El crecimiento de Bilbao y su comarca, Bilbo 1969

BURGO, J. M. del, Canovas y los Conciertos Económicos, Laocoonte, Madril, 2010

CELAYA IBARRA, A., Comentarios al código civil y compilaciones forales, XXVI: Compilación de Vizcaya y Álava. Madril, 1978

DELMAS, JUAN E., Diccionario Biográfico de Claros Varones de Vizcaya, Bilbo 1970

ESCUADERO, J. A., Manual de Historia del Derecho. Madril, 2003

ESCUADERO, J. A., Los Secretarios de Estado y del Despacho, Madrid, 1969

FEIJÓO CABALLERO, P., Bizkaia y Bilbao en tiempos de la Revolución Francesa, Bilbo 1991

FERNANDEZ DE PINEDO, E., Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco, 1180-1850, Madril 1974

GARCÍA DE CORTÁZAR, F.- MONTERO, M., Historia de Vizcaya, Tomos I y II, Donostia, 1980

GARCÍA DE CORTÁZAR, F.- MONTERO, M., Diccionario de Historia del País Vasco, Donostia, 1983

GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., Investigaciones sobre historia medieval del País Vasco (1965-2005), Bilbo, 2005

GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., Vizcaya en la Edad Media: evolución demográfica, económica, social y política de la comunidad vizcaína medieval, Donostia, 1985

GARCÍA FUENTES, L., Sevilla, los vascos y América, Bilbao, 1991
GARCÍA DE SALAZAR, L., Las Bienandanzas e fortunas, Bilbo 1955

GARCÍA DE VALDEAVELLANO, L., Curso de Historia de las Instituciones Españolas, Madril, 1973

GUIARD Y LARRAURI, T., Historia de la noble villa de Bilbao, Bilbo 1908 y 1971

GUIARD Y LARRAURI, T., Historia del Consulado, casa de contratación de Bilbao y del comercio de la villa, Bilbo 1914

HERR, Richard: España y la revolución del s. XVIII, Madril 1964

IBARRONDO ARMENDÁRIZ, M^a P., Universidad Sancti Spiritus de Oñate (Memoria de Licenciatura dirigida por el Dr. Carmelo Sáenz de Santa María), Bilbo, 1973

ISPIZUA, S., Historia de los vascos en el descubrimiento, conquista y civilización de América, vol. I, Bilbo, 1914

ITURRIZA ZABALA, J. R., Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones. Bilbo, 1967

LABAYRU, E. J. de, Historia General del Señorío de Vizcaya, Bilbo, 1968-69

LARRAZABAL BASÁÑEZ, S., La foralidad de Vizcaya. Bilbo, 2001

LARREA SAGARMÍNAGA, M. A., Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII, (Apéndice segundo a la Historia General del Señorío de Vizcaya), Bilbo, 1974

LARREA SAGARMÍNAGA, M. A.- MIEZA MIEG, R., Introducción a la Historia del País Vasco, Salamanca-Bilbao, 1984

LOPEZ SÁINZ, C., Cien vascos de proyección universal originarios. Bilbo, 1981

MAÑARICÚA NUERE, A., Historiografía de Vizcaya, Bilbo, 1971

MAÑARICÚA NUERE, A., Álava, Guipúzcoa y Vizcaya a la luz de su historia, Bilbo, 1977

MIEZA MIEG, R., La Machinada del estanco de la sal, una hipótesis de interpretación. 1991

MONREAL CIA, G., Las Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya. Bilbo, 1974

MONTERO, M., Historia del País Vasco. Donostia 1998

PORRES MARIJUAN, R., y otros, Historia del País Vasco. Edad Moderna, ss. XVI-XVIII, Bilbo, 1985

SAGARMINAGA, F., El Gobierno y el Régimen Foral del Señorío de Vizcaya. Bilbo, 1892

SAGARMINAGA, F., Memoria histórica de Vizcaya, Bilbo 1880

SALAZAR, J., HERNÁNDEZ PONCE, R. y otros, Vascos en Chile 1520-2005, Donostia, 2007

SARRAILH, J., La España Ilustrada de la segunda mitad del s. XVIII, Mexico, 1957

SILVAN, L. y otros, Historia del País Vasco, Bilbao 1985 SESMERO PÉREZ, F., La Casa de Juntas de Guernica, Bilbo, 1975


TOMAS Y VALIENTE, F., Manual de Historia del Derecho Español, Madril

UNAMUNO y JUGO, M., Paz en la guerra, Madril, 1940

URIARTE, G. y otros: Historia del País Vasco, Bilbo, 1985

VILLA RIVAS, I., Historia breve del País Vasco, Madril, 2006

ZABALA URIARTE, A. Emigrar a América, una opción para los vizcaínos del siglo XVII en Los vascos en las regiones de México, ss. XVI-XX, Mexico, 2002



Notas

[←1]

Bizkaia edo Vizcaya, euskara edo gaztelaniaren grafia erabiltzen dugun arabera (hemendik aurrera testu orokorrean lehenengoa erabiliko dugu toponimo guztietan, euskarazko testuetarako forma tradizionala izateagatik, eta bigarrena gaztelaniazko aipuetan).